Zegama 2005
Urtekaria

7. ZENBAKIA - ABENDUA

ZEGAMAKO UDALA

ZEGAMAN DAUKAZU ERANTZUNA

GOIERRI BEHEKO
INDUSTRIALDEA

c/Mallutz, s/n · 20240 - ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 880617 Fax. 943 881152 e-mail: ordizia@industrialdea.spri.es

Herritar adiskidea agur!

Urte amaierak Zegaman Eguberri Jaiak eta Urtekaria dakartza berarekin. Balantzea egiteko sasoia da. Azkeneko hamabi hilabetetan udalerriko erakunde, elkarte eta herritarrek egindakoak jasotzen dira dokumentu honetan, besteak beste. Saiatzen gara ere, askorentzat arrotza den atzoko Zegamari begirada bat ematen eta herritar guztiei ezagutarazten.

2005. urtea, Pakearen aldeko beste urrats bat izan dela uste dut. Egia da oraindik amesten dugun Pakea eta Anaikidetza lortzeko, hainbat eta hainbat ekintza ulergaitzak bizitzen ari garela. Hauen aurrean, modu sendo eta tinkoan azaldu behar dugu gure desadostasuna, ezbairik gabe. Bestalde, uste dut, Pakeak izango duen ibilbide zaila leuntzeko, garaia dela batzuk ekintzetatik hitzetara pasatzeko eta beste batzuk hitzetatik ekintzetara. Herri honek horrela eskatzen duela deritzot. Edozein kasutan eta iazkoaren ildotik Pakea eta Normalizazio Politikotik hurbilago gaudela esango nuke eta 2006. urtea giltzarri izan daiteke ibilbide luze eta zail honetan. Baikorra naiz.

Urtekari honek agerian uzten du bestalde, zegamarrok, ez dugula alferrik pasatzen utzi urtea. Zegama, Herri langilea, dinamikoa eta ausarta denaren isla dugu dokumentu hau. Eta ahaztu ezin ditudanak dira Urtekari hau egiteko laguntza eskaini duten udal langile, elkarte, erakunde eta beste guztiak. Eskerrikasko denei.

Besterik gabe, Udal Korporazio osoaren izenean, Eguberri Jai alaitsuak eta Urte Berri osasuntsua eta emankorra opa dizkizuegu.

Erregeak, Ihauteriak
Erlezain Eguna eta Maratoi jarduna
Peregrinazioak, San Juan suak
Adinduen Festa eta Aizkorriko Lagunen Eguna
San Bartolomeak, San Martinak
Urtekari honetarako duguna.
Askatasuna eta Pakea Euskal Herriak
Izan ditzala Olentzerori gutuna.
Gabon eta Urte Berri on eta alaiak
Zegamarrei Udalaren opakizuna.

ZEGAMAKO
UDALA

JUAN INAZIO GALDOS LARREA
Alkatea

ARGITARATZAILEA

Zegamako Kultura Batzordea

Urtekari hau egin ahal izateko laguntza eman diguzuen guztioi, mila esker.

AURKIBIDEA

Alkatearen agurra 1
Agenda 3
Joan Garitano 4
Vicente Larrea 5
Udala 6
Elurra Zegaman 36
Gipuzkoako Txirrindulari Elkartea 36
Industrialdia beteta 37
Joseba Albizu Ormazabal. Ekintzailea 37
Zegamarrak Behobia Donostia frogan 39
Txanton Tabernaren berriztapena 39
Ruta Quetzal 39
Peña euro 39
Zegama: Lehena eta oraina 40
Aitxuri Herri Eskola 42
Tobera Musika Eskola 44
Reynolds taldeko bazkaria 45
Orkatz Abesbatza 46
Aitor Perez Arrieta 47
Elkartu Nahi Txirrindulari Elkartea 47
Jubilatuen Elkartea 48
Belea Ehiz Elkartea 49
Zegamar Batasun Kasinoa 49
Amezti Elkartea 50
Anatxeko 9 ahizpen bazkaria 50
Guraso Elkartea 51
Odol Emaileen Elkartea 51
Rufina Otaegi 52
Tartaloetxe Kultur Elkartea 56
KZ gunea 58
Xabier Azurmendi 58
Xabier Arakama 59
Ofizio baten desagertzea
Martin Catalina Olmedo 60
Gazte Herexa Elkartea 65
Aizkorri Futbol Taldea 65
Maria Arrieta 66
San Bartolomeak 70
San Martinak 78
Erlezain eguna 80
Tradizioak 82
San Martin Parrokia 83
Zentro meteorologikoa abian 84
Zegamarrak Realarekin Peña 85
Zegama Aizkorri Mendi Maratoia 86
Aizkorriko Lagunen Elkartea 87
Zegama eta Euskal Herriko deiturak 88
Iker Zubeldia 88
Zegamako artzainak 89
Hasier Agirre Aranburu 112
Ba al zenekien? 113
Antonio Guridi 114
Atzoko Zegama 120
Gabon eta urte berri gozo 123

EGILEAK ETA KOLABORATZAILEAK

Edurne Albizu
Begoña Olarte
Arantxa Gorrotxategi
Jose Luis Berasategi
Edurne Ormazabal
Lourdes Larrea
Igor Alustiza
Mª Isabel Ugartemendia
Leire Lozano
Jaione Gorrotxategi
Vicente Larrea
Juanito Garitano
Bixente Dorronsoro
Belea Ehiz Elkartea
Zegamar Batasun Kasinoa
Aitxuri Herri Eskola
Hasier Aguirre
Tobera Musika Eskola
Orkatz Abesbatza
Elkartu Nahi Txirrindulari Elkartea
Amezti Elkartea
Guraso Elkartea
Odol Emaileen Elkartea
Tartaloetxe Kultur Elkartea
Kzgunea
Jubilatuen Elkartea
Gazte Herexa Elkartea
Aitzgorri Futbol Taldea
San Martin Parrokia
Goierriko Agenda 21eko lan taldea
"Zegamarra Errealarekin. Aupa Erreala Peña"
Aitor Perez
Nikolas Zabaleta
Julian Beloki
Maitere Zabaleta
Joseba Albizu
Mº Dolores Goya
Isabel Elorza
Lierni Elorza
Jabier Arizkorreta
Alberto Aierbe
Gipuzkoako Erlezain Elkartea
Aldabe Kooperatiba
Dominika Arrizabalaga
Bitoriano Mujika
Gabino Mujika
Kandido Aizpeolea
Karmen Oiarbide
Andres Asurmendi
Pablo Berasategi
Mª Pilar Mujika
Juan Aldasoro
Sabino Asurmendi
Joxepa Gorostizu-Orkaiztegi
Serafina Larrea
Mª Paz Oiarbide
Joxe Larrea
Xanti Katarain
Patxi Katarain
Joxe Mari Asurmendi
Juan Asurmendi
Joxe Migel Azurmendi
Kontxi Larrea
Angel Irastorza
Kontxesi Goiburu
Mikel Etxezarreta
Eli Arrillaga
Santi Etxezarreta
Idoia Lasa
Felix Etxezarreta
Begoña Etxezarreta
Jesus Telleria
Jose Luis Uribetxeberria
Gorka Legorburu
Fermin Arrieta
Lorentxa Etxezarreta
Domingo Arrieta
Lorea Eziolaza

Gure eskerrik beroenak

KUTXAri
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUari
EUSKO JAURLARITZAko KULTURA SAILAri
urte guztian zehar eman diguten laguntzengatik

Zegamako Udala

Zegamako Urtekaria 2005

© Zegamako Udala

Lege-gordailua: SS-1324/99

Zegamako Udalak ez du bere gain hartzen Urtekarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Halaber, adierazi, argitaratutako argazkiak Elkarte bakoitzak Udalari utzitakoak direla.

www.zegama.net web orrialdean 2005 urtekaria ikus dezakezu

2005eko Heriotzak

IRENE GUTIERREZ SANCHEZ	2004-12-31
ANGEL LOZANO IBARGOYEN	2005-02-06
ELIAS BERASATEGI ASURMENDI	2005-03-01
LUIS OTAEGUI LARREA	2005-04-04
ESTEBAN ACHA MADINABEITIA	2005-06-09
ROMAN GURIDI AYERBE	2005-07-21
JUAN OTAEGUI ARRIETA	2005-07-23
MARIA JESUS ETXEPARE AGESTA	2005-09-03
JOSE ASURMENDI LARREA	2005-09-13
MANUELA LARREA ALDASORO	2005-11-21

2005eko Jaiotzak

JENIFER JIMENEZ HERNANDEZ	2005-01-15
MALEN OTAEGI ARIZKORRETA	2005-01-23
JULEN ARCE GARZON	2005-04-03
BEÑAT DE PRADO ORMAZABAL	2005-04-11
NORA ETXEZARRETA URBIZU	2005-04-24
UNAI MENDIZABAL LEKUONA	2005-05-02
ARKAITZ ELORZA ARSUAGA	2005-05-17
NAHIA AZURMENDI SANCHO	2005-05-23
HAITZ GOIA ELORZA	2005-05-29
AITOR ORMAZABAL IGOA	2005-06-22
MIKEL GOIBURU TELLERIA	2005-08-03
JANIRE OTAEGI LEGORBURU	2005-10-17
MIKEL ORMAZABAL URBIZU	2005-10-28
ANER AIZPEOLEA MARTIN	2005-11-16
NAHIA JIMENEZ ARRIETA	2005-12-07

Agenda

Telefonoak

Udaletxea

Idazkaritza	943 801 115
Faxa	943 800 073
Bake Epaitegia	943 801 115
Kultura, Euskera eta Ongizate saila	943 801 351
Web orria:	www.zegama.net
E-mail:	zegama@udal.gipuzkoa.net
Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren web orria:	www.zegama-aizkorri.com

Beste telefono batzuk

Aitxuri Herri Eskola:	943 800 042
Tobera Musika Eskola:	943 801 570
Osasun Zentroa:	943 801 306/943 027 700
Eguneko Zentroa:	943 801 610
Udal Liburutegia	943 802 137
Turismo Bulegoa:	943 802 187
Ostatua:	943 801 051
San Adriango Aterpetxea:	943 582 076
Sasieta Mankomunitatea:	943 161 590/ 943 161 555
Ertzaintza:	943 088 800
Zumarragako Ospitala:	943 035 000
Beasaingo Anbulategia:	943 027 700/943 027 701
Beasaingo Larrialdiak:	943 461 111/943 880 967
Gurutze Gorria:	943 161 516/943 162 150
Ur Zerbitzuak:	902 302 222
RENFE (Beasain):	902 240 202
SOS Deiak, Suhiltzaileak:	112
Taxia (Arantza Ormazabal):	645 006 737
Goierrialdea Autobusak:	943 885 969
Goitur:	943 161 823
Goieki:	943 161 537
Goimen	943 161 244
Ordiziako Zerbitzu Forestala:	943 881 793
Goierri Beheko Industrialdea:	943 880 617
Goierritarra:	943 882 719
Goierriko Hitza:	943 160 056
Goierri Telebista:	943 085 477
Partzoneria:	943 801 006
Iberdrola:	943 884 654
Ikastolen Fundazioa:	943 160 089
INEM:	943 880 548
Langai:	943 884 401
Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa:	943 886 600
Gazte informazioa:	943 805 634
Gipuzkoako Baso Elkartea:	943 652 900
Akabatutako animaliak biltzeko zerbitzua:	943 112 348

Juan Garitano Berasategiren argitasun eta iritzi batzuek

"Ni: Zegaman, Goialdean, Amiñao-Goeneko baserrian jaioa naiz, gudate edo guerra zibil, guztiz inzibil bi urte aurretiko´ren 1.934ko urtean. Txiripaz, baña ala izantzan. Gu, Mondragoi edo Arrasaten bizi giñan; gure aita zana Bartzelonan lantokiko eginkizun batzuek egiten, eta ama Anastaxi zana bere amaren babesera etorri zan Amiñao-Goenera ni mundu onetara ekartzera.

Gero, leen aitatu dedan guerra-gudate negargarriarek eraman zigun aita, nik ezagunpenik izateko ditxa eta astirik gabe, nere arreba Pilik bezelaxe. Berriz, ama alarguna, bere jaiotetxera, bi ume gorrirekin, bere aita, ama eta senideen bero eta laguntasuneen billa. Gero, Aitzgorri magalean saltari, bei zai, itulan, Maria Morarekin eskolan; azitzen eta ezitzen poliki poliki; Don Julian maisuarekin eskolan, kale ume alperrak ezagutzen, oraingo erreztasun eta losintxa aundirik gabe; sekula ezgenduan goserik ezagutu, eta etzan gutxi orduan, eta bai pamiliarteko maitasun xamurra. Amabi urtetik emezortzira, Bilbaon ikasketan; udako opor edo bakazioetan, Amiñao-Goenera baserri lanetara, alai eta pozik asko gañera ama, arreba, aittona, amona eta osaba izekoen ondoan, atseginmaitasunez beterik, laister asko igarotzen ziran uda egunak. Bukatu nituanean ikasketa galga aiek (oraindik jarraituko nuen aurrera, bañan erreztasun aulak ziran beartsuentzat), Joan Patxi Garmendiak bere laguntzaille eraman nituen Zarautza; bi urtera Zumaira, eta emen doa nere bizi izatea. Ezkondu nintzan zumaiar Arritxurekin (Arritokietako Ama, Zumaiako zaindari edo patroia); iru seme-alaba eta zazpi billoba... tirriki tarraka, aurrera! beti.

AIZKORRI BAI, BAITA ERE AITZGORRI

Oraindik urte asko ezdala eta betitik idatzi edo eskribitu lanetan AITZGORRI erabiltzen zan. Urte gutxitik onuntza, aldatu egin da idazteko forma edo egite du, eta akademikoak edo euskalzaiñak AIZKORRI erabaki dute erabilli bear dala emendik aurrera. Zergaitik? Gramatikako regla, arau eta zuzenbideak bide au jarri dietelako: T eta Z, Zetan gelditzen dala eta Z ta G, K´an biurtzen dirala, onelako moduz gutxigorabera daukat entenditu edo ulertua; ez nago oraingo berrikuntzaekin jakin jabe, leengoekin, apurtxo bat; ez genduan izan zorionik gure izkuntza maite eta zoragarri au itxura batean idazten ikasteko, ez aukerarik eta erreztasunik. Bañan goazen geure sapraira: Neri ondo iruditzen zait itzez erabiltzea AIZKORRI gure txiki denboran bezela: Aizkorrin izan nauk, AIZKORRIN ostoa irtendik, Aizkorrin antzigarra zeok, eta abar, ederki mintzatuaz; bañan idatzi bear tzanean beti AITZGORRI jarriko zan, asi Euskaltzaindi goieneko mallatik eta beeko Ezpaleoko zentraleraiño, zearkatuaz Txomin Aguirreren nobela edo ipui polit askoa GAROA izena daramana, artzaien bizimodua AITZGORRI inguruetan zeaztuaz xeetasun ugarirekin. Zuri ondo irudituko altzaizuke baten apellidu edo abizena AITZGORRI bada sekula sekulatik, AIZKORRI´ra aldatzea? Berdiñ, erri baten izena AITZGORRI´rekin ezagutzen bada, berriguntzea AIZKORRI´rekin?

Guri erakutsi izan ziguten Gramatikako Regla edo Idatz-Arauak, batzuek baizituztela eren Eskubide Bereziak; eta nik uste det, gañera geiago, gertakari edo gorabera onetan, izanik dan bezela "nombre propio", izen nagusi, aparta edo berezia, gure AITZGORRI. Beste zentzu sakon batzuek ere baditut.

Aiuntamentu-Udaletxeko agintariak: Euskaltzaindia, Euskaltzaindi, eutsi zeoen lerroetan AITZGORRI izen egoki orri idatzi guztietan, egunen batean txalotuak eta goratuak izango zerate eta.

GOIALDEKO SANTUAK

Nik askotan pentsa izandudet Zegamako Goialdeak beste Zegamako lurralde edo auzoen artean baduela ezaugarri nabarmenik eta orietako bat; asi Gurutze Santutik, Aitzgorri, Otzaurte, oroi orretan dauden ermita edo basa-eliz ugariak. Zergatik etorri ziran paraje onetara ainbeste Santu, eta, Bealdea, Olaranaldea, Arrieta aldea, eta kalea ze esanik ez; bat bakarrikan ere ez? Emen jende zintzoa zan nunbait eta pozik etorri alziran? edo bestela, oso kasta biurri eta jentil usariokoa zegon eta zuzentzera eta on-bidean jartzera?

Arira joan gaitezen eta beltxa edo txurie, oiek or daudela da gaia ta egia. Ez alitezke interesgarria izango orien sorkunde eta itur-buruak jakitea? Aztertu liburuak zegamar gazteok, or dauzkatzute: Kurutze Santu, San Pedro, Irutxetako Ama Birjiña, Santu Spiritu, San Adrian, Aitzgorriko Kurutzea, Otsarteko basa-eliz, oraindik berria; San Jose, asi ez besterik bagekoa, Julio Beobide Zumaiar irudigille izen aundikoak azkena egintzuen irudia, bere begirapen eta gubiakara zuzenen txirbillak ikusiaz; antxe dago. Don Lorentzo zan batek jaso zituan naiko buru auste.

Barrua ainbat mindu eta samindua daukat basa-eliz oetako batzuekin: Irutxetako Elurretako Ama Birjiñarena, Sahara baño legorrago egon bear du urte guztian, esan didatenez. Ez alegoke, urtean beiñ beintzat eliz-ibillera edo prozesio bat egiterik, Eliz nagusitik-Irutxetara errosario abestu bat jaulkiaz, Oñatitik-Arantzazura erakoa? Bederatzi-urrena. Errosarioak, ermita eta atari bertan, egun izendatu batzuetan?

San Pedro ere arnas estuka dabillela jakin det. Meza bat arratsalde partean bere egunean eta kito. Nun dira San Pedroetako egun aundi aiek?; alaitasunez gaiñezka, erromesak bideetan kabitu eziñik, Urzelaietako soñu-dantzaketak, maikide edo konbidatuz beterik auzoko baserri denak?... Txikitako kontuak ezin esan mutuak. Aitzgorriko Meza, San Adriango eguna, Ekaiñ-Garagar, illean, leen 16an, Kurutze Santu eguna Maiatzaren 3an, Olaberritarrentzat batibat, Espiritu Santu edo Trinidade eguna eta urteroko erromeri-ibillaldia, erri-joera aundikoa Pazko-Pentekostesetan Arantzazura, osasun onarekin dabiltzan oiartzunak ditut. Zorionak!

BIDE GARRANTZI AUNDIKOAK GOIALDEAN

Goialdea zearkatzen duten bide asko izan dira; orain bi bakarrik bizirik irauten dutenak eta geiena erekin baliatzen geranak. Aipamen labur batzuek:

a) FF.CC. del Norte edo RENFE izenekoa, Irundik-Madrillarako trenak gaiñean ibiltzeko egiña, 1864´ko Abuztuaren 8´an, zabal-aldia edo inaugurazio izan zuen Brinkolatik-Altsasu pusketan; (edo obeto, Olaztitik-Beasaindaraino) 23 lurpe-bide edo tunelekin (nere kontadurian), oetakik 10 Zegamako goialdean, sarigarrienak edo meritorik aundienetako´ak neretzat: "Tunel-Aundi", 3 km. luzean dena zuzen zuzen eta "Lurtunela", 500m.koa eta dena okerkatua 90ºa gutxi gora bera; bat Donosti aldea eta bestea Altsusu-aldea, apeadero edo geltokia izana euren tartean dutela. Garai aretarako, etzan ondorio edo exito makala, kontuan edukirik etzala iñungo aurrerapen ikaragarririk, gaurko "Rayos Láser" eta antzekoak, laguntza bikañekoak gizonarentzat.

b) Olatxo, Bealdeko baserri politteti Etxegarateraño doan kamiño, errepide, erribide, auto-bidea; komeri asko ibili ondoren diruen urritasunarekin, 1851´an bukaturik izan tziran errepide edo kamiño onen lanak ("Gipuzkoako Komunikabideen Historia", Jose Antonio Rodriguez Ranz´enek). Etzan asarre izango Kurutze Santutik gorako jende-samalda, ikusirik zenbait nekaaldi eta arazo arintzen zitzaizkien; nai eta, eren bearaldietarako eta parrandetarako ez eduki, gaur baserritar gaienak etxe aurrean dituen gurdi gurpil aizetuak eta bizkorrak.

c) Aitzgorriren magalean, narda azpitik trabeskatzen zuten mandabideak, iru izan beartzuten (nik bi bakarrik ezagututako akordioa daukat), goi ordeka malla desperdiñetatik, ondo ikusten dira Arantzatzuko adiskide batek erakutsi ziran mendi-irudi (plano) batzuetan. Bakoitzak, bere kondaira edo histori bikaiña izango du bere garaiko goraberekin. Emen beste gai polit bat azterketarako.

d) Asmagaitzekoena (enigmático) eta geienentzat garrantzitsu eta atsegin-berri billatzaillentzat (neori barruan naizela), "Kaltzada romana" deitzen dioguna zegamarrak, da. Bide onek irudimen guztiak bete litezke. Mingarria benetan Xabier Azurmendi "Axaiñe" apaizak, nere legun miñak agur egiña, G.B. Bide onen berri arek zekien nere ustez geiena, eta esaten tziran sarri, etzekiela apenas ezer ez. Noiz eta zeintzuak abiatu ziran leenengo paraje malkartsu oek urratzera? Bide arrigarri onek bai merezi duela bere mami-odolak ondo erabiltzea. Eta argi!, ez lotan egon esnairik. Kukurrukuka asita daude auzotarrak eta. Eskerrik asko. Agur bero bat denori."

JUAN GARITANO BERASATEGI

Zegamako Oroitzapenak

“ Zegamako nire oroitzapenak antolatu nahian nabil udazkeneko egunotan; oroitzapen batzuk goizetako lainapea moduan korapilatuak dauzkat buruan, eta, beste batzuk berriz, eguerdiko eguzkia bezain argi eta garden oroitzen ditut.

Ezagun da norbera beti egoten dela harro bere sorterriarekin. Zegamarrok, ordea, gure herriari aparteko maitasuna diogula esango nuke... Ez ote zigun erantsi maitasun hori gaztaroan edaten genuen Ugatzako urak? Gaurko gazteek ez dakite non dagoen iturri eder hori: sulfurodun ura darion iturria dugu, arrautza-ustel usainekoa, eta, adituen ustez, senda-indarra duena.

Zegama Aitzgorriko magalean kokatua dago, Goierri hegoaldean. Mendiz inguratua dago eta neguak luze eta udak motz izaten dira. Halere, herri atsegina da oso urte guztian bizitzeko; batik bat, txoko horretan jaio ginen guztiontzat.

Haurtzaroan makina bat ordu eman genituen kalean jolasean, eta, sarritan, akzio ederrak ere egiten genituen. Horrek ondorioak izaten zituen gure etxeetan. Kalea zen guretzat gaur hainbeste umek daukaten jolasez betetako gela edo tokia. Gu baino zoriontsuagoak ote dira? Ezetz uste dut. Gaurko umeek zernahi daukate, horregatik da hain zaila umeak alai egotea. Guk, berriz, nahikoa genuen edozer huskeria gozatzeko, eta, oparia uste baino hobea bazen, munduko errege sentitzen ginen.

Garai hartako Zegama nekazarien eta artzainen herri bat zen, baserri handiak zituen herria. Industria indartsua zuen garai hartarako: esaterako Zegamako Paper Fabrika edo, txikiagoa bazen ere, Aitamarrengo sutegia. Baserriari eta industriari eskerrak, Zegamak nahiko txukun eutsi zion bere ekonomiari. Gerra-ondorena, ordea, latza izan zen denontzat; are latzagoa kale gorrian bizi ginenontzat, baserrietan bederen izaten baitzituzten esnea, arrautzak, fruta, barazkiak eta gisakoak. Horri industriatik zetorren irabazia edo jornaltxoa erantsi behar zitzaion, eta baserri denetan fabrikan egiten zuten lan familiakoren batek edo bik. Baserriko bizimodua gogorra zen horratio, fabrikan zortzi orduan lan eginda gero segida eman behar baitzitzaion baserriko lanari. Kaletarrok dena erosi behar izaten genuen jornaltxo apal harekin, hargatik izan ziren urte haiek hain gogorrak.

Gogoan ditut oraindik Urbiko artaldeak eta inguruko mendietakoak. Esnea gai hartuta gazta eder askoa egiten zuten artzainek, Urbiko gaztaia deitzen genion. Gaur berriz, gazta hori bera da Idiazabalgo gazta, jatorrizko izendapen eta guzti. Izen aldaketa horren zergatia azaltzen ere ausartuko naiz: artzain asko eta asko gazta saltzen zuten herri horretakoak ziren, handik turista batzuk igarotzen baitziren N-1 errepide nagusitik eta artzainek gazta saltzen zieten. Zuzena ote da nire uste hori, edo akaso Ugatzako urak nahastu nau?

Oroiminak hartzen dit gain Gabonetako Ospakizunak gogora etortzen zaizkidanean: Gabon Eguneko etxez etxeko kantuak prestatzeko egiten genituen saioak, opari modura ematen zizkiguten txanponak, goroldioa biltzen genuenekoa figura gutxi batzuekin Jaiotza egin ahal izateko eta abar. Handienak parrokiakoak ziren, baita mojetakoak eta Mazkiaran Barrenako estalpekoak ere. Jaiotza horiei ia egunero egiten genien bisitaldia Errege Magoak sehaskara hurbiltzen ari zirela ikusteko. Gure egutegia halakoa izaten zen eta zera adierazten zuen Erregeak estalpera iristen ziranean: Errege Gaua zela! Egun horretan ez genuen inork agindu beharrik izaten oinetakoak garbitu eta balkoian jartzeko. A ze zoramena erregalo edo opariekin! Oraindik ere hunkitu egiten naiz gurasoek gu pozik ikusita izaten zuten alaitasunarekin; urte batzuetan, gurasoek elurra kendu behar izaten zuten opariak babesteko jartzen zituzten egunkarietatik (artean ez zen plastikorik).

Eta egiten genituen txango edo ibilaldiak? Paper Fabrikako kamioiek egiten zuten garraioa, ederrak iruditzen zitzaizkigun gainera: Donostia Eukaristi Biltzarrerako, Segurako biltzarrerako baita ere, Arantzazu, Urbasa eta abar. Behin batean Libiorekin joan ginen San Frantzisko Jabierkora, hura bai bidaia Ameriketako Estatu Batuetako San Frantziskora joan ginela iruditzen zitzaigun!

San Bartolome jaiak izen edo hots handikoak ziren. Bezperatik ekiten genien, Salbearekin batera. Beasaingo eta Ordiziko musika-bandak etortzen ziren (urte batean bat eta hurrenean bestea) eta jendea ere erruz etortzen zen herri horietatik. Txirrindularien lasterketa ere izaten zen (egun ere egiten da), baita zezenketak ere plazan, eta boxeoa. Inguruetan ere arrakasta handia izaten zuten Zegamako jaiek, gure herria Madril txiki bat zela ere esaten zen.

Gogoan ditut baita ere Hildakoen berri ematen zuten kanpai-hotsak, elizako kanpandorrean. Azaroaren batean hasi arratsaldean eta azaroaren 2ko goiza (Hildakoen Eguna) bitartean egiten zen. Gutakoren baten eginkizuna izaten zen beti kanpandorrera igo eta kanpaiak etengabe astintzea; beste batzuek, berriz, gaztainak erretzen zituzten eta sagardoa, ardoa eta zigarroak ekartzen zituzten beste batzuek. Arazoa azaroaren 2ko goizean izaten zen: mezak ematen ziren bata bestearen atzetik eta ezin izaten genuen eliza zeharkatu gure jan-edanekin dorrera igotzeko. Hara zein konponbide jarri genion: dorrearen kanpoaldeko leihotik soka bat bota eta igo genituen jan-edanak. Ez dakit zeinek, baina, baten batek, arrazoi osoarekin erabaki zuen kanpai-jotzeari uztea.

Beste behin karakola-jana egitea bururatu zitzaigun. Karakol-biltzen aritu ginen eta kaxa batean eduki genituen hiruzpalau egunean, zaietan sartuta, hala agindu baitzigun gure koadrillako sasi-sukaldariren batek. Eugenio zen gatza ekartzekoa baina ezin izan genituen karakolak jan. Eugenio berak aitortu zuen ondoren guztiok gaixotzeko puntuan ibili zela bera. Ez ote gara betiko immunizatuta geratu hegaztien gripearen kontra?

1953an, nik 19 urte nituela, Madrilera ekarrarazi nahi ninduen aitak Aranbarri Maisuarekin ikas nezan. Izar askoko hotel batera bidali ninduen: jana eta arropa emateaz gain, 50 xentimo ere ordaintzen zizkidaten. Hotel horren izena “Regimiento Inmemorial 1” da orain ere eta nik hiru urte eman nituen han. Maitasunez gogoratzen dut garai hartako Telleriatarren sendia, Doña Maria (Goian Bego) eta bere alabak, sendiko beste bat bezalaxe hartu baininduten. Joakin Ormazabal ere gogoan dut, nire anaia izan baitzen Madrilen. Beti izango naiz zorretan eurekin, sekulako babesa eman zidaten-eta sorterritik urrun igaro nituen estraineko urte haietan.

Gaurko Zegama herri modernoa da eta bertako bizi-kalitatea askoz hobea da herri edo hiri handiekin alderatuz gero. Oso hobetuta dagoela uste dut: Oria ibaiaren dragatzea eta ubideratzea, Kultur Etxea, Poligono Industriala, eskola berriak, medikuen kontsultategia, zuhaitz eta zuraren museoa, gasa etxebizitzetan, parkeak, Musika Eskola, eskulanetarako eskola eta abar. Bi hitzetan, bizi eta garapen maila ona herritar guztientzat.

Ez dut idatzi hau bukatu nahi zegamar denoi aipamen hau egin gabe, batik bat, Zegamako alkate Juan Inazio Galdos jaunari eta gainerako zinegotziei: guztiok aitortu behar dugu gure kultur garapenerako Julian Aseginolaza jaunak egin zuen lana, eta garrantzitsua da era berean belaunaldi berriek ere hori guztia jakitea.

Adiskideok! Erkideok! Ongi dakizue nire autoa eta nire bihotza Zegamara begira daudela beti.

Eskerrik asko.”

VICENTE LARREA GERRIKO

Udala

TURISMO BULEGOAREN KUDEATZAILE BERRIAK

Aurtengoan turismo bulegoan aldaketa nabarmenak izan dira inongo ezbairik gabe. Zerbitzu honen ustiatzailea zen "Linue Zegama Kooperatiba"-k turismo bulegoaren zerbitzua ematearen errenuntzia idatzia aurkeztu zuen Udalean. Urtarrilaren 17ko Udal Batzarrak egindako errenuntzia idatzia onartu egin zuen. Edozein kasutan izenpeturiko kontratuak horrela adierazten zuela aintzat hartuta eta "Linue Zegama Kooperatiba"-ko kideen borondate onari esker, honek turismo bulegoaren ardura bere gain hartu zuen kudeatzaile berriak lanean hasi arte.

Turismo bulegoaren arduradunak

Udal Batzarrak apirilaren 4an turismo bulegoko zerbitzuaren kudeaketa kontratatzeko oinarriak onarturik, Udaleko turismo batzordeak sektoreko bost enpresei beren proposamen eta eskaintzak aurkezteko eskaintza egitearekin batera, deialdia udalerri guztira hedatu zuen, zerbitzua bere gain hartzea interesatuta zegoen edonor aurkez zedin. Horrela, apirilaren 25ean amaitu zen epean hiru eskaintza aurkeztu ondoren, TSI-LKS aholkularitzak proposamen ezberdinak baloratu zituen eta honen ondorioz zegokion txostena igorri zuen Udalera.

Udal Batzarrak maiatzaren 23an egindako bilkuran Zegaman turismo bulegoa antolatu, martxan jarri eta kudeatzeko zerbitzua "Aldabe S. Koop."-ren alde egitea erabaki zuen. Zeraingo turismo bulegoaren gestioa daraman enpresa kooperatiba honi hemezortzi hilabeteko esleipena egin zitzaion, abuztuaren 1etik hasita. Zerbitzu honen truke Udalak 27.000 € edo urtean 4.492.422 pezeta (BEZ barne) ordainduko dizkio urtean (hamabi hilabetez) enpresa adjudikazio-hartzaileari. Halaber, elementu turistikoak erakusteagatik (adibidez, Egur Museoa ikusteagatik, herriko izan ezean, laguneko euro bat kobratzen da) eskuratzen den diruaren erdia ere enpresa kudeatzailearentzat izango da; kontuan izanik, beste erdia Udalarentzat izango dela.

Garrantzitsua da ditugun baliabideak eta balioak plazaratzea eta gure herria alderdi horretatik ere erakargarri egitea. Askotan, guretzat arrunta edo estimazio gutxikoa dena, beste modu batean edo beste eremu batean bizi den edonorentzat ikusgarria izaten da edo ikusgarria bihur daiteke. Gure ondarea, balioak, ofizioak, erakusleihoan lehen mailan jartzeko eta modu egokienean erakusteko, erakargarri bihurtzeko, jendeari azaltzeko eta turismoa gure udalerrian diru-sarrera iturri izateko xedearekin Zegamako Udalak, Goitur-en laguntzarekin eta "Aldabe S. Koop"-ren eguneroko lanarekin turismo bulegoaren zerbitzua bultzatu eta hobetzearen aldeko apustu irmoa egin du.

OSTATURAKO USTIATZAILE BERRIA

Ostatuko zerbitzuen ustiapena adjudikatzeko abian jarritako lehiaketa publikoaren iragarkia iazko azaroaren 25ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturik, abenduaren 15ean, eskaintzak aurkezteko epearen amaieran, Carmen Izagirre Asurabarrena eta Fernando Aparicio Lopez de Tejadak osaturiko ondasun mankomunitatea izan zen aurkeztutako eskaintza bakarra. Udal Batzarrak urtarrilaren 17an aurkeztutako eskaintzaren aldeko adjudikazioa egitea ebatzi zuen. Aurreko maizterrekin ustiapen aldaketaren gorabeherak eta eguna adostu ondoren, Carmen eta Fernandok, martxoaren 1ean abian jarri zuten, azkenaldi honetan esku aldaketa askora ohituta dagoen Ostatuko ustiapena. Jakina da, Zegamarentzat garrantzitsua dela taberna, jatetxea eta logelak eskaintzen dituen Ostatuaren zerbitzua martxan izatea, eta herritar eta kanpotarrentzat modu erakargarrian aritzea. Beraz, osasuna, zorte on eta lan asko ustiatzaile berriei.

KULTUR-ETXEKO PARKEKO BERURBANIZAZIO LANEN KITAPENA

Udal Gobernu Batzarrak apirilaren 18an erabaki zuen Kultur-Etxeko plazako berurbanizazioaren 4. eta azken obra ziurtagiriari zegokion "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresak aurkeztutako 9.341,21 € edo 1.554.246 pezetako faktura (BEZ barne) onartzea. Honenbestez, iazko urte amaierarako bukatuta zeuden lanen kitapena ere onartu zuen Udal Gobernu Batzarrak. Hain zuzen ere, gastu osoa 414.106,25 € edo 68.901.482 pezetan (BEZ barne) finkatu zen. Eta bestalde, obra hauek ahalbideratzeko lortutako 329.287,77 € edo 54.788.874 pezetako dirulaguntzak (Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak -Izartu programaren bidez-, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Gipuzkoako



Fernando eta Mentxu, egungo Ostatuko ustiatzaileak

Kultur Etxeko parkea berritu ondoren

ERAIKIN BERRIAK AURRERA

Olaberri auzoan “Ormazpei S.L.” enpresa eraikitzen ari den 6 etxebizitzak, Santa Barbara eta Buztinkalen “Bidelan S.L.” eraikitzen ari den 27 etxebizitzak eta Apaiz-Etxeko orubean eta bere ondoko lursailetan “Ormazpei S.L.” eraikitzen ari den 12 etxebizitzak aurrera doaz eta datorren urtean amaituta egongo dira. Eraikitze ekimen hauek ordezkapen erakoak izan dira; alegia, lehengo eraikin zaharrak bota eta beren ordez berriak eraiki. Maiz udalerriaren hedaduran pentsatzen dugu eta lur berrietan eraiki, baina, hirigintza kudeaketa ordezkapenen bidetik bideratu behar da, ahal den neurrian; alde batetik, okupatuta dagoen lurra bakarrik okupatzen delako eta bestetik udalerriko itxura, estetika eta antolamendua hobetzen delako.

Olaberria 6 eta 8 botatzen

Eraikin berriaren egitura amaituta

Santa Barbara kalea, eraikin zaharrekin

Santa Barbara kaleko eraikinak 2005eko abenduan

Apaiz-etxe ohiko orubean eraikin berriaren lehen pausoak

Bi eraikin berriak 2005eko abenduan

Kruz Mari Agirre egindako lanarekin

Pleno Aretoaren itxura berritua

Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuak emandakoak) aintzat hartuta, Udalak bere altxortegitik ordaindu beharrekoa 84.818,48 € edo 14.113.607 pezeta izan da.

UDALETXEA, OSTATUA ETA SAKRISTAU ETXEAREN MAKETA

Arantxa Aierbe zegamarraren senarra den Azpeitiko Kruz Mª Agirrek Udaletxea, Ostatua eta Sakristau etxearen maketa egin eta martxoaren 23an Zegamako Udalari doan eman zion. Kruz Marik egindako lan bikain honek xehetasun txikienak ere bere baitan jasotzen ditu eta Anduetzako Egur Museoan ikusgai dago. Esan behar da eraikinak bere argiteri eta guztiz hornituak daudela. Kruz Marik honelako lana egiteko duen trebeziaz gain bere eskuzabaltasuna erakutsi digu. Eskerrikasko Kruz Mª.

UDALETXEKO LOKALETAN APAINDURA LANAK

Udaletxean apaindura inbertsio ezberdinak soma daitezke aurtengoan eginak. Hain zuzen ere, Pleno aretoan "Linue Zegama S. Coop."-k egindako gortinak jarri dira eta hauen lagungarri diren gortinoiekin ere Udaletxeko areto nagusi hau hornitu eta apaindu da. Halaber, udal bulegoko lokal guztietan ere "Linue Zegama S. Coop."-k egindako primerako gortinak jarri dira. Beraz, aurtengoak "Linue Zegama S. Coop."-ren desagertzea ekarri badu ere, ilusioz beteriko emakume talde honek egindako lanaren azalpenaz gozatu ahal izango dugu herritarrok guztiona den etxe nagusian.

Bestalde, Alkatetzako gela ere egokitu da. Bertan zegoen armairu handia Pleno aretoan jarri da eta bere ordez, administrazio lanerako erosogoak eta funtzianalagoak diren armairu berriak jarri dira. Honekin

MURGIZELAIKO PARKEA BERRIRO BERRITUA

Parkea egokitzapen lanetan

Iazko urtekarian Murgizelaiko parkean egokiera lanak adjudikatu egin zirela azaldu zen. Aurtengo urtean "Ikerlora S.L." enpresak adjudikatutako lanak gauzatu ditu egindako prezio berean (53.890,48 € edo 8.966.621 pezetan -BEZ barne-). Halaber, "Ekotek S.L." enpresak altzairu edo mobiliarioaren horniketa egin du eta fakturatu ere, adjudikatutako kopuru berean egin du (26.278,01 € edo 4.372.293 pezetan -BEZ barne-). Parkearen sarrera zolatu, parkearen eremuko azaleran zeuden irregulartasunak lur goxoz lautu, landaketa berriak egin, erretegi berriak eraiki, altzairu berriak jarri, ume joko eremua berregokitu eta argiteria publiko berria jarri dira eta dagoeneko amaituta dago lan hau. Azpimarratu behar da harri lanak (erretegia, hormak eta abar) Zegamako "Canteras Caldas S.L." enpresak egin dituela, "Ikerlora, S.L."-k subkontratatuta.

Zegamarrok txoko polita egokitu dugu, bertara ibilalditxo bat egiteko, bertan umeekin jolasteko, irakurtzeko edo lagun artean modu jator eta arduratsuan ekipamendu berregokitu honetaz gozatzeko. Halaber, eguraldi onarekin afaritxoa egitera joateko ere leku paregabea izan daiteke. Guztiona dena, guztion artean zaindu behar dugu. Ezin onar dezakegu orain arte gertatutakoa errepikatzerik.

Azkenik gogoratu eta goraipatu behar da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak Zegamako Udalari emandako 58.449,18 € edo 9.725.125 pezetako dirulaguntzari esker egin ahal izan dela inbertsio edo obra hau. Ikusi daitekeen moduan dirulaguntzak kostu osoaren %72,9a finantzatzen du.

Murgizelai, paraje zoragarrian kokatua

Erretegi berria

OLARANGO ETXEBIZITZA BABESTUA MARTXAN

lazko urtean egokiera lanei hasiera eman eta aurtengoan amaitu eta hornitua izan den Olarango etxebizitza babestua martxan da dagoeneko. Honela, Ignacio Ibarretxe Pariente arkitektoak egindako proiektuan zehaztutakoari jarraipena emanez, Mikel Urbiztondo igeltseroak 33.500,80 € edo 5.574.064 pezetan (BEZ barne) kitatu ditu egindako egokitzapen lanak. Udal Gobernu Batzarrak maiatzaren 9an onarpena eman zion kitapenari.



Olarango eraikin berrian kokatzen da etxebizitza babestua

Funtzional eta dotore geratu da etxebizitza babestua

Bestalde, Udal Gobernu Batzarrak urtarrilaren 17an (legezko prozedura administratiboa bete ondoren), etxebizitzaren altzairu horniketa "Oyarbaroz S.L." altzairu enpresari 26.297,20 € edo 4.375.486 pezetan (BEZ barne) esleitzea ebatzi zuen. Horniketan izandako aldaketa eta gehikuntzen ondorioz, hasierako aurrekontua igo egin zen eta Udal Gobernu Batzarrak ekainaren 6an egindako bileran "Oyarbaroz S.L." enpresak aurkeztutako 29.310,88 € edo 4.876.920 pezetako faktura (BEZ barne) onartu zuen.

Kutxa-k (50.000 € edo 8.319.300 pezeta), Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak (15.229,41 € edo 2.533.961 pezeta) eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak (46.000 € edo 7.653.756 pezeta) emandako dirulaguntzei esker Zegaman gorputztu den lehen munduko proiektu hau urriaren 10ean abian jarri zen. Ignacio Arrieta, Lartzaguren baserriko semea izan da, gehienez lau lagun (bikoteak izanez gero sei), bere baitan hartuko duen etxebizitza honen lehen okupatzailea.

Udalak uztailaren 20an eta 27an etxebizitza babestuaren ateak ireki zituen bisitatu eta ezagutu nahi zuten herritarrentzat. Herritar ugari hurbildu zela esan behar da eta orain dela denbora gutxi arte bururatu ezin zitekeen zerbitzua zela azaltzen zuten bertaratuek. Ildo honetan aipatu behar da udalerri ezberdinetako agintari eta teknikariak ere etorri direla Olaranen Zegamak dituen zerbitzu sozialetako instalazioak ikustera.

Etxez etxeko laguntza eta Eguneko Zentroaren zerbitzuak kudeatzen dituen "GSR Kooperatiba" enpresari adjudikatu zaio etxebizitza babestuaren kudeaketa ere.

Zer da Etxebizitza Babestua?

Eguneroko bizitzarako aktibitate ezberdinak bete ahal izateko arazo handiegirik ez izan arren, norbere etxean bizitzen jarraitzeko zailtasunak dituzten edo beraien bizikidetza erkidegoan garatu nahi duten adinekoei zuzenduriko errekurtsoa da. Bertan alojamendu, elikadura eta atentzio pertsonala ematen direlarik.

Zein zerbitzu eskaintzen du?

- Etxearen zati konpartituen garbiketa.
- Arropa garbiketa eta plantxaketa.
- Beharra izanez gero, mediku tratamenduen gestio eta kontrola.
- Katering zerbitzua.
- Administrari lanak.
- Autonomia eta laguntza beharrean gainbegiratzea.

Nori zuzendua dago:

- Fisiko, psikiko eta gizarte mailan urritasun txiki bat edo gainbegiratze eta laguntza txikia behar duen pertsona heldu edo adinduari zuzendua.
- Bere etxean bizitzen jarraitzeko zailtasunak dituen heldu edo adinduari zuzendua. Bizi den etxebizitzak bizi-baldintzak betetzen ez dituenean, barrera arkitektonikoengatik...

Zein kostu du?

Eskaintzen diren zerbitzuen araberakoa da. Erreferentzia bezala esan daiteke zerbitzu guztiak eskainita etxebizitza babestuen kostua 550-600 eurokoa dela hilean.

Zein pauso jarraitu behar dira, eskaera egiteko?

Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo behar da (Begoña Olarte), balorazioa egin eta errekurtso egokia den hala ez aztertzeko (tfno 943 80 11 15).

batera, dagoeneko zaharkitua zegoen alfonbra kendu eta berri bat ere jarri da.

Inbertsio hauen guztien kostua 15.837,09 € edo 2.635.070 pezetakoa (BEZ barne) izan da. Hauek finantzatzeko Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak 7.327,61 € edo 1.219.212 pezetako dirulaguntza eman du.

MOBILIARIOAREN BERRIZTAPENA

Gure kaleetako zaintzaren barnean, hiri-mobiliarioaren berrikuntza egitea ezinbesko betebeharra da, kaleen apaindura eta estetika zaintzeko. Honenbestez aurtengoan, besteak beste, Eliza aurrean eta atzealdean, Andraitzen eta Urgainberrin zakarrontzi berriak jarri dira, zaharkituak zeudenak kendu ondoren.

Aulki berria

Halaber, Olaberriko plaza berrituan zortzi aulki eta hiru zakarrontzi berri ere jarri dira. Era berean, udalerrian egindako urbanizazio berrietan (Maiora plazan, Kultur-Etxe atzealdean, Murgizelaiko parkean) altzariak berritu eta berriak ere jarri dira.

ASEGINOLAZA ANAIEN ETORBIDEKO 11. ZENBAKIAN IGOGAILUA

Aseginolaza Anaien Etorbideko 11. zenbakiko bizilagunak igogailua jartzeko egitasmoa abian jarri dute. Hain zuzen ere, Udaletxean eskabidearekin batera proiektu teknikoa aurkeztu ondoren, Udal Gobernu Batzarrak urriaren 17an egindako bileran baimena ematea ebatzi zuen. Irisgarritasuna bermatuko duen instalazio honek, etxejabeen joan-etorriak erraztuko ditu eta etxebizitzen balioa eta funtzionaltasuna handituko ditu, ezbairik gabe.

Baliabide naturalak, gure altxorra eta etorkizuna

AIZKORRI-ARATZEKO PARKE NATURALA: AIZKORRI-ARATZ EREMUKO BALIABIDE NATURALAK ANTOLATZEKO PLANAREN ONARPEN PROZEDURA AZKEN URRATSETAN

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburuak 2004ko azaroaren 23an emandako Aginduaren bidez "Aizkorri-Aratz eremuko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana" dokumentuari hasierako onarpena eman zion. Ebazpena abenduaren 10ean EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta otsailaren 22 arte jendaurrean jarrita egon zen alegazioak aurkeztu ahal izateko. Dokumentua, besteak beste, Zegamako Udaletxean ikusgai egon zen.

Zegamako Udalak, urtarrilaren 31n hartutako erabakiaren bidez adierazitako dokumentuari zortzi alegazio ezartzea erabaki zuen. Hauen artean azpimarra daitezke, Parke Naturaleko sarrera Zegamatik barrena izateko eskaera eta honetarako Anduetza Parkea Interpretazio Gunea izatea; Parkeko erabakietan bertako erakundeek, elkarteek eta lur-jabeek izan behar duten partehartzea aldarrikatzea; Parke Naturalaren aitortza soila ez izatea, baizik eta eremua hobetu eta zaintzarako inbertsioak egiteko partida ekonomikoak eskumena duten erakundeetako aurrekontuetan egokitzea eta Partzoneriaren burujabetasuna eta eskumenak defendatzea.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburuak maiatzaren 16an emandako Aginduaren bidez alegazioak erantzun eta "Aizkorri-Aratz eremuko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana" dokumentuari behin-behineko onarpena ematea ebatzi zuen (2005eko uztailaren 11ko EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratua). Esan behar da dokumentu honetan Gipuzkoako eta Arabako Diputazioekin eta Eusko Jaurlaritzarekin Parkearen kudeaketaren inguruan adostutakoak jasotzen direla, eta honenbestez, orain arte eremuaren zaintzaile, kudeatzaile eta ustiatzaile izan diren erakundeen eskumen ahalmena errespetatu dela. Beste alegazio batzuren erantzuna zabalagoa izan da eta kudeaketak erakutsiko du noraino onartzen diren eskatutakoak.

"Aizkorri-Aratz eremuko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana" dokumentuaren behin betiko onarpena datorren urterako aurreikusten da; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburuak emango duena. Parke Naturalaren aitortza Jaurlaritzarena bada ere, geroko kudeaketan Diputazioak izango du zeresan handiagoa, (indarrean dagoen legediak egiten dituen eskumen banaketaren arabera), eta beraz Partzoneriak, erakunde ezberdinek, elkarteak eta lur-jabeek berarekin izango dute hartueman estuagoa.

Orain arte bertako erakunde, lur-jabe eta erabiltzaileek hain modu egokian zaindu eta kudeatu duten eremua, aurrerantzean ere horrela izateko, eragile ezberdinen arteko elkarrizketa, adostasuna eta lan amankomuna izan beharko dira bitartekoak.

UDALAK "ASTIO-ALDABIDE-SAADER" INGURUETAN DUEN LURSAILA ARAKAMANEA BASERRIKO MIGEL MARI ALUSTIZA ORMAZABALEK SAADER-ZEARRA ETA ALDABIDEN DITUEN HIRU LURZATIEKIN PERMUTA

Udaleko Mendi eta Auzoetako batzordeak bideratu ondoren eta Zegamako Herriarenak diren lursailak egokitzeko eta hein batean elkartzeko helburuarekin, Udal Batzarrak urtarrilaren 17an erabaki zuen "Astio-Aldabide Saader" inguruetan kokatzen den Udalaren 5,5360 Ha-ko lursail bat, Arakamanea baserriko semea den Migel Mari Alustiza Ormazabalenak diren 3,6750 Ha-ko beste hiru lursailekin (bi Saader-Zearran kokatutakoak eta bestea Aldabide eremuan) trukatzea. Nolanahi ere, Udalak ematen duen lursaila, handiagoa izan arren, jasotzen den lursailen egurra zaharragoa eta epe laburrera aprobetxagarriagoa dela kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak egindako balorazio txostenaren arabera, Udalaren lursaila 32.583,23 €tan eta Migel Mari Alustiza Ormazabalen lursailak 32.450,23 €tan baloratu ziren. Honenbestez, Udalak trukatu behar zuen lursaila Gipuzkoako Herri Onurako Mendien Katalogoan jasota zegoela kontuan hartuz, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuari lursailaren kalifikazio-aldaketa egitea eskatu zion adierazitako udal erabakiaren bidez. Halaber, trukaketaren bidez Udalak eskuratu behar zuen Migel Mari Alustiza Ormazabalen 3,6750 Ha-ko lursaila Gipuzkoako Herri Onurako Mendien Katalogoan jasotzeko eskabidea ere egin zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak abuztuaren 2an emandako 54/2005 Foru Dekretuaren bidez Udalaren eskaera onartu zuen eta abuztuaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen ebazpena.

Trukaketari buruzko eskritura publikoa Segurako Notaritzan izenpetu zen azaroaren 4an.

SAN BARTOLOME AUZOKO BERURBANIZAZIO LANEN ZUZENKETAK

1999ko urtarrilean hasi eta urte bereko azaroan amaiera eman zitzaien San Bartolome auzoko berurbanizazio lanei. Hala eta guztiz ere, egindako lanen obra hartzea egin aurretik Udalak enpresa eraikitzailea izan zen "Construcciones Echaide S.A."-ri hainbat erremate eta zuzenketa-lan egiteko agindua luzatu zion. Enpresa eraikitzaileak Udalaren agindua bete ondoren, espaloi zati baten konponketa egitea noren ardura zen argitzeke gelditu zen. Hain zuzen ere, Udala, obra zuzendaritza eta enpresa eraikitzailea ados zeuden espaloia gaizki zegoela eta ardura guztiena eta konkretuki inorena ez zela esaterakoan. Honenbestez, aipatutako akordioaren ondorioz, Udal Gobernu Batzarrak apirilaren 18an erabaki zuen San Bartolome auzoan espa-



Konpondu beharreko espaloia

Espaloia konponduta

Tela asfaltikoa jarrita

Plaza gaineko zorua egokitzen

Plaza amaituta

loia konpontzeko adjudikazioa "Construcciones Echaide S.A." enpresari 9.156,06 € edo 1.523.440 pezetan (BEZ barne) egitea. Honela, Udalak kostuaren erdia ordainduko luke eta beste erdia San Bartolomeko berurbanizazioko obra zuzendaritza bideratu duten arkitekto eta aparejadoreak eta enpresa eraikitzaileak ordainduko lukete. Obrak burutzerakoan alderdi guztien artean erabaki zuten aurrikusitako aktuazio teknikoa aldatzea eta konponbide eraginkorragoa egitea. Gauzak horrela, Udal Gobernu Batzarrak maiatzaren 23an erabaki zuen "Construcciones Echaide S.A." enpresa eraikitzaileak lanak amaituta aurkeztu zuen 13.125,62 €ko edo 2.183.919 pezetako faktura (BEZ barne) onartzea. Konpontze lan hauek amaiturik, enpresa eraikitzaileak eta Udalak lanen obra hartzea izenpetu zuten.

OLABERRIKO ERABILERA PUBLIKOKO PLAZAREN KONPONKETA

Olaberri auzoko erabilera publikoko plaza azpian dauden garajeetako ur filtrazioak konpontzeko lanei ekin zaie aurtengoan. Honela, garaje jabeek bere egunean jarritako salaketa epaitegira eraman ondoren, honek emandako epaian Zegamako Udala (1993. urtean egindako garajeen sustatzailea izanik) egin zuen arduradun. Esan behar da epaiak garbi adierazten zuela ur itokinak gaizki gidatu eta burututako lanen ondorio izan zirela eta Udalak obra eraikitzaile eta proiektu egile izan zen arkitektoa eta obra zuzendariaren aurka egiteko ateak irekiak zituela. Gauzak horrela, epaiak garajeek zituzten ur itokinen konponbiderako aurrikusitako soluzio tekniko zehatza finkatu bazuen ere, Udalak egoera hobeto aztertzeko xedearekin, proiektu teknikoaren idazketa Ignacio Ibarretxe arkitektoari esleitzea erabaki zuen. Epaitegirako txosten teknikoa egin zuen arkitektoarekin egon ondoren, Ignacio Ibarretxe arkitektoak adierazi zion Udalari Epaitegiak proposatutako konponbidea xumeagoa eta merkeagoa bazen ere, benetako soluzioa ez zela hori. Gauzak horrela, behin betirako konponbidea jasoko zuen dokumentu teknikoa idatzi zuen arkitekto adjudikazio-hartzaileak, aurrez apirilaren 4an Udal Gobernu Batzarrak bere alde 5.577,40 € edo 928.001 pezetako kostuarekin (BEZ barne) egindako adjudikazioari jarraituz.

Udal Gobernu Batzarrak maiatzaren 23an erabaki zuen Ignacio Ibarretxe arkitektoak egindako proiektu teknikoa eta obren exekuzioa arautzeko idatzitako baldintzen pleguak onartzea. Honenbestez, 76.270,37 € edo 12.690.321 pezetako lizitazio oinarriarekin (BEZ barne) lanen kontratazioa lehiaketa publikora ateratzea ebatzi zuen Udalak. Ekainaren 14an Udalak abian jarritako kontratazio prozedurari zegokion iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Eskaintzak aurkezteko epean "Construcciones Iparraguirre S.L." enpresak aurkeztutakoa bakarrik aurkeztu zen. Honenbestez, Udal Gobernu Batzarrak uztailaren 4an erabaki zuen Olaberriko garajeen

MAIORA PLAZAKO BERRURBANIZAZIO LANAK

Udalerriko hirigunearen urbanizazioarekin aurrera jarraitzeko, San Martin kalea eta Olaran auzoa elkartzen dituen Maiora plaza berrurbanizatzea sustatu du Udalak. Honela, otsailaren 28an Udal Batzarrak Natxo Ibarretxe arkitektoak egindako proiektu teknikoa eta lanen kontratazioa arautzeko baldintzen plegua onartu zituen. Lizitazio oinarria 199.547,38 €tan (BEZ barne) finkatu zen. Lizitazioa publikoa egin ondoren (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan argitaratuta), eskaintzak aurkezteko epean eskaintza bakarra aurkeztu zen; hain zuzen ere, "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresa eraikitzailearena. Honenbestez, Udal Batzarrak ekainaren 6an egindako bileran erabaki zuen Maiora Plazako berrurbanizazio lanak "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresari 199.547 € edo 33.201.827 pezetan (BEZ barne) adjudikatzea.

Bestalde, Maiora Plazan kokatutako Udaletxe azpiko portikoko harrilosetak berritzeko lanak adjudikatutako urbanizazio lanen osagarriak izanik, eta modu bateratu batean gauzatzeko komenigarritasuna ikusirik, Udal Batzarrak irailaren 12an lan hauek "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresa adjudikazio-hartzaileari 38.500,74 € edo 3.405.984 pezetan esleitzea erabaki zuen.

Amaitzear dauden berurbanizazioko obren exekuzioaren zuzendaritza teknikoa Natxo Ibarretxe Pariente arkitektoak eta Sabino Ruiz Madina aparejadoreak bideratu dute.

Berurbanizazio lan hauen bidez Maiora Plaza berurbanizatu eta antolatu egin da. Hain zuzen ere, plazaren erdian jarriko diren piloiak eta jardineren bidez Udaletxe aurrealdea oinezkoen erabilerarako soilik finkatuko da, eta plazaren beste erdian ibilgailuak aparkatzeko lekua ezarriko da. Modu berean urtean zehar Maiora Plazan egingo diren ekitaldiak bertan egiten jarraituko dira, kontuan izanik, eremua bitan banatzen dituzten elementuak mugikorrak direla.

Lan hauen %75a Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta eta Herri Administrazio Sailak-Izartu programaren bidez-finantzatu ditu.

Maiora Plaza obra hasi aurretik

Maiora Plazako zoladura altxatuta

Oria ibai ertzean baranda jarri da

gaineko plaza berrurbanizatzeko adjudikazioa "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresari 75.410,07 € edo 12.547.179 pezetan (BEZ barne) egitea.

Dagoeneko amaituta dauden obra hauen kostua berreskuratzeko asmoz Udalak Epaitegira jotzea erabaki zuen, horretarako irailean zegokion helegitea enpresa eraikitzailea, proiektu egilea eta obra zuzendarien aurka jarri zelarik. Auziak-auzi, Olaberriko plaza publikoa berrurbanizatuta dago eta garajeak margotuta eta zuten itokin arazoa konponduta. Plazan jarri diren aulki berriak kontuan izanez gero, esan dezakegu eremuaren egoera asko hobetu dela, eta auzotarrentzat eta herritarrentzat gune erakargarriagoa dela orain.

AITXURI HERRI ESKOLAN OBRA EZBERDINAK

Jakina da Aitxuri Herri Eskolaren jabegoa Udalarena dela. Honenbestez, bere zaintza eta honi dagokion gastua Udalaren ardura da. Edozein kasutan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak urtero agindua ematen du, hezkuntza administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan egin behar diren obrak finantzatzeko. Horrela gauzak, besteak beste, aurtengoan eskolara sartzeko dauden eskailerak konpondu, gimnasioko leiho eta sabaileihoetarako gortinak jarri, eskola aurrean Oria ibaia egonik, ikasleak babesteko baranda jarri eta gimnasioan ate berri bat jartzea dira egindako lanak. Lan hauen kostu osoa 29.834,60 € edo 4.964.060 pezetakoa izan da eta 17.900,76 € edo 2.978.436 pezeta (kostu osoaren %60a) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finantzatu du.

Bestalde, frontoi aldera ematen duen jolastokian euria egiten zuenean potzua sortzen zela aintzat hartuta, Udalaren aginduz Mikel Urbiztondo igeltseroak ur-hustubidea edo sumideroa eraiki du. Honen kostua (mantenimenduko beste lan txiki batzuekin batera) 3.042,68 € edo 506.259 pezetakoa (BEZ barne) izan da.

Aurtengo urtean ere Udalak dirulaguntza eskaera egina dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, baina oraindik ez da erantzunik jaso. Jakina da, urtero egoten dela hainbat obra eta konponketa egin beharra, sortzen diren gabeziei eta hausturei erantzuna emateko. Ildo honetan Aitxuri Herri Eskolako irakasleak eraikinaren zaintza onaren alde egiten duten lana eta ahalegina azpimarratu behar da. Esan daiteke Aitxuri Herri Eskola hain ondo egotearen "errudun" hein handian beraiek direla.

ELIZA ETA UDALETXEKO ERAIKINEN KANPO ALDEA ETA INGURUKO EREMUA ARGIZTATZEA

Udal Gobernu Batzarrak irailaren 28an erabaki zuen Eliza eta Udaletxeko eraikinak eta kanpo aldeko eremua argiztatzeko materialen horniketaren kontrataziorako 29.468,31 € edo 4.903.114 pezetako (BEZ barne) proposamen teknikoa eta baldintzen plegua onartzea. Kontrataziorako prozedura legala bete ondoren, esandako materialen horniketa "CA2L S.L." enpresari 29.468,31 € edo 4.903.114 pezetan (BEZ barne) esleitu zion Udalak.

Bestalde, Udal Gobernu Batzarrak azaroaren 14an erabaki zuen Eliza eta Udaletxeko eraikinak eta kanpo aldeko eremua argiztatzeko materiala instalatzeko lanetarako baldintzen plegua onartzea, enpresa ezberdinei aurrekontua eskatzeko. Gauzak horrela, aurrekontuak jaso eta aztertu ondoren, Udal Gobernu Batzarrak azaroaren 28an erabaki zuen adjudikazioa "Montajes Eléctricos Hernani S.L." enpresari 29.468,31 € edo 4.903.114 pezetan (BEZ barne) egitea. Urtekari hau argitaratzen denerako argiztapen lanak amaituta egotea espero da.

Zegamako San Martin Elizako fatxadak argiztatu egingo dira

Txarape auzora zubi berria eraikiko da

TXARAPE AUZORA ZUBI BERRIA ERAIKITZEA

Oria ibaiak banatzen dituen bi eremuen arteko komunikazio berria egongo da epe laburrean. Udalak "Gailur Berri S.L." enpresarekin izenpetutako hitzarmenaren ondorioz enpresa eraikitzaileak konpromezua hartu du Aitamarren eta Txarape auzoa lotuko dituen zubia eraikitzeko. Aurrez, bidezkoa den moduan "Gailur Berri S.L." enpresak zubiko proiektu teknikoa idatzi beharko du, udal baimena lortzeko.

Udalak ere ekimen garrantzitsu honetan 265.007,40 € edo 44.093.521 pezetako diru aportazioa egingo du, "Gailur Berri S.L." enpresak luzatuko dion faktura ordainduz. Udalaren betebehar hau ekainaren 13an sinatutako hitzarmenean oinarritzen da.

2006. urtean errealitate izango den azpiegitura honek, Aitamarrengo saihesbidearekin batera udalerri barruko komunikazioa hobetuko du eta udalerriaren antolamenduan aspalditik beharrezkoa ikusten zen urrats garrantzitsua suposatuko du.

UDALEAN INEM-EN LAGUNTZAREKIN EGINDAKO LANGILEEN KONTRATAZIOA

Udal Gobernu Batzarrak otsailaren 14an egindako bileran erabaki zuen langile ezberdinen kontrataziorako eskaera INEM-i egitea; honenbestez, kontratazioa hauen bidez eta erakunde honen laguntzarekin zerbitzu ezberdinak modu egokiagoan eskaini ahal izateko.

INEM-ek emandako erantzunaren bidez %75eko lan-jardunean pioia 7 hilabetez, administrari laguntzaile bat 8 hilabetez eta hilabeterako bi haur monitore kontratzeko dirulaguntza ematea ebatzi zuen. Gauzak horrela, Udalaren eskaerari jarraituz, INEM-ek aukeraketa prozesua egin zuen eta Edurne Ormazabal Zabaleta pioi lanetarako, Leire Lozano Arostegi administrari laguntzaile lanposturako eta Amaia Perez Arrieta eta Aloña Gorospe Bidaola haur monitoreetarako kontratatzea proposatu zituen. Honela, Udalak adierazitakoak kontratatu zituen.

BERUNTZE-TXIKI ATZEALDEKO LURSAILAK HERRIAREN IZENEAN

1995eko azaroaren 21ean Udal Batzarrak erabaki zuen "Zetalde S.L." enpresa eraikitzailearekin hirigintza hitzarmena sinatzea, Beruntze-Txikin egin diren familibakarreko etxebizitzen promozioa ahalbideratzeko. Hitzarmen honen ondorioz sustatzaileak ("Zetalde S.L." enpresak) Zegamako Udalari 31.856 m2ko azalera doan zeditu behar zion.

Bestalde, 2004ko uztailaren 24an "Zetalde S.L." enpresak bertan zuen lursaila lau zatitan banatzeko eskritura publikoa egin zuen, honela Udalari zeditu behar zion lurzatia finkatzeko. Honenbestez, Udal Batzarrak 2004ko azaroaren 2an erabaki zuen "Zetalde S.L." enpresa eraikitzaileak Zegamako Udalaren alde egindako 31.856 m2ko azalera duen lurzatiaren zesioa onartzea. Iazko abenduaren 16an Segurako Notaritzan sinatu zen Zegamako Udalaren aldeko zesioaren eskritura publikoa.

BERUNTZE-TXIKI ATZEALDEKO EZPONDAN EUSGARRITASUN LANAK

Aurtengo neguan Beruntze-Txiki atzealdeko ezponda zati bat behera etorri da. Honenbestez, Udal Gobernu Batzarrak martxoaren 14an erabaki zuen "Irauki S.L." enpresa eraikitzaileari agindu exekuzioa luzatzea ezponda eusteko behar ziren lanak egin zitzan. "Irauki S.L." enpresa eraikitzaileak Udalak emandako agindua berehala bete zuen eta "Tesinsa S.A." enpresa adituaren bidez eraikinen atzealde guztian dagoen ezpondaren eusgarritasun lanak burutu zituen, buloi eta kableen bidez.

BELARRA MOZTEKO MAKINA BERRIAREN EROSKETA

Udal Gobernu Batzarrak ekainaren 20an erabaki zuen belarra mozteko makina berria erostea. Kontuan izanik, orain arte zeuden zaindu beharreko eremu publikoak handitu egin direla; hala nola, industrialdea eta Anduetza, besteak beste, ezinbestekoa zen lana erraztuko zuen tresneria erostea. Ideia honekin "Zelaeta S.L." enpresari 2.146,55 € edo 357.156 pezetako (BEZ barne) kostuarekin lorategi publikoetan belarra mozteko makina erosi zaio.

ENERGIA AURREZTEAGATIK DIRULAGUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia zuzendaritzak 419,12 € edo 69.736 pezetako dirulaguntza eman dio Zegamako Udalari energia aurrezteko egindako inbertsioengatik. Inbertsio hauen funtsa da merkuriozko bonbilen ordez sodiozkoak jartzea eta honenbestez, kontsumoa modu nabarmenean gutxiagotzea.

IZARTU PROGRAMAREN BARNEAN EMANDAKO DIRULAGUNTZEN EBAZPENAREN AURKAKO HELEGITEAN DEMANDATU MODUAN PARTE HARTZEA

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazioko Sailak 2003ko abenduaren 16an, hiri eta herriak biziberritzeko dirulaguntzen programa bat onartu zuen ("Izartu" deitutakoa). Zegamako Udalak aipatutako ebazpenak xedetutako epeetan dirulaguntza eskaera egin, eta burututako gestioen ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak uztailaren 21ean emandako ebazpenean Zegamako Udalari 1.476.203 € edo 245.619.510 pezetako dirulaguntza ematen dio, 2004 eta 2008 urteen artean hainbat lan finantzatzeko.

Ezponda eusteko lanetan

Izartu programa, Udalerrian egindako hainbat lanen laguntzailea

TOKIKO AGENDA 21 ZEGAMAN

Tokiko Agenda 21, zer den gogoratuz

Udaletxea kudeatu edo gestionatzeko tresna berri bat da eta herritarren bizi kalitatea hobetzea du helburu.

Bi printzipio nagusi ditu: alde batetik, edozein plangintza egiterakoan garapen ekonomikoa, garapen soziala eta ingurumenaren babesa uztartu beharra, eta bestetik, iraunkortasun globala tokiko iraunkortasunaren bidez lortzea.

Funtsean, hiru pauso bereizten dira:

1. Ingurumen, Gizarte eta Ekonomia arloak aztertzen dituen diagnosi bat egiten da, herriaren gaur egungo egoera zein den ikusteko. Diagnosi honek hobetu beharreko hainbat gai agerian jarriko ditu.

2. Helburuak finkatuko dira.

3. Finkaturiko helburuak betetzeko eman beharreko pauso edo programak garatuko dira, alegia, ekintza plan bat zehaztuko da.

Mugikortasun Iraunkorraren Astean Zegaman egindako kaleko antzerkia

Amaierarik ez daukan prozesua behar luke izan. Adostutako ekintzak burutu ahala, helburuak betetzen diren egiaztatu beharko da, eta jarraipena egiten den bitartean beste ekintza berriak planifikatzen dira.

Herritarren partehartzea

Guzti hau egiteko ezinbestekoa da herriaren iritzia aintzat hartzea; bai diagnosia egiterakoan, bai burutu beharreko ekintzak aukeratzerakoan ere. Herritarrek erabakiko dute etorkizunean nolako herria nahi duten.

Zegamako Agenda 21. Zertan da?

Zegamaren kasuan, konkretuki, 2003ko Urriaren 2an Goierriko "Udaltalde 21" (Goierriko 18 udalek osotutako lan taldea) eratzeko konbenioa sinatu zuenetik, hainbat pauso eta ekintza aurrera eraman ditu Agenda 21ren inguruan:

- Aalborgeko Gutuna 2004ko Apirilaren 5an sinatu zuen.
- Udaltalde 21 bileratan parte hartu ohi du joan den urtarriletik; bilera hauek hiru hilabetez behin egiten dira gutxigorabehera eta bertako talde lanaren abantailak aprobetxatzen dira.
- 2005eko urtarrila aldera, herriko datu bilketa egin ondoren, diagnostiko teknikoaren zirriborroa egina zegoen. Zegamarrek txosten horri ekarpenak egiteko eta herriko plana egitera bidean helburu batzuk zehaztu eta ekintzak adosteko, parte hartze sistema bat ireki zen, herri bilera bidez.
- Zegamako Udalak, 2005 urtean zehar deialdi publikoak egin ditu Zegamako Iraunkortasun Eztabaida-gunearen bileretan parte hartzeko herritarrek. Bilera hauetan AMIA metodoa (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak) erabili da diagnostiko gaurkotu bat egiteko eta urtean zehar burutu diren 4 herri bileretan atera diren ondorioak diagnostikoaren zirriborrora erantsi eta diagnostiko definitiboa osatu da. Helburua, herriaren diagnostiko honetatik abiatuz zegamarren artean 2.006 urterako ekintza plan egoki bat diseinatzea da. Honetarako datozen herri bileretan, orainarte ezarri diren helburuetan oinarrituz, ekintza plan bat adostu eta udal plenoak onartua izan beharko da. Bestalde aipatu behar da Aitxuri Herri Eskola ere Agenda 21ean sartu dela eta udalarekin batera aurrera eramango dituela bertako pausoak. Zegamako Udalak, ekimen hau aurrera eramateko 2005 urteari dagokion 3.057,76 €ko kuota ordaindu dio Goiekiri, bai Udalari eta baita Aitxuri Herri Eskolari aholkularitza zerbitzua eskaintzeagatik.

Hurrengo pausoa 2.006 urteko urtarriletik aurrera emango da: UDALSAREA 21. Baina zer da UDALSAREA 21? Herri mailan iraunkortasuna sustatzea helburu duen sarea da eta udal nahiz erakunde berriak hartzeko prest dago baldin eta hiru konpromezu hauek betetzen badituzte:

- Aalborg Gutuna sinatuta eduki.
- Hainbat urtetarako Ekintza Plana diseinatuta izan .
- Herritarrek parte hartzeko bideak ezarrita eduki.

Hurrengo erakundeek osatzen dute Udalsarea 21: IHOBEk (Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, EUDELek (Euskal Udalen Elkartea) eta, une honetan, 66 udalerrik.

Bidea hasi besterik ez da egin, Zegama Agenda 21 prozesuaren lehen urratsetan dago oraindik.

Iraunkortasunerako Sentsibilizazio kanpainak

2004-2005 urteetan zehar iraunkortasun gaiarekin loturiko hainbat ekitaldi ospatu dira Zegaman:

- 2004ko irailaren 16tik 22ra ospatu zen Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat egin eta ekintza ezberdinak antolatu ziren udalerrian: Goierrialdea autobusa dohain aste osoan, banatzaile eta pegatinen banaketa haurren artean, ...
- 2005ko irailean berriro ere Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat eginik zenbait ekintza antolatu ziren: irailaren 16an Mutiloa, Zerain eta Segurako umeak Zegamarrekin batera "Otiacicoh" izeneko kale antzerkiaz eta meriendaz gozatu zuten; bestetik irailak 20an eskualde mailan Goiekin antolatu zen "Mugikortasuna Goierrin" Jardunaldian ere parte hartzeko aukera egon zen.
- Bestalde, orain arte martxan jarri ez diren arren, Goierriko Agenda 21ek "edalontzi berrerabilgarriak" bultzatu eta zabaldu nahi ditu herriko festetan plastikozko betiko edalontziek sortzen duten zaborra gutxitzeko helburuarekin; frogatuta dago honelako edalontziak erabiltzen diren ekitaldietan hondakinen kopurua %90ean murriztera iristen dela.

Garapen iraunkorra, etorkizunerako ezinbesteko bermea

Kanposantua konponduta

Jakina den moduan, aipatutako finantzaketak suposatuko duen gastu osoaren %75 Jaurlaritzak ordainduko du. Honenbestez, 2004 eta 2008 urteen artean programa honek eraginda, besteak beste, Zegamako udalerrian 1.968.271 € edo 327.492.730 pezeta inbertituko dira.

Bestalde, Pasaiako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak uztailaren 21ean, Izartu II-ko dirulaguntzak banatzen zituen ebazpenaren aurkako helegite kontentzioso-administratiboa jarri zuen. Gauzak horrela, Udalak martxoaren 14an egindako Udal Batzarrean Pasaiako Udalak ezarritako helegitean Eusko Jaurlaritzarekin atxikitzea eta demandatu moduan parte hartzea erabaki zuen erabaki zuen. Honetarako maiatzaren 9an egindako Udal Batzarrean helegiteko defentsa eramateko abokatu eta prokuradorearen izendapena egitea ebatzi zuen Udalak.

Zegamako Udalaren moduan beste hainbat Udalek ere, erabaki berbera hartu dute; alegia, Eusko Jaurlaritzak jarraitutako prozedurarekin bat etortzekoa eta Herriari emandako dirulaguntza defendatzekoa.

KANPOSANTUAN EGOKIERA LANAK

Iaz Kanposantuaren konponketari ekin zitzaion, nitxoen arteko kale edo eremu bat egokituz. Aurtengoan, falta zen nitxoen arteko beste kaleko obrak egin ditu Mikel Urbiztondo igeltseroak. Lanak, egindako udazken paregabea aprobetxatuz, urrian burutu ziren eta, beraz, Santu Guztien egunean Kanposantura bertaratutakoak hobekuntzak edo berrikuntzak ikusi ahal izan zituzten. Bestalde, hezurtegi edota "osarioen" konponketak ere egin dira. Konponketa hauek apirila bukaera eta maiatza hasiera bitartean Mikel Urbiztondok egin zituen eta osarioak zituen pitzadurak konpontzea izan zen bere lan nagusia.

MENDEBALDEKO SAHARAREN ALDEKO ALDARRIKAPENA

Udal Batzarrak ekainaren 20an erabaki zuen Mendebaldeko Sahara bizitzen ari den egoera salagarriaren aurrean mozioa onartzea. Puntu nagusienak ondorengoak dira:

1. Zegamako Udalak exijitzen du indar marokoarrek giza eskubideak zehatz-mehatz errespeta ditzaten Mendebaldeko Saharan okupaturiko lurraldean. Halaber, populazio zibila erreprimitzeko jarrera salatzen du.

2. Estatu espainoleko Gobernua premiatzen du Marokoko agintariei exiji diezaien okupatutako lurraldeetan eskubideak urratzeari uzteko.

3. Babesten ditu erreferenduma egiteko eta herrien eskubideei buruzko nazioarteko legeria betetzeko Nazio Batuen Erakundearen erabakiak, eta Estatu espainoleko Gobernua premiatzen du inplika dadin gatazka hori behin betikoz konpontzeko.

4. Bat egiten du Saharako herriarekiko elkartasun taldeekin eta Sahara okupatuan giza eskubideak errespeta daitezen.

5. Mozio honen edukina Estatu espainoleko Gobernuari, NEBko Idazkari nagusiari, RASDeko Madrilen duen delegaritzari, Madrilen Morokok duen Enbaxadoreari bidaltzea eta gure herriko biztanleei jakinaraztea.

URGAINBERRIN UR-HUSTUBIDEAREN KONPONKETA

Euri-urak arazoak sortzen zituen Urgainberriko behe oinean dauden garajeetan. Arazoa konpontzeko helburuarekin ur-hustubide handiagoa eraiki da, egindako euri-urak hobeto irensteko eta garajeak euriuretatik libre uzteko.

Hezurtegia konpondu aurretik

Hezurtegia konponduta

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAN PARTE HARTZEKO DIRULAGUNTZA ARAUDIAREN ONARPENA

Azkeneko urtetan egin ohi den moduan aurtengoan ere, Udal Batzarrak apirilaren 18an erabaki zuen Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroetan parte hartzen duten herritarrentzat dirulaguntza araudia onartzea.

Azkeneko bi urtetan herritarren partehartzea izan bada ere, aurtengoan zoritxarrez ez da gertatu edo behintzat ez du inork Udalak onartutako dirulaguntzak eskuratzeko eskaerarik egin. Ea datorren urtean Euskal Herriko Unibertsitateak udarako antolatzen dituen hitzaldi-jardunaldietan parte hartzera animatzen den jendea.

"KONEKTA ZAITEZ BANDA ZABALA" PROIEKTURA ATXIKIMENDUA

Udal Batzarrak azaroaren 14an erabaki zuen "Konekta Zaitez Banda Zabala" proiektura atxikitzeko erabakia hartzea.

2004ko maiatzaren 11ko Eusko Jaurlaritzako Gobernu akordioaren ondorioz, landa eremuetara "Banda Zabala" (telefono eta internet zerbitzua, hirigune urbanoetan operadore pribatuek ematen duten baldintza tekniko eta ekonomiko beretsuetan izateko aukera) helaraztea erabaki zen, horretarako "Itelazpi S.A." elkarte publikoa ezarri zuen arduradun ekimen hau aurrera bultzatzeko.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, landa eremuetako herriak, irrati bidezko azpiegituraz hornitu ditu, egun telebista ikusteko dauden antenei ekipo bereziak erantsiz. Hala eta guztiz ere, gure etxeetan ekipo bere-

Ur-hustubidea jartzeko lanetan

Ur-hustubidea berritua

Olaberrin aparkaleku publiko berriak eraikiko dira

Zegamatik Otzaurtera doan bidea konponzeko asmoa du Aldundiak

Kaleko Haundi baserria eraisten

zi horietatik seinalea hartu ahal izateko beharrezkoa izango dugu errezeptore bat jartzea eta instalazioa egitea; baina erabiltzaileak dirurik aurreratu beharrik gabe. Esan behar da, "Itelazpi S.A." enpresak Euskaltel-i adjudikatu ziola lan hau martxan jartzea. Dagoeneko udalerriko etxe gehienetara hurbildu dira zerbitzua eskaintzera.

Plan honen helburua, 30 biztanletik gorako nukleoak betetzea da lehen fase honetan eta nukleoren bat koberturarik gabe geratuz gero, tokian-tokiko irtenbidea aurkitzen saiatuko da.

OLABERRI AUZOTIK NAFARROAREN MUGARAINOKO ERREPIDEAREN EZEGONKORTASUNAREN AZTERKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuko Errepideetako zuzendaritza nagusiak GI-2637 errepideko 9,630 eta 19,800 k.p.en arteko ezegonkortasunak aztertzeko txosten geoteknikoa idazteko lehiaketa publikoa deitu zuen, 70.000 € edo 11.647.020 pezetako lizitazio oinarriarekin (2005eko uztailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Lanen esleipena irailaren 9an egin zen "Ikerlur S.L." enpresaren alde 53.280 € edo 8.865.046 pezetan (BEZ barne). Exekuzio epea 6 hilabetekoa da.

IRAKURZALETASUNA SUSPERTZEKO ETA LIBURUTEGI-ZERBITZUEN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA.

Aurtengoan ere Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordeak emandako ebazpenaren bidez, haur eta gazteen artean irakurzaletasuna suspertzeko eta liburutegi-zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulagunza eman dio Zegamako Udalari. Hain zuzen ere, 668 € edo 111.146 pezetakoa. Ongi etorriak izango dira, helburua garrantzitsua da eta.

OLABERRIN APARKALEKU PUBLIKO BERRIAK

Egokitu berria den Olaberriko plaza publikoaren alboan dagoen eremuan aparkaleku publiko berriak egiteko, proiektu teknikoaren idazketa lana Ignacio Ibarretxe Pariente arkitektoari adjudikatu zion Udal Gobernu Batzarrak irailaren 12an. Lanaren kostua 3.480 € edo 579.023 pezetakoa (BEZ barne) izan zen. Proiektua idatzi ondoren, Udal Gobernu Batzarrak azaroaren 28an onartu zuen, lanen kontratazioa arautuko duten baldintzen pleguekin batera. Lanen aurrekontua 53.917,38 € edo 8.954.459 pezetakoa da (BEZ barne).

Datorren urte hasieran ekingo zaie lanei. Honen bidez, 10 aparkaleku sortuko dira, eta ibilgailuak garbitzeko eremua egokituko da.

KALEKO-HAUNDI BASERRIA BOTA ETA ETXEBITZA BERRIA ERAIKI

Azaroaren 28an, Juan Mari Irigoras Ormazabalek sustaturik Kaleko-Haundi baserria bota zen. Aurrez, Udal Gobernu Batzarrak irailaren 12an, aurkeztutako proiektu teknikoan oinarrituta, baserria bota eta etxebizitza berria eraikitzeko baimena eman zion.

ANDUETZAKO EGUR MUSEOAN EGUZKI PLAKA JARTZEKO HITZARMENA

Udal Batzarrak azaroaren 14an erabaki zuen Anduetzako Egur Museoan eguzki plaka jartzeko Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE-EVEkin) hitzarmena onartzea.

Hitzarmen honen bidez arautzen den azalera erabiltzearen lagapenaren ordainez, EEE/EVEk honako material honen ekarpena egingo dio udal instalazioari:

- Sare elektrikora konektatutako 5 KW-eko eguzki instalazio fotovoltaikoa.
- Instalazioaren datu teknikoen jarraipena egiteko aplikazio informatikoa.
- Panel informatiboa, bertan instalazioaren datu orokorrak eta unean uneko datu zehatzak emateaz gain, energiaren aurrezteari eta energia berriztagarrien aplikazioei buruzko mezuak agertuko dira.
- Hezkuntza ziklo bakoitzerako egokia den material didaktikoa ikasle eta irakasleentzako, gaztelaniaz zein euskaraz.

Udalaren ekarpena ondorengoa izango da:

- Eguzki planta fotovoltaikoa ipintzeko behar den azalera "Zuraren Museoa" kokatuta dagoen eraikinean.
- Internetera konexioa duen ekipo informatikoa jartzea eraikinean, beste zeregin batzuetarako ere erabil litekeena, instalazioaren datu teknikoen aplikazio informatikoari eta fakturazioaren kudeaketari begira.
- Beharrezkoa baldin bada, hitzarmen honetan jasotzen diren jarduerak behar bezala egiteko dagozkion udal baimen eta lizentziak eskuratzeko erraztasunak ematea.

Udal liburutegia, zerbitzu garrantzitsua

Anduetzan eguzki plaka jarriko da

ANDUETZA EGUR MUSEOAREN ONDOKO EREMUAREN URBANIZAZIO LANAK AMAITUTA

EGUR MUSEOAREN INGURUKO URBANIZAZIOA

Udal Gobernu Batzarrak apirilaren 18an erabaki zuen Anduetza Egur Museoaren ondoko eremuaren urbanizazioaren 4. eta azken obra ziurtagiriari zegokion "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresak aurkeztutako 24.659,37 € edo 4.102.974 pezetako faktura (BEZ barne) onartzea. Honenbestez, urtearen hasieran bukatu ziren lanen kitapena ere onartu zuen Udal Gobernu Batzarrak. Hain zuzen ere, gastu osoa 459.680,45 € edo 76.484.391 pezetan (BEZ barne) finkatu zen. Eta bestalde, obra hauek ahalbideratzeko lortutako 423.495,51 € edo 70.463.723 pezetako dirulaguntzak (nagusiki Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak emandakoak eta kopuru txikiagoan -nahiz oso garrantzitsuan- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak emandakoak. Era berean, Museoaren argiterirako Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ere egindako diru ekarpena aipatu eta eskertu behar da) aintzat hartuta, Udalak bere altxortegitik ordaindu beharrekoa 36.184,94 € edo 6.020.668 pezeta izan da.

Burututako lanen inguruan "Tesinsa S.A." enpresak Anduetzako ingurua eta Kanposantuaren egonkortasunerako egindako eusgarritasun lanak azpimarratu behar dira. Alegia, buloi berriak sartu dira eta modu berean lehendik sartuta zeuden eta desteinkatuta zeuden buloiak teinkatu egin dira. Honen kostua 21.203,41 € edo 3.527.951 pezetakoa (BEZ barne) izanik, Udal Gobernu Batzarrak urtarrilaren 31n bere ordainketa onartzea erabaki zuen.

Bestalde, Zupurrutitik Anduetza arteko bidea konpontzea eta museoaren eraikitzea dira aurreikusitako proiektua bere osotasunean gauzatzeko falta diren egitekoak. Ez da erraza izango bi lan hauek egitea, kontuan hartuz gero diru asko beharko dela asmo hauek errealitate bihurtzeko. Edozein kasutan ukaezina da pentsatzea duela lau urte Anduetzako Egur Museoa eta bere ingurua (San Bartolome Ermita eta Kanposantua, besteak beste) egun dauden moduan ikustea posible izango zenik. Beraz, esan daiteke egindakoa asko dela, baina lana ez dela honekin amaitzen.

EGUR MUSEOAREN ATZEALDEKO ZUHAITZ IBILBIDEA (IBILBIDE BOTANIKOA)

Kutxa-k eta Gipuzkoako Baso Elkartearen artean sortutako "Basoa" Fundazioak emandako dirulaguntzari esker finantzatu ahal izan dira aurtengo lehen hilabetetan hasi eta udaberrian "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresak amaitu zuen Anduetzako Egur Museoaren atzeko udal lursailean egindako zuhaitz ibilbidea (ibilbide botanikoa). Lan hauen kostu osoa 60.000 € edo 10.000.000 pezetakoa izan da, eta aurrez esan den moduan bere osotasunean Kutxak finantzatua izan da. Iñaki Aspiazu arkitektoa eta Sabino Ruiz aparejadorea izan dira obra zuzendaritzaren arduradunak eta Gipuzkoako Baso Elkarteko teknikariak diren Zatizalibar baserriko semea den Iñaxio Azurmendi Ormazabal eta Bergarako Fernando Otazua izan dira landaketa eta lursailaren egokiera lanen arduradun eta koordinatzaileak. Beraz, Kutxaren eskuzabaltasuna eta Gipuzkoako Baso Elkartearen jakinduria eta lana izan dira Anduetzako atzealdeko eremuan ikusi eta egun zegamarrok goza dezakegun lan amankomun eta koordinatuaren emaitza.

ANDUETZAKO EGUR MUSEOKO ERAIKINEN KANPOKO ARGIZTAPENA

Udaberrian Anduetza Egur-Museo etxearen kanpoko argiztapena gauzatu da. "CA2L Iluminación S.L." enpresa espezializatuak hornitutako materiala Iñaki Soraluze elektrizistak, instalazioarekin batera, kokatu du. Erositako argiztatze materialaren kostua 2.900,39 € edo 482.584 pezetakoa (BEZ barne) izan da eta Udal Gobernu Batzarrak maiatzaren 9an bere ordainketa egitea erabaki zuen.

Udalerritik ikusi daiteke gauero berreskuratutako Anduetzako eraikinen edertasuna. Esan daiteke azkeneko urtetan egindako inbertsio lanen ondorioz Anduetzako eremua udalerriak duen ondare garrantzitsu eta erakargarrienetakoa bihurtu dela.

ANDUETZAKO EGUR MUSEOAREN INGURUKO HORMEN EGOKITZAPENA

Jakina da Anduetzako Egur Museoa eta bere ingurua gutxika-gutxika egiten eta osatzen joan direla. Honenbestez oraingoan Egur Museoaren inguruko hormak eta aurrealdeak txukuntzeko eta xaflatatzeko komenigarritasuna ikusirik, Udal Gobernu Batzarrak urriaren 17an lanak Mikel Urbiztondo Larreari, 23.778 € edo 3.956.326 pezetan (BEZ barne) esleitzea erabaki zuen. Lanak hasiak dira eta espero da lehenbailehen amaituta egotea.

ANDUETZAKO EGUR MUSEOA SEINALIZATZEKO ETA BIDEA HOBETZEKO DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak turismoa indarberritzeko planaren barnean, Zegamako Udalari Egur Museoa seinalizatzeko 3.799,34 € edo 632.157 pezetako dirulaguntza eman dio. Halaber, Zupurrutitik Anduetzara doan bidea hobetzeko 33.220,09 € edo 5.527.358 pezetako dirulaguntza eman dio Jaurlaritzak Zegamako Udalari. Dirulaguntza honek Udalak duen egitasmoaren %30 inguru finantzatzen du. Beraz, egitasmoa errealitate bihurtzeko dauden posibilitateak aztertu egin beharko dira.

Egur Museoaren inguru urbanizatua

Anduetzako Egur Museoaren ingurua urbanizatze lanetan

Ibilbide botanikoa

Hitzarmen honen arabera egindako instalazioaren jabea EEE/EVE izango da eta berari dagokio jabetza honetatik eratortzen diren betebeharrei erantzutea eta betzea.

Hamabost urteko epea amaitu baino lehen, instalazioa abian jartzen denetik kontatzen hasita, Udalak jabego-eskualdatzea eska diezaioke EEE/EVEri. Azken honek konpromisoa hartzen du saltzeko unean uneko instalazioaren hondar-balioaren truke.

Hala eta guztiz ere, hamabost urteko epea igarota, instalazioa abian jartzen denetik kontatzen hasita, Udalak EEE/EVEri jabego eskualdatzea eskatzen badio, dohainik egingo da.

Instalazioa ustiatzeaz EEE/EVE arduratuko da, eta honako alderdi hauen ardura izango du bere gain:

- Instalazioen mantentze-lanak: Lan hauen artean, garrantzitsuenak hauexek dira: eguzki-instalazioa, ekipoak eta hauek hartzen duten aldea behar bezala mantentzeko eta erabilera-etenaldiak edo funtzionamenduaren parametroetan aldaketak zein arazoak gerta ez daitezen egin beharreko eragiketa sistematikoen multzoa; baita instalazioaren errendimendua diseinuarenaren maila beretsuan mantentzea ere, fabrikatzaileen gomendioen eta araudi ofizialen zehaztapenen arabera.
- Aseguruen kontratazioa. Udalak hala eskatuz gero, urtero asegurudunak aurkeztuko duen agiria emateko konpromisoa hartzen du EEE/EVEk. Agiri horretan egin beharreko aseguruen zenbatekoa, hauen babespenen zehaztapena eta ordaindu izanaren egiaztagiria jasoko dira.
- Fakturazioaren kudeaketa. Dagokion konpainia hornitzaileari salduko zaion elektrizitatearen fakturen prestaketaren bidez. Sarera bideratuko den elektrizitatearen salmentatik lortuko den diru-sarrera EEE/EVEk kudeatu eta jasoko du, hitzarmen honen ondorioz.
- Egokitze-lanak. Instalazioa egiteko egin beharreko egokitze-lanak EEE/EVEk egingo ditu, eta instalazioa kokatuko den eraikinaren ohiko funtzionamenduan ez dute inolako oztoporik sortuko lan hauek. Instalazioa kentzeko lanak egin behar izatekotan, instalazioaren aldea hasieran zegoen moduan utziko da.
- Azpiegitura, instalazio eta ekipoen inguruan egin beharreko ekintzak egitea. Birjarpenak, berrikuntzak eta aldaketak egiteko lan hauek denboraz antolatu eta aurreikusiko dira, eraikinaren ohiko jardueretan inolako oztoporik ez sortzeko.
- Administrazioaren aurrean egin beharreko izapideak egitea, adibidez, Erregimen Berezian Energia Elektriko Ekoizteko Instalazioen Erregistroa; baita enpresa banatzailearen aurrean egin beharrekoak ere (salmenta-kontratua, konexio-eskabidea, baldintza egokien egiaztapena, onarpen egiaztagiriak eta abar), instalazioa sarera konektatu ahal izateko eta lanak gauzatzeko zuzendaritza teknikoaren ingurukoak.

Instalazioa ipintzeko behar den eraikinaren eremu edo azalera aldi baterako hartzeko baimena ematen dio Zegamako Udalak EEE/EVEri; baita instalazioaren funtzionamendurako beharrezkoak diren gainerako ekipoak kokatzeko eta lanak egiteko baimena ere.

EEE/EVEk konpromisoa hartzen du aipatutako instalazioa hamabi hilabeteko epean gehienez ere eraikitzeko, haitzarmen hau sinatzen den egunetik kontatzen hasita. Halaber, instalazioak hasieran zeuden moduan uzteko konpromisoa hartzen du eta bertan gerta litezkeen kalteen eta hauen ondorioz egin beharreko konponketen ardura bere gain hartzen du.

MARKAGAILU BERRIA FRONTOIAN

Udal Gobernu Batzarrak otsailaren 28an erabaki zuen frontoian markagailu berria jartzeko Kutxa-rekin hitzarmena onartzea. Honen bidez Kutxa-k markagailu berria jarri du eta gastu guztiak bere gain hartu ditu. Beraz, Kutxa-ren eskuzabaltasunari esker udal pilotalekuan hainbat urtetan zerbitzu paregabea egin zuen Musasoko Angel Murgiondok egindako markagailu zaharkitua aldatu egin da.

UDALERRIKO TURISMOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak turismoaren sustapena eta merkaturatzea planaren barnean, Zegamako Udalari Anduetza Egur Museorako foiletoak, Zegamako turismo foiletoa eta Erlezain Eguna, San Martin Feria eta Aizkorriko Lagunen Eguneko foiletoetarako, guztirako 6.918,50 € edo 1.151.142 pezetako dirulaguntza eman dio.

SANT SADURNI D'ANOIAKO UDALERRIAREKIN ANAIKIDETZA

Udal Batzarrak uztailaren 18an erabaki zuen Sant Sadurni d'Anoiako udalerriarekin anaikidetzeko borondatea adieraztea eta anaikidetzak izan behar duen prozedura administratiboari hasiera ematea.

Bestalde, Sant Sadurni d'Anoiako Udal Batzarrak ahobatasunez irailaren 27an Zegamarekin anaikidetzeko borondatea azaldu du eta prozedurari hasiera emateko ebazpena jakinarazi dio Zegamako Udalari.

Dagoeneko bi Udaletako ordezkariak harremanetan jarriak dira bi udalerrietan ospatuko diren ekitaldiak modu egokienean antolatzeko. Hain zuzen ere, lehen ekitaldia Zegaman ospatuko da maiatzaren 12, 13 eta 14ko asteburuan eta bigarrena Sant Sadurni d'Anoian irailaren 15, 16 eta 17ko asteburuan. 1989. urtean bi udalerri hauen artean hasitako harremana eta ordutik gaurdaino gorpuzten joan den erlazioa eta adiskidetasunak datorren urtean izango du, modu formalean, bere aitortza eta azken batean bi udalerrien artean lagun izateko eta harreman estua izan nahi dutenaren borondatearen azalpena.

Anaikidetza honen inguruan sortzen diren berrikuntzen berri emango bada ere, ekitaldi hauetarako edonork izan ditzakeen ideiak atsegin handiz hartuko dira.

Sant Sadurni d' Anoiako Udaletxean iaz egindako ekitaldia

Ikurriña eta Senyera bat eginda, Sant Sadurni d'Anoia eta Zegama bezala

URIK ONENA, ALFERRIK GALTZEN EZ DENA

Kutxaren Gizarte-Ekintzak bultzaturik, "Urik onena, alferrik galtzen ez dena" lemapean, autobus-erakusketa ibiltaria iritsi zen Zegamara abenduaren 2an. Erakusketa honen helburua, herritarrei ura aurrezteko teknikak ezagutaraztea izan da eta esan Aitxuri Herri Eskolako ikasleak bertan izan zirela taldetan banatuta. Azken urteotan, uraren balioaz gizartea poliki-poliki kontzientziatzen ari dela esan daiteke.

Uraren autobusa Zegaman

KALEKOTIK BARBARI ALDEKO BIDEAREN KONPONKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak Kalekotik Barbarira doan bidea konpondu du. Egoera oso txarrean zegoen errepidea zolatu da eta arekak eraiki dira, euri-urak ondo hartzeko eta azken batean errepidearen iraupena handiagoa izan dadin. Egunero bidea erabiltzen dutenen zentzuzko eskaerari berandu xamar bada ere, erantzun egokia eman dio Aldundiak.

BUZOI BERRIAK

Aurtengoan baserri batzuetako buzoiak zaharkituak zeudela eta, berriak jarri dira. Arrietaldean, Goialdean eta Olaran auzoko buzoiak zaharkiturik zeudenez berritu egin dira eta Anttialdean aldiz aurten jarri dira lehen aldiz. Kostua 2.170,36 € edo 361.117 pezetakoa izan da. Kostu hau buzoien jabeen artean, Udalaren artean eta Goimenek eman duen dirulaguntzaren artean banatu da. Jabeek 537,89 € edo 89.497 pezeta, Udalak 884,07 € edo 147.097 pezeta eta Goimenek 748,40 € edo 124.523 pezeta.

AITAMARRENGO PARKE PUBLIKOA ERREALITATE IZATEKO BIDEAN

Udal Batzarrak ekainaren 13an "Gailur Berri S.L." enpresarekin Aitamarren eremuan (9-1 exekuzio unitatean) 48 etxebizitza eta garajeak eraikitzeko onartutako hirigintza-hitzarmenak berarekin dakar jabetasun publikoko 9.575 m2ko lursaila Udalaren izenean gelditzea, non nagusiki erabilera publikoa izango duten saihesbidea eta parke publikoa garatuko diren.

Hitzarmena onarturik, Udal Gobernu Batzarrak uztailaren 4an erabaki zuen Aitamarrengo parke publikoa egokitzeko proiektu teknikoa idazteko lana Iñigo Segurola adituak duen "Lur Paisajistak S.L." enpresari 11.832 € edo 1.968.679 pezetan (BEZ barne) esleipena egitea.

Proiektua amaitzear dago eta datorren urteko lehen hilabetetan lizitazio publikoa egin ondoren, adjudikazioa egingo da.

AITAMARREN ATZEALDETIK SAIHESBIDEAREN ERAIKITZEA

Udalak "Gailur Berri S.L." enpresarekin izenpetutako hitzarmenaren beste ondorio nagusia izan da, 1981. urtetik proiektatuta zegoen Zegamako saihesbidearen Aitamarrengo zatiari dagokion lursailak publikoak izatea. Honenbestez, Udal Batzarrak irailaren 28an erabaki zuen Aitamarren atzealdeko saihesbideko proiektuaren idazketa "Sestra S.A." injineritza enpresari 11.893,60 € edo 1.978.928 pezetan (BEZ barne) adjudikatzea. Halaber, erabaki berean proiektu teknikoa idazteko ezinbestekoa den azterlan geologikoa "Lurtek S.L." enpresari, 3.398,80 € edo 565.513 pezetan (BEZ barne) adjudikatzea ebatzi zuen.

Udalak eramandako gestioen bidez lortu du Aitamarren atzealdeko saihesbidea Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak finantzatzea bere osotasunean.

Proiektua urte bukaerarako egina egongo da eta datorren urtean aspaldiko urteetako aldarrikapena errealitate egina ikusteko aukera izango dugu.

UDALERRIKO BIZTANLEAK GORA

Azkeneko urte hauetan Zegamako biztanlegoak gora egin du, eta gorakada nabarmenetakoa aurten eman da. Erreparatu bestela ondoan azaltzen den kuadroan:

1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
1.288	1.298	1.306	1.314	1.319	1.331	1.345

EUROPAR KONSTITUZIOAREN ERREFERENDUMA (2005eko otsailak 20)

	2005
Errolda	1093
Hautesleak	460
Abstentzioa	633
Zuriak	8
Baliogabeak	1
Hautagaien botoak	451

	EZ	BAI
2005	330	120

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK (2005eko apirilak 17)

	2005	2001
Errolda	1088	1104
Hautesleak	873	971
Abstentzioa	215	133
Zuriak	2	3
Baliogabeak	0	2
Hautagaien botoak	871	966

	EAJ/EAJ	EHAK	ARALAR	PP	PSE-EE	E.B	EH
2005	550	253	36	12	10	0	-
2001	655	-	-	31	9	14	254

Oharra: EH ilegalizatu izan zelako EHAK alderdi legalizatu bezala aurkeztu zen.

UDALERRIKO GUNE BERDE EZBERDINAK UREZTATZEKO ASPERSIO SISTEMA JARTZEA

Udalerriko eremu berdeen zaintza hobetzea da Udalaren helburuetariko bat; kontuan izanik, herriko itxuran eta estetikan eragin zuzena duela. Hain zuzen ere, aurtengoan ureztatze automatikoa Eliza atzean (Ostatu aurreko gunean), Aizkorpe tabernaren aurrean hagina dagoen eremuan, Txarapeko lorategian eta Anduetzako aparkaleku azpiko zatian jarri da, besteak beste.

Bestalde, lehendik ureztatze automatikoa zuten eremu ezberdinetan programadore autonomoa jarri da. Honen bidez, orain arte ureztatzearen sistema abian jarri eta gelditzeko eskuz egin behar bazen ere, aurrerantzean automatikoki martxan jarri eta geldituko da aspersioko ureztatzea. Programadorea jarritako eremuak ondorengoak dira: Eliza atzean (Ostatu aurreko gunean), Aizkorpe tabernaren aurrean hagina dagoen eremuan, Txarapeko lorategian, Anduetzako aparkaleku azpiko zatian, Kultur-etxeko parkean, Olaran auzoan (eraikinen artekoa eta ezkien ondokoa), Amezti elkartearen aurrean (Oria ibaiaren ertzean), Eliza atzealdean (errepidera ematen duena), Kooperatiba ondoko gune berdean, Urgainberrin eta Eliza aurreko lorategian.

Adierazitakoa aintzat hartuta esan daiteke udalerriko lorategien azpiegitura asko hobetu dela. Azkeneko urtetako lehorteei aurre emateko eta hiri-guneko gune berdeak txukun edukitzeko ezinbestekoa zen egindako inbertsioa burutzea. Beraz, inbertsio eta gauza berriak egitea garrantzitsua bada ere, inoiz ezin dezakegu ahaztu egindakoak zaindu egin behar direla, eta behar bezalako zaintza burutzeko baliabideak jarri behar direla.

TOBERA MUSIKA ESKOLARI DIRULAGUNTZA

Zegamako Udalak 2005. urtean Tobera Musika Eskolari 12.279.20 € edo 2.043.087 pezetako dirulaguntza eman dio, kontuan izanik 75 matrikulatu direla 2004/2005 ikasturtean eta matrikula bakoitzaren kostua 163,72 € edo 27.241 pezetakoa izan dela.

MURGIRA UR SAREA BERRITZEA

Murgi inguruko baserrietara sekzio handiagoko ur hoditeri berria sartzeko "Gipuzkoako Ur Zerbitzuak S.A." enpresak aurkeztutako 5.539,15 € edo 921.637 pezetako aurrekontua (BEZ barne) onartzea eta lanen esleipena beraren aldekoa egitea ebatzi zuen maiatzaren 23an Udal Gobernu Batzarrak. Udalak Murgi inguruko baserri jabeekin hitzartu du inbertsioa, eta honenbestez, Udalak materiala eta kolokazioa ordaindu ditu eta baserri jabeek, obrak egiteko lursailen erabilpenaz gain, zanga irekitzea eta ixteko lanak eta kostua bere gain hartu dituzte.

ZEGAMAREN BILAKAERARI BURUZKO BIDEOA

Azkeneko bost urtetako Zegamaren bilakaerari buruzko bideoa prestatzen ari da Udala. Honenbestez, udalerrian ematen ari diren aldaketen prozesu osoaren irudiak hartzen ditu Igor Eizagirre aditu zarauztarrak. Jakina da udalerrian beti ematen direla aldaketak (kaleak eta urbanizazioak berritu, eraikinak bota, berriak eraiki, bideak egin, etabar) eta egiten ari den lanaren funtsa, biharko Zegamari egungo udalerriaren irudia eta ematen diren aldaketak jasotzea da. Asmoa da datorren urtean, 2001-2006 artean Zegamak izan duen bilakaerari buruzko bideoa argitaratzea. Lan honekin batera hegazkinetik ateratako argazkiak aldiro-aldiro ateratzeko lana kontratatzen du Udalak. Beraz, udalerriaren barrutik jasotako irudiak eta airetik ateratakoak urtetik urtera balio handiagoa hartuko duten Zegamaren irudien bilduma osatzen ari da Udala.

Txarapen ureztatze sistema jartzeko inbertsio garrantzitsua egin da

Tobera Musika Eskolak Udalaren dirulaguntza jasotzen du

Murgira zihoan ur sarea aldatu eta berritu da

PILEN EDUKIONTZIA LEKUZ ALDATU

Sasieta Mankomunitatearekin adostu ondoren, Haizea edaritegiaren aurrean zegoen pilen edukinontzia Zupurrutiko zubi ondoan jarri da. Hain kutsakorrak diren pilak edukinontzi hauetan uztea guztiz komenigarria da ingurumena errespetatzeko.

KALEGARBITZEKO MAKINA EROSTEKO PROZEDURA ABIAN

Azaroaren 28an Udal Gobernu Batzarrak erabaki zuen kalegarbitzeko makina erosteko lehiaketa publikoa antolatzea eta honetarako baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 55.500 € edo 9.234.423 pezetan (BEZ barne) finkatu da. Azkeneko urte hauetan hedatzen doan hiri-eremuaren zaintza egokia egiteko, ezinbestekotzat ulertu du Udalak kalegarbitzeko makina erostea, honela gure kale eta txokoak modu erangikorragoan txukun eta garbi edukitzeko. Kontrataziorako prozedura administratiboa jarraiturik, datorren urtarrilean erosketa eginda egotea espero da.

"GOILASER S.A." ENPRESARI LURZATI PUBLIKOA OKUPATZEKO BAIMENA

Udal Gobernu Batzarrak maiatzaren 23an erabaki zuen Intxaustiko industrialdearen 14K eta 14L pabilioien atzealdean dagoen jabari publikoko lurzatian jarduera industriala burutzeko ezinbestekoa duten bi gas edukinontzi eta energia transformadore bat kokatzeko baimena ematea. Hain zuzen ere, baimena "Goilaser S.A." enpresaren jarduera irauten duen bitartean eta jardueraren garapenerako behar-beharrezkoa duen bitartean, behin-behineko izaerarekin eman zaio.

ALTZITURRI AUZORA SANEAMENDUA ETA UR HORNIKETAREN PROIEKTUA IDAZTEA

Udal Gobernu Batzarrak ekainaren 6an erabaki zuen Altziturri auzora saneamendua eta ur horniketa proiektua idazteko adjudikazioa "Sestra S.A." injineritzari 3.480 € edo 579.023 pezetan (BEZ barne) egitea. Oraindik aurkeztu ez den proiektuak finkatu beharko du burutu beharreko aktuazioa eta honen kostua. Jakina da, sare orokorretik aldentzen den aktuazioa dela eta honenbestez, etorkizunak aginduko du egitasmo hau, epe laburrean, errealitate eginda ikusi ahal izango dugun.

ZEGAMAKO ERDIGUNEAN DAUDEN AZPIEGITURA SAREAK ALTXATZEA

Aurtengo udaberrian Zegamako erdigunean dauden azpiegitura sareak eguneratu eta berriro altxatu ditu "Erain Estudio Técnico S.L." enpresak. Honenbestez, Udal Gobernu Batzarrak ekainaren 20an erabaki zuen enpresa adjudikazio-hartzaileak egindako lanarengatik aurkeztutako 11.656,26 € edo 1.939.438 pezetako faktura (BEZ barne) onartzea.

Lan honek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailaren 3.262,505 € edo 542.834 pezetako dirulaguntza jaso du.

SANEAMENDUA ETA UR HORNIDURA

UR HORNIDURA ETA SANEAMENDU OROKORRA EGITEKO PROIEKTUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Eramangarrirako Diputatuak azaroaren 16an emandako Foru Aginduaren bidez Zegamako Hornidura eta Saneamenduaren trazatu proiektua onartzeko legezko tramiteei hasiera ematea eta proiektua jendaurrean jartzea ebatzi zuen. Halaber, hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri zen. Irizpenak edo alegazioak aurkezteko epea abenduaren 22 artekoa izan da (iragarkia azaroaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Proiektuaren exekuzioaren aurrekontua 5.770.830.13 € edota 960.185.342 pezetakoa (BEZ barne) da.

Diputazioak proiektuaren ale bat Udalera igorri zuen eta interesdunentzat ikusgai egon da Udaletxean.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Eramangarrirako Departamentuko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzatik jakinarazi diote Udalari udaberri hasieran obrei ekingo zaiela eta obren exekuzio epea 16 hilabete aurreikusi dela. Jakina den moduan lan hauen eraginez udalerriko ur zikinak Legorretako araztegiraino joango dira (4.400 metroko eroanbidea eginez, behar dituen instalazioekin), egun Seguraraino dagoen sareari erantsi ondoren. Bestalde, saneamenduko lanak aprobetxatuz Arriarango pantanotik Zegamaraino ura ekarri ahal izateko ur hoditeria ekarriko da Seguratik Zegamako egungo ur gordailuraino (7.300 metroko bulkadazko eroanbidearen bidez lotuko da). Iazko urtekarian azaltzen zen moduan honek ez du suposatu behar egungo hornidurari bizkar ematea; alderantziz, Zegamak aurrerantzean ur horniketarako aukera bikoitza izango du, eta honek egun iruditzen zaigun baino potentzialtasun edo aukera handiagoa eskainiko dio gure udalerriari.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko azpiegitura hidraulikoetan 2004-2007 aldian inbertsioak egiteko Gipuzkoako Ur Kontsortziarekin izenpetu zen lankidetza hitzarmenean dute oinarri egin behar diren lan hauek.

Hiriguneko saneamendua egina dago

BIGARREN MAILAKO ETA SARE PARTIKULARREKO SANEAMENDUA

2004ko maiatzaren 10ean Udal Batzarrak saneamendu osagarrien proiektu tekniko aldatuaren idazketa (bigarren mailari eta sare partikularrari dagokiona) "Sestra S.A." injineritza enpresari adjudikatu ondoren, urte hasieran egina aurkeztu da Udaletxean. Honenbestez, Udal Gobernu Batzarrak urtarrilaren 31n "Sestra S.A." injineritza enpresak egindako lanarengatik aurkeztutako 9.064,99 € edo 1.508.287 pezetako faktura (BEZ barne) onartzea erabaki zuen.

Jakina den moduan Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Eramangarrirako Departamentua saneamenduko sare orokorrari eta Arriarango ur pantanotik Zegamara ura garraiatzeko hoditeriari dagokion proiektu teknikoa idatzi berri du ("Gain S.L." injineritzaren bidez). Proiektuaren idazketa lanetan, aurreko legealdian Diputazioarekin aurreikusitako saneamenduko trazadura batzuetan aldaketak egin dira. Honenbestez, urte hasieran "Sestra S.A." injineritzak Udalean aurkeztutako proiektuan aldaketak egin behar ziren Diputazioa egiten ari zen sare orokorreko proiektuarekin koordinatzeko eta modu egokian uztarturik fundamentuzko exekuzioa burutzeko. Ildo honetan, "Sestra S.A." injineritza enpresak egindako Urgamintatik Olatxorainoko saneamendu osagarriaren proiektu aldatua onartzea erabaki zuen Udal Gobernu Batzarrak ekainaren 6an. Modu berean, proiektu aldatu honek izandako 3.206,60 € edo 533.533 pezetako faktura (BEZ barne) onartu zuen.

Diputazioak egingo duen saneamenduaren sare orokorraren exekuzioa Udalak egin behar zuen bigarren mailako eta sare partikularreko saneamendu lanekin uztargarriak (hein handi batean) zirela ikusirik, Zegamako Udalak berari zegozkion lanak martxan jartzea erabaki zuen. Honetarako lehenik eta behin, berak egin beharreko lanak eragina izango zuten baserri eta lursail jabe guztiekin bilerak egin zituen. Honenbestez, datorren urtarrilean abian jarriko diren saneamendu lanak zeharkatuko dituzten lursail eta baserri jabe guztien adostasun sinatua lortu zuen Udalak. Beraz, lursail eta baserri jabeek doan utzi dituzte beren lursailek bigarren mailako saneamendua zeharkatzeko eta honen truke Udalak partikular bakoitzari zegokion inbertsio lana (sare partikularrari zegokiona) bere gain hartu du. Esan daiteke interes publikoa eta pribatuaren oreka eta lan amankomunatua egitea lortu dela kasu honetan, eta behar bada denentzat adibide egokia dela aurrerantzean egin daitezkeen beste hainbat ekimen edo inbertsioetarako.

Proiektu teknikoa egina egonik eta lurren erabilera bermatua izanik, obren kontratazioa burutzea erabaki zuen Udalak. Honela, Udal Batzarrak irailaren 12an egindako bileran udalerriko bigarren mailako eta sare partikularreko saneamenduaren proiektua eta baldintzen plegua onartzea erabaki zuen, 405.819,40 € edo 67.522.666 pezetako (BEZ barne) lizitazio oinarriarekin. Edozein kasutan argitu behar da, urtarrilean hasiko diren lanen bidez lehen fasekoak bakarrik egingo direla. Hain zuzen ere, Larrekotik Kalekorainoko zatia, sare orokorraren exekuzioa egin arte ezin daitekeelako burutu. Honenbestez, lehen zati honetan Intxaustitik Olatxorainoko bigarren mailako sarea eta sare partikularrari dagozkion zatiak egingo dira.

Irailaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontrataziorako egindako lehiaketa publikoaren iragarkia argitaraturik, eskaintzak aurkezteko epean "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresarena izan zen aurkeztutako bakarra. Beraz, aurkeztutako eskaintza aztertu ondoren, Udal Batzarrak urriaren 17an udalerriko bigarren mailako eta sare partikularreko saneamenduaren lanak "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresari 404.581,95 € edo 67.316.772 pezetan (BEZ barne) egitea erabaki zuen. Lehen faseko exekuzio epea 3 hilabetetan finkatu da, eta, aurrez esan den moduan, lanei urtarrilaren lehen egunetan hasiera emango zaie.

Barrenaldeko lursailetik pasatuko dira saneamendu eta ur hornidurako azpiegiturak

14. korrika Zegamatik igaro zen

XIV. KORRIKA ZEGAMATIK BARRENA

Martxoaren 10ean abiatu zen Orreagatik XIV. Korrika eta martxoaren 15ean, gaueko 22:30ak aldera sartu zen Zegaman Otzaurtetik barrena.

Udal Gobernu Batzarrak otsailaren 14an "Korrika"-ri kilometro bat erostea erabaki zuen antolakuntzari 320 € edo 52.244 pezeta ordainduz. Honenbestez, Udalak Olaberri auzotik Manolo jatetxe artean eraman zuen testigua.

Giro paregabean zeharkatu zuen "Korrika"-k Zegama. Nahiz eta gaueko hamarrak jota iritsi Zegamara jende multzo garrantzitsua ekarri zuen berarekin. Jakina da gure hizkuntzak pentsamendu ezberdinen gainetik batu behar gaituela.

ZEGAMAKO HISTORIARI BURUZKO IKERKETA BEKA

"Xabier Azurmendi" zenaren izena duen ikerketa bekaren bigarren fruitua da honako hau. Iazko urtekarian aipatu bezala, 2004ko martxoaren 8an esleitu zitzaien Juan Carlos Mora Afan eta David Zapiraini beka hau eta, 2005eko abenduaren bata zuten lana Udaletxean entregatzeko data. Urtean zehar, lan honen jarraipena egitearen ardura duen epaimahaia, bi aldiz elkartu da beka hartzaileekin eta itxura guztien arabera, urtekari hau argitaratze ingururako lana eskuartean izatea espero du Udalak. Ikerketa lan hau guztiz premizkotzat jotzen zuen udalak, ez baitu oraindik gure herriak bere historiaren berri liburu bakar batean jasota. Ikerketa beka honek 12.000 €ko aurrekontua du. Beka honetan, Udal Kultura Batzordeko kideez gain, EHUn historiako irakaslea eta Eskolako Katedraduna den Mikel Aizpuru, izan dira epaimahaikide.

ARTZAINTZA BEKA

Iazko Urtekarian aipatu genuan, Isabel eta Lierni Elorza Puyadenari 2004ko urtarrilaren 25eko Gobernu Batzarrak esleitu ziela Zegamako Udalak bultzatutako "Aizkorri, Urbia eta Zegamako Artzaintzaren ikerketa beka" eta 2005eko otsailerako ikerketa beka hau idatzita aurkeztearen konpromezua hartzen zutela hitzarmen baten bidez. Esan, Isabel eta Liernik, lan ikusgarri bat entregatu dutela Udaletxean, eta lan guztia burutzeko hiruzpalau hilabete gehiagoren beharra izan badute ere beren frituak jasotzeko itxarotea merezi izan duela. Dagoneko, Udala liburu hau eta bere egunean, Juan Mari Apaolazak egin zuen eremu beraren alderdi teknikoari buruzko lanak argitaratu asmo dituela 2006. urtean zehar eta hainbat aurrekontu dagoeneko eskuartean dituela; ondorioz, datorren urtean herritarren eskuartera iritsiko dira ikerketa lan hauek. Ikerketa lan hauek Zegamako Udalak ordaindu ditu, alde batetik Juan Mari Apaolazari esleitutako beka 4.507,59 € eta bestetik Isabel eta Lierni Eliorzari esleitutako 9.000 €. Hemen aipatu behar da, Goimen Elkarteak otsailean 2026,90 €ko dirulaguntza eman diola Zegamako Udalari ikerketa beka gauzatzeko. Beka honen epaimahaikide, artzaintza munduan adituak diren, Nikolas Segorola, Arantzazuko Artzain Eskolako partaidea eta Arantzadi Zientzia Elkarteko Etnografiako zuzendaria den Fermin Leizaola izan dira.

Zegamako historiari buruzko ikerketa bekaren lana amaitzear dago

HERRIKO KULTUR ETA KIROL ELKARTEEI DIRULAGUNTZA

Abenduaren 19an egindako Udal Gobernu Batzarrean erabaki zen udalerriko kultur eta kirol elkarteen artean 2004ko aurrekontu ekonomikoan jasotako 8.715 € edo 1.450.054 pezetako diru-partida banatzea. Honenbestez, dagoeneko ordainduta dagoen dirulaguntzaren banaketa ondorengoa izan zen:

Aitzgorri Futbol Taldea	1,342 € - 223.290 pezeta
Amezti Mendi Elkartea	1.054 € - 175.370 pezeta
Elkartu Nahi Txirrindu Taldea	1,342 € - 223.290 pezeta
Tartalo Pilota Elkartea	1.054 € - 175.370 pezeta
Gazte Herexa	982 € - 163.391 pezeta
Orkatz Abesbatza	2.941 € - 489.341 pezeta

Bestalde, azaroaren 25ean udalerriko kultur eta kirol elkarteekin izandako bileraren ondorioz, hauek 2006ko urtarrilaren 27rako eskaintzak aurkeztu beharko dituzte, 2005eko aurrekontuan jasota dagoen 9.060 € edo 1.507.457 pezetako banaketaren erabakia eta ordainketa jarraian egiteko. Modu berean, datorren urteko dirulaguntzak bi zatitan ordaintzea aurreikusten da; ekainean %60a eta gelditzen den %40a 2007ko otsailean.

Artzaintza, ofizioa eta afizioa

UDAL BASOETAN EGINDAKO INBERTSIOAK

Azken urteetan egin ohi dugun bezala, bukatzear dugun 2005. urte honetan egin diren lan eta inbertsioen xehetasunak ematea du helburu txosten honek.

Horrela eta besteetan bezala, lan arlo ezberdinetan zer egin den azalduz sailkatuko da txostena.

1.- Landaketa berriak eta falta berritzeak

Landaketa berririk ez da izan urte honetan, beraz, arlo honetan egindako lan guztiak falta berritzeak izan dira.

• **ARMUÑOETA:** Guztira 2.100 intsinis piñu sartu ziren bata edo besteagatik ihartutakoen ordez. 1.325,20 €

• **TXERMATXO** eta Muñoarekin trukaketa egindako lursailean, guztira 9.533 intsinis landareekin osatu dira faltak. 6.015,78 €

GUZTIRA 7.340,98 €

2.- Landaketa gazteetan zakarrak jotze lanak. Beste baso lan batzuk

• **TXERMATXO, ELORHAUNDI, ARKAITZA BURUA eta ARMUÑOETA** sailetan egin dira udarako garbitze lanak, guztira 31,47 ha-ko azaleran8.025,50 €

• **OAZURTZEko** pinudiari, bakanketa burutu ondoren, goi kimaketa egin zaio guztira duen 24,07 ha-ko azaleran (Foru Aldundiak 11.867,58 €; Udalak 2.596,46 €) 14.464,04 €

• **MAIÑE** mendi saileko intsinis piñudiari zakarrak moztu eta azpi adarrak kimatze lanak berehala bukatuko dira 12,40 ha.ko azaleran 11.927,38 €

GUZTIRA 34.416,92 €

3.- Basoko bideetan egindako lanak

• **AIERDI BURUko** zenbait pista tramotan egindako luiziak erretiratu dira. Hango lurrak harkaitz gune batzuk estaltzeko erabili dira 18.055,85 €

• **Apeaderotik OAZURTZErainoko** bide nagusia, behin H.O. mendian bakanketa lanak bukatuta, konponketa nagusi bat eman zaio 6.512,47 €

• **ALDABIDE eta SAADER** inguruetan egindako luiziak erretiratu dira 7.000,00 €

• **MAIÑAMENDIra eta handik ALDABIDErako** pista errepasatu da, lehen aipaturiko lanak egitera makina zihoan bitartean, eta bidea uneka gogortu da 4.000,00 €

GUZTIRA 35.568,32 €

INBERTSIOEN ERRESUMENA

Orain artekoan ikus daiteken bezala, Basogintza bezala deitu daitezken lanak eraman duten diru kopurua 41.757,90 € edota 6.947.929 pezeta izan da.

Bere aldetik, baso bideetan egin diren lan ezberdinak burutzeko, 35.568,32 € edota 5.918.017 pezetako diru kopurua behar izan da.

Horrela, Zegamako Udalaren jabetzako Herri Onurako 2.025.1 zenbaki dun "ZEGAMAKOMENDIA" deituriko mendian, 2005. urtean egin diren lanak ekarri duten gastua, 77.326,22 € edota 12.866.000 pezetakoa izan da.

AZKEN AZALPENAK

Mendietan inbertsioak burutzea garrantzizkoa dela jakin arren, beste hainbat ekintza badira, basoaren etorkizun egokia bermatzen dutenak, eta hauen artean nagusienak bakanketak direla esango nuke.

Puntu honetan esan behar da, Diputazioa, Zegamako Udaleko mendi arduradunarekin batera, azken urte hauetan lan handi bat egiten ari dela. Zegamako herri sailak Herri Onurako edo "utilidad pública" izendatu aurretik "ARMUÑOETA" saileko egurraren salmentarekin hasi zena, "BURNIKURUTZE" eta "OAZURTZE" sailen bakanketekin jarraitu, eta garai berdintsuan, eta pistak ebaki heinean, "ARRANOAITZ" lehenik eta "SAADER", "NAPAR ITURRI", "AZTIO", "ALDABIDE" eta "MOTHO" sailetako bakanketak burutu dira. Hau guztia azken sei urteetan.

Orain berriz, "OAZURTZE" eta "BURNIKURUTZE" sailetan, duela sei urte hasitako bolada honi dagokionean, bigarren baso bakanketa burutu da, bi sailen artean 3.463,33 estereo egur atera direlarik.

Amaitzeko berriz esan behar da, duela bi urte luze (2003ko maiatzean) esleitu zen "ELORTXIKI" eta "AIERDI BURUA" sailetako bakanketa hura, bukatu berria dela, bideetako arazoak medio, uste baino gehiago luzatu baldin bada ere. Guztira 6.548,64 estereo egur atera dira bakanketa lan honetatik.

BIXENTE DORRONSORO

DIPUTAZIOKO BASOZAINTZA 1. ATALEKO BURUA

ESKOLA KIROLA

2005-2006 ikasturteko Eskola Kirolaren Jardueren programa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak onartzen du eta 2005-2006 ikasturtekoa uztailaren 20an onartu zuen. Zegamako Udala, eta Aitxuri Herri Eskolak, Segurako Udala eta Laiotz Herri Eskolarekin batera, programa honetan sartuta daude eta esan, 2004-2005 ikasturterako Gipuzkoako Foru Aldundiak 2.800 € ko laguntza eman zuela, erdia, Zegamako Udalak jasotzen du eta beste erdia Segurako Udalak. Ondoren, Udalek, diru hau Aitxuri Herri Eskolari Zegamako kasuan eta Laiotz Heri Eskola Segurako kasuan emanten diote. Horrezaz gain, Zegamako Udalak, 1.562,63 € ordaintzen dizkio, Eskola Kirolaren egitura bermatzeko. 2005-2006 ikasturteko laguntza ere eskatua du Udalak eta oraindik erantzunik jaso ez badugu ere Foru Aldundiaren aldetik, iazko laguntzaren antzekoa izatea espero da.

Kirola, edonorentzat osasungarria

KULTUR-ETXEAN EGOKITZE LANAK EGITEKO DIRULAGUNTZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak Zegamako Udalari Kultur-Etxean egokitze lanak egiteko 72.599 € edo 12.079.457 pezetako dirulaguntza eman berria dio. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak "irisgarritasuna bultzatzeko eta bermatzeko" onartutako dirulaguntza programaren barnean, 30.809 € edo 5.126.186 pezetako dirulaguntza ematea ebatzi du. Dirulaguntza hauek Udalak duen egitasmoaren %40a inguru finantzatzen du. Beraz, egitasmoa errealitatera eramateko dauden posibilitateak aztertu egin beharko dira.

IDIAZABALGO BIDEGURUTZETIK ZEGAMARA ARTEKO BIDEAN HOBEKUNTZA LANAK ABIAN

GI-2637 errepidea Idiazabalgo bidegurutzetik Segurarainoko zatia zabaldu eta hobetzeko proiektua iazko irailaren 28an onartu eta bere exekuzioa 2.967.992,61 € edo 493.832.410 pezetako lizitazio oinarriarekin, lanen kontrataziorako deialdi publikoa egitea erabaki zuen Diputatuen Kontseiluak. Honenbestez, lehiaketa publikoa gauzatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak iazko abenduaren 23an erabaki zuen GI-2637 errepidea Idiazabaldik Segurarainо zabaldu eta hobetzeko lanen exekuzioa "Brues y Fernandez Construcciones S.A." enpresari 2.950.518,36 € edo 490.924.930 pezetan (BEZ barne) esleitzea (urtarrilaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua). Dagoeneko obrak aurreratuta eta martxo aldera amaitzea aurreikusten da.

Idiazabaldik Segurarainoko bidea zabaldu eta hobetzeko lanak aurrera badoaz ere, Seguratik Zegamarainoko zatiari dagokion prozedura administratiboa ere ez dago geldi. Honela, Diputatuen Kontseiluak maiatzaren 31n GI-2637 errepidea Seguratik Zegamaraino (Kortaberriko bidegurutzeraino) zabaldu eta hobetzeko proiektua idazteko laguntza teknikoa kontratatzeko ezaugarri teknikoen agiria onartu ondoren (abuztuaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua), Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuko Errepideetako zuzendaritza nagusiak GI-2637 errepidea Seguratik Zegamaraino zabaldu eta hobetzeko proiektu teknikoaren idazketa lehiaketa publikora atera zuen; 160.000 € edo 26.621.760 pezetako lizitazio oinarriarekin. Idazketa epea 7 hilabetekoa finkatu zuen (ekainaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua). Aurkeztutako hamabi eskaintza teknikoak aztertu eta baloratu ondoren, GI.2637 errepidea Seguratik Zegamaraino zabaldu eta hobetzeko proiektua idazteko lana "Injelan SL" injineritza enpresari 125.599 € edo 20.897.915 pezatatan (BEZ barne) esleitu zion Gipuzkoako Foru Aldundiak (irailaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

2007. urteko lehen lauhilabetean Seguratik Kortaberriko bidegurutzeraino lanak hasteko Diputazioak emandako hitza betetze bidean doala esan daiteke, kontuan izanik proiektuaren idazketa, bere onarpena eta lanetarako behar diren lur eta eskubideen okupaziorako urratsak datorren urtean burutu daitezkeela. Beraz, bigarren fase honi ekin ondoren, Zegamara arteko zatia faltako litzateke egiteko. Aldundiaren hitzetan "hasitakoari jarraipena eman eta amaitu egin behar da". Beraz, zegamarrok itxaropena eta pazientzia eduki beharko dugu, aspaldidanik amets genuen errepide zabal eta egokia errealitate bihurtzen ari baita.



Errepidea zabaldu eta hobetzeko lanak

Idiazabalgo bidegurutzetik datoz berrikuntzak

BIDEGORRIA

Esan daiteke aurtengoan bidegorriaren eraikitzeko asmoa errealitate izateko bidean jarri dela. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Eramangarrirako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Idiazabaldik Segurara arte GI-2637 errepidea zabaldu eta hobetzeko proiektuaren 1. proiektu osagarria (bidegorria) kontratatzeko deialdi publikoa egin zuen (abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua). Lizitazio oinarria 510.750,63 €tan (BEZ barne) finkaturik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Eramangarrirako Diputatuak irailaren 27an erabaki zuen lanak "Brues y Fernández Construcciones S.A." enpresari, 509.971,65 € edo 84.852.142 pezetan (BEZ barne) adjudikatzea. Ildo berean, uztailaren 26an Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Idiazabal eta Segurako Udalen arteko lankidetza hitzarmena onartzea, Idiazabal-Segura bidegorria egiteko (abuztuaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua). Honenbestez, dagoeneko bidegorriaren exekuzioa egun egiten ari diren bide zabaltzearekin batera burutzen ari dira.

Bestalde, Seguratik Kortaberriko bidegurutzeraino izango da azpiegitura hau gauzatuko den hurrengo zatia. Eta noski, hasiera 2007ko lehen hiruhilabeterako aurreikusten den zati honetako bide lanekin koordinatuta egingo da.

UDA 2005

Ekainaren 27tik uztailaren 29ra bitartean, astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 13:00etara, izan dira aurten "Uda 2005" haurrei zuzenduriko jarduerak. Haurrentzako joku eta jolasak egin dira batez ere horretarako pilotalekua edo frontoia erabili da eta eguraldi txarra zegoenean Udal Liburutegi eta Kultur Etxeko Bideo Gelaren erabilpena ere beraien eskura izan zituzten. 26 haurrek eman zuten izena eta bi begirale zeudenez, INEMetik bideratuak, bi talde osatu ziren. Begirale lanetan Amaia Perez Arrieta eta Aloña Gorospe Bidaola aritu ziren.

AUTOBUSAK EUSKARAREN ALDEKO EKIMENETARA IRISTEKO

Udal Kultura Batzordetik, aurten ere hiru autobus antolatu dira, Kilometroak, Nafarroa Oinez eta Herri Urratsera joateko. Esan, Kilometroak, Urriaren 2an burutu zela Lenitz Gatzaga-Aretxabaleta inguruetan eta Nafarroa Oinez, berriz, Altsasun egin zela urriaren 16an. Nafarroa Oinezeko autobuserako 24 bat lagunek bakarrik izena eman zuten baina hala ere, autobusa jartzea erabaki zen; azkenean Seguran ere nahiko jende gutxi zegoela eta elkarrekin autobus bakarra antolatu zen. Herri Urratserako berriz, ez zen autobusik osatu, hurrengo asteburuan Arantzazu Peregrinazioa izateak behar bada izan zuen eragina egun horretan.

ORIA IBAIA PROIEKTUA

"Oria Ibaia Proiektua" aurkeztu zuen Iñaki Olazabal eskultoreak, "Ikustentzunezko eta Arte Plastikoaren Goiart-2002-Ordizia" izeneko lehiaketara eta bere proeiktua izan zen aukeratua sari hori jasotzeko. Dirusariaz gain, sariak, proiektua beraren finantziazioa beregan jasotzen zuen. Proiektua aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa eta eskulturak egingo dituen herrietako Udalek era beren babesa eman zioten. Bere proiektuak Oria ibaia du gaitzat eta Oria ibaia pasatzen den herri guztietatik 7 aukeratu ditu eskultura egiteko. Oria Zegaman sortzen denez, Zegamari lotutako eskultura, Udal arkupeetan egin zuen. Zegamako eskulturaren itxura ura biltzen duen iturri baten antzekoa da. Oraindik kokapena finkatu gabe badago ere, datorren urtean jarriko da.

GAZTEENTZAT ZERBITZUAK AREAGOTZEKO UDAL PLANA

Azken urte hauetan gazteen egoera zein den ezagutu eta hauen eskaera eta beharrak aztertu ondoren Zegaman gazteentzat dauden aukerak eta baliabideak nola hobetu aztertzen aritu da Udala. Asmo horiek bultzatuta herriko gazteekin hainbat bilera eta elkarrizketa egin dira azken laupabost urteetan, horietatik lanerako ildo nagusiak ondorioztatuz eta garatuz.

Horrela 2001-2002 urteetan, Siadeco enpresak zuzendu eta burututako azterketa orokor bat egin zen eta 2003-2004 urteetan azterketa horretatik ateratako zenbait ondorio praktikan nola jarri lantzen aritu da Udala eta herriko gazteak, beste zenbait erakundeen laguntzaz, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin nagusiki. 2005. urtea beraz lan honen guztiaren emaitzak gauzatzen hasteko eta denen artean Zegamako Gazte Plana egin eta hainbat ekintza martxan jartzeko garaia izan da.

Uda 2005eko haur eta hezitzaileak

Hurrengo urtean hiru dira lortu nahi diren proiektuak edo errealitateak:

1- Gazte Txokoa. 12 eta 16 urte arteko gaztetxoentzat aisialdirako eta bizikidetzarako lekua izango den lokala. 2006 urtean zehar errealitate bihurtuko da. Bere kokapena Kultur Etxean izango da ziurrenik eta honetarako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuarekin ari da elkarlanean bai Gazte Txokoa bera nahiz honen funtzionamendua antolatu eta prest izateko.

2- Gazteentzat Informazio Zerbitzua. Gazteen interesei eta beharrei zuzendutako hainbat informazio (ikasketak, bekak, oporraldietarako aukerak, gaztelandegiak, gazte txartela…) eskainiko diena jarri nahi da martxan, bai informazio bulego zerbitzu bat eratuz nahiz informazioa pertsonalki bidaltzeko moduak martxan jarriz egungo teknologia berriez baliatuz (internet, korreo elektronikoa, eta abar)

3- Gazteen lokala. Gazte lokala erabiltzeko Zegamako Udalaren eta Zegamako gazteen arteko hitzarmena sinatu berria da abenduan. Zegamako udalerrian bertako gazteen egoitza, topagune eta ekintzetarako bilgune izan dadin helburuekin udal jabetzako lokal baten egokieraz ohartuta, Zegamako Udalak eta gazteak horretarako hitzarmena sinatu dute, lokal horren antolaketa, funtzionamendu eta erabilerarako hainbat alde adostu eta hitzartuz. Zegamako gaztetxea izango den gazte lokal honen kokapena udal jabetzakoa den zineko eraikuntza izango da. Eraikuntza horretan gaztetxeak izango dituen lokalak berriz orain artean adinekoen egoitzarako erabilitakoak dira: gela nagusia, komunak eta almazena. Zineko eraikuntzan Gaztetxearen kokapena behin-behinekoa da, eraikuntza honek izango duen etorkizunari baldintzatua baitago. Zegamako Gaztetxearen kudeaketa Zegamako gazteek eramango dute. Kudeaketa honek bi ezaugarri izango ditu: gazteen zuzendaritza zuzena eta autogestioa. Horretarako hainbat talde eratu dira eta hitzarmen honen jarraipena Zegamako gazteek eta Zegamako Udalak elkarrekin osatutako Udal Gazteria Batzordeak egingo du.

Iñaki Olazabal lanean

Gazteak Kultur-Etxean elkartu izan dira

KULTUR-ETXE ATZEALDEKO BIDEA (GI-4251 ERREPIDEA) ZABALDU ETA HOBETZEA

Zegamako Udalak duela urte batzuk hasitako gestioen ondorioz, 2003ko abuztuaren 27an Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentura idatzia igorri zuen Kultur Etxe atzealdetik doan GI-4251 errepidea zabaldu eta hobetzeko lanak egiteko premia azalduz eta finantzaketarako dirulaguntza emateko eskatuz.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Sustapenerako Departamentuak uztailaren 27ko 74/2004 Foru Dekretuan ezarritakoa jarraituz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei zuzendutako dirulaguntza programa plazaratu zuen. Honen ondorioz, Udal Batzarrak 2004ko irailaren 22an Kultur Etxe atzealdeko bidea (GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean) zabaldu eta hobetzeko dirulaguntza eskaera egitea ebatzi zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Sustapenerako Departamentuak 2004ko abenduaren 30ean erabaki zuen Zegamako Udalak egindako dirulaguntza eskaera aintzat hartzea eta 147.810,60 € edo 24.593.614 pezetako dirulaguntza ematea. Dirulaguntza honi erantsi behar zaio Zegamako Udalak egindako eskaerari onartuz, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak obra hauen bidez hobetuko den irisgarritasuna (nagusiki eraikiko den espaloiaren bidez) laguntzeko emandako 41.886,64 € edo 6.969.350 pezetako dirulaguntza.

Gauzak horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak aurtengo martxoaren 29an Kultur Etxe atzealdeko bidea (GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean) zabaldu eta hobetzeko proiektu teknikoa igorri zuen eta honekin batera Udalak egitasmo hau gauzatu ahal izateko onartu beharreko ondorengo baldintzak:

- Diputazioko Azpiegituretarako Departamentuak bere gain hartzen du lursailak desjabetu eta eskuratzeko tramite guztiak egiteko konpromisoa, balio justuak ordaintzea barne.
- Zegamako Udalak lanak enkantera atera, kontratatu, gauzatu eta zuzenduko ditu, Diputazioak onartutako proiektuaren arabera.
- Diputazioak Udalari 30.000 euroko faktura ordainduko dio obrak egiteko diru laguntza gisa.
- Horrez gain, Diputazioak errepidea egokituko du, hasieratik plazaraino, Departamenduaren artapen arrunteko kontusailen kargura. Lan horiek obra nagusiarekin koordinatuta egingo dira.
- Obrak amaitutakoan eta aipatutako konpromiso guztiak betetzen direnean, Udalak errepidearen titularitatea eskualdatzea onartu beharko du, GI-2637 errepidearekiko bidegurutzetik hasi eta Olaran errekaren gaineko zubirainoko zatia (0+160 k.p. gutxi gorabehera), hain zuzen, eta aurrerantzean zati honetan ez da Foru Aldundiaren sarekoa izango.

Udal Batzarrak apirilaren 4an egindako Udal Batzarrean Aldundiak ezarritako aurreko baldintzak onartzea erabaki zuen. Honenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuko Foru Diputatuak apirilaren 18an emandako Foru Aginduaren bidez, "Girder Ingenieros S.L." injineritza enpresak egindako Kultur Etxe atzealdeko bidea (GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean) zabaldu eta hobetzeko proiektua onartu aurreko jendaurreko epea irekitzea ebatzi zuen. Jendaurreko epea abian jarri zen maiatzaren 12an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik kontatzen hasita. Eskainitako epea iragan ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak uztailaren 5ean erabaki zuen Kultur Etxe atzealdeko bidea (GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean) zabaldu eta hobetzeko proiektuari behin betiko onarpena ematea eta honenbestez uztailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Halaber, Kultur Etxe atzealdeko bidea (GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean) zabaldu eta hobetzeko proiektuaren lurrak hartu aurreko aktak egiteko deialdia egitea erabaki zuen eta abuztuaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburuak uztailaren 26an emandako Dekretuaren bidez, Kultur Etxe atzealdeko bidea (GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean) zabaldu eta hobetzeko proiektua

Obrak hasi aurretik

Kultur- etxe atzeko obra eremua

Obren exekuzioa



burutzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak lehenbailen hartzeko ebazpena luzatu zuen (abuztuaren 11ko Euskal Autonomi Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Lurren okupaziorako hasitako prozedura administratiboari irailaren 16an eman zitzaion amaiera. Alegia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuak Kultur Etxe atzealdeko bidea (GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean) zabaldu eta hobetzeko lanak burutu ahal izateko, lurrak hartu aurreko akta altxatu zuen Zegamako Udaletxean. Lur-jabeak Martin Etxezarreta Muñoa eta Juan Etxezarreta Muñoaren oinordekoak izanik hauek ziren arduradun. Berauei 670,41 m2ko lurra hartu zitzaien (dagokion kalteordaina ordaintzeko baldintzapean), beraien adostasunarekin, noski.

Lurren okupaziorako jarraitu beharreko prozedura administratiboa amaiturik, lanen kontrataziorako bidea martxan jartzea gelditzen zen. Honenbestez, lehen urratsa Udal Batzarrak uztailaren 28an eman zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuarekin aurrez adostutako hitzarmena onartuz. Honen bidez obra eremuaren errepide zatia Diputazioaren jabetzatik Udalaren jabetzara eskualdatzen da, besteak beste. Bilera berean, ondorengo puntuan, Udal Batzarrak "Girder Ingenieros S.L." injineritza enpresak idatzitako proiektu teknikoa eta baldintzen plegu ekonomiko-administratiboak onartzea eta lanen kontrataziorako deialdi publikoa egitea ebatzi zuen. 335.009,97 € edo 55.740.968 pezetako lizitazio oinarriarekin (BEZ barne) abuztuaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkia. Eskaintzak aurkezteko epean "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresa izan zen plika sartu zuen bakarra. Honenbestez, Udal Batzarrak irailaren 12an erabaki zuen Kultur Etxe atzealdeko bidea (GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean) zabaldu eta hobetzeko lanak "Construcciones Pedro Iparraguirre S.L." enpresari 326.340,11 € edo 54.298.425 pezetan (BEZ barne) adjudikatzea. Kopuru honi Udalak "Iberdrola S.A."-ri transformazio zentroa lekuz aldatzeko ordaindutako 23.267,25 € edo 3.871.345 pezeta erantsi behar zaio.

Irailaren 26an obrei hasiera emanez zuinketa akta altxatu zen. Kontuan hartu behar da lan hauen ondorioz, errepidea zabaldu, aparkaleku berriak sortu, espaloia eraiki, argindarraren transformazio zentroa berritu eta lekuz aldatu eta komun publiko berriak egingo direla. Gainera kontuan hartu behar da Udalak "Girder Ingenieros S.L." injineritzari esleitu ondoren, Aldundiak hasiera batean egindako proiektuan (lurren okupazioaren eremua aldatu gabe) funtsezko aldaketa eragin dituela; hain zuzen ere aparkaleku gehiago egitea (lerroan izan beharrean, "baterian" jarrita).

Udal Gobernu Batzarrak irailaren 12an erabaki zuen lanen zuzendaritza teknikoa "Girder Ingenieros S.L."-ri 10.440 € edo 1.737.070 pezetan (BEZ barne) esleitzea.

Lanak aurreikusitako epean egiten ari dira eta dagoeneko aurreratuta badaude ere, otsailaren bukaerarako guztiz amaituta utziko dira.

Intxaustiko errota berreraikitzeko lanak

Udaletik aurten denen artean burutu den lana azpimarratu nahi da azkenik. Ez baita erraza horrelako gaietan akordioetara heltzea eta proiektuak errealitate bihurtzea. Txalotzekoak dira beraz herrriko hainbat gazteen lanerako kemena eta azken hilabete hauetan egindako lanaren emaitza on bezala jo daitekeen eta elkarrekin gauzatu dugun hasierako lorpen hau, Zegamako Gaztetxea izateko Udalaren eta gazteen arteko hitzarmena. Elkarlan oparo eta emankor baten hasiera izan dadin apostua egiten dugu benetan.

INTXAUSTIKO ERROTAREN BERRERAIKITZE LANAK

GI-2637 errepidean bihurgunea zuzentzea eta Oria ibaiaren uholdeen aurkako defentsa egitea eta bideratzea Intxaustin obraren amaierak berarekin ekarri zuen Intxaustiko errota zaharraren desagertzea, obraren hasieran errepidea eraiki behar zuen enpresaren planoen interpretazio okerraren ondorioz. Udalak, Diputazioko Kultura Departamentuko teknikaria den Manu Izagirreren aholkuak jarraituz eta Gipuzkoan dagoen mota honetako errota bakarra izanik, berreraikitze lanekin hasteko erabakia hartu zuen. Honela, Udal Gobernu Batzarrak otsailaren 28an Intxaustiko errota eraberritzeko proiektu teknikoa eta kontratazioa arautuko duen baldintzen pleguen onarpena ebatzi zuen. Lizitazio oinarria 18.030,81 € edo 3.000.000 pezetan (BEZ barne) finkatu zen. Lanen kontrataziorako prozedura administratiboa jarraitu ondoren eta aurkeztutako eskaintza ekonomikoak azterturik, Udal Gobernu Batzarrak apirilaren 4an Intxaustiko errotaren berreraikitze lanak Constantino Sagastume Etxeberriari 18.000,06 € edo 2.994.958 pezetan (BEZ barne) esleitzea ebatzi zuen. Lan hauek dagoeneko eginak daude eta hauen bidez eraikiko den errota urez hornitzeko beharrezkoa den azpiegitura berezia prestatu da. Beraz, egindako lana begiratu batean agerikoa ez bada ere, Intxaustiko errota abian jarri ahal izateko lehen fasean egin beharreko ezinbesteko lanak dira egindakoak.

Bestalde azaldu behar da lan hauez gain, aurrez egin direnak aintzat hartuz gero, orain arte egindako lanen balorazioa edo kostua 57.404,99 € edo 9.551.387 pezetakoa (BEZ barne) izan dela eta Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentutik Manu Izagirreren aholkularitza eta laguntza paregabeaz gain, 18.030,81 € edo 3.000.000 pezetako dirulaguntza jaso duela.

Datorren urterako aurreikusten da Udalak Intxaustiko errotaren berreraikitze lanak amaitzea eta honenbestez, elementu turistiko moduan egokitzea, herritarrak eta gure artera etortzen diren kanpotarrak Zegamarena den berreskuratutako ondare berezi hau ikusteko.

ZUHAITZ EGUNA

Martxoaren 17an Anduetza Egur Museoaren eremuan, Nikolas Zabaleta Udal ordezkariarekin eta Gipuzkoako Baso Elkarteko kideekin batera Aituxi Herri-Eskolako ikasleek mota desberdinetako zuhaitzak landatu zituzten. Ekintza honekin, gure haurrei naturarenganako errespetua eta natura zaintzearen garrantzaitasuna erakustea du helburu nagusitzat Zuhaitz Egunak.

Zuhaitz Eguna, Anduetzako ibilbide botanikoan ospatu zen

Haurreskola, lehen mailako zerbitzua

HAURRESKOLA

2005-2006 ikasturtean Haurreskolara haurrak eraman ahal izateko izenematea, lehenik maiatzaren 3tik 18ra izan zen eta bigarren deialdia irailean zehar. Aurten 2004 eta 2005ean jaiotako haurren izena eman ahal izan da. Haurreskolak egiten duen eskaintza 11 hilabetekoa da, abuztuan itxi egiten da eta egunean 11 ordu egoten da zabalik, beti ere familien beharrei eta eskaerei egokituta. Haur bakoitza egunean gehienez 8 ordu egon daiteke Haurreskolan.

Haurreskola ireki zela bi urte besterik ez bada ere, gero eta haur gehiago dago bertan. Aurtengo ikasturtean 9 haur daude, 5-6 hilabetekotik hasi eta urte eta erdira artekoak. Hona hemen haurren zerrenda:

Eneko Olarte, Lorea Agirre, Egoi Telleria, June Ormazabal, Aimar Arrondo, Nora Etxezarreta, Olaia Aizpeolea, Ander Arrizabalaga, Aitz Goia. Begirale lanetan Oihana Mendia eta Joana Rodriguez aritu dira.

UDALAK ANTOLATUTAKO KULTUR EKIMENAK

Kulturari dagokionean, urtean zehar, hitzaldiak, erausketak, ipuin kontalari saioak, txontxongiloak, ikastaroak eta abar antolatu ditu Udalak.

HITZALDIAK

Martxoaren 30ean, Erlezain Egunaren inguruan antolaturik, Ordiziako Unanue pasteldegiko Jose Maria Unanuek, "Goierriko gozogintzaren bilakaera"ri buruzko hitzaldia eman zuen. Besteak beste duela 70 urte bere aitonarengatik gaur egunerarteko errepasoa egin zion Goierriko gozogintzari eta garai hartan egiten ziren produktuak gogoratzeko aukera izan zuten bertaratuek. Azkenik, berak eztiz eginiko hainbat postre ekarri zituen hitzaldira eta hurbildutakoen iritziak jasotzen aritu zen.

Martxoaren 31n, eta hau ere Erlezain Egunarekin loturik, "Erlearen inguruko mitoak eta Euskal Herriko erlezaintzari" buruzko hitzaldia eman zuen Manex Lanatua iparraldeko erlezain adituak udal batzar aretoan.

Maiatzaren 23an, eta oraingoan, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren inguruan mendi giroa astindu asmoz, Edurne Pasaban izan genuen, Olarango Gizarte Zentroan, "Emakume bat eta K-2 ikustentzunezkoa"rekin. Bertan, Pakistan aldean emakume izateak dituen berezitasunak ezagutu zituzten bertaratuek.

Azaroaren 2an, San Martin Feriaren inguruan, Alberto Iñurrategiren "Gure Himalaya" ikustentzunezkoa izan genuen ikusgai Olarango Gizarte Zentroan, bertara jende ugari bildu zen eta galdera ugari erantzun zituen ikustentzunezkoa amaitzean.

Azoraren 3an, hau ere San Martin Feriaren inguruan, Murgi Baserriko Dolores Telleriaren eskutik, bere alaba Emi lagun zuela, talo ona nola egiten den irakatsi ahal izan zuten ikastaroan parte hartutakoek. Orea egiten eta taloa erretzen irakatsi zuten. Batek baino gehiagok etxera ere eraman zituen norberak egindako taloak eta datorren urterako ere saioa errepikatzekotan geratu ziren bertaratuak.

Azaroaren 8an, "Txakolinari buruzko ikastaroa eta kata" izan genuen Kasino Elkartean, Getarikoa Txakolinaren Jatorri Izendapenekoen eskutik. Hitzaldi hau ere, San Martin Feriaren bueltan antolatu zen. 15 bat pertsonek eman zuten izena txakolina dastatzeko eta dastatzeaz gain, Getariako Jatorri Izendapeneko etiketadun txakolina identifikatzen ikasi zen.

Azoraren 9an, egin zen azken hitzaldia, San Martin Feria ospatu aurretik. Oraingoan iazko urtean Zegamako Udalak bultzaturiko "Urbia, Aizkorri eta Zegamako Artzaintza" izeneko ikerketa lanak eman duen emaitza azaltzeko izan zen, berau Isabel eta Lierni Elorza ahizpek egin zuten eta artzaintzari lotutako herritar ugari bildu zen hitzaldira. Hitzaldia "Betitik artzain" izenburuarekin aurkeztu zen.

Txontxongilo emanaldia Kultur Etxean

ERAKUSKETAK

Alberto Iñurrategiren erakusketa:

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren inguruan, Alberto Iñurrategiren "Elkartasunean Mendia Bide" erakusketa Udaletxeko Batzar Aretoan ikusgai egon zen maiatzaren 23tik ekainaren 10 bitartean. Erakusketan, egun Baltistanen (Pakistan) burutzen ari diren bi proiektuen lanen berri ematen zen; bata "Matxulu" herrira ura eraman eta bestea, "Felix Iñurrategi " izena izango duen Mendi Eskolaren egoitza eraiki.

Luis Laskurainen erakusketa:

Bigarren erakusketa, San Martin Feriaren inguruan, Luis Laskurain margolariaren erakusketa izan genuen ikusgai Kultur-etxean bi asteburutan, azaroaren 12 eta 13an eta azaroaren 19 eta 20an.

IKASTARO-TAILERRAK

Pintura tailerra:

Maria Luisa Gorroxategiren eskutik, bi taldetan banatuta aritu dira margolaritza ikasten izena emandako 9 zegamar. Esan dagoeneko lau bat urte badirela ikastaro tailer honetan parte hartzen dutela eta fruitu onak ematen ari direla ikasleak.

Alberto Iñurrategi, pieza bateko giza-semea

Edurne Pasaban, lehen mailako mendizalea

Uztailaren 27ko kontzertua

Eskulanen tailerra:

Iñaxi Urreagaren eskutik 31 emakume aritu dira ikasturtean zehar eskulanak egiten Kultur-etxeko eskulan gelan eta esan hauek ere bi taldetan banatzen direla. Tailer honetan parte hartzen dutenek, San Bartolome jaietan urtero eskulanen erakusketa ikusgarri bat jartzen dute Kultur Etxean eta aurtengoa ere benetan zoragarria izan da. Eskulanak egiteaz gain giza harremanak sendotzeko balio izaten dute tailar hauek aipatu behar.

Tailaketa ikastaroa:

Jabier Arrietaren eskutik, tailaketa ere ematen da Zegaman urtean zehar eta ikastaro honetan 8 zegamarrek parte hartu dute aurten, eta hauek ere ikasle aditu bilakatuak daude dagoeneko.

IPUIN KONTALARIAK ETA TXONTXONGILOAK

Txikienentzat ere ipuin kontalari eta txontxongiloak izaten dira batez ere Gabon jaien inguruan, izan ere, astean zehar gure haurrek betebehar ugari izaten dituzte eta ekimen hauek oporretan daudenerako antolatzen saiatzen gara.

2004ko abenduaren 28an, "Irrintzi" Taldeko Joseba Ramirezen eskutik ipuin kontaketa izan zuten Kultur-etxean .

Urtarrilaren 3an berriz, Peio Añorga ipuin kontalari ezaguna izan genuen Kultur Etxean. Peiok bi saio egin zituen, lehenik bitik bost urte bitarteko haurrentzat eta bigarren saioa 6 urtetik gorako haurrentzat.

Urtarrilaren 4an, "Behi bis" taldearen eskutik txontxongiloak izan ziren ikusgai kultur-etxean eta esan haurrek izugarrizko gozamena hartu zutela txontxongiloei esker.

KONTZERTUAK

Musikari dagokionean, uda garain bi kontzertu izan ziren:

Uztailaren 27an, Euskal Musika Tradizionalaren kontzertua izan genuen, Josetxo Goia, Maddi Oihenart eta Juantxo Zeberioren eskutik herriko plazan gaueko 22:30etan. Josetxo Goia, saxoa eta konposizioaren arduradun izan zen, ahotsa Maddi Oihenartek jarri zuen eta pianoa jotzen Juantxo Zeberio aritu zen.

Uztailaren 29an, "Pirineo Jazz Orchestra" didaktikoak San Martin Parrokian eskaini zuen bere emanaldia eta esan, maila handiko kontzertua izan zela; bertan Jazzaren historiaren berri eman zuten, ikustentzunezko eta musika saioen bidez.

Azaroaren 23an, "Trikitixa eta perkusio kontzertua" esanahi zuten Donato Goienetxe eta Xabier Arakamak kultur-etxean. Esan jendetza ugari bildu zela kontzertu honetara eta zegamarrei izugarri gustatu zitzaiela.

ZEGAMAKO LIBURUTEGIA ON LINE SAREAN

Liburutegietako On Line Sarea, Eusko Jaurlaritzako Kultur Departamentutik bultzaturiko ekintza da, Euskadiko Liburutegi Sare guztia 2005 urte bukaerako sarean sartzeko helburua duelarik. Era honetara, Euskadiko Liburutegi guztiak liburutegi publikoetako katalogo bateratu bat edukiko dute eta aldi berean sarean egongo dira.

Sistema honen abantailak garbiak dira:

- Sarea osatzen duten liburutegi guztietako informazioa web orrialdean kontsultatzeko modua izatea.
- Onuradun bakoitzak liburutegi txartel bakar bat izatea, honekin Euskadiko edozein liburutegien zerbitzuak erabili ahal izango dira, etxez etxeko zerbitzua ere bultzatuz.
- Euskadiko edozein liburutegietan kontsultak egin ahal izango dira eta aldi berean eskaerak ere bai.

"Artzain betitik" hitzaldia Lierni eta Isabel Elorzaren eskutik

Guzti hau oso garrantzizkoa dela jabeturik, Zegamako Liburutegia ere On Line sarean sartzeko ahaleginak egiten ari da. Hala eta guztiz ere, On Line sarean sartu ahal izateko aurrez, liburutegian ditugun liburu guztiak beretiketatu egin behar dira eta beraz lan hau burututakoan kontabilizaturik geldituko dira; Zegamako Udal Liburutegian 8.000 edo 9.000 liburu egongo dira eta horietatik une honetan 2.600 liburu beretiketatuak daude iadanik. Datorren urtean, liburu guztiak beretiketatu eta erabiltzaileentzat liburutegi txartel berria abian egotea aurreikusten da.

Beretiketatu hau burutzeko Udalak ordenagailu berria, inpresora eta kodigoaren irakurtzailea jartzea "Goisystem SL" enpresari 1.500 € edo 250.000 pezetan (BEZ kanpo) esleitu zion otsailaren 14ko Gobernu Batzordean.

KASINOKO BERTSO JAIALDIARI LAGUNTZA

Erlezain Egunaren bezperan, apirilaren 2an, antolatu zuen Kasino Elkarteak urteroko bertso jaialdia. Bertsolariak, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Jesus Mari Irazu eta Nahikari Gabilondo izan ziren. Gai-jartzaile lanetan Josu Goikoetxea aritu zen. Udaleko Kultura Batzordeak, jaialdi honen zorrei aurre egiteko erabaki hartua du. Ondorioz, Kultura Batzordeak babes ekonomikoa eskaini zien jaialdia antolatzen jarrai zezaten eta esan, aurten Udal Kultura Batzordeak 1.067,04 € edo 177.541 pezeta ordainduz kitatu duela jaialdiak egindako zorra.

FRONTENIS TXAPELKETA

Urteroko ohiturari jarraituz, Zegamako Udaleko Kirol Bartzordeak herritarren arteko frontenis txapelketa antolatu zuen martxo eta apirilean zehar. 7 bikotek parte hartu zuten finalera iristeko ilusioarekin, baina lehengo urteko txapeldunak eta txapeldunordeak beraien postua beste inori uzteko prest ez zeudenez, finalera 2004ko finaleko bikoteak iritsi ziren, baina oraingo honetan Urko Agirre eta Urko Egimendia suertatu ziren garaile Argoitz Toledo eta Jon Urteagari errebantxa irabaziz.

TURISMO BULEGOA GAUR ETA BIHAR

2005. urtea aldaketa askoko urtea izan da Zegamako turismo sektorean. Aldaketa esanguratsuenak turismo bulegoaren gestioaz arduratzen den enpresaren aldaketa eta turismo bulegoaren leku aldaketa izan dira.

Orain arte, Anduetza museoan zerbitzu bakarra eskaintzen bazen ere, Diputazioko Mendietako departamentuko zuzendaritzapean Imanol Artola Diputazioko basozain zegamarrak, eginiko zur erakusketa, aurtendik, Turismo Bulegoaren egoitza ere bertan jarri da.

AITAMARREN EREMUAN 48 ETXEBIZITZA BERRIAK ETA GARAJEAK ERAIKI, PARKE PUBLIKOA EGITEKO LURSAILEN ZESIOA UDALARI BURUTU ETA TXARAPEKO ZUBI BERRIA ERAIKITZEKO HITZARMENA

Udal Batzarrak ekainaren 13an erabaki zuen "Gailur Berri S.L." enpresarekin Aitamarren eremuan (9-1 exekuzio unitatean) 48 etxebizitza eta garajeak eraikitzeko hirigintza-hitzarmena onartzea. Aipatutako merkantilak, Aranguren sendiari Aitamarren eraikuntza eta bera inguratzen duten lursailak erosi zizkion, guztira 90.575.38 m2. Era berean, Ibarreta baserriko jabeei 1.349,12 m2ko lursaila erosi zien. Era honetan, "Gailur Berri SL" eta Zegamako Udalak (3,273,50 m2ko azalera duelarik) hirigintzazko exekuzio unitatearen azalera osoa osatu zuen.

Udalak eta enpresa eraikitzaileak izenpetutako hitzarmenaren xehetasun aipagarrienak ondorengoak dira:

- UEU 9.1ean, 48 etxebizitza eraikiko dira, garaje eta ganbarez gain. Hauek 16 etxebizitzatako 3 bloketan kokatuko dira. Blokeek garaje eta trastetegien erabilpenarekin, sotoa izango dute eta behe oina, lehen oina, bigarren oina eta teilatupeko oina etxebizitza erabilpenarekin izango dute.
- 70 m2 erabilgarritik gorako etxebizitzek, 1652,78 € edota 275.000 pezetako gehienezko salneurri tasatua izango dute; teilatupeko espaziotan ezik, kasu hauetan salneurria % 10 igo daitekeelarik gehienez. Era berean, 70 m2ko azalera baino gutxiagoko etxebizitzek, 1652,78 € edo 275.000 pezetako salneurria % 10ean gaindi dezakete gehienez.
- 15 m2ko azalera duten garajeek, 15.025,3 € edota 2.500.000 pezetako salneurri tasatua izango dute.
- Trastetegiek m2 erabilgarriren prezioa 700 € edota 116.470 pezetakoa izango dute.
- "Gailur Berri SL"k eraikuntza eta hirigintza lanak 20 hilabetetan burutzeko konpromezua hartu du, obra baimenetik kontatzen hasita.
- "Gailur Berri SL"k 6 hilabetez (2005eko abenduaren 15era arte) Zegamako Udalak salmentarako ezarritako honako lehentasunak errespetatuko ditu, hurrenez hurren:

  1. Zegaman erroldatua egon eta beste etxebizitza baten jabe ez izatea.

  2. Zegaman erroldatua egon eta egungo etxebizitzan irisgarritasun arazoak izatea edota handiagoaren beharra izatea.

  3. 35 urtez azpiko gutxienez 2 pertsonaz osatutako famili edota elkarbizitza unitateak.
- Zegamako Udalak, lehen eskritura publikotik hurrengo 5 urtetan egingo diren transmisioengan tanteo eta erretrakto eskubidea beregan hartzen du. Etxebizitza erosleak ondoren salduko balu, lehenik Udalari eskaini beharko dio eta honek, dagokion eskubidea erabiltzen badu, Kontsumorako Prezioaren Indizea (KPI) aplikatuta igoko du etxebizitzaren salneurria.

Hitzarmenaren sinadura ekitaldia

- Zegamako Udalak, "Gailur Berri SL"rengandik 9.575,38 m2ko azalera duen Aitamarren finka eskuratuko du (Aitamarren etxea barne) erabilpen publikoko parkerako. Era berean, Oria ibaiaren mugan, ibilgailuentzat errepide bat egingo da, herriko sarrera arintzeko balio izango duelarik, eta norabide bakarrekoa izango da. Aitamarren parke publikoaren egokitze lanak, eta Hitzarmen honetan jasotzen ez den bidearen zatia ere, Zegamako Udalak exekutatu eta ordainduko ditu.
- Zegamako Udalak, "Gailur Berri SL"rengandik Txarape auzoa komunikatuko duen zubiaren sistema orokorra behar bezala exekutatuta eta lanak bukatuta jasoko du.
- Zegamako Udalak, "Gailur Berri SL" merkantilarengandik Oria ibaiaren ondoan 65 metroko bidea hartuko du, behar bezala lanak bukatuta.
- "Gailur Berri SL"k gainera, emandako lursaila eta eraikuntzari dagokion tasa eta zergak ordainduko dizkio Zegamako Udalari, baita hirigintza probetxamenduzko % 10a ere. Aipatutako ordainketak, Zegamako Udalak "Gailur Berri SL" enpresari eskuratzen duen eraikina eta zuhaitzen ordainketarekin eta

Aitamarren eremua

Eraikuntza lanak aurrera doaz

aipatutako sistema orokorren eraikuntzak sortutako gastuen zati bat ere bere gain hartuz konpentsatuko dizkio (Txarape auzoarekin komunikatzeko zubia eta 65m-ko bidea ibaiaren ondoan). Era honetara, aipatutako konpentsazioak Zegamako Udala eta "Gailur Berri SL" enpresaren arteko kontabilitate mugimenduak berdinak izatea ekarriko du, zeron (0) geratuz.

Udal Batzarrak uztailaren 18an erabaki zuen "Gailur Berri S.L." enpresari Aitamarrenen 48 etxebizitza eta garajeak eraikitzeko baimena ematea, baldintza ezberdinak medio. 48 etxebizitzak 3 bloketan banatzen direla aintzat harturik, proiektu egileak, Agustin Mitxelena arkitektoak, hiru proiektu ezberdin aurkeztu zituen; etxe-bloke bakoitzarentzat bere proiektua.

Enpresa eraikitzaileak, obra zuzendaritzak eta Udalak abuztuaren 3an zuinketa akta izenpetu zuten eta, beraz, ofizialki obrei hasiera eman zitzaien. Obrak martxa onean ari dira eta enpresa eraikitzaileak esandakoaren arabera, datorren urtarrilaren amaierarako hiru eraikinen egitura amaituta egongo da.

Hirigintza garapen honen bidez udalerriak esandako onura azpimarragarriak lortzen ditu (parke publikoaren lurra, saihesbidea egiteko lurra eta zatiaren exekuzioa, Txarapeko zubia ahalbideratzea, etxebizitza duinak prezio egokietan, besteak beste) urtetako aldarrikapen eta beharrei erantzun zuzena emanez.

AITAMARREN EREMUKO KONPENTSATZIO PROIEKTUAREN ONARPENA

Aitamarren eremuan etxebizitzak eraikitzen ari den "Gailur-Berri S.L." enpresak, hirigintza eremuko Konpentsatzio Proiektua aurkeztu zuen Udalaren onarpenerako. Proiektu honen bidez, udal planeamenduaren haritik sortzen diren lurzati berriak aitortu eta Jabego Erregistrora altxatzen dira. Hain zuzen ere, Aitamarrengo Parkea eta eraikina barne Herriaren jabegoan gelditzen da, Oria ibaiaren ertzean eraikiko den saihesbidearen lurzatiak ere Herriarenak izango dira eta hiru eraikinetako orubeak "Gailur-Berri S.L." enpresaren jabegoan gelditzen dira, gero honek erosle bakoitzari bere etxebizitza eta honi dagokion orube zatia eskualdatu ahal izateko. Halaber, dokumentu honen bidez jabari publikorako geldituko dira bide, zubi eta espaloiak. Gauzak horrela, Udal Gobernu Batzarrak azaroaren 14an egindako bileran onartzea eta 15 egunez jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Bisitarien edozein eskaintza gauzatzeko aukera du turismo bulegoak. Informazio orokorra zein zehatza aurkitu genezake bertan eta elbarrientzat ere irisgarritasun baldintzak betez prestatua dago.

Urte bukaerarako bulegoak denda bat izango du non bertan Zegamako puntu interesgarrienen informazioa edukitzeaz gain Zegama zein Euskal Herriko leku desberdinei buruzko informazioa aurkitu ahal izango dugu.

Esan beharra dago zegamar guztiak gonbidatuta zaudetela erakusketara edo turismo bulegora. Nahi duenak bidaia gidatuak izango ditu Zegamako alde zaharrean zehar, Zegama inguruko parajeetan eta baita Aizkorriko gune interesanteenetan zehar ere.

Zegamako turismo bulegoa aste guztian dago irekita. Astelehenetik ostiralera 10.30-13.30 goizez eta 15.30-18.30 arratsaldez. Larunbatetan eta gainontzeko jai egunetan 11.00-14.00 goizez eta 16.00-19.00 arratsaldez.

2005 urtean 1.000 bisitaritik gora izan ditu museoak eta 1.100 bidaiari bertaratu dira Zegamari buruzko informazioaren bila.

Bisitari gehienak Euskal Autonomi Erkidegokoak izan dira eta jarraian kataluniarrak. Santiago Bidea egiten dabiltzanen bisita ere nabari da turismo bulegoan, egiten ari diren Bideari buruzko informazio bila. Aurten erromes alemaniarrak, kanadarrak, frantsesak eta espainolak bisitatu dute turismo bulegoa.

2006. urterako Zegamako turismo bulegoak dituen helburuak hauek dira:

1.- Zegamako turismoaren eta Aizkorriko parke naturalak ematen dizkigun lekuen dinamizazioa. Baita Zegamako produktuak ezagutzera ematea ere, horretarako beren produktua saldu nahi duten zegamarrei eskatzen zaie turismo bulegoarekin harremanetan jar daitezen.

Bestalde, herrian bertan Urkitza eta Huer-Aikek sortutako artisau lanak ere turismo bulegoko dendan aurkitu ditzakezue.

2.- Itourbask erakundearen partaide izatea, horrela Zegamari buruzko informazioa nahi duten Itourbasken sarean sartutako beste turismo bulegoei informazioa eman ahal izateko. Udal Batzarrak azaroaren 28an erabaki zuen "Itourbask" erakundeen parte izateko eskaera egitea.

3.- Turismo bulegoen kalitatearen "Q" lortzeko behar diren pausoak ematea.

Turismo bulegoarekin harremanetan jartzeko telefonoa: 943 80 21 87 eta E-maila: zegama@aldabe.com

TURISMORAKO FOILETOAK

Zegamako Udalak, turismoa sustazeko apostua egina du eta horien artean herria ezagutzera emateko foiletoak egitea da urratsetako bat. Aurrekoak dagoeneko bukatzear daudenez abenduan berriak argitaratzea aurreikusita dago, dagoneko foiletoen zirriborroak prestatuta baitaude; beraz, Zegama herria ezagutzera emateko foileto bat eta Anduetza Egur Museoa ezagutzera emateko beste foileto bat argitaratuko dira.

HITZARI DIRULAGUNTZA

Udal Batzarrak urriaren 17an erabaki zuen Goierriko Udalek Hitzarekin dirulaguntza emateko adostutako hitzarmena onartzea. Honen bidez, Zegamako Udalak biztanle bakoitzeko 2€/urteko ordainduko dizkio Hitzari; hau da, 2005eko urtarrilaren 1eko biztanle kopurua aintzat hartuta 2.614 € edo 434.933 pezeta. Akordio honen azalpena azaroaren 30ean egin zen Goiekiko bulegoetan. Bertan, Goierriko udalerrietako ordezkariek Hitzarekin hitzarmena sinatu zuten. Esan, Goierriko ikustentzunezko beste hedabidea den Goierri Telebistari ere, kopuru bera, bi euro biztanleko, eman zaiola irizpide bera jarraituz.

Hitzakin hitzarmenaren sinadura ekitaldia

GIZA ELKARTEEN ARTEAN DIRU BANAKETA

Zegamako Udalak bere aurrekontutik 9.316 € banatu zituen giza elkarte ezberdinen artean. Banaketa bi multzotan egin zen:

A. Erakunde ez Gubernamentalei Laguntza.
B. Elkarte ezberdinak.

A. ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTALEI 2004KO DIRU BANAKETA (2004)

Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús	1.322,23 €
Kasongo Lunda	1.202,02 €
Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioa	751,27 €
Oscar Romero	360,61 €
Munduko Deiak	360,61 €
Pueblos de Sur	251,63 €
Asociación Chernobil	251,63 €
Asia Hegoaldeko Itsasikara	601,01 €
GUZTIRA	**5.101,01 €**

1.-"Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús": EEG

Arduraduna: Victoria Urriolabeitia Arangüena, Zegaman parroko egon zen Peioren arreba da. Dirulaguntza: 1.322,23 €.

Helburua, Santa Cruz de Boliviako "Estación Argentina" auzoko haur eta gazteen heziketan laguntzako Bekak ematea izango da.

2.- Kasongo Lunda eskualdearen garapena: EEG

Arduraduna: Alejandro Aldanondo Idiazabaldarra.

Dirulaguntza: 1.202,02 €.

Helburua: behi eta txekorren hazkuntzan onarritutako garapena indartzea da. Bertako jendearen proteina beharrak asetzeko.

3.- Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioa: EEG

Arduraduna: Javier Sudupe Aretxabaletakoa

Dirulaguntza: 751,27 €.

Helburua: Shaling herria urez hornitzeko helburua du.

Non: Hushe-Balistan-Pakistán.

4.- "Oscar Romero" Solidaritza Batzordea: EEG

Arduraduna: Mila Andueza, Bergararra.

Dirulaguntza: 360,61 €.

Helburua: El Salvadorren energia elektrikoa sartu, helduen alfabetizazioa landu eta oinarriko aleak sortu.

5.- Munduko deiak: EEG

Arduraduna Roberto Lopez, Billabonakoa.

Dirulaguntza: 360,61 €.

Helburua: Colombiako Amagán Mucafas emakumeen kooperatiba proiektua sortzen lagundu.

6.-Pueblos del Sur

Arduraduna: Asier Lanchas Sanchez, Donostiarra.

Dirulaguntza: 251,63 €.

Helburua: UMAko bigarren eskola proiektua. Hezkuntzaren garapenerako proiektua.

Non: Nepaleko Kaski lurraldean, Annapurna mendiaren magalean kokaturik.

7.- Asociación Chernobil

Arduraduna: Kiko Saiz Etxebeguren, Bilbotarra.

Dirulaguntza: 251,63 €

Helburua: Hadling (Iberia) Harrera familia gastuak ekiditeko programa 2005.

Non: Chernobilen.

8.- Asia Hegoaldeko Itsasikara aurre egiteko EUDELek bultzatzen duen laguntza proiektuari.

Dirulaguntza: 601,01 €.

B. ELKARTE EZBERDINEI LAGUNTZAK

Giza Elkarte Ezberdinei, Zegamako Udalak urteko aurekontutik 3.951,96 € laguntza banatu dizkie, modu honetara:

Gurutze Gorria	1.880,00 €
Herriko Parrokia	751,27 €
Odol Emaileak	420,71 €
ATZEGI	150,00 €
ASPACE	150,00 €
GIZAKIA HELBURU	150,00 €
FONTILLES	150,00 €
HIES	150,00 €
MINBIZIAREN AURKA	150,00 €

SAHARAR HERRIARI LAGUNTZA

Zegamako Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik Saharar herriari lagundu nahian, urtarrilaren 17tik 26ra elikagai bilketa kanpaina antolatu zen.

Kanpaina honen helburua, hiru produktu konkretu biltzea zen: atun latak, azukrea eta konpresak.

Bilketa egin ondoren, Sahararen aldeko Euskal Karabanaren bidez, Saharara eraman ziren produktu hauek; honebestez laguntza zuzena eginik.

Zegaman hiru bilgune prestatu ziren: Udaletxea, Kooperatiba eta Edurne Janari denda.

Bilketa erabat arrakastatsua izan zen, betiko moduan Zegamako herriak solidaritate maila handia erakutsi zuelarik.

"Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioa" erakusketa

HITZALDIAK

• Apirilak 28: "Testamentuak eta Jaraunspenak"

HELBURUA: Ekintza honen helburua, testamentu-legeak arautzen dituzten hainbat alderdi ezagutzera ematea da, horrela ondasunekin zer egin hobeto jakiteko.

PROGRAMA:

1. Hil osterako testamentua.
2. Bizi-testamentua.

HIZLARIA: Alejandra Murua.

• Maiatzak 26: "Bakarbizitza eta elkarbizitzako aukerak"

HELBURUA: jardunaldi honen helburua, bakarrik bizi diren pertsonei isolamendua eta bakardadea saihesteko tresnak eta informazioa eskaintzea da, segurtasun-giroa eta elkarbizitzako bizitza-ereduaren aldeko aukera egiten duten pertsonentzat etxea hartzeko dauden moduak eta baliabideak ezagutzera ematea.

HIZLARIA: Saioa Lasa.

• Ekainak 28:"Hertsura: aurka egiteko gakoak"

HELBURUA: Ekintza honekin, gaixotasun horren

sintomak antzematen irakatsi nahi da, alde batetik, berori aurrea hartzeko, eta bestetik, jasaten denean aurka egin ahal izateko.

HIZLARIA: Garbiñe Agirre.

• Urriak 19: "Osteoporosia, arriskuak eta zainketak"

HELBURUA: Ekintza honen bidez aparatu muskulo-eskeletikoko hainbat gaixotasun eman nahi dira ezagutzera, horien sintomei antzematen jakiteaz gain, horrelakorik jasaten dutenei eguneroko bizitzara moldatzen lagundu.

HIZLARIA: Miren Amasorrain

• Azaroak 22: "Sexualitatea adineko pertsonengan"

HELBURUA: Adineko pertsonen sexualitateak haien estatusean, ongizatean eta, oro har, bizi-pozean duen garrantzia ezagutzera eman nahi da, ekintza honekin.

HIZLARIA: Jose Luis Martin.

Hitzaldi guzti hauek Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatzen ditu Kutxaren laguntza paregabeari esker.

JUBILATUEN EGUNA

Uztailaren bigarren igandean, hilaren 10ean, Jubilatuen eguna ospatu zen.

Urtero bezala, eguna txistularien kalejirarekin hasi zen; ondoren herriko Parrokian Meza, bertan, bertsolariak eta Orkatz abesbatzak parte hartu zutelarik; Meza entzun eta polikiroldegira bazkaltzera. Zegamako Ostatu jatetxekoak emaniko bazkaria dastatu lagunartean eta Joxe Agirre eta Txomin Garmendiak bertsolariek, saio ederra emanez egin zen bazkalostea Iturriozen doinuaz lagundurik; sari banaketa ere izan zen eta azkenik dantza saio bat ere bai.

Garrantzizko eguna beraz guztiontzat, horrelaxe urte askotan izan dadila!

IKASTAROAK

JUBILATU ETA PENTSIODUNENTZAT SOIN HEZIKETA IKASTAROA

Urrian hasi eta ekainerarte, ikasturtean zehar ematen den ikastaroa dugu. Berezitasuna garbi dago, jubilatu eta pentsiodunentzat bideratua dago, hau da, soin heziketa bai baina patxadan. Astean bi egunetan biltzen dira, asteartean eta ostegunean eta Joakin Elkoro ordiziarra da ikastaroaren arduraduna.

Soin heziketa Zegamako herritarrengan ikastaro erabat arrakastatsua dela esan dezakegu. Urtez urte, ikasle ugari biltzen ditu, aurtengo ikastaroan hau da, 2005-2006 ikastaroan 23 pertsona daude izena emanak, iazko ikastaroaren modura 2004-2005 ikasturtean ere 23 ziren.

DROGOMENPEKOTASUNAREN PREBENTZIOAN LANEAN

Drogomenpekotasunaren Prebentziorako Zegamako Udal Plana abian jarri zen. Hain zuen ere, Zegaman drogomenpetasunaren aurrean dagoen kezka oinarritzat hartuta, arazoari nola aurre egin aztertu nahirik aurrera eraman zen lana, taldean oinarritutakoa izan dela esan dezakegu. AGIPADeko kideak, Zegamako elkarte eragile ezberdinek eta batez ere, Zegamako Udalak bere garaian gazteen artean eta Siadecoren bitartez jasotako informazioan oinarrituriko plana dela esan dezakegu.

Plan hau aurrera eramateko eta prestatzeko 22 pertsonako talde eragilea lanean aritu ziren, bost edo sei bilera ezberdinetan bilduaz, AGIPADeko bi kideak bilerak gidatuaz.

Planean landu beharreko 4 programa ezberdindu ziren:

1. Eskola mailan lan egiteko programa: irakasleekin eta ikasleekin osasun heziketa eta baloreak lantzeko proiektua aurrera eraman nahi da.

Etxebizitza babestuko logela

2. Familientzako prebentzio programa: gurasoen formazioa bultzatu nahi da. Helburua "Guraso Eskola" antolatzea.

3. Gizarteari orokorrean zuzendutako programa. Herritarrak informatzearen helburua izango luke.

4. Gazteei zuzenduriko prebentzio programa, gazteak beraiek protagonista nagusiak izango liratekelarik:

- 12-15 urte bitarteko gaztetxoen prebentzio plana.
- 16tik gorako gaztetxoen prebentzio plana.

2005 urteko ardatza, Gazteekin prebentzioa lantzeko programa aurrera eramatearena izan da.

Gazteekin hainbat bilera egin dira gaia aztertzeko eta hainbat gai aztertu ondoren, beraiei "Drogak: gizarte-gaia" erakusketa antolatzea iruditu zitzaien ekintzarik eraginkorrena, prebentzio lanean hasi ahal izateko. Erakusketa honek "gizartean drogak" gaiari buruz azterketa egiten du eta bitrina retroiluminatuen bidez azaltzen da guztia.

Zazpi gai aztertzen ditu:

- Alkoholarekin hasten direnak.
- Penalizazioa eta despenalizazioa.
- Drogak eta Marginazioa
- Drogak osasun arazo modura
- Harrera etxeak
- Gaitzen gutxitzea
- Kirolean doppina

Bertan 50 argazki bidez drogen arazoa azaltzen da. Argazki hauek Gazteiz, Bilbo eta Donostian, Kim Manresak jasoak dira.

Aldi berean, bideo emanaldi bat ematen da, zenbat pertsona ezagunen partehartzea jasotzen delarik.

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Etxez Etxeko Laguntzaren prestazioa definitzeko baldintzak onartzen dituen akordioa, Zegamako Udalak azaroaren 14an ospatutako Osoko Bilkuran, onartu zuen. Akordioa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Udalen Elkartea den EUDELek sinaturikoa da.

Akordio honen helburua, Gipuzkoa osoan Etxez Etxeko Laguntzaren arau bakar bat egitearena da, konkretuki pertsona ezinduentzako. Orainartekoan Udal bakoitzak bere arauak betetzen joan da, formula ezberdinak aplikatuaz. Honekin lortu nahi dena da Gipuzkoako Udal guztiak berdin funtzionatzea. Kostu aldetik prezio berdinak ezarriz, zerbitzuaren ordu kopuruak arautuz, ordu kopuruen gehitze bat bultzatuz, etb.

Etxez etxeko Laguntzaren akordio berri hau, 2006an martxan jartzeko asmoa dago.

ETXEBIZITZA BABESTUA

Ikasturtea hastearekin batera, abian jartzeko prest zegoen, baina martxan jartzeko pertsona baten eskaera behar zenez, lehen onuraduna urrian konfirmatu zenez, urriaren 10an jarri zen martxan.

Momentu honetan, herritar bat dugu bertan bizitzen. Hala ere, beste bost pertsonentzat lekua dago.

Bertan bizi ahal izateko, onuradun bakoitzak tasa bat ordaindu behar izaten du eta zerbitzu guztiekin tasa honen zenbatekoa, hilean 600 €koa da. Tasa hau, hala ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuen balorazio baten ondoren zehaztuko da.

Zein zerbitzu eskaintzen ditu?

- Etxearen garbiketa.
- Arropa garbiketa eta plantxa.
- Katering zerbitzua (otorduak)
- Beharra izan ezkero, mediku tratamenduen gestio eta kontrola.
- Administrari lanak.
- Autonomia eta laguntza beharrean gainbegiratzea.

EGUNEKO ZENTROA

Eguneko Zentroa 2004ko urriaren 1etik martxan dagoen zerbitzua da. Zegaman Eguneko Zentroaren eta Etxez Etxeko Laguntzaren gestioa, GSR S. KOOP enpresak eramaten du.

Eguneko Zentroa, gaur egun, 6 plaza onartuak dituen zentroa da eta momentu honetan lau pertsona daude. Hala ere, irekita dagoen urte honetan, hasieratik 2005eko abuzturarte bost plaza okupatuak egon dira. Bost plaza hauetatik hiru zegamarrak dira, segurar bat eta zeraindar bat.

ZEGAMAKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ERREBISIOA

Aurrez onartutako Abantzearen ondoren, udalerriko udal planeamenduko arau subsidiarioen errebisioaren prozedurarekin jarraitu da aurtengoan. Udal Batzarrak martxoaren 21ean Udal planeamenduko arau subsidiarioen errebisio dokumentuari, "Ekolur Asesoría Ambiental S.L.L." enpresak idatzitako Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterlanarekin batera, hasierako onarpena ematea ebatzi zuen. Jarraian, alegazioak aurkezteko jendaurreko epea irekitzearekin batera, Udalak martxoaren 30ean, aurrez herritar guztiei egindako deialdi zabalaren ondoren, hasierako onarpena jaso zuten udal planeamenduko arau subsidiarioak aurkeztu zituen dokumentu egilea den Ignacio Ibarretxe Pariente arkitektoak. Hogeita hamar bat lagunek parte hartu zuten bilera honetan datozen urteetan Zegamak izango duen hirigintza garapena azaldu zen eta honen inguruko galdera, ezbai, ohar eta iradokizunei erantzuna eman eta solasaldi aberasgarria sortu zen bertaratu zirenen artean.

Udalak apirilaren lehen egunean onartutako udal planeamenduko arau subsidiarioen berriskupenaren informazioa udalerriko etxebizitza guztietara igorri zuen. Hain zuzen ere, datozen urteetan Zegaman aurreikusten diren hirigintza garapenen udalerriko planoa bidali zen aldaketak kolore ezberdinetan islatuz, eta honekin batera berrikuspenak eragina izango duen eremu ezberdinetako laburtutako hirigintzako fitxak; bertan burututko diren ekimenak zehazten dira. Aurrez azaldutako jendaurreko epea maiatzaren 3ra arte luzatu zen. Herritar eta interesdunek igorritako informazioaz gain, Udaletxean izan zuten eskura antolamenduaren planoa eta informazio zabala. Alegazio epe honetan bi alegazio bakarrik aurkeztu zitzaizkion hasierako onarpena jaso zuen planeamendu berrikuspenari.

Udal Batzarrak maiatzaren 17an erabaki zuen aurkeztutako bi alegazioei erantzuna ematea eta udal planeamenduko arau subsidiarioen berrikuspeneko dokumentuari (Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterlanarekin batera) behin-behineko onarpena ematea.

Kontuan izan behar da, udal planeamenduko arau subsidiarioen berrikuspena bideratzeko izapidetzen ari den espedientearen barnean, Udal honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak azaroaren 25eko 17/1994 Foru Arauak bere 94. artikuluan ezartzen duenaren ondorioetarako egindako txostena jaso ondoren, uztailaren 28an egindako bilkuran erabaki zuela Udal Batzarrak Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak emandako txostenean jasotako determinazioak onartzea eta honenbestez udal tramiteen barnean aintzat hartzea.

Arau Subsidiarioen aurkezpena

Adierazitako urratsak emanik udal prozedurari amaiera eman zitzaion eta udal planeamenduaren berrikuspenerako izapidetzen ari den espediente osoa Gipuzkoako Foru Aldundira igorri zen honek behin betiko onarpena emateko. Aldundiak otsailean amaitzen den sei hilabeteko eperako ebazpena eman beharko du.

Udal planeamenduko arau subsidiarioak datozen zortzi urtetan Zegaman emango den hirigintza garapena eta udalerriaren antolamenduaren nondik-norakoak finkatu eta zehazten ditu. Jakina da aurreikuspen guztiak ez direla betetzen, eta honenbestez planeamenduan jasota geratzeak ez duela suposatzen, esaterako, derrigorrez etxebizitza edo industri eremu guztiak egingo direnik.

Jarraian adierazita datozen zortzi urtetan udalerrian eman daitezkeen hirigintza garapenetako fitxak (apirilaren 1ean udalerriko etxebizitza guztiei jakinarazitakoa):

ZEGAMAKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ERREBISIOA

1. ERDI GUNEA
Beste ekipamendu batzuk
- MAIORA PLAZAREN BERURBANIZAZIOA ETA ZERBITZUENDAKO ERAIKIN BERRIA BEHEKO SOLAIRUAN
- SAN MARTIN KALEAREN HASIERAREN PEATONALIZAZIOA

2. ASEGINOLAZA-BUZTINKALE GUNEA
- 12 ETXEBIZITZAKO BLOKEA. TASATUAK (gaur eguneko zinean)
- 2 ETXEBIZITZA UNIFAMILIAR. PROMOZIO PRIBATUA (Azkonieta)
- 1 ETXEBIZITZA UNIFAMILIAR EZARRIA. PROMOZIO PRIBATUA (Aitamarren zaharra)

3. OLARAN GUNEA
- 2 ETXEBIZITZA UNIFAMILIAR. PROMOZIO PRIBATUA

Beste ekipamendu batzuk
- APARKALEKU PUBLIKOAREN SORRERA (15-18 ibilgailu)

4. PAPELERA GUNEA
- 1 ETXEBIZITZA UNIFAMILIARRA. PROMOZIO PRIBATUA

Beste ekipamendu batzuk
- BIDE EGOKITZAPENA JUAN TELLERIA KALEAN

7. SAN BARTOLOME GUNEA
- 1 ETXEBIZITZA UNIFAMILIAR. TASATUA (museoaren ondoan)
- 2 ETXEBIZITZA UNIFAMILIAR. TASATUAK (bide berrian)

Beste ekipamendu batzuk
- BIDE BERRIAREN IREKIERA OLABERRIA II EREMUAREKIN LOTZEKO

8. TXARAPE GUNEA
Beste ekipamendu batzuk
- APARKALEKUEN HANDITZEA (12 Ibilgailu)
- AITAMARREN-TXARAPE LOTUKO DUEN ZUBI BERRIAREN ERAIKITZEA

9. AITAMARREN GUNEA
- 3 BLOKE 16 ETXEBIZITZATAKOAK (48 etxebizitza). TASATUAK
- 3 ETXEBIZITZA UNIFAMILIAR. TASATUAK
- 7 ETXEBIZITZA UNIFAMILIAR. (14 etxebizitza). TASATUAK

Beste ekipamendu batzuk
- GI-2637 BIDEAREN TRAZADURA BERRIA
- HIRI PARKE BERRIAREN SORRERA
- AITAMARREN-TXARAPE LOTUKO DUEN ZUBI BERRIAREN ERAIKITZEA
- APARKALEKU PUBLIKOAREN SORRERA (120-140 ibilgailu)

10. OLABERRIA GUNEA
- 2 BLOKE 16 ETXEBIZITZATAKOAK (32 etxebizitza). TASATUAK EDO BABESTUAK

Beste ekipamendu batzuk
- OLABERRIA HERRI ESKOLAREKIN LOTZEN DUEN BIDE BERRIA
- APARKALEKU PUBLIKOAREN SORRERA (46-50 ibilgailu)

11. OLABERRIA II GUNEA
- 2 BLOKE 16 ETXEBIZITZATAKOAK (32 etxebizitza). TASATUAK EDO BABESTUAK
- 9 ETXEBIZITZA BIFAMILIARRAK (18 etxebizitza). TASATUAK

Beste ekipamendu batzuk
- ZERBITZU BIDEAK ETXEBIZITZA BERRIETARA ETA SAN BARTOLOMEREKIN LOTURA
- PLAZA BERRIAREN SORRERA
- APARKALEKU PUBLIKOAREN SORRERA (43-46 ibilgailu)

12. KALEKO GUNEA
- 3 ETXEBIZITZA BIFAMILIARRAK (6 ETXEBIZITZA). PROMOZIO PRIBATUA

Beste ekipamendu batzuk
- BIDEGORRIA ERREKAREN ONDOAN

13. INTXAUSTI GUNEA (Kaleko-Industrialdea)
Beste ekipamendu batzuk
- APARKALEKU PUBLIKOAREN SORRERA (28-33 ibilgailu)
- KAMIOIEN APARKALEKUA (15-20 ibilgailu)
- EGUNGO GUNE INDUSTRIALERA ETA KAMIOI APARKALEKURA IRISTEKO ERROTONDA ERAIKITZEA

16. GOZATEGI GUNEA (Industrialdea)
- INDUSTRIAGUNEAREN SORRERA
- APARKALEKU PUBLIKOAREN SORRERA (70-75 ibilgailu)

18. HILERRIA GUNEA
Beste ekipamendu batzuk
- EGURRAREN MUSEOAREN ONDOKO TAILERRAREN SORRERA
- MUSEOAREN KANPO ALDEAN ERAKUSKETA GUNEAREN SORRERA
- KANPOSANTU ETA MUSEO SARRERAKO PLAZAREN URBANIZAZIOA
- ZUPURRUTITIK OINEZKOEN SARBIDEAREN BERURBANIZAZIOA
- APARKALEKU PUBLIKOAREN SORRERA (13-18 ibilgailu)

19. IBARRETA GUNEA
- 18 ETXEBIZITZA ADOSATUAK. TASATUAK

Beste ekipamendu batzuk
- BIDEGORRIA ERREKAREN ONDOAN
- APARKALEKU PUBLIKOAREN SORRERA (29-32 ibilgailu)


ZEGAMAKO HIRI ANTOLAMENDUKO BERRIKUSKETA
ZEGAMAKO UDALA
PROPOSAMEN ARGITZALEA
ESKALA 1/5000

GARAI BATEKO ELURTEAK AURTENGOAN

Aurtengo negua gogorra joan dela uka ezina da. Bertako adinduenak adierazten zuten beren garaietako, eta dagoeneko ahaztuta zituzten, neguen antzekoa egin duela aurtengoan. Urtarrila eta otsaila nagusiki oso elurtsuak eta hotzak izan dira. Eta hau gutxi bazen azaroaren 25 eta 26an aurreratu zaigun neguak lehen elurrak ekarri ditu Zegamara.

Zegama askotan zuritu du aurten elurrak

GIPUZKOAKO TXIRRINDULARI FEDERAZIOKO BILERA ZEGAMAN

Gipuzkoako Txirrindu Federazio eta elkarteetako partaideak

Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoak urteko Batzar Orokorra ospatzeko Zegama aukeratu zuen. Gipuzkoako herrietan banaturik dauden txirrindu elkarteen ordezkariak, Zegamako Aitxuri Herri Eskolako gimnasioan elkartuko ziren otsailaren 27an urteko gaiak aztertu asmoz. Besteak beste, aurreko aktaren eta diru-kontuen onarpena, aurtengorako aurrekontuaren onarpena, 2004ean zehar burututako txirrindu frogen azterketa, 2005erako prestaturiko lasterketen azterketa eta egutegia onartzea eta azkenik araudi teknikoaren eta arbitroen tarifen igoera izan zituzten aztergai. Guztira 40 bat lagun elkartu ziren, Jose Luis Arrieta jatorriz zegamarra den Gipuzkoako Txirrindulari Federazikoko presidentearen gidaritzapean.

ERAIKUNTZAK
Construcciones
PEDRO IPARRAGUIRRE, S.L

¡GABONAK ONDO PASA ETA URTE BERRI ON!

Kale Nagusia, 48 Bajo IDIAZABAL- 943 188 008 - 670 588 472

GOIERRI AUKERA, S.A.L.

Pol. Industrialdea, 10-11
ORDIZIA - 943 881 407

HERRERIGINTZA ETA FORJA ARTISTIKOA (DISEINUA)
ALUMINIOZKO ETA METALEZKO AROZGINTZA
ERA GUZTIETAKO ATEAK: PVC, FINSTRALEZKOAK ...
TECHNAL MATERIAL ANITZAK
SUAREN KONTRA HOMOLOGATUTAKO ATEAK
ATE ETA PERTSIANA AUTOMATIKOAK

www.rotulastudio.com
Rotula Studio
Diseño
Rotulación
Impresión Digital
Serigrafía
Diseinua
Errotulazioa
Inpresio Digitala
Serigrafia
Polígono Intxausti, 14 C 20215 ZEGAMA (Gipuzkoa) Tel. 943 801 244 - Fax: 943 801 245

Industrialdea beteta

Ezin badaiteke esan Intxaustiko industrialdea beteta dagoenik, aitortu daiteke egun salgai dauden pabilioiak adina eskatzaile badaudela. Honela, aurtengoan "Estampaciones y Montajes Auxiliares Eten S.L." enpresak bere jarduera 14-O pabilioian kokatu du. Ildo honetan esan daieteke, bi pabilioi (14-J eta 14-M) geldituko liratekeela saltzeko, nahiz eta hauek erosteko eskabideak eginak egon. Beraz, epe laburrean Intxaustiko industrialde berria dena beteta egongo da. Albiste ona, benetan, Zegama eta zegamarrontzat, are gehiago kontuan hartzen badugu bertan lana egiten duten langile portzentai handia udalerrikoa dela.

Intxaustiko industrialdea herriko motorea izateko xedearekin sortu zen eta bere sorreratik gaurdaino egindako ibilbidean hori adierazten duela azpimarra daiteke. Egun, 119 langilek egiten dute lan Intxaustiko industrialde berrian, eta datu hauek garbi adierazten dute Zegamaren bizi-iraupenerako eta etorkizunerako ezinbesteko inbertsioa bilakatu dela Intxaustikoa.

Kontuan hartu behar da Zegamako Udalak Intxaustiko industrialdea eraikitzeko "Goierri Beheko Industrialdea S.A."-n 437.238,63 € edo 72.750.386 pezetako diru ekarpena egin zuela (inolako mailegurik eskatu gabe), eta jarduera ekonomikoak udalerrira erakartzeaz gain, egindako diru-inbertsioa berreskuratu egingo duela.



Intxaustiko industrialdea

Joseba Albizu Ormazabal

Ekintzailea

"Gu %90ean aroztegietako aspirazioetara dedikatzen gara"

Noiz eta non jaio zinen?

1970. urteko uztailaren 8an jaio nintzen Zegaman, Arbeltxo baserrian.

Orain lanean ari zaren Itsasgama enpresa sortu aurretik, zein izan da zure lan ibilbidea?

Orain arte egin dudan lana orain egiten dudanaren berbera da baina beste enpresa batean, Itsasondon zegoen lantegi batean hain zuzen ere. Kaldereri enpresak dira biak, batez ere aspirazioan espezializatuta daudenak.

Orain Intxaustiko industrialdean pabiloia hartu duzue. Erronka berri bat?

Bai, agian bai. Orain pabiloia hartu dugun lau sozioak lehen ere enpresa berean ari ginen lanean. Lau sozioetatik ni nintzen enpresa horretan denbora gutxien zeramana. Nik 8 urte egin nituen bertan lanean, beste biek 20 urte zeramatzaten eta laugarrenak 16. Oraindik adinez nahiko gazteak ginela eta lan esperientzi ona genuela ikusi genuen. Bestalde, sozioetako bat komertziala zen eta, honi esker bezero dezente geureganatzeko aukera ikusi genuen eta enpresa berria sortzea erabaki genuen. Gainera, erronka pertsonal bat dela iruditzen zait, horretarako balio duzun edo ez zeure buruari frogatzeko.

Hasi zinetenean zer izan zen zailena?

Dudarik gabe arazorik handiena dirurik ez izatearena izan zen. Makina aldetik eta ez genuen arazo gehiegirik izan, lehen ofizio berdinean aritu ginenez bagenekien zein makina beharko genituen. Hasieran makina horiek eta behar izango genuen materiala lortzeko dirua behar zen eta diru hori lortzeko lehenengo Goiekin garatu behar genuen proiektuaren bideragarritasun plan bat egin behar izan genuen edozein kutxatan edo bankutan dirua emateko, baldintza hori beteta izatea eskatzen baitziguten. Orduan 2002ko azaroan,

Beasainen lokal txiki batean hasi ginen lanean pixkanaka-pixkanaka. 2003ko martxoaren lehen egunean, gaur egun gauden lekura etorri ginen Zegamara eta apirilaren azken egunean ITSASGAMA enpresa eratu zen; aurreko lana utzi eta enpresa berria legalki sortu bitarteko denbora hori izan zen zailena, izan ere, alde batetik, paper lanak oso mantso zihoazen eta bestetik ezin genuen egindako lanik kobratu ez geneukalako beharrezko diren NIF eta horrelako agiririk. Bitarte hori sei bat hilabetekoa izan zen eta esan edozein lan egin ahal izateko materiala geure poltsikotik ordaindu behar izaten genuela eta hura eskudirutan, izan ere, biltegiek, eratu gabeko enpresa bati ez baitiote materialik ematen gero ordaintzekotan.

> "Goiekin proiektuaren bideragarritasun plan bat egin behar izan genuen edozein kutxatan edo bankutan dirua emateko"

Behin enpresa legalki sortu eta beharrezko ziren paperak eskuartean izan ondoren, aurreko sei hilabetetan egindako lanak fakturatu ahal izan genituen eta hor lasaitu ginen neurri batean.

Eta bezeroak lortzea zaila izan da edo lehendik bazenekiten bezeroak izango zenituztela?

Beno, lehen esan dudan bezala, sozioetako bat lehengo enpresan komertziala zen eta beraz, bezeroekin harreman handia zuen, eta nik uste dut enpresatik irteterako bagenituela bezero batzuk.

Zertan datza aspirazioa?

Aspirazioa, edozein lanetan, sortutako hondakinak biltzeko sistema bat da, etxean, kea biltzeko aspirazioa denok daukagun bezala lantegietan ere, hondakinen arabera era askotako aspirazioak egoten dira. Gu %90ean aroztegietako aspirazioetara dedikatzen gara. Aroztegietan, altzariak egiteko zura erabiltzen dute eta hau lantzerakoan beraiek dituzten makinetatik sortzen den txirbila, zerrautsa edo hauts guztia, hodien bidez leku konkretu batera biltzen da. Guk aroztegiei zerbitzu integrala ematen diegu, hau da, kanpoan zuraren hondakinak biltzeko geuk tailerrean egindako silo handi bat jartzen diegu eta ondoren, lantegi barneko makina bakoitza hoditeri baten bidez silo honetara konektatzen dugu, hara hondakinak automatikoki bilduz; jakina da, aspirazioa egiteko aspiragailuak ere jartzen ditugula. Aspirazio on batekin, hondakinak biltzeaz gain ingurugiroa gutxiago kutsatzen da eta langileen lan baldintzak ere hobetu egiten dira.

Zein tokietan jartzen dituzu aspirazio hauek?

Gehienbat, Gipuzkoa, Nafarroa, Errioxa, Bizkaia, Araba, Burgos, Kantabria, Soria eta Palentzira aldera ere iritsi gara.

Langileak aurkitzea erreza al da?

Esperientzi asko duena aurkitzea oso zaila da.

Zenbat langile daude lanean?

Gaur egun 9 ari gara lanean.

Emakumerik?

Oraingoz ez, gure ofizioan gizonezkoak aurkitzea zaila da eta emakumezkoak oraindik zailago, gutxiago daudelako.

Zein zailtasun topatu dituzue aurrera ateratzeko?

Hasieran aipatutakoez gain, handiena langileek martxa hartu arte izan dugu, lanez gainezka hasi ginen eta nahiz eta lana edukitzea ona izan, bezeroa gustura edukitzeko lanak epe barruan bukatzea komeni da.

Goierri eskualde industriala da. Honek eragina izan du enpresa sortzeko orduan?

Guregan ez zuen eragin handirik izan ere bagenekien, bezero bila kanpora atera beharko genuela, hala ere esan behar dugu Goierri aldean egunetik egunera, galdaragintzako lan gehiago sortzen zaigula.

Nola ikusten duzu gaur egungo Zegama?

Orokorrean begiratuta ondo ikusten dut, ekimen garrantzitsuak abian jarri direlako, hala nola industrialdea, etxebizitzak prezio onetan, saneamendua, udalerriko urbanizazio berriak, errepidea zabaldu eta hobetzeko proiektuak, etabar. Aldi berean azpimarratu behar da Zegaman oso herri giro ona dugula eta leku atsegingarria dela bizi izateko.

Nondik dator Itsasgama izena?

Hiru sozio Itsasondokoak direnez eta neu zegamarra naizenez, bi herrien izenetatik atera genuen enpresaren izena: Itsasondori hasiera hartuta eta Zegamari bukaera.

Itsasgama enpresakoak lanean

Jaione Gorrotxategi

ITSASGAMA

AROZTEGI ETA ZERRATEGIETAKO ASPIRAZIOAK

GALDARAGINTZA OROKORRA ETA MOTA

GUZTIETAKO HERRERIGINTZA

ZEGAMA
943 802 044
650 420 109

¡URTE BERRI ON!

ZEGAMARRAK BEHOBIA-DONOSTIA FROGAN

Hain ezaguna dugun Behobia-Donostia Frogan aurten ere herriko ordezkariak bertan izan ditugu. Froga hau azaroaren 13an ospatu zen, eta herritarrak lortutako sailkapenak ondorengoak dira:

1.- UNAI LARREA LOPEZ	1:16:17
2.- IÑAKI LASA AGIRRE	1:22:06
3.- IKER ALZELAI ARAKAMA	1:23:04
4.- BORJA URZELAI LARREA	1:26:07
5.- JESUS Mª ZABALETA LEKUONA	1:26:14
6.- XABIER MORILLO MENDIZABAL	1:28:09
7.- OIER IRASTORZA	1:41:15
8.- AINARA MENDOZA NOGALES	1:50:16

8 korrikalarietatik 6k etorri ahal izan zuten argazkira

TXANTON TABERNAREN BERRIZTAPENA

Jesus Berasategi Zurutuzak Txanton taberna berritu ondoren abenduan ireki du. Obrak gauzatu diren bitartean lehen Txoko taberna kokatuta zegoen lekuan behin-behineko egoeran taberna izan du (Udal Gobernu Batzarrak maiatzaren 9an baimendua). Iñaki Aspiazu Iza arkitektoak egindako proiektu teknikoan oinarrituta egin dira lanak. Honetarako, Udal Gobernu Batzarrak apirilaren 18an obrak egiteko baimena eman zion. Santa Barbara kalera eta Eliza atzera irteera-sarrera izango duen Txanton taberna berrituak Iharduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen espediente administratiboa bete du eta honenbestez legeztatu da. Esan, abenduaren 8an ireki zutela Txanton Taberna eraberritua.

Jesusek eta Txarok izan dezatela osasuna, zortea eta ilusioa urte askotan, orain egin duten inbertsio garrantzitsu honi buelta emateko eta beren familia aurrera ateratzeko.

Txanton Taberna eraberritua



Ruta Quetzalekoak ardiak jezten

RUTA QUETZAL

Uztailaren 20an, Urbiara iritsi zen, Migel de la Cuadra Salcedok zuzentzen duen duen "Ruta Quetzal"ezaguna. Urbian, Zegamako Udalak bultzaturiko "Urbia, Aizkorri eta Zegamako Artzaintza"ren ikerketa egin duten Isabel eta Lierni Elorzari, bertako artzaintzari buruzko hitzaldia eman zezaten eskatu zioten. Bestalde, Fermin Leizaola, etnografoa ere, beka honetan epaimahaikide izan dena, bertan izan zen artzaintzari buruz azalpenak ematen. Azkenik, Urbiako artzainek, ardi jezte eta ile mozte erakustaldiaz gain, bertako gazta eman zioten dastatzeko eta Ruta Quetzaleko partaide guztiei gazta zati bana etxera eramateko oparitu zieten.

PEÑA EURO

2000. urtean herriko kuadrila bat kinielan jokatzeko asmoz ostiralero bakoitza euro bat jartzen hasi zen Txurrerian. %30ª kinielan jokatu eta beste % 70ª gorde egiten zuten. Kiniela egiteko momentuan, inguruan zegoen jendeak parte hartu nahi izaten zuen eta horrela astetik astera jokatu nahi izaten zutenen zerrenda handiagotu egiten zen. Hasi zenetik 5 urte igaro direnez gaur egun 120 pertsonek parte hartzen dute. Jokoa ere aldatu egin dute, orain Kiniela egin partez Bonolotoan jokatzen dute. Urtean zehar gordetako diruarekin Errioxara bidai bat antolatzen dute. Antolatzaileek esan zutenez, orain arte jokoak ez du etekin handiegirik eman, etekin hori inoiz handia izaten bada, batera joango omen dira bankura edo kutxara.

Aurtengoan, "Cune"k Errioxan egin duen upategi berria bisitatu zuten irailaren 3an. Bazkaria Logroño inguruko "Pantano" jatetxean zuten eta egun borobila igaro zutela azpimarratzen dute

Iazko Errioxako irteeran Peñako partaideak

Zegama: Lehena eta oraina

Urtean zehar egindako obra eta lanen, Zegamako txoko eta eraikin ezberdinek jasan duten eraldaketa ziurtatzen duten argazkiak azaltzen dira jarraian.

Pleno aretoa kortinak berritu gabe

Pleno aretoan kortina berriekin

Buzoi zaharrak

Buzoi berriak

Murgizelaiko parkea azkeneko obrak egin aurretik

Murgizelaiko parkea obrak bukatuta

Markadore zaharra

Markadore berria

Santa Barbarako etxea bota gabe

Santa Barbarako eraikin berria egiten

Anduetza zaharkitua

Anduetza eraberritzen

Anduetza eraberritua

Aitxuri Herri-Eskola

25 URTE HERRI ESKOLAK

1.979 aurretik herrian bi eskola zeuden. Ikastola eta Eskola Nazionala. Ikastolan, 3 urtetik 3. maila bitartekoak eskolaratuta eta Hezkuntza D ereduan ematen zuten; laugarren mailatik aurrera Beasaingo Lizeora joaten ziren. Eskola Nazionalean berriz, 4 urtetik 8. maila bitartekoak zeuden eskolaratuta eta Hezkuntza A ereduan ematen zen.

1979-80 ikasturtean fusioa egin zen eta eskolaurre osoa elkartu zen urte horretan. Ikastolan, 1go, 2. eta 3. mailak geratu ziren eta Eskola Nazionalean 1. mailatik 8.era.

Une hartan bi edifiziotan banatuta zeuden: Ikastola, zineko eraikinean zegoen eta Eskola Nazionala Olaranen. Fusionatutako gelak zinean jarri ziren martxan eta ikastolako 1go, 2., eta 3. mailek han jarraitu zuten. Hurrengo urtean, hau da, 1980-81 ikasturten Frontoi berriko bi gela habilitatu ziren eta fusioko 1. maila gela batean, eta bestean ikastolako 2. eta 3. mailak gelditu ziren.

1987-88 ikasturtean atera zen Eskola Nazionaleko azken taldea; beraz, 1988-89 ikasturtean ikasle guztiak Herri Eskolakoak ziren.

Bi juntetako partaide, Udaletxe, bi zentrotako irakasle, Lizeo Alkartasuna eta Hezkuntzakoek hartu zuten parte fusioa eman zedin.

Fusioa eman zenean, bai Ikastolan eta bai Eskolan, bietan funtzionatzen zuten Juntek.

1984-1985 ikasturtean eman zen Guraso Elkarte bakarra. Junta elkartuak aurrera jarraitu zuen eta 1990eko apirilaren 27an APAn, ikasleen Guraso Elkartea erregistratu zen.

Ikastola eta Eskola Nazionala bat egiteko arrazoiak hauek izan ziren:

- Herriko haur guztiei euskal hizkuntza eta kulturan oinarritutako heziketa ematea.
- Irakaskuntza osoa D ereduan finkatzeko aukera herrian.
- Herrian zegoen zatiketa, eskola-ikastola, gainditzeko bidea izatea.
- Euskal Eskola Publikorako lehen urratsak ematea.

Hona hemen Herri Eskolan ibilitako talde ezberdinen argazkiak.

Tobera Musika Eskola

Duela urtebete, iazko urtekariaren aitzakitan, eta gu guztion musika eskolak -TOBERA Musika Eskolak- hamazortzigarren ikasturtea betetzen zuela eta, eskaera egiten genizuen: gogoeta egin, eta guraso talde hark 1987 urrunekoan Zegaman abiatzeko amestu zuen musika-ikastegi egitasmoa eta egungo errealitatea alderatzeko. Eta etxeko sukaldetik edo lagunarte isiletik harago, ahoz goran egiten ausartzera animatzen zintuztegun, sinesturik zuen eta eskolaren arteko etengabeko komunikazio eta parte hartze batek soilik ahalbidetuko duela TOBERA Musika Eskolaren etorkizunak sorrera garaiak adina ilusio eta kemen beregaratzea.

Eta hori guztia esaten genizuela, buruan generabilen asmo bat ari ginen zuei aurreratzen: gure musika eskolarekiko asetasun maila neurtzeko azterketa zabala egitea ikasturtea amaitzerako. Aurtengo maiatza-ekainean hainbat arloren gainean galdera egin zaie TOBERA Musika Eskolako ikasleen gurasoei, eta badirudi emaitzek ez dutela zalantzarako hutsune handiegirik uzten; ñabardurak ñabardura, gustura dira gurasoak musika eskolak egindako bidearekin eta lortutako mailarekin. Urruneko ametsak eta 2005eko TOBERAk bat egiten dute... ikus dezagun zein neurritan:

Gurasoekiko komunikazioan, gutun eta jakinarazpenen maiztasuna, argitasuna eta interesa ona edo bikaina dela diote galdetegia bete eta entregatu duten gurasoen % 90 baino gehiagok.

Euskarak ikastegian duen presentziak ere balorazio positiboa jaso du gurasoen aldetik, eta bi herenak uste du presentzia hau nabarmenagoa egiteko beharrik ez dagoela.

Gurasoekin urtean zehar egiten diren bileren maiztasuna eta praktikotasuna ona edo bikaina da % 80 inguruaren iritziz.

2004/2005 ikasturtean berritu egin da nota txostena, irakasgai guztiak agiri berean bateratuz eta irakasle guztiek baloratu beharreko atal komunak zehaztuz. Aldaketaren ondorioz sortutako emaitza % 93arentzat ona edo bikaina izan da.

Baliabideen atala da hobetzeko puntuetako bat, Zegamako gelen egoera guraso zegamarren % 30 batentzat txarra edo oso txarra baita. Batez-besteko orokorra hobetu egiten da Seguran eskolak hartzen dituzten ikasleen gurasoen erantzunak kontuan hartuz gero.

Gurasoen % 85etik gora dira langile taldearen lanari ongi edo bikain irizten diotenak, irakasle zein zuzendaritzari dagokionean.

Ekintza egutegia, azkenik, TOBERA Musika Eskolaren aktibo garrantzitsutzat azaleratzen da beste behin. 10etik 9k ohiko kontzertu eta entzunaldiak iraupen egokikoak, atseginak eta praktikoak direla uste dute. Errepertorio egokia eskaintzen dutela eta ordutegi onean egiten direla uste dute 10etik 8k. Eta antolaketa arina eta zuzena dutela % 77ak uste du. 10etik 3 ez daude ados maiztasunarekin, eta urtean halako ekintza gehiago egin beharko liratekeela pentsatzen du. Ekintza bereziek, elkartrukeek, kontzertu didaktikoek, irteerek, kaleko ekintzek, ikastaroek... jasotzen dute puntuaketarik handiena. Duela 4 urte soilik abiatutako ekimenak izanik ere horiek guztiak, argi geratzen da tarte garrantzitsua hartzera iritsi direla jendearen lehentasunetan, eta harrera bikainekoak direla. Hala adierazten du inkesta erantzun dutenetatik % 100ak, eutsi beharreko bidea dela honakoa. Gainera, praktikoak eta interesgarriak direla erantzuten du % 95ak baino gehiagok. % 8 batek bakarrik uste du gehiegi direla, eta ordutegia/datak egokiak direla eta antolaketa arina eta zuzena dutela esaten du gurasoen % 80tik gorako multzo batek.

Balorazio on honek ez du kentzen aurrera begira gure erronkak gorago egotea. Ez gara konformatzen daukagunarekin, nahiz erantzunok aupada zaizkigun ahaleginean jarraitzeko. Horregatik, galdeketaren prozesuari deitu genion moduan, aurrerantzean ere Zurekin, hobera' egingo dugula ez zalantzarik izan.

Esan beharrekoa da, bestalde, oihartzun eta sona handia izan duela gure ikastegiak azken urte honetan eskualdean, dozenaka alditan izan baita albiste hedabideetan, Goierriko Hitzan, El Diario Vascon, Berrian edo Goierri Telebistan. Era berean, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak 2005ean kaleratutako Zortziko aldizkariaren alean azaleko gai izan da Zegama, Segura eta Zeraingo TOBERA Musika Eskola.

Jarraian datozen hauek dira azkeneko 12 hilabeteotan TOBERA Musika Eskolak musikan ardaztuta egin dituen jendaurreko ekintzarik aipagarrienak:

Urtarrilaren 5ean iluntzean ohiko Erregeen Kabalgata antolatu zuen TOBERA Musika Eskolak beste urte batez.

Martxoaren 1ean TOBERA Musika Eskolako Musika-hizkuntzako ikasleen erakustaldia egin zen Aitxuri Herri Eskolako gimnasioan arratsaldeko 6:30etan. Musika-hizkuntzako eskoletan ikasleek lantzen dituzten kontzeptu, teknika eta lan prozedurak ezagutarazi ziren ekitaldi honetan, antzezpenez, txirulaz, instrumentazioen bitartez, abestuz, eta bestela.

Martxoaren 15ean trikitixa eta panderoko ikasleen entzunaldia izan zen Kultur Etxean arratsaldeko 6:30etan.

Egun berean, 'Ni ere bai' leloarekin Korrika 2005 Zegamatik pasatzen zela eta, TOBERA Musika Eskolako trikitilari taldeak hartu zuen parte herrian antolatutako jaialdian. Halaber, Segurako ikasle batek egin zuen korri musika eskola ordezkatuz ibilbidearen tarte batean.

Beste musika eskola batzuekiko harremanak sakontzeari begira, elkartrukea antolatu zuen TOBERAk laugarren urtez. Apirilaren 11n kontzertua eskaini zuten Villabonako zinema-aretoan Musika Eskolako instrumentu taldeek eta dantzariek arratsaldeko 6:30etan. 50 ikasle igo ziren aretoko eskenatokira, eta kontzertua amaituta, afari-merienda egon zen denentzat. Ordiziako Musika Eskolak, bestalde, guk iaz egindako bisita itzuli zuen maiatzaren 31n.

Apiriletik ekainera bitartean herritar orori begirako ikastaro interesgarri bat antolatu zuen Eskolak, iaz arrakastatsu suertatu zen Txalaparta Ikastaroak bultzatuta hain zuzen. Perkusio etniko eta bateria ikastaroa 16 urtetik gorako askorentzat erakargarri izan zen, eta beste herri batzuetako lagunak ere etorri ziren gurera. Ikasitakoaren isla ikasturte amaierako kontzertuan ikusi ahal izan zen, askoren harridurarako, eta eskola ireki ere bihurtu zuten azkeneko saioa, tresnekin kalera irtenda eta edonori parte hartzeko eta beraiekin batera ikasteko deia luzatuz.

Apirilaren 12an pianoko ikasleen entzunaldia izan zen Kultur Etxean, arratsaldeko 6:30ean. Piezatako batean gitarra elektrikoaren laguntza ere izan zen.

Martxoaren 16an akordeoiko, txistuko eta klarineteko ikasleen txanda izan zen. Entzunaldi bateratua eskaini zuten Kultur Etxean arratsaldeko 6:30ean.

Perkusioko ikasleak

Maiatzaren 9an Tolosalde osoko Tolosa ez beste herri guztietan eskolak ematen dituen Loatzo Musika Eskolak bisita egin zigun elkartruke aldiaren barne, arratsaldeko 6:30etan kontzertua eskainiz Aitxuriko gimnasioan. Segidan, afari-merienda egin zen herriko frontoian parte hartzaile guztiekin.

TOBERA Musika Eskola partaide duen Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak Musikaldia festa antolatu zuen beste behin, maiatzaren 14an eta Elgoibarren oraingo honetan. Parte hartu zuten 3.000 musikako ikasleen artean herriko 6 ikasle egon ziren, trikitixa eta panderoarekin.

Maiatzaren 16ko Arantzazurako Erromesaldian trikitixa eta panderoko zenbait ikaslek musika jarri zuten urtero legez.

Maiatzaren 21ean, eguerdian, 60 ikasle inguru Euskadiko Orkestra Sinfonikoak (EOSek) antolatzen duen 'Musika familian' zikloko kontzertu batez gozatzera eraman genituen Donostiako Kursaaleko areto nagusira. Euskal Herriko Goi mailako Musika Ikastegiko (Musikeneko) Orkestra Sinfonikoak Joaquín Rodrigo maisuaren bizitza eta obraren inguruan prestatutako emanaldia izan zen. Hirugarren urtez jarraian izan dira honez gero lekuko gure ikasleak formato handiko halako emankizun batean. Ikasleek musika klasikoaren lilura irisgarriagoa izatea, musika estilo hau gertuagotik ezagutzea eta baloratzea, eta Orkestra bat zuzenean entzutearen helburuak aise asetu ziren.

Ekainaren 6an arratsaldeko 17:30etan gitarrako ikasleen entzunaldia eskaini zen Kultur Etxean.

Ekainaren 9an Dantzako ikasle guztiekin saioa egin zen herriko enparantzan arratsaldeko 18:00etan txistulari eta trikitilarien laguntzaz.

Ekainaren 14an ikasturte amaierako kontzertua ospatu zen arratsaldeko 6:30etan Aitxuri Herri Eskolako gimnasioan. Ondoren afari-merienda izan zuten parte hartzaileek eta herritarrek.

Ekainaren 23an, hirugarren urtez jarraian, ohitura eta usadio zaharrak berreskuratuz, hainbat dantza eskaini zituzten TOBERA Musika Eskolako dantza taldeek Txistulari Bandak lagunduta San Joan suaren inguruan.

Aizkorriko Lagunen Eguna uztailaren 3an izan zen, eta trikitixa eta panderoko hainbat ikaslek alaitu zuten eguna beste behin.

Abuztuaren 24an, San Bartolome egunez, dantza saioa eskaini zuten ikasleek jai egitarauaren barruan, garai batean herriko Aizkorpe Dantza Taldearekin izan ohi zenaren lekua betez. Trikitilariak, gainera, goizeresi eta erraldoi eta buruhandien kalejiran aritu ziren.

Urriaren 10ean Oñatin ospatutako Herri Egunean hartu zuten parte Zegamako trikitixa eta panderoko ikasleek.

Azaroaren 13an, San Martin azokaren biharamunean, arratsaldeko 5etan dantzariek hainbat koreografia egin zituzten 'Pirritx eta Porrotx' pailazoen jaialdiaren barruan. Jaialdi hau guraso elkarteak antolatua da, eta urtero musika eskolako dantzarien laguntza jasotzen du ikuskizuna 'borobilagoa' izan dadin. Ikuskizunaren grabaketa Santa Zezilia egunean eman zen Kultur Etxean.

Azaroaren 22an ospatzen den Santa Zezilia musikarien zaindariaren omenez, bezperan kontzertua eskaini zuen TOBERA Musika Eskolak Aitxuri Herri Eskolako gimnasioan.

Azaroaren 23an, berriz, Donato Goienetxe perkusiojole ezagunaren eta herriko Xabier Arakama trikitilariaren eskutik kontzertu didaktikoa egin zen Kultur Etxean arratsaldeko 5etan.

Aurreko ekintza sorta mardul honi Zegamako Txistulari Bandak urtean zehar burutzen dituenak erantsi beharko litzaizkioke eta baita Zerainen zein Seguran eskaintzen direnak ere, horiek guztiak baitira TOBERA Musika Eskolaren ekintza egutegi oparoa osatzen dutenak.

Mila esker guztioi herriko bizitza kulturala sustatzen laguntzeagatik -Udala, erakunde desberdinak eta norbanakoak-, eta adi 2006an ere ustekabe bat baino gehiago eragingo baitugu. Hori bai, denak TOBERA Musika Eskolaren hoberako. Eta zuekin.

Tobera Musika Eskolako dantzariak

Tobera Musika Eskola Txistulariak

Gitarrako ikasleak

"GARAI BATEKO REYNOLDS TALDEKO TXIRRINDULARIEN BAZKARIA"

Urriaren 15ean Zegamak eta bereziki Manolo Edaritegiko familiak, bisita berezia izan zuen. Duela 20 urte, Zegaman Reynolds txirrindu taldeko afizionatu mailako txirrindulariak, Manoloenean egoten ziren konzentratuta eta hogei urteren bueltan, Zegamara etorri ziren partaidetako asko, elkarrekin egun on bat pasatu eta iraganeko esperientziak berritzera. Reynolds taldea, Banesto bilakatu zen urte batzuen buruan eta ondorioz, bi taldeekin lotura izan dutenak etorri ziren Zegamara, gainera gogoratu, Monolo Arizkorreta, Reynolds eta Banesto taldeetako masailaria izan zela urteetan zehar. Besteak beste, Migel eta Pruden Indurain anaiak, Iñaki Gastón, Vicente Prado, Enrique Carrera, Santi Blanco, Salvador Sanchis, Juan Carlos Gonzalez, J. Pacheco, Jose Luis Moran, Jose Luis Santamaría, Roberto Lezaun, Navarro Fuster izan ziren Zegaman. Ostatun bazkaldu zuten eta hainbat kontu eta txirrindu froga alaitasunean berritzeko aukera izan zuteneta baita beraien "ama" urte askotan izan zen Maria Luisa eta falta diren taldekideak gogoratzeko ere (Alvaro Fernández, Txeba Jiménez, besteak beste). Dirudienez, ez da azkenengo aldia Zegaman elkartuko direnena.

Txirrindulari ohiak Manolone aurrean

Zegamako Orkatz Abesbatza

2005eko egutegiari azken orria kentzera goazen honetan urtean zehar egindako ekintza garrantzitsuenen aipamena egiteko garaia dugu.

Urte hasieran Orkatzen gidari berrien aukeraketa egin genuen Batzar Orokorraren bidez. Izaskun Igoa, Aitor Galdos eta Juan Inazio Gereñuk Gida Batzordea utzi zuten lan eder eta emankor bat egin ondoren eta Gida Batzorde berria honela osaturik geratu zen: Presidentea: Joseba Izagirre, Idazkaria: Jaione Gorrotxategi, Diruzaina: Luis Otaegi eta Bokalak: Axun Etxegia, Begoña Olarte eta Urko Agirre. Zuzendariak: Jabier Otaegi eta Leire Lozano. Lerro hauen bidez Gida Batzordea utzi zutenei eskerrik beroena egindako lanagatik.

Gure ekintzen berri ematen hasteko lehenik eta behin urtero geure buruarekin konpromezu handia harturik ditugun ekintzekin hasiko gara. Nahiz urterokoak izan ilusio handiz eta gogotsu ematen ditugun kontzertuak dira eta hauetan huts egin ezkero Orkatz eta Orkatz Txikiri zerbait faltako litzaiguke.

ORKATZ

- Ostiral Santu eguna. “Hil da Jesus” abesti esanguratsuarekin eta abeslari ohien laguntzaz.
- Uztailak 10, Jubilatuen eguna.
- Abuztuak 24, San Bartolome eguna
- Abenduak 25, Mezetan abestu
- Abenduak 27, Beasaingo Arangoiti egoitza

ORKATZ TXIKI

- Urteberri egunean Meza abestu
- Ostegun Santu egunean Meza abestu
- Apirilak 24ko Jaunartzeak
- Ekainak 25, kurtso bukaerako kontzertua

Beste alde batetik, bi abesbatzen elkartasunaren adierazgarri, urtean zehar bi abesbatzek batera zenbait kontzertu eman ditugu. Gure harremanak sendotu eta elkarrengandik ikasteko oso ondo etortzen zaizkigu kontzertu hauek. Lehenik, Santa Zezilia, musikarion zaindariaren omenez, azaroaren 19an ospatu genuen kontzertua, eta bestetik, dagoeneko XXI. edizioa dugun Eguberri jaialdia abenduaren 17an.

Orkatz Abesbatzari dagokionez Donostiako Santa Zezilia abesbatzarekin hasitako elkarraldatzearen barnean apirilaren 23an Zegaman kontzertu bat eman genuen abesbatz honekin batera. Bestalde, gure abestien oihartzuna euskal mugetatik kanpo ere zabaldu dugu aurten, ekaineko lehen asteburuan Kantabriako Potes-en ibiliak baikara gure abestien berri ematen.

Aurtengo urteko irailaren 24ean bestalde korukide dugun Luis Otaegi eta Loreto Bengotxearen ezkontza egunean testigu eta parte-hartzaile izan ginen. Lerro hauen bide zorionik beroenak eta egun honetan piztutako garra urte askoan zehar mantendu dezatela.

Orkatz Txiki abesbatzak ere kontzertu bikainak eman ditu urtean zehar. Apirilaren 1ean Zumaian San Pedro Txiki Abesbatzarekin batera, bestalde Zegamako Erlezainen Egunean Amaia Zubiriaren “Mielero” abestia. Zegaman ospatutako VII. Haur Abesbatzen jaialdian ere parte hartu zuten Zumaiako San Pedro Txiki eta Segurako Haur Abesbatzarekin batera.

Orkatzeko partaideak

Orkatz Txiki zituen konpromezuak ikusirik eta bertako partaideen ilusioa eta kantatzeko gogoa ikusirik abenduaren 3 eta 4ean Barriara lan asteburu bat betetzeko asmoz joan ginen. Asteburu oso aberatsa izan zen bai musikalki eta taldeari bultzada bat emateko ere.

Aurten lehen pausoak ematen hasi den proiektu baten barnean dugu Orkatz Txiki abesbatza. SWING-GON deitu du bere egileak. Amaia Zubiria dugu proiektu honen sortzaile, Amaia berak sorturiko abesti batzuk haur abesbatz baten medioz plazaratu egin nahi ditu. Orkatz Txikik kantu hauek jakitera emateko ohorea du. Orkatz Txikirentzat eskubete lan badago baina lan oso ona egingo dutenaren ziurtasun osoa dugu bai guk eta bai Amaia Zubiriak ere.

Hemen azaldu gabe geratu diren hainbat une gozo eta hunkigarri izan ditugu urtean zehar beste hainbat ekimenetan, hori dela eta kantua gustuko bazenu elkarte aproposa zenuke Orkatz edo Orkatz Txiki abesbatza zure zaletasun hau landu eta zabalduz gozatzeko.

Orkatz txikiko partaideak

Aitor Perez Arrieta



Zer moduz joan da urtea?

Mallorcan fuerte hasi zen tenporada eta aprobetxatu beharra neukan aurten hasi den "UCI Protour" istori hori. Protourrekoek hasieran ez zeukaten frogarik eta lehenengo frogetan gurekin batera korritu zuten, horregatik garrantzitsua zen fuerte hastea. Arriskatu egin nintzen eta ongi atera zitzaidan. Horrela posturik onenak denboraldi hasieran egin nituen eta horiek izan dira aurrera pauso on bat ematen lagundu didatenak. Azpimarratzekoenak Mallorcako itzuliko 3. postua, Valentziako itzulian 2. postua, Portugalgo Gran Premio Internacional do Oesten 3. etapa irabazi nuen eta sailkapen orokorrean 2. postua lortu nuen eta Errioxako itzulian 4. geratu nintzen.

Txirrindulari baten bizia gogorra al da?

Dena da gorra, momentu asko sufritzekoak, beti entrenatzen, beti zaintzen baino adibidez orain hilabete batzuk libre xamar edukitzen ditut. Momentu txarrak ere izaten dira, sufritu ere asko egiten da, baina gero errekonpentsa ere handia izaten da gero disfrutatu ahal izateko; denerako dago astia.

Janaren aldetik ere, elikadura berezia eramaten al duzue?

Grasak ez jaten saiatu behar da, baina beti jaten da zerbait. Batez ere ondo gosaldu behar da entrenatzera irten ahal izateko edo karrerak korritzeko. Gero betiko istori horik, barritak, etab. Baina garrantzitsuena garbi jatea da.

Egun normal batean zenbat km egiten dituzu entrenamendu batean?

Segun, posible da aste batean 700 km egitea. Batzutan egunean 6 ordu egiten ditut, beste batzutan 4, beste batzutan atseden hartzen dut...

Zegaman bizita, eguraldi txarrarekin zer moduz ibiltzen zara entrenatzeko?

Kontuan izanda txirrindulari batzuk duten klima mediterranearra dela, bada hemengo klima gogorra dela esan daiteke, euria eta hotza barruraino sartzen denean askotan ezin da entrenatzera irten.

Hemengo eguraldia kontuan izanik, neguan joaten al zara kanpora entrenatzera?

Urtarrila inguruan Benidorm aldera joaten naiz, han eguraldi ona egiten duelako, ia ez du euririk egiten. Baino baita ere esan behar da hemengo eguraldiarekin gogortzea ez dela txarra izaten, zeren eta gero karreratan euria egiten duenean batzuk ohituta ez daudenez gehiago sufritzen baitute. Guk ere sufritzen dugu, baina eguraldi mota hau ezagunagoa dugunez guretzat ez da hain gogorra izaten, errezago aguantatzen dugu.

Datorren urtean talde berri batean hasi behar zara korritzen Illes Balears-en.

Espainitik kanpora joango naiz karrera asko korritzera, beste esperientzi bat izango da eta ea dena ongi ateratzen den. Eliteko maila batean egongo naiz, karrerak ere gogorragoak izango dira, maila altuagokoak eta ongi ibiliz gero izen handia hartu daiteke.

Txirrindularitza munduan hasi zinenean zaila ikusten ahal zenuen orain zauden tokira iristera?

Oso urruti ikusten nuen profesionaletara iristea, asko kostatu zait baina orain hemen nago.

Bidean txirrindulari asko geratzen dira.

Uf! Ikaragarri. Baina nere kasuan merezi izan du hainbeste urteetan lanean aritzeak, orain errekonpentsa hori jasotzen ari naiz.

Urtea amaitzear dago, talde berri batean hasi behar zara, zer eskatzen diozu urte berriari?

Zorte txarrik ez edukitzea, osasunak laguntzea behintzat. Urtero eskatzen dudana, ahalik eta ondoen ibiltzea.

Elkartu Nahi Txirrindulari Elkartea

Aurtengoan ere txirrindulari elkarteak urtero bezala zenbait txirrindu lasterketa antolatu ditu Zegaman. Lehenengoa apirilaren 15ean ospatu zen, XXI. SANTA KRUZ PROBA. Bertan Garmendia T.E.ko Garikoitz Bravo izan zen garaile.

Apirilaren 30ean berriz, jubenilek XXI. Elkartu Nahi Sari Nagusia lasterketan parte hartu zuten. Irabazlea Otzarreta GR taldeko Urko Eizagirre izan zen.

Bukatzeko, abuztuaren 28an LXXV. San Bartolome saria izan genuen. Hemen azkarrena Julen Goikoetxea Alfus-Tedes taldekoa izan zen.

Bestalde, aipatu 4 zegamarrek CLASICA CICLOTURISTA "QUEBRANTAHUESOS" lasterketan parte hartu zutela. 5.686 txirrindulari irten ziren lasterketa honetan eta gure herritarren denbora eta postuak hauek izan ziren: Ander Perez Arrietak 11. postua 6:02:13 denboran lortu zuen, Ruben Zabaletak 221. postua 6:34:46 denboran eta Jesus Zabaletak 367. postua 8:01:37 denboran. Xabier Goiburuk bizikletarekin izan zituen arazoen erruz ezin izan zuen lasterketa amaitu. Argazkian ikus daitekeen bezala 4 txirrindulariek Zegamako mailota eraman zuten jantzita.

Quebrantahuesos frogan parte hartutako zegamarrak

Jubilatuen Elkartea

Jarraian urtean zehar izan ditugun ekintzen berri emango dugu, hilabeteka sailkatuta:

URTARRILA

Urtero bezala, urtea Erregeen Kabalgatan parte hartuz hasi genuen. Gabonetan lehen aldiz Jaiotza jarri zen. Jaiotza honetako irudiak elkarteko kide batzuk margotu zituzten eta horregatik zorionduak izan ziren.

OTSAILA

Otsailaren 11. egunean Lourdeseko Amabirjinaren eguna izan zen. Arratsaldeko 5etan jubilatu elkartean Meza bat ospatu zen bertan jendetza handia bildu zelarik. Ondoren merienda aparta egin zuten.

MARTXOA

Batzar orokorra ospatu zen. Urteko kontuak aurkeztu eta onartuak izan ondoren, elkarteko presidenteak, Gida Batzordeak egindako erosketen berri eman zuen: bi bizikleta estatika, ibiltzeko bi zinta, 25 ahulki, bideo bat eta bigarren telebista bat.

MAIATZA

Aurtengo lehen irteera Cabarcenora (Kantabria) antolatu zen. Bidai hau Udalak ordaindu zuen, lerro hauen bitartez gure esker ona adierazi nahi diogu Udalari. Parkeko bisita egiten ari ginen bitartean, bideo batean grabatu gintuzten eta ondoren irudiak Kantabriari buruzko erreportai batean sartu. Bideoa oso polita geratu zenez, Elkarteak kopia bat erosi zuen. Inork erreportai hori ikusteko asmoa edukiko balu, Gida Batzordean eskatu besterik ez du.

UZTAILA

Urteko bigarren irteera: Hondarrabian eta Donostian izan ginen.
Uztailaren 10ean, Udaletxeak antolaturik, Jubilatuen eguna ospatu zen. Egun zoragarria izan zen, ESKERRIK ASKO!

ABUZTUA

San Bartolometako jaietan paella lehiaketan parte hartu genuen eta Begoña Etxezarreta eta Jabier de Pradok osatutako bikoteak lehen saria lortu zuten. ZORIONAK! Maritxu Galarragak eta Mª Carmen Artanok ere hartu zuten parte.
Abuztuaren 31n Donostian ospatu zen martxan 6 bikotek parte hartu zuten:

- Arantxa Kerejeta-Sinforo Alzola
- Begoña Etxezarreta-Jesus Telleria
- Mª Carmen Zabaleta-Eugenio Ormazabal
- Mª Teresa Guridi-Nieves Arratibel
- Jesus Mª Gerra-Patxi Berasategi
- Maritxu Galarraga-Nikolas Zabaleta

IRAILA

Araban dagoen Aiarako haranera izan genuen urteko hirugarren eta azken irteera. Bidean Orozko eta Laudio bisitatu genituen eta bazkaria Amurrion izan genuen.

ABENDUA

Hilaren 12tik 17rako astean Kultur Astea ospatu genuen.Mahai jokuetan parte hartzeaz gain, zenbait pelikula eta erreportai ere proiektatu ziren.
21ean, Santo Tomas egunean, mahai jokuen irabazleen trofeo banaketa egin genuen eta ondoren, Santo Tomas eguneko ohiturak jarraituz, txistorra jateko aukera izan genuen. Gabonetako saskia ere zozketatu genuen bazkideen artean.
Aginaldoak ere banatu ziren. Lehengo urteko sarituak hauek izan ziren: Felipa Agirre, Anttoni Arrondo, Felix Gorrotxategi, Francisco Larrea, Sabino Mugika, Justina Murgiondo, Kandido Ocaña eta Agustina Zufiaurre.
Gabonetan egoitza ezberdinetan bizi diren herritarrei bisita egiten diegu erregali txiki bat eramanez.
Esan behar da azaroan Gabonetako Loteria banatu zela interesa aurkeztu zuten bazkideen artean.

Iazko Gabon saskia Milagros Otaegiri tokatu zitzaion

Jubitatuak jokuan

Zegamako
Ostatua

• TABERNA
• JATETXEA
• LOGELAK

Zorionak eta
Urte Berri On

San Martin 3- ZEGAMA • 943 801 051

Belea Ehiz eta Arrantza Elkartea

Aurten Zegamari egokitu zaizkion ehiz postuen zerrenda ondorengoa izan da.

PARAJEA	POSTUA
APOTA	2
APOTA	8
LARREBIL	5
LARREBIL	9
ULZAMA	10
ITURGAIN	3
ARATZ	7
ARATZ	9
PEAZULUETA	2
GARAGARZA	2
LETAIN	6
LETAIN	10
LETAIN	12
TXABOLATXO	4

Partzonerian egindako enkante publikoan gehien ordaindu diren postuak honako hauek izan dira:

PARAJEA	POSTUA	ENKANTEA
APOTA	11	11.011 €
APOTA	9	10.489 €
AGIÑARAN	1	8.611 €
APOTA	13	8.050 €
ITURGAIN	6	7.820 €
LARREBIL	16	6.645 €

Esan behar da aurtengo ehiz urtea nahiko ona izan dela eta ehiztariak orohar gustora gelditu direla.

Usoak

Zegamar Batasun Kasinoa

ZEGAMAR BATASUN KASINOA

Urtero bezala, ekintza ezberdinak antolatu ditugu herrian: Bertso Jaialdia, Ipuin Lehiaketa eta Mus Txapelketa.

BERTSO JAIALDIA

Lehengo urtean hasi genuen bideari jarraituz, aurten ere Erlezain Eguna eta egun honekin loturiko ekintzen artean kokatu dugu gure jaialdia. Apirilaren 2an ospatu zen pilotalekuan eta bertan Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Jesus Mª Irazu, Nahikari Gabilondo eta Iker Zubeldia bertsolariek hartu zuten parte.

KASINOKO XVII. IPUIN LEHIAKETA

Aurreko urteetan bezala, ipuin lehiaketa hau "Aitxuri" herri eskolako haurren artean izan zen. Lehiaketa hau aurrera eramateko herri eskolako andereño eta Kultur Etxeko Batzordearen laguntza paregabea izan genuen ipuinak idatziarazi eta ondoren epaimahai lanak egiteko hurrenezhurren. Kasino elkarteak haurrei horrenbeste ilusio egiten dieten oparitxoak erosteko dirua jartzen du.
Hauek izan ziren aurtengo irabazleak:
1.go maila: Ainhoa Saez de Maturana eta Uxue Arrizabalaga
2. maila: Josu Oiarbide eta Garazi Ormazabal
3. maila: Mikel Berasategi eta Lander Irastorza
4. maila: Uxue Alberdi eta Libe Galdos
5. maila: Ioritz Etxeberria eta Joanes Etxaide
6. maila: Onintza Arakama eta Janire Matxinandiarena

MUS TXAPELKETA

Aurten ere jokatu da elkarteko Mus Txapelketa. azaroaren 18 eta 25ean. Irabazle Joseba Zubizarreta eta Aitor Azurmendi izan ziren, Asier Berasategi eta Igor Elizegi izan zirelarik txapeldunorde. Txapelketa oso arrakastatsua izan zen, lehen egunean 29 bikote aurkeztu zirelarik eta finaleko egunerako 8 onenak geratuz. Azkenik aipatu gure Museko mahai ospetsua ere eraberritua izan dela itxura oso polita hartuz.

Mus txapelketako irabazleak

Kasinoko joku mahaia eraberritu egin da

Amezti Elkartea

Urteroko ohiturari jarraituz, 2005 urte bukaerara iritsi garen honetan, urtekarirako txostena egiteko aldartean aurkitzen gara.

Zein azkar joan den urtea! Atzera begira jarriz gero, urtea atzo bertan hasi genuela ematen du eta honezkero pasa da!

Badirudi ezer gutxi gerta zitekeela horren epe motzean baina begirada lasaigo batekin erreparatuz gero aurtengo urtea ere gertakizun, ospakizun eta emaritan oparoa izan dela aitortzeko aukera badela ikusiko dugu.

2004ko abenduaren 18an, Amezti Elkarteko III. Mus Txapelketa ospatu zen Elkartean. Txapelketa honetan 28 bikotek parte hartu zuten eta garaile, Joseba Albizu eta Felipe Inazio Zurutuza zegamarrak suertatu ziren eta txapeldunorde Leontzio Bodego eta Jose Inazio Etxabe Lazkaomenditarrak.

Neguko hotzak lagunarteko afari, merienda eta horrelakoak eginez, giro alai, jator eta beroan babesean igaro ondoren (2005ekoa negua benetan gorria izan baita), udaberriko epeltasuna nabaritzen hasi eta gero, apirilaren 16an egin genuen elkarteko urteroko Batzar Orokorra. Bertan, beste zenbait gaien artean, gidabatzordeko hiru kide berritu ziren. Berez, diruzaina eta bi bokal aldatzea tokatzen bazen ere, ordurarte zeregin horietan zebiltzan Emilio Txurruka eta Joxe Agirrebengoak, batzarrak hala onartuz gero, aurrera jarraitzeko prest azaldu ziren. Bozketa egin ondoren, batzarraren onarpena jaso zuten eta ondorioz, diruzain lanetan Emiliok jarraitzen du eta bokal lanetan Joxe Agirrebengoak. Modu beran, Jose Luis Galdosek, Antonio Morillori txanda hartu dio bigarren bokal lanetan.

Batzarrak bere esker ona azaldu zien bai Antonio Morillori, urteetan zehar egindako lan ixil eta onagatik, baita Emilio eta Joxeri egindako lan eta agertutako eskuzabaltasun jarreragatik ere.

Urtea joan eta urtea etorri, elkarteak hartu du berezko nortasun eta dinamika bat. Elkartekideen ospakizun, afari, elkaraldetze eta horrelakoaz gain, herrian egiten diren zenbait ekintzetan aktiboki parte hartzen du. Adibidez, herriko jaietan sagardo eta sardin erre dastaketan, San Martin egunean gazta dastaketan, Zegama-Aizkorri maratoiaren alderdi teknikoa gure esku dago eta esan herritarrei gure eskerrona azaldu beharrean gaudela, urtero urtero eskaintzen diguten laguntzarengatik.

Aurten lehenengo aldiz egin diren bi ekintza dira. Batetik, Zegamako beste elkarteekin batera, Elkartearteko Lehenengo Mus Txapelketa egin da. Hau da, Elkarte ezberdinetan egiten diren Mus Txapelketetan garaile irtendako bikoteen arteko txapelketa. Nolabait esateko txapeldunen txapelketa, urtero elkarte ezberdinak antolatuko duelarik. Bestalde, San Martin egunaren inguruan, Udalak antolatutako taloak egiten ikasteko saioa gure elkartean burutu zen eta partehartze handia izan zuen.

Amezti Elkarteak eta Amezti Mendi elkarteak "guk ere bai" esan genion Korrikari, euskara bidelagun baitugu, eta euskarak bidelagun baigaitu. Mikel Zabaleta izan genuen lekukoaren eramale guri zegokigun tartean, elkarteko kideen laguntzarekin.

AMEZTI MENDI ELKARTEA

2005. urtea ez dugu lo pasa Amezti Mendi Elkarteko lagunek. Zegama-Aizkorri Maratoiaren antolakuntza teknikoak eragiten duen lana alde batera utzi gabe, azken urteetan alde batera uzteko zorian geunden hilabeteroko mendi irteerei ekin diegu aurtengoan. Elurretan hasi genuen urtea Candanchun eta elurretan amaituko dugu urtea Aizkorriko puntan. Baina urteak askorako ematen du, eta hau horrela, irteera batzuk aipatze aldera, Amezti Mendira, Arrano Aitza, Txurrora eta Aizkorri tontorrera birritan (Aizkorriko Lagunen egunean gure gidaritza laguntza eta cava kopa eskaintzarekin eta Irailean bertan lo eginez) eginiko herri irteerak ditugu. Bestalde aurtengoan kanpora gutxi irten bagera ere, Urederrara, Urbasa magalera eginiko irteera ere azpimarratzekoa da, Nafarroa erdialdeko txokoak ezagutuaz, Lizarrerri eta Urbasa-Andia mendikateko herriskak bisitatuz. Beraz irakurle, badakizu talde giroa eta natura atsegin badituzu ez daukazu aitzakiarik, gainerakoa utzi gure esku, izango duzu aukera 2006an ere gurekin Euskal Herriko nahiz kanpoko mendiak, zelaiak, herriak, lagunak ezagutzeko, pasahitza!

Eta urtea joan eta urtea etorri, gure elkartea hamargarren urteurrenera hurbiltzen ari da. Gezurra badirudi ere, 1996ko urtarrilaren 20ean sortua dugu Amezti Elkartea. Beraz 2006an hamar urte beteko ditugu eta modu berezian ospatzeko gogoa eta asmoa dugu.

Aurrerantzean ere jarrai dezagula gure elkarteaz gozatzen, lagunartea eta elkarbizitza areagotu eta sendotuz.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON ZEGAMAR GUZTIOI !!!

Mus txapelketako txapeldunak eta txapeldunordeak

Ameztikoak Urederran

ANATXEKO 9 AHIZPEN BAZKARIA

Urriaren 9an, Zegamako Ostatuan Anatxeko famili bazkaria ospatu zen eta famili bazkari bat egitea ez bada oso bitxia, bedereratzi ahizpa izateak badu bere berezitasuna. Azken 20 urteotan elkartzen omen dira beren senarrekin (bi alargunduta daude) senide bazkaria egiteko. Zorionak eta segi bezate urte askoan !!!

Anetxeko 9 ahizpak

Guraso Elkartea

Jadanik gehienontzat jakina den moduan Aitxuri Herri Eskolako Guraso Elkartea bertako haur guztien gurasoek osaturiko elkartea da. Berez guraso denak izan arren Elkarteko partaide, hauteskunde bidez aukeraturiko ordezkaritza bat arduratzen da Elkartearen betebeharrak kudeatzen eta aurrera eramaten. Bi urtero ordezkaritza horren erdia berritzen da. 2004 urtean berritu zenez azkeneko aldiz aurtengoan ez da horrelakorik tokatu. Hala ere 2004-2005 kurtsoarekin konparatuz 2005-2006 kurtsoan partaide bat gutxiago izango duenez Elkarteko Batzordeak (eskolako haur kopuruaren araberakoa izaten da), Arantxa Ormazabalek ez du kurtso berrian Batzordean jarraitu. 2005-2006 kurtsorako honela gelditu da Batzordeko partaidetza:

- Joxe Anjel Telleria
- Edurne Ormazabal
- Amaia Atxa
- Juan Carlos Azurmendi
- Joxe Manuel Etxaide
- Mari Carmen Laskurain
- Iñaki Irastorza
- Vicente Rivas
- Elixabet Arrieta
- Gillermo Zubizarreta
- Luis de la Hera
- Xabier Arizkorreta

Elkartearen egitekoa seme alaben heziketan Eskolako Irakasle Klaustroari laguntzea da, eskola orduz kanpoko aktibitateetan eta aktibitate konplementarioetan gehienbat. Horrela azkeneko urteetan ohitura bihurtu diren zenbait aktibitate antolatu dira 2005 urtean zehar ere. Ondorengo lerroetan laburbilduko diren aktibitate horiek dira herritarrengana hobekien iristen direnak, baina horiez gain kanpotik ikusten ez diren eginkizun sorta bat ere badute, besteak beste: Eskola Kiroleko Irakasleari (Xabier Intxausti Idiazabaldarra aurtengoan ere) kontratua izenpetu kurtso hasieran, Eskolako ikasleen istripu asegurua kontratatu, liburuak banatu, txandalak eskatu eta banatu, urteko bideo emanaldien egutegia egin, Batzar Orokorra antolatu, Elkartearen aurrekontuak kalkulatu, Eskolako aktibitateen memoria eta aurrekontuak errebisatu eta oniritzia eman, gurasoei urtean zehar kobratzen zaien kuotak kudeatu e.a. Hau guztia aurrera eramateko bilera periodikoak antolatu dira irakasleen ordezkariekin gutxienez hilean behin.

Goian aipatu den moduan Elkarteak antolatzen dituen aktibitate asko ohitura bihurtu dira, eta urtero ospatzen dira, baita 2005 urtean ere. Ondorengoak izan dira:

1. Inauterietako ostiralean txokolatada bertaratutako guztiei

2. Kurtso amaierako festa haurrentzat puzgarri eta beste zenbait entretenigarriekin

3. Kurtso hasierako kirol festa irailean.

4. San Martin festa: Pailazoak (Pirritx eta Porrotxen "Patata Patata" ikuskizuna aurtengoan) polikoroldegian eta ondorengo txokolatada.

5. Igandetan, bideo emanaldiak.

Aktibitate hauen laburpena urtero egiten dugunez, aurtengoan eskolaz kanpoko kirolari aipamen berezi bat egitea erabaki dugu, eta kirol hauen artean mendi irteerei, kirol estraeskolarreko ekintzarik jendetsuenetako bat bihurtu delako. 25 bat ume daude gaur egun ere izena emanda, hilean behin egiten diren irteeretarako. Normalean 18-20 haur eta beste 15 bat guraso elkartzen dira, denera 35 lagun bataz beste. Aukera ederra da goiz eder bat pasatzeko denok elkarrekin hitz eta berriketan. Irteerak herri gertuan izaten dira. Nola ez, guk baino aukera hoberik askok ez du izango hain gertu. Kurtso hasieran egindako bileran irteerak eta autoak antolatzen dira eta horrela eguna heltzen denean garbi dugu nor ekarriko duen kotxea. Gertu egon arren sekula iritsi gabeko tokiak izaten dira askorentzat, nahiz eta bistaz edo entzunda askotan izan. Adibidez Segurako Santa Barbarara joan ginenean bezala. Egun horretan errekorra egin genuen 50 lagun elkartuz, eta 2004-2005 kurtso bukaeran DVD bat egin genuen argazki eta musika lotuz (oroigarri polita gerorako !!). Garbi daukagu haurrek ere asko disfrutatzen dutela, ez dute ia inoiz "Noiz allauko gea?" esaten eta. Mendizaletasuna barruan dugu!!.

Mendi irteera ezberdinak

Zegamako Odol Emaileen Elkartea

Ohitura den bezala aurten ere odol emaileok bi hitzordu izan ditugu Zegaman odola eman ahal izateko. Hauetako hitzordu bat martxoaren 5ean izan zen, bertan 36 odolemaile izan zirelarik eta bestea irailaren 5ean izan zen eta 32 odolemaile bildu ziren.

Bukatzeko, urtero egin ohi dugunez, osasuntsu zaudeten zegamar guztioi luzatzen dizuegu odolemaile egiteko gonbitea. Animatzen bazarete, hurrengo ateraldia noiz izango den egunkari eta kartelen bidez jakin ahal izango da eta odola ematen den tokira agertu besterik ez duzue.

ANIMA ZAITEZTE !!!

Zegamako Odol emaileak odola ematen

Rufina Otaegi

Elkarrizketa

"Arretxe erosi aurretik errentan egon ginen eta kapoi, gari eta esnearekin ordaintzen genuen. Ez dut oso ongi gogoratzen, baina urtean 3-4 kapoiko errenta izaten zela uste dut. Horrez gain, egunean eguneko esnea ematen genion etxearen nagusi zenari eta aurretik izendatutako gari kopuru bat ere bai"

Noiz eta non jaio zinen?

Ni Koba baserrian jaio nintzen, 1911.urteko uztailaren 30ean.

Noiz arte bizi izan zinen zure jaiotetxean?

13 urte nituela Aizpurutxora joan nintzen neskame. Bertan hiru urte egin nituen eta hiru urte horiek pasa ondoren berriro ere etxera bueltatu nintzen aita gaixotu zelako.

Jateko produktuak eta erosten al zenituzten? Edo, etxean produzitzen zenutena bakarrik jaten zenuten?

Ama igandero Zumarragara joaten zen eta bertan egiten zituen aste guztirako erosketak. Gure aita trenbide-gizona zen, eta amak trena dohainik zuela aprobetxatuz Zumarragara joaten zen. Gure amak trena goizeko bostetan hartzen zuen eta hamar eta erdiak aldera itzultzen zen.

> "Ama igandero Zumarragara joaten zen eta bertan egiten zituen aste guztirako erosketak. Gure aita trenbide gizona zen"

Eskolan ibili al zinen?

Ezer askorik ez, baina joan ginela esateko lain bai. Ikastera San Pedroko eskolara jaisten ginen, jaisten ginen gutxietan, baina komulgatzera herriko eskolara jaitsi behar izaten genuen. Eskolara etxean lanik ez zegoenean bakarrik joaten ginen, itulanik ez zegoenean eta horrelakoetan gehienera ere zortzian behin joaten ginen, 13 urterekin neskame joan nintzen arte.

Zer da itulan ibiltzea?

Baratzean edo soroan behien aurretik ibiltzea da itulan ibiltzea. Nik behiei eusten nien eta nolabait esateko nora joan behar zuten gidatzen nituen, gero buelta hartzeko behiei muturrean jo eta behin buelta hartuta berriro hauen aurrean jarri behar zen.

Rufina bere seme-alaba eta bilobekin

Eskolako zein oroitzapen gordetzen duzu?

Gehienbat, San Pedroko eskolan ibili ginen gu. San Pedroko eskolara goizez bakarrik joaten ginela uste dut, eta bertan kanpotik etorrita zegoen eta Eugenia Txiki esaten zioten emakume bat geneukan maistra. Emakume hau nahiko zitala zen, ez zuen huts handien beharrik gogor egiteko, orain baino puntualago ibili behar izaten zuen jendeak. Irakurtzen ikasi nuena orduan ikasi nuen nik.

Bazkaltzera etxera bueltatzen al zineten?

Bai normalean bazkaltzera etxera joaten ginen, baina egunen batean arratsaldean berriro eskolara joan behar baldin bagenuen etxetik intxaurrak eta ogia ekarri eta bertan bazkaltzen genuen.

Beraz, 13 urterekin joan zinen neskame?

Bai, hamasei urte arte egon nintzen bertan. Han ere baserri-lanak egin behar izaten nituen gehienbat, eta gainera etxean baino gogorrago egin behar izaten nuen lan. Etxean behiak bakarrik genituelako eta Aizpurutxon ardiak ere bazituzten.

Neskame egon zinenean ere zeure etxera erretiratzen al zinen?

Ez, neskame egon nintzen hiru urte horietan otorduak eta loak Aizpurutxon bertan egiten nituen. Nire etxera ez nintzen askotan joan hiru urte horietan. Ez dakit zenbat aldi izango ziren, baina Gabonetan eta horrelako data berezietan izango zelakoan nago, ez naiz oso ongi gogoratzen.

Hiru urte horiek pasa zirenean berriro etxera bueltatu nintzen amari baserrian laguntzera aita gaixotu zela eta. Ordurako sabeleko minbiziarekin oso gaizki zegoen aita eta handik berehala hil zen. Hemen berriro ere behiak jaitsi, ganadu janak egiten nituen eta horrez gain etxeko lanetan ere laguntzen nion amari.

Berriro etxetik ezkondu zinenean atera al zinen?

Bai, etxetik ezkondu nintzen. Baserri zahar batetik beste zaharrago batetara joan nintzen orduan, Astregira ezkondu bainintzen. Eta han ere, lan gogotik egin behar izan nuen. Niretzako beti eta leku guztietan guztia lana eta lana izan da, oraintxe nago gabe eta hori ezin dudalako.

Gaztetan, denbora librerik izaten al zenuen?

Ez, nik sekula ez nuen denbora libre askorik izan. Igandeetan ere goizeko 6etan izaten zen mezara etorri eta gero berriro lanera bueltatzen nintzen. Denbora libre pixka bat izaten nuenean, berriz, Haitz-Handi zahar baserriko Bixenta eta biok ateratzen ginen. Bixenta eta biok oso lagunak ginen.

Kalera jaisten al zineten Bixenta eta biok?

Kalera ez, Haitz-erdikoan soinua jotzen zuten noizik eta behin Oilari baserritik gora joanda zegoen Aizpuru baserriko Joxe Migel eta Joxe Andres anaiek eta jotzen zutenean hara joaten ginen ikustera, batez ere, besteek zer egiten zuten ikustera, dantza handiegirik ez baikenuen egiten. Beste gainontzean, nik ez nuen libertate gehiegirik izan.

Gero, 19 urte nituela ezkondu eta okerragoa izan zen denbora librearena.

Nola ezagutu zenuen zure senarra izango zena?

Nire etxe azpiko baserria erori egin zen eta hau konpontzen bertan lanean ari zela ezagutu nuen.

Ezkondu eta Astregira joan zinela esan didazu. Zer famili izan zenuen?

Rufina, bere bilobekin

Ezkondu eta bi urtean ez genuen seme-alabarik izan, baina gero umeak izaten hasi ginenean 11 haurdunaldi izan nituen eta hauen artean abortu bat izan nuen, baina beste 11 haur izan nituen. Oraindik 10 bizi dira. Pentsa dezakezuen bezala ez nuen lan faltarik izan hainbeste haur eta baserriko lanen artean. Arropak eta, berriz, Astregin bizi ginenean etxe-azpitik pasatzen zen errekan garbitzen nituen. Hona etorri ginenean, Arretxera, jada banuen labadora eta bertan garbitzen nituen arropak.

Ezkondu eta gero, senarra eta biok baserrian bakarrik egiten al zenuten lan?

Nik bai, baina Mariano nire senarrak Papeleran ere egiten zuen lan. Bertan ezkondu eta gero sartu zen lanera eta eskerrak horri, horrela behintzat bageneukan bizitzeko adina.

Horrenbeste umerekin eta baserriarekin ez zenuen zuretzako denbora askorik izango, ezta?

Ez, ez zitzaidan jolaserako denbora askorik geratzen, baina umeek ere zenbateraino egiten zaien hartzen dute, zenbait eta gehiago egin, orduan eta gehiago eskatzen dute. Senideetan zaharrena neska zen, Joxepa. Hark ere makina bat ume-zaintze egin zituen.

Joxepa gero moja joan zen. Joxek ere 10 urterekin alde egin zuen Arantzazura eta Joxe Marik jarraitu zion.

Rufina, bere seme-alabekin eta suhi-errainekin

Bertara ikastera edo fraide egitera joan ziren?

Joxe fraide izateko joan zen, nahiz eta urte asko fraile izan ondoren, orain dela urte batzuk fraile izateari utzi zion. Joxe Mari ere fraile egitera joan zen, baina azkenean ez zen egin eta denbora gutxiago egon zen hura bertan, geroago joan eta lehenago utzi baitzuen.

Beste seme-alabak noiz arte izan zenituen zurekin, noiz arte egon zineten Astregin?

Denak etxean izan ziren. Hazi ahala fabrikan ibili ziren aitaren bidez sartzen zirelarik, aitak egiten baitzuen lan fabrikan. Hau hil zen arte guztiak fabrikan ibili ziren eta gero ezkontzen joan ziren eran, alde egin zuten. Bat Apaztegira, beste bat Olaberrira, Enkarna eta Mares Zegamara ezkondu ziren. Juanita, berriz, inprentan lanean zebilela aspertu egin zen nonbait eta Parisera joan zen.

Noiz etorri zineten Arretxera bizi izatera?

Hona etorri ginenean 1938. urte ingurua izango zen eta Joxepa, Julio eta Lourdes eta Anttoni bikiak genituen. Azken hauek 14 hilabete zituztela jarri ginen etxe honetan bizi izaten. Ondorenean izan nituen seme-alaba guztiak hemen bizi ginela izan nituen.

Hemen izan nituen gainontzeko seme-alabak hauek dira: Sabino, Joxe, Enkarna, Juani, Mares, Jexux Mari eta Joxe Mari.

Arretxe erosi aurretik errentan egon ginen eta kapoi, gari eta esnearekin ordaintzen genuen. Ez dut oso ongi gogoratzen, baina urtean 3-4 kapoiko errenta izaten zela uste dut. Horrez gain, egunean eguneko esnea ematen genion etxearen nagusi zenari eta aurretik izendatutako gari kopuru bat ere bai. Garia ere kantitate handia zen gainera, ia etxerako geratzen zitzaiguna baina gehiago ematen genion.

42 urte nituela eta 11 seme-alabekin alargun geratu nintzen. Nire senarra hil zenean, 1955. urtean, Papelerakoek senarraren hileta elizkizuna, hilkutxa eta entierroaren ondoren ematen zen luntx modukoa ere ordaindu zuten. Honez gain, alargun geratu nintzenean, diru kantitate bat, 143.015 pta, osorik kobratu edota hilean 742,74 zentimo jasotzen joateko aukera eman zidaten, eta nik hilero zati bat jasotzen joatea aukeratu nuen. Diru hau jaso ahal izateko baldintza bat jarri zidaten: diruaren erdia neretzako izango zen baina beste erdia seme-alabentzako. Horri esker eta gero legeak aldatzen joan direlako oraindik ere kobratzen dut jubilazio moduko bat.

Senarra hil zenean, gainera, Julio nire semeari Papeleran lanpostu bat eskaini zioten bertan lan egiteko, baina honek ez zuen onartu berak artzaina izan nahi zuelako.

Gainera senarra bizi zela Arretxe erosi nahi zuen eta izugarrizko ahalegina jarri zuen baina ez zuen erostea lortu. Hau hil bezain laster etxea salgai jarri zuten, uste dut 260.000 pztatan eta orduan dirua falta zitzaigun, eta Beruntzetik aurrera joanda dagoen gaztainadi bat saldu behar izan nuen 10.000 durogaitik etxe hau erosi ahal izateko. Diru honez gain, seme-alaba guztiek ere ahal zutena jarri zuten eta horrela etxea erostea eta ordaintzea lortu genuen.

Garai horretan zenbat behi zenituzten etxean?

Bi edo hiru behi bakarrik izango genituen garai hartan. Ordurako Juliok ardi gutxi batzuk izango zituen, soldadutza berak bere poltsikotik ordaindu zuen behintzat-eta, diru pixkaren bat izango zuen ardiei esker.

Gerra garaiko zer oroitzapen duzu?

Gerra garaia, besteak beste, negargarria izan zen. Gerra piztu zen garaian beti ihesi ibiltzen ginen, gaua pasatzera

> "11 haurdunaldi izan nituen eta hauen artean abortu bat, baina beste 11 haur izan nituen. Oraindik 10 bizi dira"

mendira igoz eta goizean handik etorri eta baserriko lanak ahal genituen moduan eginez eta berriro ere gauerako mendietara igotzen ginen. Gerra-garaia miserablea izan zen.

Bestalde, guk suertez ez genuen aparteko arazorik izan, baina makina bat leku eta etxetan momentu gogorrak izan ziren. Batean, harrapatu eta hil egin zituztela, bestean harrapatu eta desagertu egin zirela... Guk ez genuen horrelakorik izan, susto majoak bai, baina gehiagorik gabe pasatzekoak. Kobatik beheraxeago dagoen eta Arizti-erdikoa esaten dioten baserrian artzainak zeuden eta Urbiara berriak pasatzen zituztela esanez, aita-semeak biak hil zituzten, eta nahiz eta guk ikusi ez, Urbasan dagoen eta "el balcon de los caídos" esaten dioten zulo hartara bota omen zituzten.

Semeren bat joan behar izan al zitzaizun gerrara soldadu?

Ez, gure semerik ez zen gerrara joan. Hilobak joan ziren, baina nire semerik inor ere ez zen joan, orduan Arantzazun zeudelako eta fraileek ez zutelako gerrara joan beharrik; hala ere larri ibili ziren.

Jada etxe honetan nola ateratzen zenuen bizimodua aurrera?

Hemen ere lana eginez atera nuen bizitza eta baserria aurrera, baratzeko lanak, ikuilukoak, etxekoak, joste-lanak... denak egin behar izaten ziren, eta seme-alaba bakoitza bere buruaren jabe egiten joan ahala etxetik irtetzen joan ziren bakoitzak bere bizia egiteko.

Makina bat aldiz goizeko hiruretan eta lauretan jaiki eta etxeko lanak egiten hasten nintzen. Gero argi zegoen bitartean kanpoko lanak egin eta berriro ere iluntzen zuenean etxeko lanekin jarraitzen nuen. Nik ez dakit zenbait lan egitea tokatu zaidan ere, baina lana egin izanaren penarik ez dut inoiz izan, eta egin ahal izan dudana egin gabe utzitako penarik ere ez dut sekula ere izan.

Nora joaten zineten erosketak egitera?

Erosketak egitera Eugenioren arrebaren dendara joaten ginen, orduan denda Agustinek zuen arren. Gainera trukaketak ere egiten genituen. Etxean jango ez genituen arrautzak beste zerbaitegatik aldatu ere izan genuen, baita esnea ere. Guk saltzeko moduan genuen guztia saltzen genuen.

Rufina, bere sendi osoarekin

Seme-alabak ezkondu ahala joan zirela esan duzu. Norbait ezkondu zen etxera ere, ezta?

Bai, etxera Julio ezkondu zen. Hau aita hil eta berehala ezkondu zen gainera. Senideetan ezkontzen Joxe Mari izan zen azkena. Aurretik Donostian aritu zen ikasten eta etxetik makina bat albondiga eramandakoa da hau, aste guztirako jana etxetik eramaten baitzuen prestatuta.

Beraz, etxean Julioren emaztearen laguntza ere izango zenuen?

Bai, hark ere beharko lan egin. Baina gehienean kanpoan ibiltzen ziren, artzain ibiltzen baitziren, eta gainera denbora gehiena gaixorik egon zen. Beraz, etxeko bilobak zaintzea ere niri tokatu zait eta baserriko martxa ere nik eraman izan nuen beti.

Etxean geratu zen semeak, Juliok, sei seme-alaba izan zituen eta haiek ere nik zaindu behar izan nituen gehien bat.

Zegamari buruzko zer oroitzapen duzu?

Nik oraingo gazteei lehengo bizitza emango nieke nire esku balego, orduan orain baino hobetoago bizi ginela iruditzen baitzait. Oraingo aldean ondo entretenituta bizi ziren gazteak orduan. Gainera, orain badago herritik kanpora joan beharra, eta orduan gazte guztiak hementxe ibiltzen ziren, musika eta guzti egoten zen gainera hemen.

> "Txerriak udazken bukaeran hiltzen ziren normalean eta odolkiak eta txorixoak bizilagunen artean ere banatzen genituen. Urdaia egin eta urdaiazpikoa gatza emanda ere jartzen genuen."

Igandetan mezetara joatea behartu egiten al zuten?

Ez, jendea mezetara borondatez joaten zen, ez zuten inor behartzen. Orduan orain baino afizio handiagoa zegoen mezetara joateko, esan eta esan aritzen baitziren joan ezean nik ez dakit zer gertatuko zela eta horrela; beraz, afizioa baino beldurra gehiago zela uste dut.

Festak eta jaiak oraingo modukoak izaten al ziren?

Festa handiegirik ez zen izaten baina batean Espiritu Santura eta bestean ez dakit nora jendea mugitzen zen orduan ere festarako. Nik hala ere ez nuen festa handiegirik izan sekula, batez ere astirik ez nuelako izaten. Festa batzuetara joaten banintzen ere, normalean etxeren batetara joaten nintzen bazkariak eta prestatzera bakarren bat gaixorik zegoelako edo horrelako arrazoiren batengatik. Gainontzean ez naiz ni baserritik askotan atera, lehen astirik ez nuelako eta orain ezin dudalako. Gainera, ez zaizkit inoiz gehiegi gustatu festak eta horrelakoak, familiako ezkontzetara ere ia etxekoek behartuta joaten naiz.

Arantzazuko peregrinazioa eta gogoan al dituzu?

Hura bai, hara pare bat aldiz edo joana naiz. Baina hara ere ez orain bezala, oinez joan eta oinez etorri egin behar zen derrigor, eta orain bezala, aurrez kotxeak eraman gero bertan etortzeko eta horrelakorik ez zegoen.

Peregrinaziotik aparte Arantzazura makina bat buelta egin nituen Joxe nire semea bisitatzera hau han zegoen garaian. Hara goizez joan eta iluntzerako berriro ere etxera etortzen ginen.

Belarretan eta non egiten zenuten edo nondik ekartzen zenuten belarra?

Belarra llarra deitzen genion zelaitik ekartzen genuen batez ere. Astregitik ere zerbait ekarri izan genuen baina oso gutxi, hemendik sua egiteko egurra ekartzen genuen astoan hartuta. Garoa, berriz, Txakortatik gora joanda dagoen trenbide ondoko zelaitik ekartzen genuen udazkenean.

Txerririk hiltzen al zenuten etxean?

Bai, txerriak udazken bukaeran hiltzen ziren normalean eta odolkiak eta txorixoak bizilagunen artean ere banatzen genituen. Urdaia egin eta urdaiazpikoa gatza emanda ere jartzen genuen eta honez gain urte guztirako txorixoa oliotan jartzen genuen. Solomoa ere pixka bat lehortzen genuen baina gainontzekoa oliotan jartzen genuen gehiago irauten zuelako, eta, batez ere begien aurrean edukita baino gu-txiago jaten zelako horrela.

Gaztak ere egiten al zenituzten?

Bai, gaztak ere neronek egiten nituen. Juliok esnea ekartzen zuenerako nik ontziak eta behar nituen gai guztiak prest izaten nituen gaztak egiten hasteko. Gazta ardi

esnearekin bakarrik egiten nuen, etxeko behi esnea esnezaleari saltzen genion. Hau egunero pasatzen zen gure etxetik esnea jasotzera.

Erditzeko garaian laguntzarik izaten al zenuen?

Bai laguntza izan nuen. Gure amaz gain, Maria Kerejetak lagundu zidan azken bi erditzeetan behintzat. Medikua ere etortzen zen, baina gero. Medikua aurrean zela izandakoak bikiak bakarrik izango dira, gainontzeko erditzeetan medikua geroago etorri zen.

Bikiak izan nituenean oraindik Astregin bizi ginen. Gainera, gerran geunden eta Don Jose Medikua preso zegoen eskolan herriko beste zenbaitekin batera eta gure auzoko "Bonbanea" baserrian bikiak erditzen ari zelako irteten utzi zioten. Momentu horretan ni ere ume izateko jarri nintzen eta medikua gertu zegoelako erditze garairako iritsi zen eta honi esker bikiak bizirik atera ziren. Beste etxeko bikiak hil egin ziren.

"Gazteei lehengo bizitza emango nieke nire esku balego, orduan orain baino hobetoago bizi ginela iruditzen baitzait."

Nolakoa izaten zen zure baserriko lan egun bat?

Oraindik Koban bizi nintzela goizean eguna argitzearekin batera jaiki eta igitaiarekin ganadu janak egin eta murkatsetan, ganaduarentzako jana biltzen nuen. Goiz gehiena honetan pasa ondoren eguerdian etxera bueltatzen nintzen bazkaldu eta senide txikiagoak zaintzen aritzen nintzen. Arratsalde partean, berriz, senideak zaintzeaz gain, etxe inguruko lanak egiten aritzen nintzen batez ere, egurra pilatu eta horrelakoetan.

Ezkondu eta gero ganadu lanez eta haurrak zaintzeaz gain, goizean goiz senarra segan hasi aurretik nik igitaiarekin zelaietako izkina guztiak garbitzen nituen segarekin ezin zirelako izkinako belarrak moztu.

Rufina bere bilobekin

Kontrabandorik ezagutu al zenuen Zegaman? Zer gogoratzen duzu horri buruz?

Hemen kontrabandoa batez era gerra ondorenean egiten zen, geratu zen egoera penagarria zela eta.

Nik neuk eta gure etxekoek ere ez genuen inoiz egin, baina kontrabandoa egiten zenaren hotsak izaten ziren. Entzuten zenagatik gehienbat Araba eta Nafarroatik ekartzen ziren gauzak, Aizkorri aldetik igaroz. Normalean kontrabandoan ekartzen zena janaria eta ardoa izango zela uste dut.

Kontrabandoan harrapatzen zituztenei zer gertatzen zitzaien?

Lehenik eta behin zekarten guztia kentzen zitzaien eta ondoren isuna jartzen zieten. Gainera, kontrabandoan harrapatzeagatik gartzelan sartutakoak ere baziren. Honen adibide garbietako bat Batiste Barrensorokoa da. Hau ardoarekin zetorrela harrapatu omen zuten eta urteak igaro behar izan zituen gartzelan. Ez dakit esaten zenbat urte izango ziren, bi bezala hamar edo gehiago izan baitzitezkeen.

Honek, Batistek honela esan izan ohi zuen: "Gartzelan gizentzen den gizonak, zerritegian ere ongi jasango luke".

Gogoan al duzu argindarra noiz jarri zen Zegaman?

Gogoratzen naiz noiz jarri zuten argindarra Zegaman, baina urtea ziur esateko ez dakit. Ni Koban bizi nintzela oraindik ez genuen argirik, jada ezkonduta Astregin bizi nintzela nola argiarentzako posteak eta nola geu jartzen aritu ginen gogoan daukat gainera, eta gerra garaia baina lehen izan zenez 1933-1935 urte ingurua izango zela uste dut. Baina, hala ere, urte hauek baino lehenago jarriko zuten kalean argia, zeren kalean jarri zutenetik baserrietara ailegatu zen arte denbora puska bat pasatu baitzen.

Lixiba noiz arte egin zen?

Lixiba Arretxera bizitzera etorri eta gero ez dakit egiten genuen, toki gehiegirik ez neukalako bertan, baina nik utzi eta gero ere Sakristauenean oraindik ere nola lixiba egiten zuten gogoan daukat.

Auzolana ere orain baino gehiago egingo zen orduan, ezta?

Hemen auzolana ez zen askorik egiten, orduan norbaitek laguntza beharra zuela ikusten zenean asko laguntzen zitzaion, hori bai.

Nik auzolana, gehienbat, neskame egon nintzen baserri inguruan ezagutu nuen.

Eta nola izaten zen?

Auzoan lana zegoenean bizilagunak elkartu eta lana denen artean egiten zen. Auzolanean normalean soroak, bideak eta horrelakoak garbitzen ziren, bakoitzaren zelaiak norberak garbitu eta zaindu behar izaten zituelarik. Aizpurutxon neskame nengoela makina bat aldiz peazarakada bat lur bizkarrean hartu eta mugitu ezinik ibili nintzen auzolanean.

Arratsalde edo iluntzean lana amaitu ondoren merienda edo afaria egiten zen bizilagun gehienak elkarturik.

Lehendik oraina sumatu al duzu eguraldian aldaketa nabarmenik?

Lehengo neguen oso antzekoa izan da aurtengo negua. Orduan neguak oso gogorrak ziren, izugarrizko elurteak egiten zituen eta denbora askoan irauten zuten gainera. Uda ere orain baino beroagoa izaten zen, beraz, neguan hotz eta udan bero egiten zuen.

Gainera, neguak hain hotzak izaten zirenez, negu aurretik egurrak eta prestatzen lan handia egiten zuen jendeak eta neguan bertan behientzat arbia egiten ere lan handia izaten zen kanpoan elurra denbora luzez izaten zelako.

Jaione Gorrotxategi

Rufina bere bilobekin

Tartaloetxe Kultur Elkartea

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Zegamako Tartalo-Etxe Kultur elkarteak urtero ohi duen moduan, bere bazkideei eta Zegamako herriari zuzendutako hainbat ekintza eragin ditu aurten ere.

Beste batzuen artean, mus txapelketa, gaztetxoentzako arrantza lehiaketa, sagardotegira irteera, bertso saioak, txakolin dastaketa, euskal preso, iheslari eta senideen aldeko ekimenak, sukaldaritza txapelketan parte hartzea, etb. Ekimen guzti hauekin saiatu gara, elkarte «gastronomikoa» soila ez izaten eta urtero bezela herriaren aldeko kultur eta gizarte ekintzak egiten, aurtengoan ere gure nahiak beteta ikusten ditugularik. Hau ikusirik, hurrengo urteetan Kultur-Elkartea bezela aurrera jarraitzeko indarra ematen digu.

Tartalo-Etxe Pilota Kirol-Elkarteak ere aurrera jarraitzen du gaztetxoei pilotan jolastu eta federatu bezela txapelketetan parte hartzeko aukera emanez.

Bestalde, udaletxearen aldetik iaz hasitako bidean atzerapausu bat ikusi dugu. Kultur-Elkarteek dirulaguntzak jasotzeko, udaletxearekin bileretan egindako proposamenak, iaz bete zirenak aurten bertan behera gelditu dira. Guk kultur elkarte bezela, Udaletxeak laguntza eskatzen digun ekintza guztietan gustoz parte hartzen dugu. Beraz, guk herriarekiko dugun ekintza eskeintza dela eta kultur elkarte bezela gure ekintzetan laguntza jasotzea besterik ez dugu eskatzen.

Arrantza lehiaketako partaideak

2005eko EKINTZAK

Jarraian 2005. urtean zehar parte hartutako nahiz antolatutako ekimenen aipamena egingo dugu:

URTE ZAHARRETAKO PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO GAZTINA JANA

Urteko azken egunean egin ohi den preso eta iheslarien aldeko konzentrazioarekin bat eginez, iaz lehengo aldiz gaztina jana antolatu genuen urte amaierarako. Herrian ikusi genuen onarpen ona duela eta, urtaroko giroaz lagundurik aurtengoan ere herritar guztiei gonbitea luzatzen dizuegu.

PRESO ETA IHESLARI GUZTIAK ETXERA!!!

KORRIKA 14, ORREAGA-BILBO´05

Aurtengo martxoaren 15 eta 16an, 14.Korrika "ni ere bai" lemapean Zegamatik igarotzen zela eta, Tartalo-Etxe Kultur Elkarteak gusto eta ilusio haundiz kilometro bat erosi zuen AEK-k Euskal Herria euskalduntzeko antolatzen duen jai erraldoi horretan.

Esan beharra dago, hasieran Tartalo-Etxe Kultur Elkarteak erosi zuen kilometroa Otzaurte gainekoa bazen ere, azkenean hurrengo kilometroa eman zigutela Otzaurte gainekoa herrikoak ez ziren beste batzuei emanez. Hau horrela izanik, Otzaurte gaineko kilometroa Tartalo-Etxe Kultur Elkarteari ez emateko erabakia ez zitzaigun zuzena iruditu.

"ni ere bai"

IX. ARRANTZA LEHIAKETA

Urtero bezela, Tartalo-Etxe Kultur Elkarteak herriko gaztetxoentzat arrantza lehiaketa antolatu zuen apirilaren 2an. Nahiz eta eguraldia paregabea ez izan, gaztetxoak eguna argitu orduko ekin zioten arrantza egiteari.

Parteartzaileak zazpi izan ziren: Imanol Otaegi Baleztena, Irati Atxa Asurmendi, Ibai Urbiztondo Azurmendi, Ioritz Etxeberria Oiarbide, Unai Atxa Asurmendi, Jon Irastorza Mujika eta Arkaitz Urbiztondo Azurmendi. Arrantza egun kaskarra izan bazen ere, sariak partehartzaile guztientzat izan ziren.

Honenbestez, partehartzaile guztiei eskerrak emanez eta hurrengo urtean berriro elkar ikusiko dugulakoan agurtzen gara.

TARTALO-ETXEarekin SAGARDOTEGIRA

Urteroko ohitura den bezela, apirilaren 9an herri guztiari zabalduriko Sagardotegira irteera egin zen. Aurtengoan Hernaniko Osinaga auzoko Otsua-enea sagardotegira izan zen.

Aurtengo urtean sekulako arrakasta izan du irteera honek. Bi autobusetan 80 herritar joan ginen bertara. Sagardotegian bapo afaldu eta giro ederrean egon eta gero Astigarragara joan ginen denok parranda egitera.

2006an ere iazko arrakasta lortzeko asmotan herri guztiari gonbitea luzatzen diogu eta animatu egun ederra pasatzera.

TARTALO-ETXE KULTUR ELKARTEAREN XII. Urteurrena

Aurtengoan maiatzaren 21ean ospatu genuen elkartearen festa, nahiz eta XII. urteurrenaren eguna maiatzaren 23an izan zen. Bertan larogei bat lagun bildu ziren eta egun ederraz gozatzeko aukera izan zen.

Eguna, hamaiketako eder batekin hasi genuen Zegamako plazan Sagardo Kupel batez lagunduta. Nahi zuen guztiak izan zuen aukera gerturatu eta sabela betetzeko.

Ondoren bazkari herrikoia izan zen Zegamako kiroldegian. Bazkalostean bertso-saioa ere izan genuen. Aurtengoan ber tsolariak Iker Zubeldia, Joxe Munduate eta Osinalde txapelketako irabazlea izan den Haritz Aranburu izan ziren.

Aurtengoan musikari bereziak izan genituen gure artean. Euskal Herriko soinujoleen ordez, Katalunyako soinujolek entzuteko aukera izan genuen. Desberdina izanik ere, giroa asko berotu zuten eta dantzaldi on bat eskaini ziguten. Egia esan beraiek ere Zegamako giroarekin gustora joan ziren.

Eguna bukatzeko herrian zehar trikitilariekin poteoa egon zen, eta batzuen kasuan gaua asko luzatu zen.

PAELLA LEHIAKETA

San Bartolome jaietan ospatzen den Elkarteen arteko paella lehiaketan, Tartalo-Etxe elkartetik bi bikote aurkeztu ziren. Aurtengoan ere bigarren postua lortu genuen.

Bikoteak: Tomas Lasa eta Amaia Gorospe alde batetik eta Imanol Garmendia eta Unai Arzelus bestetik izan ziren.

ZEGAMAN EZ GAUDE DENOK

2005eko San Bartolome jaietan, Zegamako Preso eta Iheslarien aldeko taldeak egun berezia antolatu zuen. Egun hori aurrera

Sagardotegira irteera egindako zegamarrak

ateratzeko Tartalo-Etxe Kultur Elkarteak laguntza eskaini zien, antolakuntzan parte hartuz.

Izena emanda zueden 80 lagunentzako bazkari ederra izan zen udaletxeko portikuetan. Bertan bazkaldu ondoren, trikitilari eta bertsolariekin kalejira egin zen ilunabarralderarte.

Mus txapelketako garaileak

XIII. MUS TXAPELKETA

Aurreko hamabi urteetan bezalaxe, aurten ere iraileko azken ostiralean (irailak 30) egin ziren kanporaketak eta urriaren lehenengo ostiralean (urriak 7) izan zen finala.

Aurtengo mus txapelketa XIII.a izan da eta parte hartu duten 32 bikoteetatik Luis Arrieta eta Migel Azkonak osatutako bikotea izan da garaile, Pako Larrarte eta Joxe Angel Larrea "Moxo" bigarren gelditu ziren. Mus txapelketa arrakastatsua izan dela eta partehartzaile guztiei gure eskerrona eta hurrengo urtean ere berriz elkartuko garelakoan, gonbitea luzatzen dizuegu.

Beste aldetik, gure eskerrik beroenak laguntza eman diguzuen denoi: Zegamako Okindegia, Aitzkorpe Edaritegia, Zegamako Kasinoa, Benito Harategia, Vendi Janaridenda Sebas Lujanbio, Mikel Matxinandiarena Arotza-Eraberritzeak, Txanton Edaritegia, Haizea Edaritegia, Caldas Harri-Lanak Antonio Castro,Manolo Edaritegia, Mikel Igeltseritza, Ostatu Jatetxea, Ibañez Margolaria Iñaki Lasa, Migel Harategia, Tomas Margoak, Joakin Aroztegia, Joxe Telleria S.M. Aseguruak- korreduria, Txurreria Tabako-Edaritegia, Intxausti Arrandegia, Zegamako kooperatiba, Atxa Oilategia.

SAN MARTINETAN TXAKOLI DASTAKETA

Dagoeneko ohitura den bezela San Martin feri egunean, Tartalo-Etxe Kultur Elkarteak txakoli dastaketa antolatu du. Urtero bezala aukera polita da Txakolin dezberdinak dastatu, salda bero bat hartu eta mokadutxo bat egiteko. Aurtengoan Olaberriko Bengoetxea Txiki baserrian egiten den txakolina dastatzeko aukera izan da, ohikoak diren Gañeta eta Ameztoi txakolinekin batera.

Esan beharrik ez dago inguratu ziren 200 lagunen artean solasaldi ederrak sortu zirela giro jatorrean, bazkatzeko ordua iritsi bitartean.

TARTALO-ETXE PILOTA ELKARTEA

2005. urte honetan ere pilotarekiko zaletasuna duten haur eta gazte orok, hain geurea eta jatorri bertakoa duen kirol honetaz gozatu eta parte hartzeko aukera izan dute. Alde batetik, 12 urte arteko haurrak Pilota Eskolan jardun dira astearte eta ostiral arratsaldetan. Aipagarria da bertan 4-5 urteko zenbait ume lehen pilotakadak ematen hasiak direla eta hau pozgarria da etorkizunari begira, non pilotarekiko zaletasuna agerian gelditzen da. Bestalde, Tartaloetxe Pilota Elkartea dugu, non Gipuzkoako Pilota Federazioko kluben barnean dagoelarik, infantil mailatik gora pilotan federatu moduan txapelketetan parte hartzeko aukera dago. Momentu honetan 9 gazte ditugu federaturik eta beraien entrenamendu egunak astelehen eta ostegunak dira. Aurtengoan ere entrenatzaile edo arduradun lanetan Juan Mari Gereñu, Luis Arrieta eta Asier Berasategi aritzen dira.

Gaur egun astero astero eta fin fin entrenamenduetara joaten diren haur eta gazteak honakoak dira, nahiz eta egunen batean besteren bat ere agertu izan den.

- **4-5 urtekoak:** Joseba Azurmendi, Egoitz Rivas, Jon Arakama, Gorka Arizkorreta, Unai Berasategi, Aitzol Arrondo.
- **Aurre-Benjaminak:,** Andoni Saez de Maturana, Joseba Saez de Maturana, Euken Olaziregi.
- **Benjaminak:** Iban Matxinandiarena, Xabier Azurmendi, Josu Oiarbide, Luis Bautista, Lander Irastorza, Lander Mendizabal.
- **Alebinak:** Luis Malkorra, Ioritz Etxeberria, Joanes Etxaide, Joseba De la hera.
- **Kadeteak:** Joseba Arakama.
- **Jubenilak:** Unai Agirre, Iker Zabaleta (Idiazabaldarra), Arkaitz Aldasoro, Arkaitz Ariznabarreta, Estebe Ariznabarreta.
- **Afizionatuak:** Aitor Zabaleta, Eñaut Alberdi, Gorka Aierbe.

Tartaloetxe Pilota Elkartearen 2005. urterako erronka nagusia, Zegamak, Gipuzkoako Herrien Arteko Txapelketan (Interpueblos) parte hartzea zen. Aspaldiko urte hauetan ez zuen parte hartzen, gutxi gora behera 25 bat urte pasako ziren azken parte hartzetik. Txapelketa honetan derrigorrezkoa da 3 mailatako (kadete, jubenil, afizionatu) pilotariak herritarrak izatea. Baldintza hau betetzea oso zaila da Zegama bezelako herri txiki batentzat zeren eta gazteak bi urtez urte mailaz igotzen doaz eta azpitik beste bi pilotari behar dira mailari eusteko eta gure biztanle kopuruarekin zaila da.

Momentu honetan urtero parte hartzea ia ezinezkoa ikusten dugu adin batzuetan hutsunea nabaritzen delako, baina aurtengoan posible zenez aurrera pausua eman eta apuntatu egin ginen. Gipuzkoako 20 herrik eman genuen izena, gehienak Zegama baino askoz ere handiagoak, non jokalariak izateko aukerak nabarmenak dira. Zozketan Bergararren aurkako lehia egokitu zitzaigun. Lehenengo partida Bergaran jokatu genuen. Kadeteek (Ariznabarreta anaiek) irabazi egin zuten eta jubenil (Eñaut Alberdi-Gorka Aierbe) nahiz afizionatuek (Iker Azurmendi-Aitor Zabaleta) galdu. Beraz 2-1 galdu. Itzulerakoan Zegaman ere emaitza berdinak suertatu ziren, baina aipatu beharra dago bergararrak eurak aitortu zutenez nahiko beldurrez etorri zirela. Denera bergararrak nagusi 4-2ko emaitzaz.

Dena den eginiko lanarekin oso gustora azaldu ziren eta federazio nahiz komunikabide batzuk harrituta ere goraipatu zuten lehen aldian emandako itxurarekin. 2006. urterako ere gogoa badugu parte hartzeko, nahiz eta kadete mailan bikotea osatzeko arazoekin ibili. Beraz 14-15 urtekoak animatzen ditugu pilotan jolasteko, oso esperientzi polita izan delako Herriarteko Txapelketa honetan parte hartzea eta eutsi beharra diogula.

Parte harturiko beste txapelketei buruz aipatu beharra dago, ekainean antolatzen den "5 Herrien Arteko Txapelketan" (Zegama, Segura, Idiazabal, Zerain, Mutiloa), benjamin, alebin, infantil, kadete eta jubenil mailetan zegamar askok parte hartu dutela eta emaitzak onak izan direla. Txikitxoenak finalaren atarian gelditu ziren eta "beteranoek" garaipena Zegamaruntz bideratzea lortu zuten, Arkaitz Ariznabarretak kadete mailan eta Gorka Aierbek jubeniletan.

Kadete, jubenil eta afizionatuak, Gipuzkoako kluben arteko txapelketan eta Udaberri Txapelketan buru belarri lehiatzen ibili dira, non 2. mailako kadeteetan, Arkaitz Ariznabarretak eta Jon Otegik (segurarra) Gipuzkoako txapeldunorde gelditu dira Antzuloako bikotearen aurka finala galdu ondoren. Txapelketa hauei esker, irailetik aurrera ia larunbat arratsaldero pilota partidak eduki ditugu ikusgai Toki-Alai pilotalekuan. Honez gain beste hainbat txapelketa herrikoietan parte hartu dute, Añorgan, Antiguon, Elgetan, Bergaran, …

Aurtengoan ere Pilota Eskolako denboraldiari amaiera emanez, pilota partiduak antolatu genituen eta ondoren merienda bokadutxo bat eginez irailerarteko oporrak hartu genituen.

Ohitura bezala, gastuei aurre egiteko gabonetan zozketatu den saski baten errifak saldu ditugu. Eskerrak ematen dizkiegu saltzen lagundu eta erosi diguzuen guztioi.

Piskanaka herrian pilotaren inguruan giro polita sortzen ari bada ez dugu herritarren jarraipen handiegirik somatu. Zegaman jokatzen diren partiduetan ikusleen laguntza eta babesa eskertuko genuke. Gu saiatuko gara jakinarazten partiduen berri. Dagoeneko badaude bere mailan oso ondo dabiltzan pilotariak. Ea urte asko ez barru pilotari profesionalen bat ateratzen zaigun Zegamatik.

GAZTE, HARTU PILOTAK ETA FRONTOIRA!!!

Pilota txapelketako partaideak

KZgunea

2001. urtean Eusko Jaurlaritza eta Udaletxeen ekimenez gaur egungo KZgunea sareak lehen pausoak eman zituen. Sare hau martxan jartzeko arrazoi nagusienetako bat Konekta Zaitez dirulaguntza izan zen. Honen bitartez Euskal Herriko etxe askotara Interneterako sarbidea iritsi zen, izan ere merkatuan baino prezio merkeagoan eskeintzen baitzen aukera hori. Hala eta guztiz ere, ikerketa baten ondoren ikusi zen nahiz eta Euskal Herriko etxe asko Internetera konektatuak egon, herritar gutxik erabiltzen zutela Interneta, askok erabiltzen ez zekitelako. Arrazoi hau dela eta sortu zen gaur egun Euskal Herri osoko herrietara zabaldu den sarea. Bertan herritarrei Internet erabiltzen irakastea zen helbururik garrantzi-tsuena hasiera batean. Gaur egun zerbitzu horretaz gain beste hainbat zerbitzu eskeintzen ditu, IT txartela ateratzeko aukera, irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei web orrialde bat egiteko aukera, enpresa txikien kudeatzaileei zuzendutako ikastaro bereziak...





Zegaman 2002ko urriaren 16an iriki zen KZgunea, Kultur etxean hain zuzen ere. Internetari buruz 20 orduko ikastaro eta mintegiak ematen tutore bat egoten zen. Ikastaro hauetan 54 pertsonak hartu zuten parte. Hoietatik % 74 emakumezkoak ziren eta % 26 gizonezkoak

Ikastaroetan parte hartu zuten % 35 langileak ziren, % 26 etxekoandreak, % 22 ikasleak, %14 langabetuak eta % 3 jubilatuak. Aurten berriz mintegi bat eman da 2 pertsonekin.

Gaur egun nahiz eta egunero ez egon Kzgunean tutore bat, 15ean behin asteazkenetan etortzen da erabiltzaileek dituzten zalantzak argitu eta mintegiak (gai ezberdinei buruzko ikastaro motzak, ordu bat edo biko iraupena dutenak) ematera tutorea. Tutorearen bisita egunei eta mintegiei buruzko informazioa Kzguneko atean eta kultur etxeko kortxoan aurkitzen da egunera tua.

Baina Kzgunearen zerbitzua ez da mugatzen tutorea dagoenean bakarrik. Edozein herritarrek KZgunea erabili nahi badu nahikoa du goizeko 9:00etatik 14:00etara udaletxera joan eta giltza eskatzea, edo 17:00etatik 19:00tara liburutegian. Hori bai aurrez Kzguneko erabiltzaile izan behar da. Norbait oraindik Kzguneko erabiltzaile ez bada eta bertako zerbitzuak erabili nahi baditu nahikoa du bertan aurkituko duen inskripzio orria betetzea eta atzealdean sinatzea, hori bai 16 urte izatea beharrezkoa da. Honekin tutoreak bere datuak KZgunearen sarean sartuko ditu eta berarekin harremanetan jarriko da erabiltzaile izena eta pasahitza emateko. Aurrez erabiltzaile den pertsona bat KZgunera joan eta ez bada bere dautetaz gogoratzen Ordiziko KZgunera 943 884 378 edo Beasaingo KZgunera 943 160 147 telefono zenbakietara deitu eta bere NAN zenbakiarekin emango zaizkio.

KZgunearen historia eta erabilerari buruzko informazioa eskaini ondoren gaur egungo Zegamako Kzgunearen egoera:

3 urte pasa ondoren Zegamako KZgunean 95 pertsonek eman dute izena. 2005ean 20 pertsona berri egin dira Zegamako KZguneko erabiltzaile. Erabiltzaileen %65 emakumeak dira eta % 35 gizonezkoak.

Adinaren arabera honela bana daitezke erabiltzaileak

ADIN TARTEA	ERABILTZAILE KOPURUA
15-24	14
25-34	23
35-44	24
45-54	20
55-64	3
>65	11

Erabiltzaileen perfilari buruzko datuak berriz ondokoak dira: % 40 langilea da, % 16 etxekoandreak dira, % 17 langabetuak dira, % 14 ikaslea da eta % 13 berriz erretiratua da.

KZguneari ematen zaion erabilera berriz, gehinbat informazioa bilatzeko eta korreo elektronikoa kontsultatzeko izaten da. Informazioa bilatzeko www.google.com orrialdea da erabiliena. Korreo elektronikoari dagokionez berriz, www.yahoo.es www.hotmail.com eta www.kzgunea.net orrialdeak erabiltzen dira. Honetaz aparte atzerritik etorritako zegamar batzuk beren herrietako albisteen berri izateko ere erabiltzen dute KZguneak eskaintzen duen Interneten nabigatzeko zerbitzua. Azpimarratzekoa da Kzgunean ezin dela txateatu, messangerra erabili eta jokuetan jolastu, izan ere ez baita ziberkafe bat.

Xabier Azurmendi Alustiza

Aurtengoan ere herriko dantzari gazte honek eskaini ditu fandango eta arin-arineko dantzaldi bikainak bere bikotea den Bergarako Janire Urbietarekin batera.
Denboraldia bikain hasi zuten, baina Xabierrek uztailaren bukaeran lantokian izan zuen istripuan sakro hezurra hautsi zuenez, beraien dantzaldiak bertan behera utzi beharrean suertatu ziren. Hala ere hemen dituzue aurtengo urtean parte hartu duten lehiaketen zerrenda.

Ekainaren 19an	29. Euskal Herriko Dantza Txapelketa (Segura)	6. postua
Ekainaren 26an	Hernaniko Dantza Suelto Txapelketa	6. postua
Ekainaren 30ean	Asteasuko Dantza Txapelketa	2. postua
Uztailaren 2an	Orioko Dantza Txapelketa	1. postua
Uztailaren 3an	Zumarragako Dantza Txapelketa	2. postua
Uztailaren 25ean	Goimendiko Dantza Txapelketa	1. postua
Uztailaren 27an	Plentziako Dantza Txapelketa	1. postua

Xabier Arakama



Xabier Arakama trikitixa jotzen

Badira urte batzuk Xabier Arakama musika munduan erabat murgilduta dabilela. Zegamar hau, bederatzi urte zituela hasi zen trikitixa ikasten, eta harrez gero hor dabil buru belarri doinu eta erritmoekin lanean.

Zegama, Aretxabaleta, Berriozar, Biana, Elorrio, Oioneko Musika Eskoletan ematen aritu da klaseak.

Musika taldeetan ere aspaldi hasi zen jotzen. TRIKIZIO, ARAKAJUN, ZORABIOK, ZURE, DONATO GOIENETXE DUO, ETXAK (Euskal Herriko Txalaparta konpania)... Diska ezberdinak ere grabatu ditu talde hauekin.

Bere soinuarekin asko bidaiatzeko aukera izan du, bai Euskal Herrian, bai munduan barrena. Euskal Herriko geografi guztian jotzeaz gain, Estatu Batuak, Frantzia, Holanda, Alemania, Inglaterra, Suiza, Canada, Japon, Katalunia eta Espainian jo ditu bere abestiak.

Musikenen ere (Euskal Herriko goi mailako musika zentrua) bi urte pasa ditu Musika Tradizionalaren Joera Berriak deituriko kurtsoetan, Kepa Junkerak koordinatua. Hor hasi zen txalaparta eta Xabiren arteko erlazioa. Musika tresna ikusgarri honekin dabil azkenaldian. Bi taldetan dabil txalapartari bezala; bata berak sorturikoa (ZORABIOK) eta bestea Kepa Junkerak sorturikoa (ETXAK, Euskal Herriko Txalaparta konpania). Azken honetan Kepa Junkerarekin batera hainbat kontzertu eskeini ditu.

2.005. urtean adibidez, guztira 171 kontzertu eskeini ditu bere talde ezberdinekin, batean eta bestean. Kepa Junkera, Zure, Zorabiok, Koldo Altuna eta Etxak-ekin ere grabaketak egin ditu, egunero klaseak emateaz gain. Ikasleekin ere gauza bereziak egin ditu aurtengo urtean: hiru elkartrukaketa antolatu ditu. Lehenengoan, Finlandia, Tirol eta Frantziako musika ikasle batzuk ekarri zituen Iruñara aste betez, bere ikasleekin bateratuz. Bigarrenean, Kataluñako akordeoi diatonikoko ikasle talde batekin harremanak trukatu zituzten Xabik eta bere ikasleek lehendabizi Katalunian ta ondoren Euskal Herrian. Eta hirugarrenean, Iruñako ikasleak Estatu Batuetako bi euskal etxeetara eraman zituen bertan emanaldi batzuk egiteko

TRIKIZIO eta beste taldeekin batera Euskal Herri osoa zeharkatzeaz gain, 2.005ean dagoeneko Suizan, Frantzian, Katalunian eta Japonen egona da jotzen. Azken honetan ETXAK-ekin joan zen, Kepa Junkeraren gidaritzapean, arrakasta handia izan zutelarik. Bertan, 4 milioi biztanle dituen Nagoya izeneko hirian egon zen jotzen. Expo 2005 ospatzen zen han eta Euskadiko ordezkaritza musikal bezala joan ziren 7 musikari, Eusko Jaurlaritzako hainbat kargurekin batera. Hamar egun egon ziren bertan eta guztira 21 kontzertu eskeini zituzten.

Oso lanpetuta, baina ikaragarri gustora dabil Xabier Arakama lan hauetan, berarentzat lana baina gehiago gozamen bat baita guzti hau.

Martin Catalina Olmedo

"Valladoliden 11 urte nituela hasi nintzen buztinlari edo ontzigile bezala lanean bertako tailer txiki batean. Lehen ez zen etxean dirurik izaten eta lehenbailehen hasi behar izaten zen lanean"



Noiz eta non jaio zinen?

Valladolideko Portillo herrian jaion nintzen 1931.urtean.

Kontatu iezadazu pixka bat hango zure bizitza eta nola etorri zinen Gipuzkoara.

Han Valladoliden 11 urte nituela hasi nintzen buztinlari edo ontzigile bezala lanean bertako tailer txiki batean. Orduan ez zen orain bezala. Orain umeek gutxienez 16 urte arte itxaroten da lanean hasteko, baina lehen ez zen etxean dirurik izaten eta lehenbailehen hasi behar izaten zen lanean.

Horrela bada, 11 urterekin hasi nintzen lanean eta 21 urte nituela ezkondu nintzen arte, ontzigile moduan jarraitu nuen. Bi urte ezkonduta neramatzanean etorri nintzen Zegamara bizi izatera. 1952.urtean ezkondu nintzen eta 1953. urtean nire alaba jaio zen Valladoliden.

Nola zen buztingile lana Valladoliden?

Hemengo antzera. Kazuelak (eltzeak), lorontziak, kantaroak (pitxarrak), lapikoak... egiten nituen bietan. Portillo herri guztian bi edo hiru iturri bakarrik zeuden eta etxeetan ez zegoen urik. Guk ur bila joateko eta errekara arropa garbitzera joateko kantaro (pitxarra) handi hauek egiten genituen eta hauek buru gainean jarrita joaten ziren ur bila edota arropa garbitzera.

Martin Portilloko tailerrean

Ur kantaro bat egiteko adibidez zenbat denbora behar zen? Egun batean zer egitea lortzen zen?

Egiten den piezaren arabera da hori. Bazeuden goizean 160 pieza eta arratsaldean beste horrenbeste egitea lortzen genituen egunak. Hori piezaren tamainaren arabera dago asko, baina adibidez 56 kantaro handi egitera ailegatzen ginen egunean. Kantaro hauek ura ekarri eta ura edukitzeko erabiltzen ziren.

"Ni nengoenean 49 buztingile ginen herrian (Portillon-Valladolid). Oraindik 29ren bat buztingile geratzen dira gainera"

Martinek etxean ditu berak egindako hainbat pieza

Eta eztia, txorixoa... kontserbatzeko?

Horiek tinajak dira. Tinajek kantaroen, altuera berbera dute.

Zein da egiteko piezarik zailena?

Guretzako guztiak berdinak dira, ez dago zailik. Adibidez lehen arropa eramateko erabiltzen ziren barreinoak (azpilak) pieza handiagoak eta zabalagoak zirenez gehiago kostatzen ziren egitea baina ez egiteko orduan zailagoak zirelako, zuten tamainagatik maneiatzeko zailagoak zirelako baizik.

Valladoliden buztingintzarako tradizio handia al zegoen?

Bai, ni nengoenean 49 buztingile ginen herrian. Oraindik 29ren bat buztingile geratzen dira gainera. Oraindik zenbat geratzen diren orain dela gutxi bertan izan eta kontatzen aritu ginelako esan diezazuket.

Herrian gehienak buztingintzatik bizi ginen eta horrez gain igeltsu-mehategiak zeuden.

Gaur egun zein produktu edo pieza egiten dituzte bizi ahal izateko?

Gaur egun apaingarri bezala gehiago egiten dira. Lehen dena kazuela, lapiko, pitxar...eta horrelako gauza erabilgarriak egiten ziren, baina orain ez. Pieza gehienak adornurako erabiltzen diren piezak egiten dira, ikusten denez asko eramaten dira.

Gogoratzen al duzu zein soldata zeneukan 11 urterekin hasi zinenean?

Bai, hilean 32 pezeta irabazten nituen nik.

Ongi ordainduta al zegoen?

Horixe zegoen eta kito. Zegamara etorri nintzenean, Gregoriok ordua 7 pezeta ordaintzen zidan.

"Gregoriok nire herriko udaletxera gutun bat bidali zuen berarekin lan egiteko ofizial bat behar zuela esanez"

Orduan, hemen hobeto ordaintzen zen ezta?

Bai noski, horregatik etorri nintzen.

Lan hau zegoela jakin zenuelako etorri al zinen Zegamara?

Bai, baina orain kontatuko dizut gertatu zena. Ikusten denez, Gregoriok nire herriko udaletxera gutun bat bidali zuen berarekin lan egiteko ofizial bat behar zuela esanez. Orduan, mutil ezkongai bat prestatu zen etortzeko, baina honek azkenean atzera egin zuen. Honen ondoren niri etorri nahi nuen galdegin zidaten, 8 egun ziren proba moduan eta gastu eta bidaia guztiak ordaintzen zizkidaten etortzen banintzen. Horrela, lan egiten nuen tailerreko nagusiari galdegin nion eta honek nahi baldin banuen etortzeko esan zidan.

Ni 1955. urteko ekainaren 8an etorri nintzen eta gero 16an familia etorri zen. Honela ailegatu ginen ni eta nire sendia Zegamara.

> "Gregoriok aguazil postua libre zegoela abisatu zidan eta zergatik ez nuen hartzen esan zidan... Orduan idazkariarekin hitz egitera joan nintzen eta akordio batetara iritsi ginen"

Buztinari forma emateko tresnak

Non jarri zineten bizi izaten?

Igartuen baserrian jarri nintzen bizitzen lehendabizi, orain bertako alaba bizi den etxean. Ordutik berrituta dago baina hori oso zaharra zen gu joan ginenean.

Etxe hura aguazil lana hartu nuenean utzi nuen, etxekoren bat ezkontzen zelako eta etxea behar zutelako. Orduan etxea konpondu eta berrikuntza lanak egin zituzten.

Zenbat urte lan egin zenituen Gregoriorekin?

Gregoriorekin bi urte aritu nintzen lanean eta gero honek utzi zuenean beste bi urte Patrizio Etxeberriaren fabrikan aritu nintzen.

Gregorio uztera zihoanean, baserriko lanengatik ordaintzen zidana asko zela eta beste nonbait lan bila hasi behar nuela esan nion. Orduan lehen aipaturiko enpresara joan nintzen lana eskatzera eta bertan bi urterako lana eskaini zidaten.

Lantegian lanean ari nintzen bitartean oraindik Igartuen baserrian bizi nintzen, eta etxea behar zutela eta bertan bizitzeari utzi beharko niola esan zidaten. Momentu horretan Gregoriok aguazil postua libre zegoela abisatu zidan eta zergatik ez nuen hartzen esan zidan. Bera azken urte horretan aguazil lanetan ibilia zen baina ez zitzaiola gustatzen eta utzi egin zuen.

Orduan idazkariarekin hitz egitera joan nintzen eta akordio batetara iritsi ginen. Gainera, aguazil nengoen bitartean bizitzeko etxe bat eta guzti uzten zidatenez eta momentu horretan ezin hobeto zetorkidanez, lanpostu hori hartzea erabaki nuen.

Zer zen hobea, ontzigile edo aguazil lana?

Beno, biak desberdinak ziren. Ontzigile lanean ez da horrenbeste lanik egin behar, eta aguazil lanean, garbiketa bat zela hemen, banaketa bat egin behar zela han... lan gehiago egin behar zen, nik lan asko egiten nuen orduan. Agian hori ez da orain bezala, ni bakarrik bainengoen lan guztiak egiteko eta lan gehiago ziren. Zelai bat segatu behar zela, hilerria garbitu behar zela eta gero gainera zaborraren lana hartu nuen.

Basurarena zera zen: hasieran egunero traktore eta honi erantsitako gurdi batekin herrian zehar zabor guztiak jasotzen nituen, beranduago astean hiru aldiz kamioi batekin jasotzen nituen.

Gainera hau ere ez da orain bezala, zeren oraingo kamioiek beraiek husten dituzte kontainerrak baina orduan ez zegoen horrelakorik, nik poltsak banan-bana hartu eta kamiora bota behar izaten nituen eta poltsa batzuk izugarrizko pisua izaten zuten.

Zein azpiegitura zeuden edo zenituzten Gregorioren etxean?

Oraindik bi baserri edo etxebizitzen artean zutik dagoen labe bat zegoen. Labe hau 15 egunetik behin pizten zen gutxi gorabehera, egindako piezekin dena betetzen zenean bakarrik pizten baitzen eta nahiko handia zenez, 15 bat egun behar izaten ziren labea betetzeko.

Garai hartan sua egiteko pinu adarrak bere zelaietatik edo edozeinen zelaietatik ekartzen genituen inork ez baitzituen adar hauek nahi izaten. Adar hauek Gregoriok zuen behor bati gurdi bat lotu, eta hau kargatuta ekartzen genituen.

Buztina ehotzeko errota erabiltzen al zenuten?

Bai, errotatxo hau, Intxaustitik Arregietxerako bidean zegoen, bidearen eskubiko aldean. Errota honentzat ura, Oria ibaitik hartzen genuen, izan ere, kanal (ubide) txiki bat baitzegoen ura garraiatzeko. Ura behar genuenean, errekan presatxo bat bezala egiten genuen ura kanalera sar zedin eta ur honek, errotan zeuden palak mugitzen zituen. Mugimendu honekin, buztina oratu (amasar) egiten genuen ura nahastuz. Buztina oratzeko, errotako ardatzak beste pala batzuk zituen eta honek buztina nahasten zuen. Beraz, urarekin ardatza mugiarazi eta buztina nahasten zen. Nahastu ondoren, kanpoan zegoen aska handi batean uzten genuen buztina, sobera zuen ura bota eta finkatu zedin. Buztinak finkatzen bi edo hiru egun behar izaten zituen eta ondoren Intxaustiko tailerrera eramaten genuen ontziak egiteko.

> "Ni 1955. urteko ekainaren 8an etorri nintzen eta gero 16an familia etorri zen"

Zein tenperaturetan eduki behar izaten zen labea? Nola erregulatzen zen?

Sua egiten zen eta besterik ez. Tenperaturarena berriz, begiz egiten zen. Aurretik bildutako adartxoak suari pixkanaka-pixkanaka bota behar zitzaizkion, egur asko batera botatzen baldin bazenizkion berotu eta saltatu egiten zuten ontziek. Hasieran behintzat, nahi dugun tenperatura hartu

> "Buztina ehotzeko intxaustitik Arregietxerako bidean zegoen errota erabiltzen genuen"

Martin eta Antonio lanean

“Buztina Arakama baserrian Antonio Guridik duen terrenotik ekartzen genuen”

arte apurka-apurka bota behar dira adartxoak, asko botatzen baldin badizkiozu tenperatura aldaketa oso azkar izango da eta piezak hautsi egiten dira kontrasteagatik. Baina, behin nahi dugun tenperatura lortutakoan, nahi adina egur bota daiteke sutara.

Honekin guztiarekin kontu handia izan behar da. Kontuan hartu buztinarekin ari garela lanean eta ez burdinarekin, eta buztina kontrastearekin apurtu egiten da.

Zenbat aldiz sumatu ote dugu geunden lekutik nola piezaren batek salto egin duen labean, eta elkarri esaten genion: “Entzun al duzu? Piezaren batek salto egin eta puskatu da” eta hori bat-batean bero gehiegi hartzen zuelako gertatzen zen. Valladoliden ere berdin egiten genuen.

Behin tenperatura aproposa hartzen zuenean, goitik kea ateratzen zela ikusi arte uzten genuen eta orduan sua itzaltzen zen. Kea botatzeari uzten zionean berriz, labean zeuden piezak atera eta berriak sartzen genituen.

Hortaz, kea nola ateratzen zen kontrolatzen zenuten?

Bai, kearekin kontrolatzen zen ea piezak egosita zeuden edo ez. Labeak teilatuan zulo txiki batzuk ere bazituen piezak egosita zeuden edo ez ikusteko. Goi honetatik goiko piezak bakarrik ikusten ziren, baina normalean goiko piezak egosita baldin bazeuden, behekoak ere horrela egoten ziren. Hau guztia ikusten duzuenez, begiz kontrolatzen zen.

Gure herrian berriz, labea borobila zen eta ingurune guztia zulotxoz beterik zeukan. Zulotxo hauei esker, bertatik kontrolatzen genuen ea piezak egosita zeuden edo ez.

Nondik ekartzen zenuten buztina?

Hasieran Arakama baserritik ekartzen genuen, Antonio Guridiren terreno batetik.

Geroago, Gregoriok buztin pastila batzuk ekartzen zituen kanpotik, Granadatik eta inguru horietatik, hauek, orain erabiltzen diren berdinak dira.

Pastila hauek askoz ere lan gutxiago ematen dute, lantzeko moduan etortzen direlako, nahiz eta berdintzeko pixka bat eskuz landu behar diren. Gregoriok buztina berdintzeko, ogi masa zapaltzean erabiltzen den “rodillo” (arrabola) horietako bat zuen, eta honekin nahiko erraz egiten zen.

Valladolidekoekin alderatuz, zein tinaja mota erabiltzen ziren hemen Gipuzkoan?

Hemen erabiltzen ziren tinajak han erabiltzen zirenaren oso antzekoak ziren. Hemen, Zegaman, berezitasuna bertako pitxarrek izaten zuten, hauek baberoa erdiraino izaten baitzuten margotuta.

Intxaustiko zein oroitzapen dituzu?

Intxaustiko oso oroitzapen onak eta politak ditut Gregoriorekin, Bitoriarekin, Angelitorekin, Luisitorekin, Mª Karmenekin, Milagrosekin ...

“Gregorio bera joaten zen piezak saltzera. Kotxe bat zeukan eta hau kargatuta joaten zen herri desberdinetako dendetara”

Gregorio eta Martin Intxaustin

Udaletxean, gorporazioa

Hauek, seme-alabek jarraipenik eman al diote ofizio honi?

Ikasten aritu ziren baina ez diote jarraipenik eman.

Gregoriok tailerrean lana egiteari utzi zionean, ni aguazil lanean hasi nintzen. Baina gero bera berriro hasi zen Diputaziotik deitu eta labe txiki bat ekarri ziotelako. Honekin batera tornu batzuk ere utzi zizkion Diputazioak eta honela errazagoa zen lan egitea.

Material honekin guztiarekin bere semeei eta herriko haur eta gazteei eskolak eman eta ofizioa erakusten aritu zen. Ni batzuetan klasea ematen laguntzera jaisten nintzen eta beste batzuetan berriz pieza batzuk egiten laguntzera ere joaten nintzen Intxaustira.

Non saltzen ziren egindako piezak? Jendea Intxaustira joaten zen edo postaz bidaltzen ziren?

Gregorio bera joaten zen piezak saltzera. Kotxe bat zeukan eta hau kargatuta joaten zen herri desberdinetako dendetara. Labekada bat pieza egosten zuen garaian, kotxean sartu piezak eta eskaerak zituen dendetara joaten zen batez ere, baina baita beste denda batzuetara ere.

Hortaz, eskaera bidez egingo zuen gehienbat lana ezta?

Gehienbat bai, baina herri ezberdinetako beste dendetan ere eskaintzen zituen bere produktuak.

Herriko jendea joaten al zen piezak erostera?

Bai, baita ere. Gainera herriko dendaren batean ere egoten ziren saltzen guk egiten genituen piezak. Uste dut Maria Arakama, apaizaren arrebak eta Anttonina Arakama San Bartolomekoak Konfiteri ondoan zuten dendan izaten zituztela piezak salgai.

Labea,tornuak eta buztina txikitzeko tresnaz gain, zein material gehiago behar izaten zenuten?

Horrez gain, batez ere eskuak erabili behar izaten dira eta hauek pieza moldeatzeko hainbat sokatxo eta pieza txikitxo batzuk forma desberdinak ateratzeko.

“Aguazil lana eta postari lana zirela medio, herriko guztien izen eta bi abizenak jakin behar izaten nituen... Eusebio Ormazabal letrak kobratzen ibiltzen zenak, zegamarra izanik, niri galdetu behar izaten zidan askotan”

Gero, zein urtetan sartu zinen aguazil?

1959ko apirilaren 29an hasi nintzen aguazil bezala lanean.

Aguazil hasi zinenean, zein lan egin behar izaten zenituen?

Goizean lanera sartzen nintzenean, lehenengo herriko kaleak eta hilerria garbitu behar izaten nituen, eta gero Udaletxeko bertako lanak. Kartak banatzea... edota agintzen zidaten edozein lan.

Geroago, gainera, 9 urtez postari lanak ere neuk egin nituen aurretik zegoen Ibarretako Joxe Migel Arakama postaria jubilatu eta inork lanpostu hau hartu nahi izan ez zuelako. Orduan alkate, Manuel Urbizu zegoen eta Joxe Migel jubilatu zenean inor ez zegoenez postari lanerako, bere emazte Mari Terek hartu behar izan zuen lana. Orduan Manuelek berari posta banatzen laguntzeko eskatu zidan, baina gero Manuel hil zenean bere emaztea pixkanaka- pixkanaka lan hau utziz joan zen eta Donostiara joan zen bizi izatera. Beraz, berriro ere nik egin behar izan nituen postari lanak Gorospeko Andres Arrieta telefonotakoak herriko postariaren postua hartu zuen arte Honekin ere oraindik egun batzuk egin nituen postari lanetan, baina lana nola egin behar zen erakusten aritu nintzen bitartean bakarrik.

Egunkari edo horrelakoetan abizenak irakurtzen ditudanean segituan jakiten dut abizen hori zegamarra den edo ez, izan ere aguazil lana eta postari lana zirela medio, herriko guztien izen eta bi abizenak jakin behar izaten nituen eta. Gehiago esango nuke, adibidez, Eusebio Ormazabal letrak kobratzen ibiltzen zenak, zegamarra izanik, niri galdetu behar izaten zidan askotan zein zen halako edo bestea, ziur baitzekien nik izen eta bi abizenak jakingo nituela.



San Martinetan, Martin ontziak egiten

"Arantzazuko peregrinaziora, bi asto eta bi zaldi eramaten ziren. Astoak trastez eta janez kargatuta eramaten ziren eta zaldiak herriko apaiza eta alkatea hauen gainean igotzeko eramaten ziren, hau beraiek nahi baldin bazuten beti ere"

Belarra moztu eta horrelakoak segarekin egiten al zenituzten?

Hasieran bai, baina gero gasolinarekin ibiltzen den segadora horietako bat erosi zuen Udaletxeak eta hori erabiltzen genuen belarra mozteko. Garai hartan ere Udaletxearenak ziren lorategietako belarrak mozten genituen, Konfiteri ondokoa..., orain lorategi gehiago edukiko dituela uste dut.

Zein lantegi zeuden orduan Zegaman?

Papelera, Elektrokimika, Aitamarrenen zegoen Haitz enpresa, MEL enpresa eta gero Garmendia tailerra. Garai batean Atxatarrek zerrategi bat ere izan zuten.

Eta janari denda eta horrelakoak?

Janari dendak hemen Gerrikonekoa, Eugenionekoa eta Olaberrian Arrondok izango zituzten. Kooperatiba ere bazegoen, baina ez orain dagoena, Papelerako kooperatiba baizik, Gorospeko Doroteok lan egiten zuena.

Papelerak kooperatiba al zeukan?

Bai, urte askoz egon zen gainera zabalik. Kooperatiba dagoen tokia baino lehenago, Inazio Arizkorreta bizi den etxearen parean zegoen kokatuta gainera. Atxukarrok gauza pila bat izan zituen toki hartan bertan. Geroago orain dagoena zabaldu eta zaharra itxi egin zuten.

Oinetako denda, bizartegi... eta horrelakoa ere orain baino gehiago zeuden lehen ezta?

Bai, Martin Larrea zapataria ere bazegoen. Honek oinetako denda orain bota duten apaiz etxearen behealdean zuen gainera. Botika eta bankua ere bazeuden gaur egun Aizkorpe taberna dagoen tokian. Bestalde bi oihal denda ere bazeuden. Hauetako bat Aldanondotarrek Manolo tabernaren ondoan izan zuten.

Nolakoak izaten ziren San Bartolome jaiak eta San Martinak?

San Bartolome jaiak 3 edo 4 egun bakarrik izaten ziren. San Martinetan abereen azoka egiten zen lehen ere, baina ez ziren orain bezainbat postu eta horrelakoak etortzen. Abereez gain Udaletxeko portiku azpian gu, bi buztingile eta beste artisauren bat edo beste bakarrik egoten ginen.

Zer egiten zen San Juanetan?

San Juan bezpera egunean sua egiten zen orain bezala, eta arratsaldean arbola igotzen zenerako garrafoi bat ardo eramaten zen eta arbola altxatzera eta hau ikustera hurreratzen zirenen artean banatzen zen. Gero, San Juan arbola esaten zaionaren puntan aro (uztai) moduko bat sartzen zen buelta guztian zapiak zintzilika zituelarik. Aro (uztai) honi soka bat lotzen zitzaion eta soka hau Udaletxeko balkoiraino ekartzen zen. Bertatik soka honi esker zapiak zintzilika zituen aro hori gora eta behera mugitzen zen eta herriko gazteak arbolara igo eta zapi hauek harrapatzen saiatzen ziren. Ohitura moduko hau gero kendu egin zuten oso arriskutsua zelako arbolaren puntan horrela ibiltzea.

Eta San Juan egunean bertan?

Egunean bertan Udaletxeko arkupetan ardoa banatzen zitzaien bertaratutako guztiei, hau oraindik ere horrela egiten dela uste dut gainera.

Santa Ageda bezpera egunean norbait ateratzen al zen kantatzera makilekin eta horrela?

Bai hori ere oraingo antzera egiten zen eta Gabonetan Gabon kantua ere orain bezala egiten zen.

Eta Ihauterietan?

Ihauterietan jendea mozorrotu egiten zen; pentsa, ni neu ere mozorrotu nintzen behin. Gainera, egun horretan gazteak ere bertan geratzen ziren parrandan beste inora joan gabe, hau da, herritik atera gabe.

"Zegaman urteko egunik garrantzitsuena Arantzazura peregrinazioa egiten zen eguna zen. Egun hau oso dotorea zen benetan"

Martin, Mª Carmen Aramendirekin

Zegaman zein zen urteko egunik garrantzitsuena?

Zegaman urteko egunik garrantzitsuena Arantzazura peregrinazioa egiten zen eguna zen. Egun hau oso dotorea zen benetan.

Egun horrek zuretzako lan gehiago ekarriko zuen ezta?

Beno, ba baita ere.

Ogitartekoak eta astoan eramango zenituzten ezta?

Bai. Bi asto eta bi zaldi eramaten ziren. Astoak trastez eta janez kargatuta eramaten ziren eta zaldiak herriko apaiza eta alkatea hauen gainean igotzeko eramaten ziren; hau beraiek nahi baldin bazuten betiere.

Norenak edo nongoak izaten ziren zaldi eta astoak?

Zaldi bat Dintiko Andres Larrearena izaten zen. Gero Nikolas Zabaletak eramaten zuen beste zaldia. Beno, honek zaldia eta astoa biak eramaten zituen. Eta geratzen den astoa Berastegitik eramaten zuten, hau Lartxaundik gora joanda dagoen baserria da.

Gero hauek aldatzen joan ziren eta astoarekin Maria Iruetxetakoa hasi zen joaten.

Lehen nola zegoen ura Zegaman? Depositoa orain dagoen lekuan al zegoen?

Ez. Begira, lehen depositoa ez zegoen orain dagoen tokian, Zatizalibarren,Jose Guardaren etxe atzean depositu txikiak zeuden eta hauek ez zuten etxe guztietara ura bidaltzeko indarrik.Horregatik egin zuten deposito handia orain dagoen lekuan.

> "Normalean urari ez genion ez klororik ez ezer botatzen, dena naturala izaten zen. Baina kloroa botatzea behartuta zegoenez kloroa botatzen geniola bezala egiten genuen batzuetan"

Klororik botatzen al zenioten urari?

Ez, normalean urari ez genion ez klororik ez ezer botatzen, dena naturala izaten zen. Baina kloroa botatzea behartuta zegoenez, kloroa botatzen genion itxura egiten genuen batzuetan. Baina ez pentsa kloroa nahi ez genuelako botatzen ez geniola, Aizkorritik zetorren ur hark behar ez zuelako ez genion ezer botatzen.

Uraz hitz egiten ari garela, gehiago esango dizut gainera. Manuel Urbizu alkate zegoela urez nahiko gaizki ibiltzen ginen herrian. Bera garai hartan Papelerean ari zen lanean. Egun batzuetan esaten zidan kanalera igotzeko eta biok ezagutzen genuen konpuerta (ur-ateak) batetik sartu eta ura herri guztiarentzako jartzen nuen. Orduan ur guztia Papelera eta elektrokimikak hartzen zuten eta, batez ere, udazkenean urez gaizki genbiltzanean, hori egiten genuen, kanalera joan eta herri guztiarentzako ura jarri.

Nola ikusten duzu oraingo Zegama?

Batez ere, desberdina.

Edurne Albizu



Gazte Herexa Elkartea

GUSTUKO LEKUAN ALDAPARIK EZ

"Gustuko lekuan aldaparik ez" esaera zaharra aski ezaguna da denon artean. Hala iruditzen zaio Gazte Herexa elkarteari. Izan ere, aldapei aurre egin eta nahiko ekintza antolatu ditugu aurtengo urtean.

KORRIKAri lagunduz hasi genuen urtea. Euskararen alde kilometro bat erosi eta herrian egun hartarako antolatu ziren ekintzetan parte hartu genuen beste elkarteekin batera. Nekez bada ere, gazte gehienok egin genuen korrika gure kilometroan.

Apirilerako, azken urteetan egin ohi genuen moduan, bertso afaria antolatu genuen. Arratsaldeko zortzietan hasi genuen festa bertsotriki poteoarekin eta ondoren pilotalekuan 65 gazte bildu ginen afaltzeko. Hauen artean, eguna girotu zutenak bi bertsolari izan ziren: Iker Zubeldia zegamarra eta Iban Urdangarin ataundarra. Hauei gaiak jartzen Jokin Murua gabiriarra izan genuen. Hauek, ordea, eta protagonismorik kendu gabe, trikitixarekin eta panderoarekin laguntzaile bikainak izan zituzten: Xabier Arakama (trikitixa) eta Aitor Arakama eta Jon Azurmendi (panderoa). Afari legea egin eta bertso paregabeak entzun ondoren festak herrian jarraitu zuen goizaldera arte.

Maiatzerako, gure elkarteak Goierriko Gazte Asanbladen topaketarako gonbitea jaso zuen. "Gazte Akelarrearen" festa ospatzeko asmoa zuten maiatzaren 17, 18 eta 19an Beasaingo Gaztetxean. Honela, bertako ekintzak antolatzeko gure laguntza eskaintzea erabaki genuen. Jaia Zegaman ospatu ez bazen ere, herriko gazteek izan zuten bertara hurbiltzeko aukerarik. Kontzertuak, hitzaldiak, tailerrak, jolasak, bideo emanaldiak... izan ziren bertako ekintza nagusienak.

Hilabeteak aurrera egin ahala, San Ferminak iritsi ziren. Gazteok, Lesakara autobusa antolatu genuen. Herritik, ostiralean abiatu eta larunbat goizean bueltatu ginen. Herriko gazte asko joan ginen parranda on bat botatzera; arrakasta handia izan zuen autobusak.

Uda heltzen zihoan moduan, gazteok San Bartolome jaiak antolatzen hasi ginen. Aurreko urtetik udalarekin akordio bat egina genuen txosna lekuz aldatzeko eta hala gertatu da aurtengo jaietan. Txosna herriko plazan jarri genuen. Bestalde, aurreko urtean egin genuen moduan, II. Gazte Afaria antolatu genuen. Bi hitzetan deskribatu beharko bagenu: Sekulako arrakasta! esango genuke. Mahaien inguruan herriko 170 gazte biltzea lortu genuen! Hasieran afaria plazan egiteko asmoa bagenuen ere, azkenean eguraldiak adarra jo eta pilotalekuan egin behar izan genuen. Afaria girotzen Iñaki Izko (trikitixa) eta Aritz Agirre (panderoa) izan genituen.

Udazkenarekin batera, San Martin feria heldu zen gurera. Honekin, odolki eta txorizo pintxoen postua. Urtero bezala, gazteok pilotalekuan gure postua jarri genuen eta joan den urtean txerrikumearen zozketak izan zuen arrakasta ikusita, aurtengoan ere beste bat zozketatzea erabaki genuen. "Leonor" jarri genion izena Ataundik ekarritako txerrikume pintoari. Zenbaki saritua, gazten lehiaketan zegoen Mendilibarrek atera zuen: 210. Irabazleak Aitzol eta Izaro Arrondo suertatu ziren. Zorionak!

GAZTETXEA BIDEAN

Ekintza guztiak aipatu ditugun arren, agian garrantzitsuena azkenerako uztea ez da oso egokia izan. Hala ere, ez dadila aipatu gabe geratu. "Gustuko lekuan aldaparik ez" esaera zaharrak ongi laburtzen du gazteok Gaztetxea lortzearren egin ditugun saiakerak. Urte hasieratik udalarekin elkarlanean aritu gara Zegamako gazteentzat biltzeko toki bat eskuratzearren. Txostenak idatzi, horiek guztion artean onartu... azkenean heldu gara adostasun batetara. Koadrila bakoitzetik ordezkari batzuk aukeratu beharko ditugu udalarekin bileretara joan eta Gaztetxea lortzeko. Aukeratutako lokala zine zaharreko jubilatuen gela ohia da. Hala ere, oraindik lan asko geratzen zaigu egiteko eta ez dago ezer erabakia. Ea guztion artean herriko gazteentzat gaztetxea lortzen dugun.

Aitzgorri Futbol Taldea

Aitzgorri Futbol Taldea gaur egun hiru mailatan jokatzen duten hiru ekiporekin dago osatuta. Hiru talde hauek, Segurako Alustiza futbol zelaian jokatzen dute.

2004-2005 denboraldian, kadeteen mailako ekipoak, denboraldi ona egin zuen eta mailaz igotzea lortu zuen. Infantilen ekipoak zailtasun gehiago izan zituen baina jokalarien jokaera oso ona izan zela esan behar, partiduz partidu jokua hobetzea lortu zutelako. Bestalde esan, 2004-2005 denboraldian alebinen ekipoak ere lan bikaina egin zuela.

Bukatzeko hona hemen, Aitzgorri F.T.ak dituen hiru maila ezberdinetan jokatzen duten zegamarren izenak:

Kadeteak: Jose Jabier Malkorra, Iker Irastorza eta Jon Irastorza.

Infantilak: Unai Armendariz, Iñigo Atxa, Joseba Olaziregi, Aritz Olaziregi, Arkaitz Urbiztondo, Unai Aierbe eta Unai Atxa.

Alebinak: Luis Malkorra, Joanes Etxaide, Imanol Otaegi eta Ioritz Etxeberria.

Kadeteen taldea

Infantilen taldea

Maria Arrieta

Elkarrizketa

"8 urterekin hasi nintzen eskolan, Zegaman bertan. Eskolan hamar urte arte ibili nintzen. Handik aurrera udan lehengusua zaintzen nuen eta, neguan berriro ere eskolara joaten nintzen"

Noiz eta non jaio zinen?

Arantzaza Garakoa baserrian jaio nintzen 1910. urtean, 94 urte ditut. 9 anai-arrebetatik 5.a izan nintzen ni.

Zer egiten zenuen gaztetan? Eskolara joaten al zinen?

Ni eskolara lehen aldiz 8 urte nituela joan nintzen. Aurretik Telleriko Kaxinto zaintzen egon nintzen, gure ama bere ahizparekin errukitu zela eta, hau da Kaxintoren amarekin errukitu zela eta, han egon nintzen. 8 urterekin hasi nintzen eskolan Zegaman bertan. Eskolan hamar urte arte ibili nintzen. Handik aurrera udan lehengusua zaintzen nuen, eta neguan berriro ere eskolara joaten nintzen.

Orduan, neguan bakarrik joaten zinen eskolara?

Hamar urtetik aurrera bai, eta ordura arte ere gutxi. Baina, Jaungoikoari eskerrak neure burua defendatzeko lain ikasi nuela uste dut.

Gero, zenbat urte arte ibili zinen haurrak zaindu eta eskolara joaten?

13 urte bete arte ibili nintzen eskolara joaten eta haurrak zaintzen. 13 urtetik 14ra bitartean, Agustin Ormazabalen etxean egon nintzen lanean neskame bezala, eta gero berriro ere neure etxera eraman ninduten ama bakarrik ez uztearren, nire ahizpa lanera "Hotelera" joan zela eta. Hotel hau Donostiako hotel Niza da.

Zu ere egon zinen "Hotelean" lanean, ezta?

Bai, geroago izan zen hori.

Eskolako zer oroitzapen duzu? Maisu onak, txarrak....?

Maistra Iruñekoa zen, Doña Bernarda Egiguren izena zuen. Eskolak erdaraz ematen ziren arren gure artean gehiena euskaraz egiten genuen. Nire afizioetako bat gutunak idaztea zen, etxean ere askotan aritzen nintzen horretan, baina gero ez nuen ia batere bidaltzen, neuretzako idazten nituen gutunak..

Eskolara joaten zinenean, bazkaltzera etxera joaten zinen edo kantinan geratzen zinen?

Batzuetan kantinan geratzen nintzen, baina beste batzuetan Zupurrutin bizi zen osabaren etxera joaten nintzen bazkaltzera. Eta horri esker, ez nuen baserriraino joan beharrik izaten, bide luzea baitzegoen baserriraino.

Baserrietan bizi zen jendeak ez zeukan eguerdian etxera joateko astirik, horregatik jangelan geratzen ziren bazkaltzen.

Zegamako eskolan 14 urterekin bukatzen ziren ikasketak. Zer egin behar zuen gehiago ikasi nahi zuenak?

Behin hamalau urterekin neskame joan nahi ez zuen gehiena lantegietan sartzen zen lanera. Gehiago ikasi nahi zuenak, berriz, bakoitzak bere kasa ikasi behar zuen, hau da, kanpora joan behar izaten zuen ofizio (lanbide) desberdinen bat ikasi nahi zuenak, hau da, medikuntza edo horrelakoren bat ikastera kanpora joan behar zen. Baina hori orain ere gertatzen denez, ez da arraroa.

Deskribatu iezadazu eskola.

Orain etxe berriak egin dituzten eta lehen eskola zaharra zegoen tokian zegoen lehen ere eskola. Beheko solairuan gelak, komunak eta zertarako erabiltzen zen gogoratzen ez dudan nesken gelaren gainean maistraren etxebizitza eta mutilen gelaren gainean maisuaren etxea. Azken etxe honetan urteetan Don Julian maisua bizi izan zen eta gero orain botika berria dagoen lekuan egin zuen etxe berria Txantonenekoei terrenoa erosi ondoren.

"Behin hamalau urterekin neskame joan nahi ez zuen gehiena lantegietan sartzen zen lanera"

Eta kantina?

Kantina ere teilape berean zegoen eta, gogoan dudanez hau ere goiko solairuan zegoen. Lokal honek sukaldea berak izango zuela uste dut baina jana nork prestatzen zuen ere ez naiz gogoratzen.

Hau ez zen jende askorentzat baina bertan urrutiko baserrietako umeak geratzen ziren batez ere.

Eta zuk, baserrian lanik egiten al zenuen?

Baserrian lana? Bai latz. Behiak eta ardiak genituen eta inoiz ez zen lanik falta izaten. Lana beharko egin, baina penarik gabe, inoiz ez dit behar denean lana egin behar izateak penarik eman. Ez baserrian eta ezta hotelean ere.

Baserrian bizi zinetela jaisten al zineten mezetara?

Bai, mezetara asko jaisten ginen. Kontzesioko bederatziurrenera ere ez genuen hutsik egiten. Hau iluntzean izaten zen eta egunean zehar garia egiten aritu ondoren jaisten ginen bederatziurrenera. Euria ari zuen egun batean amak esan zidan ea eguraldi harekin ere jaitsi egin behar al nuen eta nik erantzun nion pena ematen zidala joan gabe geratzeak eta, egun horretan ere, mezetara jaitsi egin nintzen. Urriari berriz, errosarioko hila esaten zitzaion eta errosarioak iluntzean izaten ziren.

Mezak goizez izaten ziren urte guztian. Igandean goizeko 6etan izaten zen lehenengoa, bigarrena 7etan, hirugarrena 8terdietan izaten zen eta azkena 10etan. Baina hau aspaldi izaten zen horrela, jada urte asko dira igandeko meza 12etara pasatu zela. Gure etxekoak txandak eginez etortzen ginen mezetara baserrian lana zegoenean, eta meza

entzun ondoren berriro ere baserrira igotzen ginen lanera.

Ikusi dut gaztetan ez zenutela denbora libre askorik izaten, baina pixka bat zenutenean zer egiten zenuten?

Jai arratsaldetan normalean libre izaten genuen. Orduan kalera jaisten ginen musika banda egoten zela eta. Banda hau ona zen gainera, fama handia zuen behintzat. Gero ez dakit zer pasatu zen, baina ez zen bandarik etortzen eta horren ordez, orkestina bat etortzen zen Altsasutik. Bikoteak ere egiten ziren gainera dantzaldi horietan, musikari batek Zegaman aurkitu zuen gainera emaztea.

Beraz, ez zenuten denbora libre askorik izaten.

Ez, ez genuen denbora libre askorik izaten. Behiak bakarrik izango bagenitu udan lan gehiago izango genuen baina neguan libreago izango ginen. Baina ardiak ere bagenituenez, baserrian ez zen atsedenik izaten.

Lehen hotela aipatu duzu, baserria utzi eta hotel batera joan al zinen lanera?

Anaia zaharrena ezkondu zenean, jada amak bazeukan etxean lagunduko zion beste emakume bat eta orduan atera nintzen ni etxetik. Etxetik kanpora atera nintzenean lanera, Orion egon nintzen josten eta pixka bat ikasten. Hemen, Orion, urtebete inguru egin nuen. Gero hemendik Tolosara joan nintzen arkitekto baten etxera neskame lanak egitera eta gero, azkenik, "Hotelera" egin nuen saltoa.

Orion, jada ezkonduta zegoen nire ahizpa Juana bizi zen. Gero handik saltoa egin nuen Hotelera. Hotela Donostian zegoen, "Hotel Niza" delakoan egon nintzen zazpi urte inguru neskame lanetan. Zazpi urte hauek pasa ondoren hoteletik atera eta ezkondu egin nintzen.

Donostian lanean aritu zineneko zein oroitzapen dituzu?

Lana oso gogorra zen. Orduan ez zegoen orain bezala "pinkirik" eta lurrak zepiloarekin oso gogor igurtziz garbitu behar ziren. Lana oso gogorra zen arren, gustura egiten nuen.

Donostian ba al zenuen familiako inor zurekin batera?

Ez, ordurako beste ahizpak ezkonduta zeuden. Bat, Juana, lehen esan dudan bezala Oriora, ezkonduta zegoen. Bestea, Anttoni Beasaina. Gero, anaia zaharrena, etxera ezkondua. Balentin anaia berriz, maisua zen. Eta gero, ni baino gaztea-goak ziren lau anaia.

"Anaia zaharrena ezkondu zenean, jada amak bazeukan etxean lagunduko zion beste emakume bat eta orduan atera nintzen ni etxetik"

Donostian, zer egiten zenuen zure denbora librean?

Hasieran ez genuen egun librerik izaten, baina gero niri igandea tokatu zitzaidan jai egiteko eguna. Orduan, jai izaten nuen lehenengo igandean etxera etortzen nintzen Zegamara. Bigarrenean ahizpa Juanarengana Oriora joaten nintzen eta hirugarrenean Donostian bertan geratzen nintzen. Donostian lagunak banituenez, jai nuen egunean hauekin irteten nintzen paseatzera eta horrelakoetara, eta oso gustura pasatzen nuen igandea.

Hoteleko lana utzi eta gero zer egin zenuen?

Hoteletik atera nintzenean Zegamara bueltatu eta 1940.urtean Martin Berasategi Olarangoarekin ezkondu egin nintzen.

Ezkondutakoan, lehenengo nire jaiotetxetik pixka bat beherago zegoen Arantzaza-azpikoa baserrian jarri ginen bizi izaten, orduan ez baitzegoen kalean bizitzeko orain bezalako komenientziarik. Geroago, ahal izan genuenean, kalera etorri ginen bizitzera; Eliz-muño etxera hain zuzen ere. Hasieran etxe honetan errentan jarri ginen, jabeek saldu nahi izan ez zigutelako. Gero, 1950.urtean alargun geratu nintzenean jarri zuten etxea salmentan eta orduan nik erosi nuen, nire senar Martinek nahi hura betidanik izan zuelako.

Alargun geratu zinenean lanik egiten al zenuen etxetik kanpo?

Bai, Papeleran egiten nuen lan, ezer gabe geratu nintzelako. Nire senarra hil aurretik 1940-1950 urte bitartean biok bizitzeko 10 pezetako soldata geneukan, eta hura hil zenean jaitsi egin zidaten. Orduan hasi nintzen fabrikan lanean, eta bertan lana eman zidatenean gustora, oso gustora ere.

Zer lan egiten zenuen Papeleran? Bertako zein oroitzapen duzu?

Fabrikan papera pasatzen nuen, hau da piloetatik paper txarra kentzen nuen. Geroago, jubilatu aurretik, azken hiru urteetan lantegiko sukaldera jaitsi ninduten lanera.

Garai hartan baserrian bizi zen jende asko zebilen Papeleran lanean. Goizean bakoitzak ekartzen zuen bere bazkaria eta nik eguerdirako prestatzen nien. Ni berriz etxera joaten nintzen bazkaltzera. Behin ere ez nintzen ni fabrikan bazkaltzen geratu.

Gogoratzen al zara noiz heldu zen irratia Zegamara? Eta kotxea?

Kalean ez ziren asko izango. Baserrian gure bizilagun zen Joxe Migel Bidaolak ekarri zuen lehen irratia, hau oso gizon azkarra zen. Eta kalean ez dut oso argi baina uste dut Don Eugenio Aseginolazak edo horrelakoren batek ekarriko zuela lehenengo irratia, baita kotxea ere.

Maria bere anaiekin

"Ezkondutakoan, lehenengo nire jaiotetxetik pixka bat beherago zegoen Arantzaza-azpikoa baserrian jarri ginen bizi izaten, orduan ez baitzegoen kalean bizitzeko orain bezalako komenientziarik"

Eta bideak eta nola zeuden gogoratzen al zara?

Orduan bide nagusia besterik ez zen hemen, beste gainontzeko guztiak gurdi-bideak ziren. Ez zegoen orain dauden pista eta horrelakoak, bide senda ugari bai oinez azkarrago joan ahal izateko toki batetik bestera. Adibidez Donostiara joaten nintzenean lehendabizi autobusez Beasaina joaten nintzen eta gero han trena hartzen nuen.

Dendarik ba ote zegoen edo gogoratzen al zara?

Bai, Mª Dolores Goia, Sakristauenekoa esaten diogunak ontzi gauza izaten zuen batez ere bere dendan. Gero, Perfektak oihal-denda bat zuen eta Mª Paz Larreak arropa denda. Guk normalean Perfektanean tela erosi eta gero jostunak egindako arropa izaten genuen, jada egin-da zetorren arropa nekez izaten genuen.

Beste denda bat, Eugenio-nea zen. Hauek betidanik izan dute denda Zegaman. Janari denda izan aurretik ordea oinetako denda zen, Eugenioren aita Agustin, zapataria zen eta Agustin zapateroa bezala ezagutzen genuen. Etxe horretan ere egon nintzen 15 hilabete. Ez dakit lan asko egingo nuen umea nintzelako, baina han ibiltzen nintzen umezain eta horrelakoetan. Orain Mª Belen Zatizalibargoa dena ni han nengoela jaiotakoa da, senide bat bezala nahi nuen gainera. Gero etxean behar nindutela eta aldegin nuen nire etxera. Pena handia eman zidan lan moduko hau utzi behar izateak, oso gustura bainengoen bertan.

Herriko jaiak nola izaten ziren? San Bartolomeak, San Martinak? Arantzazuko Peregrinazioa?

San Bartolometan goiko Ermitatik Santua jaisten zen eta gero meza nagusia ematen zen, hau orain bezala. Baina orduan ez ziren orain bezain beste egun izaten. Normalean hiru egun izaten ziren festak. Festetan, orkestinaz gain, Araiako banda bat ere ekartzen zuten musika jotzera.

Urtean falta gabe egin beharreko zerbait izaten zen Arantzazuko erromeria. Erromeria hau orduan ere aspalditik zetorren gauza bat zen gainera. Orduan eguerdiko ordubi terdietan ateratzen ginen Arantzazura bidean. Bidean zerbait jan eta Arantzazura jaisten ginen. Han lo egin eta hurrengo goizean orain bezala prozesio moduko bat eginez Goiko Bentatik elizara jaisten ginen meza entzutera, eta gero bazkalondoan berriro buelta Zegamarantz.

Nik urte batean promesa bat egin nuela-eta Arantzazatik Arantzazurako bide guztia oinutsik egin nuen, Arantzazun bertan eskandalurik ez emateko zapatak jantzita ibili nintzen, baina hurrengo egunean berriro oinutsik jarri eta Arantzazutik Zegamara horrela etorri nintzen.

"Urtean falta gabe egin beharreko zerbait izaten zen Arantzazuko erromeria. Erromeria hau orduan ere aspalditik zetorren gauza bat zen gainera. Orduan eguerdiko ordubi terdietan ateratzen ginen Arantzazura bidean"

San Joanetan ere egiten zen festa pixka bat, bezperan sua egiten zen garaian eta egunean bertan arratsaldez dantzaldi moduko bat izaten zen, jendeak dantza asko egiten zuen orduan, niri asko gustatzen ez zitzaidan arren, inoiz ez naiz oso dantzazalea izan.

Ihauterietan, berriz, musikariek pieza gehixeago jotzen zituzten, eta mutilak mozorrotu ere egiten ziren egun horretan. Emakumerik ez nuen nik mozorrotuta inoiz ikusi.

San Martinak ere ospatuko ziren noski.Zein ganadu mota ekartzen zen? Non kokatzen ziren?

Oraingo antzera ardiak eta behiak ekartzen ziren batez ere, baina gure garaian ez zen festa handiegirik egiten, gero hasi zen handiagoa.

Ekarritako ganadua libre zeuden soroetan jartzen zen banaturik. Orain kooperatiba dagoen tokitik herreroaren etxea zegoen arte izugarrizko soroa zuten Jauregikoek, eta zelai honetan jartzen zen ganadu asko. Orain eskola berriak dauden lekuan ere soro handi bat zegoen eta hau ere Jauregikoena zen, beraz ganadu gehiena Jauregikoen zelaietan kokatzen zen.

Asteroko feriarik egiten al zen lehen Zegaman?

Ez, hori nire gazte-denboran ez zen egiten. Ni ezkondu eta geroko kontuak dira horiek. Gutxi gorabehera 1950-1952. urte inguruan hasi zen irudipena daukat, lehenago ez zen izango behintzat.

Kontrabandorik ezagutu al zenuen zure gazte-denboran? Adibiderik gogoratzen al duzu?

Kontrabandoa gerra garaian ezagutu nuen nik batez ere. Arabatik garia eta irina ekartzen ziren batez ere. Geu ez ginen asko ibili kontrabandoan baino nire senarra behin edo beste joan zen Araba aldera.

Ihauteriez zer gogoratzen duzu?

Ihauterietan orain bezala gazteak mozorrotu egiten ziren, baina mutilak bakarrik eta egun horretan festa egiten zen. Ez dakit gauean afaririk eta horrelakorik egiten zen, zeren guk goiz erretiratu behar izaten genuen etxera hurrengo egunean lanera jaiki behar izaten genuelako. Guretzako ez zen baimen handiegirik izaten, goiz oheratzen ginelako gure etxean.

Baina, badakit Balentin anaiak igandean parranda egin, etxeraino ordu erdiko bidea oinez egin eta zuzenean belarretara segan egitera joan behar izan zuela. Hori ez da orain bezala, goizaldean erretiratu etxera eta ia egun guztia lotan pasatzen dute gazteek, baina orduan bakoitzak bere betebeharrak zituenez ezin zen horrelakorik egin.

Gabonetan eskean kantatzen ziren abestiak oraingo berdinak al ziren?

Ez dakit esaten berdinak edo desberdinak diren, orain zein kanta abesten den ez baitakit eta lehengoak berriz ez ditut gogoratzen. Baina bai ateratzen zirela orduan ere kantuan eta norbaitek zerbait ematen bazuen ba abeslariak gustura, baina ez dut uste dirurik emango zenik, ez baitzegoen asko ere.

Eskean kalean baino gehiago baserrietan egingo zen irudipena daukat eta bakoitzak bere etxe inguruko etxekoekin koadrilatxoa egin eta inguruko etxeetan abesten zutela uste dut.

Arantzaza baserria

Eta Santa Agedatan?

Ez daukat oroitzapen handiegirik, makilekin-eta zerbait ibiltzen zirenaren irudipena daukat, baina mutilak bakarrik, horrekin bai ziur nagoela.

Bazen kopla bat horrela hasten zena:

"Otsailaren laugarrena da
Santi Ageda bezpera...
Eta horrelako zerbaitekin jarraitzen zuen:
Etxe hontako etxeko andrea
Esku zabaleko andrea..."

Baina hau guztia ez dakit ziur esaten zeren neu ez nintzen sekula eskean ibili, ezta geroago ere. Gogoan daukat asko eskertzen zutela kantariek zertxobait ematen baldin bazitzaien, nahiz eta asko ez izan.

Gero kantaldiaren bukaeran koplaren batek datorren urtean berriro etorriko zirela edo horrelako zerbait esaten zuen, baina gero zer egiten zuten ezin dizut esan.

Garai hari errepaso bat egiozu. Baserriko bizimodua, deskribatu urtaroz urtaro.

Gure etxean lana gogotik egin behar izaten zen urtaro guztietan. Etxean ardiak eta behiak izaten ziren. 6 behi eta 90 ardi urte guztian izaten genituen eta 5 txahal ere bai.

Udaberrian artoa erein behar izaten zen eta gero arto karga. Udan berriz, belarretan, arbi-ereiten, gari-mozten eta horrelakoetan ibiltzen ginen. Udazkenean garoak mozten, gaztainak biltzen eta azkenik neguan garia ereiteko lurrak prestatzen genituen. Hau guztiaz gainera, esan dudan bezala urte guztian abereek ematen zituzten lanak ere egin behar izaten ziren, beraz ez zen inoiz lanik falta izaten.

Arropak non eta zein maiztasunez garbitzen ziren?

Garai hartan lixiba egiten zen, hau arropa asko batera garbitzeari esaten zitzaion. Lehenik arropak beratzen jartzen ziren, ondoren xaboia bota eta egosi egiten zen arropa, ohe jantziak behintzat bai.

Soineko arropak zikintzen zirenean garbitzen ziren maiztasun konkreturik gabe eta ohe arropak berriz 15 egunetik behin edo garbitzen ziren.

Emakumeek familia izateko zer laguntza izaten zuten garai hartan?

Garai batean Latxaneko emakume bat egoten zen haurdunaldi gehienetan laguntzen, baina honez gain medikua ere etortzen zen erditzekoan laguntzera.

Gure ama zenari berriz haurdunaldi batean erditzeko unea iritsi zitzaionean, bertako medikua ez zegoela eta Segurako medikua ekarri behar izan zioten odoljario izugarri bat zuelako.

Erditzerakoan emakume asko hiltzen al zen?

Ez ziren hiltzera asko ailegatzen, baina larri-larri bat baino gehiago ibili zen.

Gogoan daukat mediku gazte-gazte bat izan genuela behin eta hau zegoen bitartean Maria Iruztakoari pasatu zitzaion ederra. Haurra izan ondoren ez zen ongi jartzen eta izugarrizko minak zituen. Mediku gazte horri esan zion ez zela ongi aurkitzen eta honek pleura pasatuta zuenez berriro ere hura izango zela esan zion. Baina kontua ez da hor bukatzen. Ramon nire anaia bisitan joan zitzaion batean oso gaizki zegoela esan zion eta honek orduan Bergaran zegoen eta medikua zen gure lehengusu Danieli abisatzeko esan zion, emakume kontu hauetan espezialista zelako. Horrela etorri zen Daniel eta zer aurkituko eta "haur laun".(Placenta) puska barruan geratuta zeukan erditzetik. Kendu omen zion, barru guztiak ondo garbitu omen zizkion eta mediku gazte horrengana zerbait esatera joan zenean honek izugarri gaizki hartu omen zuen.

Gazte garaian zein gaixotasun izaten ziren arruntenak?

Gripea izango zen orduan ere jendeak gehien harrapatzen zuen gaixotasuna. Honez gain, erreumak eta horrelakoak izango ziren baina beste garrantzizko gaixotasunik izaten zenik ez dut gogoratzen.

> "Garai hartan lixiba egiten zen, hau arropa asko batera garbitzeari esaten zitzaion. Lehenik arropak beratzen jartzen ziren, ondoren xaboia bota eta egosi egiten zen arropa, ohe jantziak behintzat bai."

Sendabelarrak eta etxeko erremedioak asko erabiltzen al ziren?

Bai, badakit belar bat konkretuki asko erabiltzen zela gaixotasunentzako baina ez naiz bere izenaz gogoratzen.

Eta ba al zen petrikilorik herrian? Ba al zen federik beraiengan?

Lehen-lehen Ollariko Felipe "kurandero" lanetan ibiltzen zelakoan nago, baina orokorrean jendeak herriko medikuarengana lehenago jotzen zuela uste dut, nik neuk behintzat ez nuen inoiz petrikiloarengana jo.

Argindarra noiz jarri zuten gogoratzen al zara?

Argindarra kalean betidanik ezagutu dut, baina baserrietan jarri zutela 70en bat urte izango dira.

Eta telefonoa?

Lehen telefonoa ez zuen jende askok izango, baina izan zutenak baserrietan argia jarri eta geroago izango zutela uste dut. Eta orduan kalean akaso izango ziren, baina baserrietan ez, ez genuen pentsatu ere egiten gainera.

Gaurko egunera pasatuz, zein aldaketa sumatzen duzu egungo Zegaman?

Oraingo Zegama nik ezagutu nuen Zegamaren aldean ikaragarri dotorea da. Orain askoz etxe gehiago dago. Adibidez lehen aipatu ditudan eta San Martin egunean abereak jartzen ziren Jauregiko soroetatik ez da ia ezer geratzen, alde guztietan etxeak eta eraikinak egiten ari dira, baina nire ustez askoz ere alaiagoa dago orain. Pertsonalki gehiago gustatzen zait oraingo Zegama. Urgain ondoan lehen fabrikak zeuden eta orain etxe berriekin eta dituzten zelaitxoekin askoz ere alaiago dago.

Jaione Gorrotxategi

Maria Arrieta bere senarrarekin

San Bartolomeak

ABUZTUAK 23

Kuadrilen egunarekin, abuztuaren 23an, hasiera eman zitzaien San Bartolome jaiei. Udaberri amaieratik hasitako lehortearekin amaitzeko asmoz euripean ekin zitzaien festei. Goizeko lehen ordurako haur eta gazteak udalerriko kaleak hartu zituzten beroketa ariketak egiteko. Honela Elkartu Nahi Txirrindularitza Elkarteko kideen gidaritzapean ospatu ziren txirrindu probak. Haurrak bertaratutako guraso eta zaleen txaloz osatu zuten beren ibilbidea. Adinaren arabera sailkatuak lehia ezberdinak burutu zituzten parte-hartzaileek.

Haurren txirrindu froga

Bestalde, haurren probak amaitu eta berehala hasiera eman zitzaion hogeita bost urte jarraian ospatu den Apeaderoko Igoerari; aurtengoan, zortzigarrena Mendiatako Jabier Berasategiren omenez egiten dena. Jakina den moduan 14 urtetik gorakoentzat den proba honek jarraitzaile ugari izanik, animaziorik ez zitzaion falta. Aurtengoan, azkeneko urtetan gertatzen den antzera, irabazle berria izan zuen frogak. Borja Urzelai izan zen onena, udaberrian eta udaran nagusiki egindako prestaketari esker. Ahalegina eta sakrifizioaren ondorioa izan zen beraz Borja Urzelaik lortutako garaipen bikaina. Bigarren, Gorospe baserriko Unai Agirre gaztea izan zen eta hirugarren Pedro Luis Arizkorreta. Aitor Perez Arrieta txirrindulari profesionalak eta Ruben Zabaleta txirrindulari amateurrak parte hartu zuten sari banaketan ume eta gaztetxoen gozamenerako.



Futbito txapelketako sari banaketa

Eguerdiko hamabiak hurbiltzen zihoazen heinean Herriko Plaza betetzen joan zen. Kuadrilak mozorroturik iristen ziren jendetzaren pozerako eta alaitasunerako. Beraz, lanbroak ez zuen lortu San Bartolome jaien hasierako giro alaia goibeltzea. Alderantziz, ikusi ahal izan zen urtetik urtera mozorro hobeak direla eta ilusio eta lan handia jartzen dela egun honen inguruan.

Andoni Saez de Maturana

Eñaut Mendia	2	1	3	Joseba Saez de Maturana

7 URTETIK BEHERAKOETAN

Oihane Mendia

Joseba de la Hera	2	1	3	Aitor Oiarbide

7, 8 ETA 9 URTEKOAK

Imanol Otaegi

Ibai Arrizabalaga	2	1	3	Luis Malkorra

10 ETA 11 URTEKOAK

Aritz Olaziregi

Joseba Olaziregi	2	1	3	Iñigo Atxa

12 ETA 13 URTEKOAK

Hamabietarako bost minutu falta zirenean Jabier Otaegi, Kultur, Gazteri eta Euskara zinegotziak Guillermo Zubizarretari eman zion festetako programaren azaleko argazkiaren irabazleari dagokion saria. Jarraian belearen iritsierak, Papelera ohiko tutuak eta Elizako kanpaiak hornitu zuten Alkateak festei hasiera ematen zion txupinazioa, eta nola ez bertaratutakoen poza eta algarari bidea eman zion.

Xirimiria presente zela mozorrotutako kuadrilak herriko kaleak zeharkatu zituzten umorea, irrifarra eta poztasuna zabalduz herritar guztien artean. Arratsaldeko 15.00ak aldera mozorrotutako gazteen kuadrilak udal pilotalekuan elkartu ziren bazkaltzeko eta jarraian ospatuko zen futbitoko finalaren giroa berotzeko.

Urteroko antzera arratsaldeko bostetan Bittorio Zabalgogeaskoak gidatuta Bezperak ospatu ziren San Bartolomeko Ermitan. Garai batean Zegamako Parrokia izan zen honetara lagun dexente bildu zen. Bezperak amaitu bezain agudo Txarapen herritarren arteko bolo txapelketa burutu zen. Lehendabizi haur eta gazteek izan zuten aukera lehiatzeko. Guztira 31 lagunek parte hartu zuten lehia honetan bigarren urte jarraian Iñigo Atxak lortu zuen garaipena 6 bolo botata. Bigarren Jose Jabier Malkorra 5 bolo jota gelditu zen eta hirugarrena Imanol Otaegi 3 bolokin izan zen. Jarraian ohiturak agindutako moduan udal agintariek eman zioten hasiera bolo jokoari. Irabazlea Ibarretako Martin Retegi izan

Mozorrotuen egunean giro ederra egon zen

zen 16 bolo botata, bigarren Gosategiko Xabier Arizkorreta eta hirugarren Maittegiko Migel Angel Berasategi izan ziren. Esan behar da aipatutako hiru sailkatuaz gain maila txikia izan zela bolo jokoan. Jakina da Txarapeko bola-lekua urte guztian umezurtz egoten dela, eta San Bartolome bezpera honetako emaitza da horren isla.

Eguraldiak hobera egin zuela eta ilunabarrean Oria Txarangaren eskutik erraldoiak eta buruhandiak kaleratu ziren ume eta gazteen zoramenerako. Ikusgarriak izaten dira buruhandi eta umeak egiten dituzten korrikaldiak, nahiz eta ume txikienak beldurrez gurasoen babesean egiten duten ibilbidea. Buruhandiak eta erraldoiak Udaletxe azpian atsedena hartzera sartu bezain pronto disfrazen sari banaketari ekin zitzaion. Jabier Otaegi eta Juan Luis Urzelai zinegotziak banatu zituzten aurreikusitako hiru sariak. Epaimahaiak aipamen berezia egin zuen aurkeztutako mozorroen lan eta mailari. Beraz, irabazlearen izendapena erraza izan ez bazen ere, giro gehien sortutako taldeari 90 euroko saria mexikarrentzat izan zen.Talde honek mexikarren festa giroa irudikatzen zuen beren mariatxi eta dantzariekin. Bestalde, disfraz landuenaren 120 euroko saria indio eta bakeroentzat izan zen. Indio batzuen harrapaketa burutu berri zuten momentua erakutsi ziguten. Eta azkenik bakarrako 60 euroko saria Jesus Mari Oiarbide "Toro sentado" indioari eman zitzaion. Epaimahaiaren iritziz zaldi gainean indioz jantzita eta txakurra magalean harturik bere papera ondo betetzen zuelako eman zitzaion saria. Halaber, urtero egiten den antzera parte hartzen duten kuadrila guztiei oilaskoa eta txanpaina edo freskagarriak eskuratzeko txartelak eman zitzaien. Honenbestez, aitortza egiten zaie mozorroa prestatzen lehendabizi eta egun osoan zehar ondoren ibiltzen duten herritar alaitsu eta jator hauei. Joxe Jabier Arizkorretak gidatzen duen Basajaun taldeak alaitu zuen plaza 21.00tatik 22.00tara bitartean eta gauerditik goizeko 3rak bitartean.

"Toro sentado" Zegaman

Haurrak sariak jasotzen

ABUZTUAK 24

Eguraldi dotorea eskaini zigun San Bartolomek bere egunaren ospaketarako. Udal ordezkariren batek adierazten zuen: "ez dik ez euririk egingo guk dantza egin behar dugunean". Aurtengoan, azkeneko urteetan izan den bezala, beraz, eguraldia lagun izan zen egun handi honetan. Bezperan erretira ona egin ondoren, herriko txistulari taldeak goizeko 9etan ekin zion egunaren zehar jarraituko zuen aktuazioari. Ordu horretarako Udalak kontratatutako lan taldea kaleak garbitzen ari zen. Lan bikaina, beraz, egunero lantalde honek burutzen duena. Halaber, goiztar hasi ziren lanean Juan Inazio Urbizu, Pedro Jose Rodrigo eta Pedro Mari Arrizabalaga eguerdian Kasinon eskainiko zen luntxa prestatzen. Jakina da auzolanak eta lankidetzak ahalbideratzen dituela, modu normalean, egingo ez zirenak gauzatzea.

Goizeko hamaiketan San Bartolome Ermitatik Parrokiara arteko prozesioari hasiera eman zitzaion. "San Inazio gure patroi handiaren" doinuekin Santua jeitsi zen San Martin Parrokiraino esandako txistulari, apaiz, dantzari, agintariekin eta herritarrekin batera. Bittorio Zabalgogeaskoak, Jabier Ormazabal apaizaren eta Josu Elorza fraidearen laguntza izan zuen Meza Nagusia ematerakoan. Orkatz Abesbatzak ere bere abestiekin maisutasunez parte hartu zuen ekitaldi erligioso honetan. Aizkorriko Gurutzeari eskainitako abestiarekin bukatu zen funtzio erligiosoa amaitu ondoren, udalerriko agintariak (eta beren senar, emazte edo laguntzaileak) Beasaingo dantzarien laguntzarekin Soka Dantza ekitaldiari ekin zioten. Urtero aipatzen den modura agintarien "fuertea" ez da dantza egitea, derrigorrezko betebeharra baizik. Jarraian, urtetik urtera handitzen eta sendotzen doan Tobera Musika Eskolako Dantza Taldearen ekitaldia izan zen. Benetan, txalogarria dela dantza berreskuratzeko Tobera Musika Eskolak egindako ahalegina eta fruituak inoiz baino ageriagoak dira. Honenbestez, San Bartolome eguerdia alaitu eta poztu zuten Zegamako dantzari trebeek. Garbi dago Tobera Musika Eskolako Dantza Taldeak zegamarrengan sortu duen poza eta itxaropenak jarraipena izan behar duela. Bidea aurkitu da, nahiz eta beti bezala bide asko egon egiteko. Zorionak.

Dantza ekitaldien arteko une batean balkoi, leiho eta lorategien apainketa lehiaketaren sariak banatu ziren. Kultura

San Bartolome Santuaren irudia Elizara sartzen

batzordeak sustaturiko epaimahaiak balkoi eta leihoen lehiaketako saria Mila Aranbururi ematea erabaki zuen. Bestalde, lorategiei dagokion saria Ramonita Arizkorretarentzat izan zen. Loreei eta etxe inguruko zaintzaren alde egindako lan, dedikazio eta maitasunak behar zuten gutxieneko aitortza hau. Egia da udalerrian geroz eta gehiago direla leihoak, balkoiak, lorategiak, etxe inguruak apaindu eta modu txukunean zaintzen dituztenak, baina denentzat saririk ez dagoenez urtero bi lagun saritzen dira, baita ere lan eder hau egiten duten guztien izenean.

Dantza saioa bukatutakoan, Kasino Elkartean dantzari eta txistulariei jakinduri handiarekin prestatutako luntxa eskaini zitzaien. Ordua jateko ona zela eta, bat baino gehiago bazkaldu beharrik gabe joan zen etxera.

Arratsaldeko seietan Elizondo plazan haurrentzat puzgarriak izan ziren. Arratsaldeko zortziak arte iraun zuen ekitaldi honek hainbat ume elkartu zituen eta une alaiak eta dibertigarriak igaro zituzten.

Ohikoa denez San Bartolome arratsaldea pilota partidak ikusteko garaia izaten da. Azkeneko urtetan bezala aurtengoan ere herritarren arteko lahiak ikusi ahal izan ziren. Joseba Arakama eta Estebe Ariznabarreta bikotea 22 punturekin Unai Agirre eta Jon Otaegik osatutako bikoteari irabazi zioten, azken hauek 19 puntuan utziz. Eñaut Alberdi eta Gorka Aierbe bikoteak, Estebe eta Arkaitz Ariznabarreta Anaien aurka jolastu zuten eta 22-14 irabazi zuen lehen bikoteak.

Pilota partiduen amaierak buruhandi eta erraldoien irteera finkatzen dute. Herriko txistulariak lagun zituztela herriko kaleak zeharkatu zituzten, umorea, alaitasuna eta festa giroa lau haizeetara zabalduz. Harrigarria bazen ere eguraldi ona eta nor egongo Zegaman; Joselu Anaiak taldea. Baina, ez ziren ez esku-hutsik joan aurtengoan ere Zegamatik; euria hurrengo egunean ekarri baitzuten beraiekin. Beraz, afal aurreko eta ondorengo festa Joselu Anaiak taldeak alaitu zuen. Bost anai hauek osatzen duten Joselu Anaiak taldea fijoa da Zegaman, azkeneko urte hauetan, eta dirudienez horrela jarriatuko dutela, jendearen erantzunari begiratuz gero.

ABUZTUAK 25

Jai egunen erdikoa izan zen aurtengoan San Bartolome bigarrena. Eguraldi ederrarekin esnatu bagina ere, iragarpenek gaualderako euria egingo zuela adierazten zuten, eta egun honetan eguraldiak zeresan handia zuen, kontuan izanik Herri Afaria zegoela, eta hau aurreikusita zegoen

Bertsolariak bertso saioan

Kultur-etxeko plazan edo udal pilotalekuan egin behar zen erabakitzeko zegoen. Ikusten zenari jaramon handirik egin gabe eta iragarpenak esaten zuena aintzat hartuta Herri Afaria udal pilotalekuan egitea erabaki zen. Honenbestez, goizeko bederatzi eta erdietan udal pilotalekuaren alboan 224kg-ko txahala eta beste bi txahal aurrekalde burruntzian erretzen hasi zen kontratatutako Loiuko kuadrila. Ordurako Joxe Jabier Arakama eta bere lankidea den Mikel Albisu trikiti doinuz kaleak alaitzen ziharduten.

Festak ere tarte bat hartzen dute hildako herritarrak oroitzeko. Ekitaldi hau San Bartolome ermitan egiten da ospatzen den Mezarekin. Urtero bezala jende ugari bildu zen Bittorio gure porrokoak emandako Meza entzutera. Gertuko, gogoko eta maitatuak izan ditugun

Futbito lehiaketako finalistak

Tobera Musika Eskolako dantzariak

Paella lehiaketan epaimahaia lanean

sendiko eta lagunak gogoratu eta beraiekin bizi izandako uneak lehen plano batera ekartzeko balio izan zuen, besteak beste, funtzio erlijiosoak.

Baina, bizitzak bezala festak ere jarriapena zuen Herriko Plazan han bitzeuden Txarape, Jubilatu, Kasino, Tartaloetxe eta Amezti elkarteetako bina bikote paella prestatzen. Lehen aldiz ez ziren Ordiziatik suak ekarri, Udalak kasurako eta datozen urtetarako suak erosi dituelako. Eguerdiko ordubatean puntuan lehiatu ziren hamar paellak jaso ziren Ostatuko Mentxuk eta Julio Rivasek epaitzeko. Jabier de Prado eta Begoña Etxezarreta, Jubilatu Elkartekoak izan ziren irabazleak aurtengoan. Bigarren, Tartalo elkarteko Imanol Garmendia eta Unai Arzelus izan ziren. Sari banaketa egin eta berehala banatu ziren paella guztiak bertaratutakoen artean. Modu berean, paella bultzatzeko Udalak Errioxako ardoa banatu zuen. Jendeak tripa ondo beteta jarraian izan zen bertso emanaldia entzun ahal izan zuen. Eguerdiko ordubata eta erdietan Xabier Mendiguren, idazle beasaindarrak jarri zituen lanean urtero Zegamara egun honetan hurbiltzen diren Iñaki Murua, Angel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña. Ordubeteko saioa egin ondoren amaitu zuten arratsaldean jarraipena izango zuen lehen aktuazioa. Bertsolariak eta bertso zaleak Ostatun egin zuen bazkarian izan zuten jarriapena.

Elizondoko plazan ospatu ziren artzain jolesekin haisera eman zitzaion arratsaldeko ekitaldiei. Batzuentzat ahaztutako eta gazteentzat ezagutzen ez zituzten jolas entretenigarriak eskaini ziren. Haurrak zeharkako modu batean artzain munduan murgildu ahal izan zuten, oso ondo antolatu eta gidatutako ekintzan.

Arratsaldea aurrera joan ahala eguraldia goibeltzen zihoan. Seiak eta erdietan bertsolariak bigarren saioari ekin zioten

Herritarrak paella dastatzen

Herriko Plazan. Lehen euri zipriztinak hasi ziren iragarrita zegoen moduan. Gezurra dirudi goizean hain eguraldi garbia egin eta gauerako euria. Ondargoengo Dariak goiz hasieran esan omen zuen -bere semeak eguerdi eguzkitsuan adierazi zuen- Aketegiko Marik beheko sua piztu zuela (Aketegi gainean azaldutako lainoengatik) eta gauerako nobedadea izango zela. Bai asmatu ere.

Gauzak honela ateriune bat aprobetxatuz erraldoi eta buruhandiek irteera laburra egin ahal izan zuten Arakama trikitilarien doinupean.

Ramonita Arizkorreta eta Mila Aranburu

Paella lehiaketako txapeldunak eta txapeldunordeak

Tobera Musika Eskola dantzariak

Eguraldiak eraginda Zegaman lehen aldiz egiten zen "burruntzian erretako txahala"-ren Herri Afarirako azpiegitura prest zegoen udal pilotalekuan. Udalerriko elkarteek antolatu eta Udalak emandako laguntzarekin antolatutako Herri Afari honek 400 lagun elkartu zituen gaueko bederatzi eta erdietan udal pilotalekuan. Haur, gazte, heldu eta adindu, denetik ikus zitekeen Ostatuak modu bikainean serbitutako afarian. Letxuga ensalada, burruntzian egindako txahalaren haragia, gazta, kafe, kopa eta purua, Errioxako ardoz lagundurik, osatu zuten giro ezinhobean egin zen herritarren arteko afaria. Jakina da jende asko gelditu zela afarira joan ezinik txartelik ez zegoelako. Ea datorren urtean nahi duten guztiak joateko aukera duten. Egunari amaiera emateko eta duten "fama"-ri eutsiz Joselu Anaiak talde arabarrak, euripean eskaini zuen dantzaldi zoragarria.

ABUZTUAK 26

Aurrez azaldutako moduan uzta oparoa eskaintzen digu Tobera Musika Eskolak, urte askotako lanaren ondorioz. Honen isla umeen eguna izan zen. Goizeko bederatzietan Irati Irigoras, Aitor Zabaleta, Jon Irastorza, Eneritz Zabaleta eta Oier Irastorza osatutako boskoteak udalerriko kaleak alaitu zituzten trikiti eta panderoekin. Haur eta umeak, bestalde, hamaikak aldera gutxika-gutxika plazara hurbiltzen hasi ziren hamaika eta erdietan hasiera emango zitzaien

Eskulanen erakusketa

San Bartolome ermitatik prozesioa

ekitaldian parte hartzeko. Guztira 135 haurrek eman zuten izena jokuetarako. Denak mozorroturik eta irrifarre eta algara nagusiak izan ziren jokuak modu bikainean antolatu zituzten Nora Aramendik, Amaia Urbizuk, Oihana Inzak, Jone Irigorasek, Jon Berasategik eta Maria Alustizak. Parranda eta lana uztartzea zaila bada ere talde honen lana goraipatu eta txalotu egin behar da. Honekin amaitu ziren geroz eta zama handiago suposatzen zuen San Bartolome jaien hirugarren eguneko eguerdiko ekitaldiak.

Zegaman ehizak zaletu ugari dituela garbi utzi zuen Apeaderon arratsaldean ospatu zen herri mailako tiroplatoak. Irabazlea Jesus Mari Alustiza izan zen, bigarrena izan zen Igor Ormazabalekin lehia polita izan ondoren. Hirugarrena Iker Arizkorreta sailkatu zen. Gazteen arteko tiroplato lehian Joseba Arakama izan zen irabazle.

Haur eta umeen eguna izanik ezin zitekeen arratsaldean beraientzat ekitaldirik falta. Honenbestez, arratsaldeko bostetan herriko plazan Zirika Zirkuseko Loretsu eta Bolintxe pailazoak ekitaldi polita eskaini zuten, elkartutako umeen poz eta zoriontasunerako. Pailazoen emanaldia bukatu ondoren, urtero bezala, Aitxuri Herri Eskolako haurrek urtean zehar egindako eskulanen erakusketa ikusi ahal izan zen eskolan.

Azkeneko urteotako ohiturari eutsiz, arratsaldeko zazpietan Herri Kirolen erakustaldia izan zen udal pilotalekuan. Jendez beteta zegoen frontoian Arrospide eta Telletxea bikoteak lehia polita mantendu zuen Ugarteburu eta Zegamako Joxe Mari Esnaolaren aurka. Lehenengoak garaitu zuten lehia. Beraiekin batera hain famatua izan eta oraindik den Mieltxo Saralegi leitzarra izan zen harrijasotzen. Harrigarria izan zen 100, 200 eta 250 kg-tako harriak mugitu eta altxatzeko duen trebezia eta nola ez indarra. Ordu bete iraun zuen emanaldi honek frontoia bete zuen eta partehartzaileek egindako lana aitortuz ikusleek txalo zaparrada ugariak eskaini zituzten.

Berriro Tobera Musika Eskolako trikitalarien gidaritzapean, erraldoi eta buruhandiak izan ziren protagonistak Zegamako kaleetan. Beldurra, alaitasuna, poza denak uztartzen dira ekintza honetan, eta behar bada horregatik da umeek gehien nahi duten festa ekitaldia.

Gazteak ere iazkoari jarraipena emanez bigarren gazte afaria egin zuten. Eguraldi goibelak eraginda Gazte Herexak antolatutako afaria udal pilotalekuan ospatu zen eta arrakasta handia izan zuen bertaratutako 170 gazteen arabera.

Gaueko bederatzietatik hamarretara eta hamabietatik hirurak bitartean Drindots taldeak alaitu zuen herriko plaza.

ABUZTUAK 27

Gau-pasa egin ondoren gehienak eta lo apur bat eginda besteak, goizeko zazpietan Olaberriko futbol zelaian elkartu ziren sokamuturra ikustera. Urtetik urtera arrakasta galtzen ari da ekitaldi hau. Egia de jendea joaten dela zezenak ikustera, baina egia da ere oso jende gutxik parte hartzen duela, eta kasu askotan parte hartzen dituenak ez dira zezenetara irtetzeko egoera onenean. Aurtengoan bi zauritu larri gertatu ziren, sokamuturrean. Behar bada, ekintza honen antolaketari buruz hausnarketa egin behar da.

Zegamara etortzen urte asko daramaten Irungo Urantzu dultzainero hirukoteak sokamuturra girotu ondoren, herriko kaleak zeharkatu zituzten dagoeneko hain ezagunak diren doinuekin.

Aitxuri Herri eskolako eskulanen erakusketa

Herri kirolak

Haurrak gustora ibili ziren pailazoekin

Haurrentzat baserriko jokoak

MANIPULADOS
CEGAMA S.COOP
Kartazal eta paperezko boltsak
Zorionak eta Urte Berri On!
ZEGAMA • 943 801 291 e-maila: mzegama@hotmail.com

Burruntzian erretako txahala herri afarian jan zen

Txahala burruntzian erretzen

Larunbat honetan elkartu ziren Euskal Herrian ohikoak baina gainbehera dauden joko herrikoiak. Alderdi batetik, urtero ospatzen den Lurralde Historikoko Bolo txapelketarako baliogarria zen ekitaldia goiz eta arratsaldez ospatu zen Txarapeko bolalekuan. Irabazlea, Legazpiko Pedro Agirre; bigarren, Zeraingo Antonio Alustiza eta hirugarren Segurako Antonio Agirre sailkatu ziren. Bestalde, goizean Olaberriko auzokideen izenean, Xanti Martin eta Jabier Arana arduratu ziren herritarren arteko "toka" txapelketa antolatzen. Aurtengoan, Tolosako zegamarra den Pako Larrartek irabazi zuen. Bigarren, urtero maila ona erakusten duen Iker Alzelai izan zen.

Paella eta txahala jan ondoren sardinak falta ziren. Intxaustiko Mari Karmenek ekarritako 60 kg sardina fresko-fresko erre ziren Mutrikutik ekarritako parrilan eta ondoren bertaratuen artean banatu ziren. Legorretako Auliak, Ataungo Urbitartek, Adunako Zabala eta Aburuzak, Tolosako Isastegik, Beasaingo Artzaieneak, Olaberriako Etxezurik, Zeraingo Otatzak eta Ikaztegietako Begiristainek emandako sagardoa ere edan ahal izan zuten bertaratuek, honela sardinak hobeto irensteko. Zazpietan hasiera eman zitzaion plaza bete eragin zuen ekitaldi honi. Ordu erdi geroago euria hasi zen eta nolabait desitxuratu egin zuen herritarrak hain gustokoa duten sardina jatea eta sagardo edate ekitaldia. Euriak ere eragotzi egin zuen erraldoiak eta buruhandiak ateratzea. Jakina da festetan ere eguraldia lagun izatea beharrezkoa dela, baina arratsalde-gau parte honetan ez zen horrela gertatu.

Joxe Jabier Arakamak gidatzen duen Trikizio musika taldea izan zen ilunabarra eta goizaldea animatu zuena. Tartean, azkeneko bi urtetan lehorten ondorioz bota ez ziren suziri eta traka erretzea egin zen. Ilunabarreko euririk ez zuen egin eta herriko plazatik nahiz etxeetako leiho eta balkoetatik ikusi zituztenak une polita bizi ahal izan zuten.

Sardinak erretzen Maiora Plazan

Sagardoa izan zen sardinen lagungarri

ABUZTUAK 28

"Festa luzeegiak" esaten zuen jendeak kalean, "Bazen ordua festak bukatzeko" aitortzen zuten beste batzuek. Esanak esan, oraindik ere azkeneko eguna falta zen. Goizeko hamarretan 23 urtetik azpiko afizionatuentzat 72. San Bartolome txirrindu froga ospatu zen. Elkartu Nahi Txirrindulari Elkarteak modu bikainean (hainbat herritar bolondresen laguntzarekin) antolatzen duen txirrindulari froga Ondarruko Julen Goikoetxeak irabazi zuen. Arrasaten ingeniaritza teknikoa estudiatzen ari den mutil jator honek ondo baino hobeto erakutsi zuen etorkizun oparoa duela, eta zerbaiteagatik izango da dagoeneko talde profesionalak bere atzetik ibiltzea. Aldi berean txirrindulari honek frogatzen du maila bateraino uztargarriak direla kirola eta ikasketak. Bigarren Beñat Intxausti eta

Herrritarren bolo lehiaketako lehen hiru sailkatuak

Julen Goikoetxeak irabazi zuen San Bartolome froga

hirugarren Jose Rojas izan ziren hurrenez hurren eta taldeka Würth-Liberty Seguros izan zen onena. Sariak banatu ondoren antolatzaile, epaile eta laguntzaile ororentzat Patxi Arrizabalaga eta Antonio Morillok prestatutako luntxa eman zen Amezti Elkartean.

Gau-erdian beltzez jantzitako 100 lagunetik gora bertaratu zirenekin batera eman zioten agurra beleari. Belea urrundu

Belearen entierroan jendea goibel

arren, parranda bertan gelditu zen asteleheneko lehen ordurarte.

Bestalde, aipagarria da abuztuaren 24, 25 eta 27an eguerdiko 12.30etatik 14.00tara eta arratsaldeko 19.00tatik 21.00tara Kultur-etxean ikusgai egon ziren ikasturtean zehar egindako eskulanen erekusketa. Pazientziak, jakinduriak eta lanak uztarturik emandako fruituak ikusi ahal izan ziren.

Azkenik, gogoratu, goraipatu eta txalotu egin behar da San Bartolome jaietan kaleak garbitzen ibili diren Juanito eta Felix Arakama, Joxe Ormazabal, Migel Mari Zubeldia, Jexux Mari Oiarbide, Edurne Ormazabal eta Joxe Luis Berasategik egindako lana.

San Martin Feria

Azaroaren 2an ekin zitzaion aurtengoan San Martin Feriaren inguruan antolatutako egitarauari. Hain zuzen ere, arratsaldeko 19:30etan, Olarango Gizarte Zentroan "Gure Himalaya" izeneko emanaldia eskaini zuen Alberto Iñurrategi mendizale handi eta famatuak. Jakina da euskaldunontzat mendia erreferentzia garrantzitsua izan dela beti eta honen isla izan zen bertaratutakoen jende kopurua. Albertok, behin eta berriro Felix mendian zendutako anaiaren oroitzapena lehen planora ekarri zuen eta mendiak eman eta kendu dezakeenaren inguruko hausnarketa sakona ere egin zuen. Saioaren amaieran galderaerantzun interesgarriak sortu ziren eta sortutako giroa oso ona izan zela azpimarra daiteke.

Azaroaren 3an, udazkenean eta neguan ohikoak diren taloak hartu zuten protagonismoa. Hain zuzen ere, Murgi baserriko Dolores Telleria eta bere alaba Emik Amezti Elkartean taloen inguruko ikastaro praktikoa eskaini zuten. Saioak interes itzela sortu zuen eta bertaratuak oso gustora parte hartu zuten emanaldi praktiko bezain interesgarri honetan.

Azaroaren 8an, arratsaldeko 19,30etan, Kasino Elkartean Getariko Txakolin Jatorri Izendapenerako Elkartearen eskutik Ruth Mozok txakolin kata ikastaroa eskaini zuen. Ekitaldi honek balio izan zuen txakolinaren mundura gerturatzeko eta gainetik bada ere, bere inguruko hainbat xehetasun eta berri interesgarriak jasotzeko.

Azaroaren 9an, arratsaldeko 19,30etan, Kultur-Etxean, Lierni eta Isabel Elorza ahizpek, "Aizkorri eta Urbiako artzaintza" bekaren adjudikazio-hartzaileek, "Artzain betitik" hitzaldia eman zuten, aretoa gainezka jarri zuen jendetzaren aurrean. Garbi dago artzaintzak Zegaman tradizio handia duela eta asko errotuta dagoen jarduera izan dela eta dela. Ofizio honek hizkuntza, hezkuntza eta bizitza filosofia berezitua duela garbi gelditu zen jardunaldi honetan.

San Martin Egunean, azaroaren 11n, azkeneko urtetan ohikoak diren pilota partiduak ospatu ziren udal pilotalekuan. Eskuz binakako bi partidu ospatu ziren. Lehenengoan, Larralde eta Arizmendi bikoteak menpean hartu zuen erraz Antzuolako Berraondo eta Zubietak osatutako bikotea (22-9). Partidua hain ona ez bazen izan ere, bigarrena gutxitan ikusten den modukoa izan zela esan daiteke. Hain zuzen ere, Martinez de Irujo eta Eulatek 22 eta 20, hartu zioten aurre Iparraldeko Sebastian Gonzalez eta Goñi III-ak osatutako bikoteari. Benetan polita eta erakargarria ETB-k zuzenean eskaini zuen emanaldiko bigarren partidu hau.

Azaroaren 12a goibel baino lehor iratzarri zen. Baserritar eta abeltzainek beren ganaduak ekarri zituzten lehen orduetarako. Esan behar da, azkeneko urteetan bezala, aurtengoan ere ganadu oso ona plazaratu zela, eta honek ganaduaren alde ezezik, ganaduzaintzailearen alde ere asko esan nahi du. Ofizioz eta afizio handiarekin bizi den lanbidea dela garbi uzten da egun honetan Zegamako kaleetan. Aurtengo sarituak ondorengoak izan ziren:

Aranburu Elkarteak lortu zuen txapela

Ardietan	**Inazio Katarain**
Bildotsetan	**Inazio Katarain**
Pirenaika behietan	**Estebe Ariznabarreta**
Behi mestizoetan	**Jose Andres Azurmendi**
Behi suizoetan	**Juan Azurmendi**
Zezenetan	**Eugenio Katarain**
Zaldietan	**Antton Urbistondo**
Mendi behorretan	**Mila Urbizu**

Bestalde, ganadua Aitxuri Herri Eskolaren inguruan ikusgai bazegoen ere, herriko kaleetan eta udal pilotalekuan salmenta eta erakusketa postuak nagusitu ziren (kontuan hartu behar da Maiora plazako berurbanizazio lanak eragotzi egin zutela azkeneko urtetan bertan kokatzen den karpa jartzea). Halaber, artisau eta eskulangintzan maisuak ere ikusi ahal izan zituzten bertaratuek. Hauen artean, harigintza eta artilezko galtzerdiak egiten, egur tailaketa zuzenean, gazta aintzinako erara egiten eta berrikuntza izan zen gaztainak bere morkoletik aletu eta erretzearen erakusketa eskaini zuen Fermin Mazkiaran, Iruetxetakoak, besteak beste.

Gutxi aipatzen diren baina urte osoan zehar lan bikaina egiten duten herriko txistulariek udalerriko kaleak alaitu eta girotu zituzten egun guztian zehar.

Aizkorri eta Urbiako Artzainen arteko 7. gazta lehiaketak ere lehen mailako protagonismoa izan zuen San Martin Feriaren barnean. 24 gazta aurkeztu ziren lehiara eta epaimahaia osatu zuten adituen esanetan oso maila handiko gaztaiak aurkeztu ziren. Idiazabalgo Aranburu Elkarteak eraman zuen lehen saria. Bigarren saria ere Idiazabalgo Juana Irastorza eta Domingo Goiburu senar-emazteak eraman zuen eta hirugarren saria Mikel Etxezarreta, egun batzuk lehenago Europako gazta txapelketaren irabazle sonatuak. Beraz, Zegaman lehen-lehen mailako gaztak lehiatzen direla ezbairik ez dago. Iaz Eibar futbol taldea ia lehen mailara eta aurten orain dela gutxirarte Bilboko Atletiken entrenatzailea izandako Jose Luis

Aizkorraldean negu,
dena dago xuri,
zerura goruntz lerden
han dago Atxuri,
arkaitzean ur-negar,
malkoak ixuri,
heriotzak lagun bat
kendu digu guri,
Alberto Ormaetxea,
ohoreak zuri.

Gizon atsegina ta
adiskide ona,
futbol entrenatzaile
txapeldunen sona,
Zegamari berea
eskaini ziona,
ta oroitzapen ederra
guregan dagona,
hain zan xamurra eta,
Alberto gizona.

Alberto Ormaetxea 2001ean Zegaman

Ganadu lehiaketako saridunak

Mendilibar, Alberto Iñurrategi goi mailako mendizalea, Sant Sadurni d'Anoiako eta Seu d'Urgelleko Alkateak, Aitor Perez Arrieta, Gorospe baserriko txirrindularia, Kandido Aizpeolea Zegamako esperientzia eta jakinduri handiko artzaina, Jose Ramon Agiriano Idiazabal Gaztaren Jatorri Izendapeneko partaidea eta egun ETB-ko aktore famatuenetarikoa den Andoaingo Anjel Alkain izan ziren epaimahaia osatu zutenak. Lehiaketa bukatutakoan, aurkeztutako gazta guztiak, udalerriko elkarte gastronomikoak jarritako ardoarekin, bertaratutako jendetza ugariaren artean banatu zituzten elkarteetako kideek.

Azkeneko urtetan ohikoa duten bezala Tartalo elkarteak, eguerdi aldera, txakoli dastaketa egin zuen bere egoitzaren aurrealdean. Bestalde, Gazte Herexak "Leonor" izeneko txerrikumea zozketatu zuen eta Aitzol eta Izaro Arrondo izan ziren sarituak.

Eguerdi aldera euria hasi bazuen ere, esan daiteke inoiz baino jendetza handiagoa hurbildu zela Zegamara. Beraz, Zegamarentzat eta zegamarrontzat egun garrantzitsua izan zen aurtengoan ere San Martin Feria.

Arratsaldean eguraldiak erabat txarrera egin zuen eta egitarauan aurreikusitako erraldoi eta buruhandiak ez ziren atera. Arratsaldeko zazpietan, udal pilotalekuan, herritarren arteko eskuz binakako San Martinetako 7. txapelketari ekin zitzaion eta kategoria ezberdinetako lau final jokatu ziren, ondorengo emaitzekin:

BENJAMINAK	
Lander Irastorza - Josu Oiarbide	**16**
Luis Bautista - Xabier Azurmendi	**14**
ALEBINAK	
Joanes Etxaide - Iban Matxinandiarena	**16**
Ioritz Etxeberria - Luis Malkorra	**9**
KADETEAK	
Jon Irastorza - Joxe Jabier Malkorra	**18**
Unai Atxa - Joseba Olaziregi	**5**
HELDUAK	
Arkaitz Ariznabarreta - Estebe Ariznabarreta	**22**
Unai Agirre - Eñaut Alberdi	**17**

Igandean XIV. DV-Torneoko bi pilota partidu jokatu ziren udal pilotalekuan. Jendetza askoren aurrean lehen partiduan Ollo eta Aldapek 22 eta 13 irabazi zioten Urrutia eta Uzkudun bikoteari. Goldarazko Ollo izan zen onena partidu honetan. Bigarren partiduan Olazabal eta Jauregi 22 eta 15 gainditu ziren Castillo eta Argoteren aurka. Aresoko Olazabalek duen famaren arrazoia azaldu zuen Zegaman. Pilota partiduak ikusi eta bazkaltzera azkeneko urtetan etorri izan zen Alberto Ormaetxearen hutsunea modu nabarmenean somatu zen aurtengoan. Urriaren 28an joan zitzaigun, pieza bateko gizon apala, xumea eta jatorra. Erreal txapeldunaren entrenatzailea, gidaria eta lau haizeetatik euskalduna izandako Albertok azkeneko urteetan Zegamarekin harreman estua izan zuen eta esan behar da oso gustora hurbiltzen zela gurera. Goian Bego.

Arratsaldeko 17,00etan Pirritx eta Porrotxek "patata patata" emanaldia eskaini zuten udal pilotalekuan. Emanaldi honetan, Tobera Musika Eskolako dantzariek parte hartu zuten, eta beren eguneroko lana modu ezinhobean azaldu zuten. Guraso Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako ekitaldi honek izugarrizko arrakasta izan zuen, 600 lagunetik gora hurbildu ziren. Bertaratutako guztiak ondoren txokolate beroa hartu ahal izan zuten.

Azkenik, gogoratu behar da Luis Laskurain bergararrak pintura erakusketa erakargarria ikusgai izan zuela Kultur-Etxean azaroaren 12, 13, 19 eta 20an.

San Martinetako pilota txapelketako partaideak



Eulate eta Martinez de Irujo bikotea eta Gonzalez eta Goñi III bikotea partidua hasi aurretik

Gazta lehiaketako irabazleak epaimahaiarekin



Luis Laskurain

Inazio Katarain zezen sarituarekin

Pirritx eta Porrotxen emankizuna

Aitor Perez Arrieta eta Mendilibar

Fermin Mazkiaranek erre zituen gaztainak

Erlezain Eguna

Bittor Larrañagak eraman zuen lehen saria

Aurtengo negu gogorraren ondoren, udaberriaren lehen egunak alaitzeko, azkeneko urteetan antzera, Erlezain Eguna ospatu zen apirilaren 3an, hileko lehen igandean, ohitura den moduan.

Egitarauari martxoaren 16an hasiera eman zitzaion. Hain zuzen ere, erlezaintzari buruzko hitzaldia eskaini zuen Gipuzkoako Erlezain Elkarteko ordezkari batek Aitxuri Herri Eskolan. Bertan, besteak beste, erleek ingurumenean duten eragina eta onura azaldu zen eta baita ere ematen duten "fruitu" ederra ere dastatu ahal izan zuten; alegia, eztia.

Aurten ere, bi hitzaldi antolatu ziren Erlezain Egunaren inguruan, gozogintza eta erlezaintza izan zituzten ardatz hauek.

Martxoaren 30ean "Goierriko Gozogintzaren bilakaera" azaldu zuen, Ordiziako Unanue gozotegiko Jose Mari Unanuek. Beraien gozotegia, Goierriko zaharrenetakoa denez, duela 70 urte ezkero, bere aitonarengandik hasi eta bai tresneri eta baita kontsumitzaileen ohituren berri eman zuen. Azkenik, gozo ezberdinak dastatzeko aukera izan zuten bertaratuek, eta aipatzekoa da, eztiz eginiko gozoak, egun honetarako prestatu eta asmatuak ekarri zituela dastatu eta iritziak jasotzeko.

Martxoaren 31n, Iparraldetik etorritako Manex Lanatua erlezaina izan genuen hizlari, "Erlearen inguruko mitoak eta Euskal Herriko erlezaintzari" buruzko hitzaldia eman zuen, Udaletxeko Batzar Aretoan. Jendetza ugari bildu zen bi ekitaldietara.

Azkenik, Erlezain Egunaren bezperan, apirilaren 2an, gaueko 22:30etan, Kasinoko Bertso jaialdia izan zen udal kiroldegian, Zegamako Udaleko Kultura Batzordeak babesturik. Saio bikaina eskaini zuten bertan izan ziren Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Jesus Mari Irazu eta Nahikari Gabilondo bertsolariek. Gai-jartzaile lanetan Josu Goikoetxea aritu zen.

Askorentzat Aste Santuko oporretako azken eguna zen igandean, apirilaren 3an, eguraldi lainotsua esnatu bazen ere, euririk ez zuen egin eta eguna aurrera zihoan heinean urdinguneak eta eguzkiak lainoei lekua jan zien. Argazkilariak lehen orduetatik hasi ziren bere lana egiten, argazki raliaren lehiaketan ahalik eta paper txukunena egiteko xedez. Ordiziako Otzadar Argazki Elkarteak zuzentzen duen ekitaldi honek erantzun ona izan zuen. Bertan,14 argazkilarik parte hartu zuten eta 420 € banatu ziren sarietan. Saridunak ondorengoak izan ziren: 1.- Omar Benmioud, 2.- Jose Benegas, 3.- Nerea Arañáis, 4.- Julian Gil

Udalerriko txistulariak beren doinu alaiekin iragarri zuten festa goizean goizetik. Goizeko 10:30etan Euskal Autonomi Erkidegoko hiru lurraldeetako gozogile onenen produktu erakusketa jarri zen ikusgai udal pilotalekuan. Azpimarratu behar da urtetik urtera gero eta gehiago direla ekimen honetan parte hartzen duten gozogileak eta bertaratzen direnentzat izugarrizko erakarpen eta arrakasta izaten duela; kontuan izanik, goizean ikusitako gozoa gero dastatzeko modua izaten dela.

Hamaiketarako finalera iritsitako 21 ezti finalistak epaimahaiaren esku zeuden. Manex Lanatua, Mikela Untsain, Luis Mari Inza, Jose Mari Gorrotxategi, Mariano Ferrer eta Amaia Zubiriak goi mailako epaimahaia osatu zuten. Hauek aurkeztutako ezti guztiak probatu eta aztertu ondoren, Azkoitiko Bittor Larrañagari eman zioten lehen saria, eta honenbestez, Gipuzkoako txapeldunaren ohorea. Bigarren, polifazetikoa den Gabiriako Gabino Murua izan zen eta hirugarren Arrasateko Jose Luis Argoitia geratu zen. Saridunak eguerdiko ordubatean jaso zituzten beren garaikurrak.

Sariak banatu aurretik, Gipuzkoako Erlezain Elkarteko hainbat kidek Zegamako kaleak zeharkatu zituzten "durrunba" eginez; alegia, erlekumea erlauntzara etortzeko deia eginez. Ekitaldi berezi eta polit honek amaiera zoragarria izan zuen. Hain zuzen ere, Zegamako Orkatz-Txiki abesbatzak, Leire Lozanoren zuzendaritzapean, Amaia Zubiriarekin batera, "Mielero" abestia abestu zuen, udal pilotalekura hurbildu ziren guztientzat. Benetan bitxia eta polita eskainitako unea.

Antonio Guridi herritarra eta Antton Adarraga gozogilea omendu ziren

Lehen hiru saridunak

Antton Adarraga, Hernaniko gozogile eta erlezain saiatu eta famatua izan zen aurten Gipuzkoako Erlezain Elkarteak proposatuta, Zegaman omendu zen urteko erlezaina. Gizon jator eta pieza bateko honek, doan, marmita bat txokolate ekarri zuen bertaratuen artean banatzeko. Halaber azaldu behar da, egun Zegaman antolatzen den egun honen laguntzaile eta sustatzaile nagusienetarikoa dela. Beraz, ondo merezitako omenaldia jaso zuela esan daiteke. Bestalde, udalerrian erlezain asko ez badaude ere, Antonio Guridi, Arakama-Azpikoa baserrikoa izan da haueta-riko bat. Bizi gehienean erleak izan dituen eta egun lan honen alderdi astunena bere iloba Roman Guridiren esku utzita duen herriko seme honek herriaren errekonozimendu publikoa jaso zuen. Txalo zaparradaz jantzitako une hunkigarriak bizi izan zituzten bertaratuek.

Orkatz txiki abesbatzak Amaia Zubiriarekin abestu zuen

Beste alderdi batetik, artisauak, talogileak, Gipuzkoako Erlezain Elkarteko eta Aizkorriko Lagunen Elkarteko informazio guneak, salmenta postuak, erleak zuzenean eta bizirik, "argizaria lantzen" erakusketa praktikoa eta erlezaintzako tresneri tailerrak jantzi zuten goiza. Eta nola ez erlekumea nola biltzen den antzerkia egin zen.

Udal pilotalekuan ardatza izan zuen ekitaldi honek azkeneko une goxoa izan zuen. Gipuzkoatik, Azpeitiko Egaña, Tolosako Gorrotxategi, Tolosako Ezeiza, Hondarribiko Hawai, Donostiako Oiartzun, Ordiziako Unanue, Hernaniko Adarraga, Bergarako Raizabal, Zegamako Okindegia eta Eibarko Asurmendi gozogileak eta Arabako eta Bizkaiko gozogileen Elkarteak ekarritako goxoak, bertaratu ziren guztien artean banatu ziren. Modu berean goiz guztian "Kaiku" yogurta eztiarekin eta Antton Adarragak eginiko txokolate beroa doan eskaini ziren bertaratu guztien artean. Hainbat lagun bazkaldu beharrik gabe joan zen etxera.

Eguerdiko 14:15etan herri-bazkaria egin zen Ostatuan. Bertan, 80 bat lagunek parte hartu zuten eta giro ederrean amaitu zuten Erlezain Eguna.

Arratsaldean, Urrezko Aizkolari Lehiaketa ospatu zen udal pilotalekuan. Kaiku eta EITBek antolatutako lehiaketa honetan bi kanporaketa ospatu ziren. Lehendabizikoan, Senosiain Txapartegiri gailendu zitzaion. Senosiainek 19 minutu eta 02 segundo behar izan zituen lana bukatzeko eta Txapartegik, 20 minutu eta 20 segundu; bigarrengoan, Beizamako Peñagarikano izan zen garailea Erdoziaren aurka, kasu honetan, beizamarrak 19 minutu eta 58 segundu behar izan zituen eta Erdoziak 24 minutu eta 23 segundu. Sarrera ona izan zen eta herriko seme den Joxe Mari Esnaolak ere bere trebezia erakusteko aukera izan zuen ekitaldi honetan emandako erakustaldian.

Gipuzkoako Erlezain Elkarteak, Gozogileen Elkarteak eta Zegamako Udalak elkarlanean egindako lanaren ondorioa izan zen aurtengoan ikusi ahal izan zena Zegaman. Datorren urtean ere, borondatea eta lana elkartu eta batuz beste ekitaldi berri bati aurre egiteko prestutasuna azaldu zuten antolatzaileek.

Jose Mari Unanue, hitzaldia ematen

Pastel erakusketa

Erleak bizirik

Tradizioak

GABONAK

Gabonetan, Jesusen jaoitzaren berri emateko urteroko irteera egin zen, abenduaren 24an. Arratsaldeko 14:30etan baserrietara eskean joan ziren, eta arratsaldeko 18:30etan plazan, Olentzeroa lagun izan zuen talde honek bertan haurren eskutitzak pertsonalki hartu zituelarik.

Bestalde aipatu behar da, Aitxuri Herri Eskolako haurrek ere beren irteera egin zutela; zaharrentxoenak goizeko 9:00etatik aurrera eta txikienak 11:00tatik aurrera.

SANTA AGEDA

Otsailaren 4an "Santa eskean" irten zen zegamar taldea herrian zehar makilen kolpez erritmoa ezarri eta koplak abestuz. Kalez kale eta etxez etxe, bazterrak girotu zituzten eta eztarria arintzeko Santa Ageda eskean irtendako taldeak, afaritxo bat egin zuen Zeraingo Otatza sagardotegian, hurrengo urterako animoak hartu asmoz.

Ama Birjinaren iturrian zegamarrak kafea hartzen

ARANTZAZUKO PEREGRINAZIOA

Maiatzaren 15 eta 16an izan ziren zegamarrok hain maite dugun Arantzazuko Peregrinazioa egiteko egunak. Urtetik urtera jende gehiago biltzen du ibilaldi honek eta aurten ere, izugarrizko jendetza abiatu zen igande goizean mendian gora.

Igande goizean, 8:00etan, 9:00etan eta 10:00etan izan ziren autobusak Apeaderoraino gerturatzeko eta bakoitzak nahi zuen autobusa hartu ahal izan zuen.

Ohitura da, udal ordezkariek, 10:00etako eta 12:00etako mezetara joaten direnen diru eskaintza Elizako portikupean jasotzea, Peregrinazio gastuei aurre egiteko. Tradizioari jarraituz, herritarrek familika eman ohi du bere laguntzatxoa.

Eguerdirako, bazkaltzeko tokira iristerako, sukaldari prestuek salda ederra prest zuten ibiltariei eskaintzeko eta aurten 25 urte zirenez talde hau eta hauen aurrekoak salda egiten hasi zirela, Udalak eskerroneko oroigarritxo bat eman zien sukaldariei.

Udalak eramandako ogitartekoak jan eta sukaldariek prestatutako kafe ederra hartu ondoren, Arantzazura jaitsi ziren herritarrak.

Astelehenean, maiatzaren 16an, 10:15etan Goiko Bentan elkartu ginen herritarrok, elizgizon, udal agintari eta herriko txitularien doinuaren laguntzaz Santutegiraino prozesioan joateko Meza Nagusia entzutera. Arratsaldeko 15:00etan, Jose Luis aguazilak suziriak bota bezain laister mendiz 100 bat pertsona etorri ziren eta esan uda guztian lehorte galanta egin bazuen ere, zaparrada bikainak harrapatu zituela herritarrak azken kilometroan. Gainerakoak, kotxe eta Udalak antolaturiko autobusetan etorri ziren Zegamara. San Bartolome Ermitaren ondoan haurrei goxokiak banatu eta Zupurrutin Ama Birjinak Arantzazuko Amabirjinaren agurra jaso ondoren, erromesei San Martin Parrokian ongi-etorria egin eta herritarrak afaria antolatzera joan ziren festari amaiera emateko.

Peregrinazioara joaterik izan ez zutenek oroigarria udaletxean jaso zuten

IDIAZABALDARREI HARRERA

Aurten, maiatzaren 22a izan zen idiazabaldarrei harrera egiteko eguna. Goizean San Adrianen meza entzun ondoren, Olaberria auzoko Gurutze Santuaren Ermitaren ondoan itxaron zien Zegamako Udal agintariek Idiazabalgo Udal agintari eta erromesaldia egin zutenei. Zegamako alkateak, Idiazabal-goari bere agintari makila utzi zion herria zeharkatu arte eta Zegamako txistulari taldea lagun zutela herriruntz abiatu ziren. Udaletxeko plazaren aurrean, lore sorta batekin egin zitzaion Antton Imaz, Idiazabalgo alkateari ongi-etorria eta berak, lore sorta emandako neskari opari bat eman zion ohitura zaharra jarraituz. Ondoren, Txurrerian eman zien hamaiketakoa Udalak idiazabaldarrei eta baita herriko txistulari taldeari ere. Hurrengo geldialdia, Seguran egin zuten erromesek.

SAN JUAN BEZPERA ETA SAN JUAN EGUNA

Ekainaren 23an, jaso zen urteroko moduan San Juan arbola herriko giza indarra erabiliz. Errito hau burutzen den bitartean, herriko txistulari taldearen doinua izaten dute arbola jasotzaileek lagun. Ondoren, languntzaileei mokadutxo bat eskaini zitzaien udal arkupeetan. Aguazilak, aurreko egunetan su adar mordoxka bilduak zituen eta San Juan sua egiteko dena prest zegoen. Baina aurtengoan bazen mendeetan zehar zegamarrok zintzo bete dugun usadioa bertan behera uzteko asmorik zuenik ere eta ilundu aurretik norbaitek su eman zaion adar pilari. Ilundutakoan zegoen suaren inguruan, aurreko urteetan bezala, Tobera Musika Eskolako dantzariek, San Juan suaren bueltan dantza egin zuten.

Aizkorriko Ermitaren inguruan meza

Arantzazuko bazkari lekuan sukaldariei oroigarria eman zien Udalak

San Adriango meza

ERMITETAN MEZAK

Gurutze Santuko Ermita: Gurutze Santu Egunean, maiatzaren 3an, Olaberrian dagoen Gurutze Santuko Ermitan meza izan zen iluntzeko 19:00etan.

Santu Espirituko Ermita: Maiatzaren 22an, goizeko 11:00tan ospatu zen meza Mikel Garziandiaren eskutik.

San Pedro Ermita: Ekainaren 29an, iluntzeko 19:00etan ospatu zen meza Goialdeko San Pedro Ermitan.

San Adriango Ermita: Ekainaren 19an, goizeko 11:00tan ospatu zen meza San Adriango Ermitan. Mezaren ondoren, Zegamako Udalak hamaiketakoa eskaini zien bertara hurbildu zirenei.

Aizkorriko Santa Kruz Ermita: Abuztuaren 7an, goizeko 11:00tan izan zen meza Aizkorri Santa Kruz Ermitan. Mezaren ondoren hamiketakoa eskaini zuen Zegamako Udalak.

San Bartolome Ermita: Abuztuaren 23an, San Bartolome egunaren bezperan "Bezpera Nagusiak" izeneko ospakizuna ospatu zen arratsaldeko 17:00etan. Ospakizun honetara Udal agintariak joan ziren.

Abuztuaren 24an, San Bartolome Egunean, Ermita honetatik San Bartolome Santuaren irudia prozesioan San Martin Parrokira eraman zen goizeko 11:00tan usadio zaharra betez.

Abuztuaren 25ean, goizeko 10:00etan, hildakoen aldeko meza izan zen.

Iruetxetako (Gesalbizkar) Ermita: Abuztuaren 5ean, Elurretako Amaren Eguna zela eta meza izan zen bertan eta auzotarrek bertaratuei mokadutxo bat eskaini zien.

Jose Mari Azurmendi 78 urte dituena 6 hilabeteko Aratz Izeta Arakama besoetan duela Aizkorrin

San Martin Parrokiko Zenbait Ekintza eta Ospaketa

APIRILAK 24: LEHENENGO JAUNARTZEAK

Aurten, Lehenengo Jaunartzea ospatu duten umeak zazpi izan dira: Ibai Arrizabalaga, Josune Zubizarreta, Irati Atxa, Maria Atxa, Libe Galdos, Joseba de la Hera eta Anne Oiarbide.

Ohitura den bezala, meza-ospakizunaren ondoren festa giro ederrean, parrokiak eskainita, "luntx" txiki bat prestatu zen, Jaunartzea egin zuten haur, guraso eta familiakoentzat. Guztiok egun ederra eta alaia igaroko zenutelakoan ZORIONAK GUZTIOI !!

BATAIOAK

Aurten, bataio zerrenda gehitu egin zaigu eta albiste pozgarri bezala jaso da. Bataio ospakizunak bi saiotan izan dira, guztira hamabi haur izan dira bataiatuak. Haurrak hauek dira: Unai Mujika, Lorea Agirre, Malen Otaegi, June Ormazabal, Enaitz Alustiza, Beñat de Prado, Julen Arce, Nora Etxezarreta, Unai Mendizabal, Arkaitz Elorza, Nahia Azurmendi eta Aitor Ormazabal.

Honelako ospakizunak beti dira alaiak, eta urtean zehar hainbeste haur bataiatzen direnean hunkigarria gertatzen da. ZORIONAK GURASO GUZTIEI !!

EZKONTZAK

Zegamako San Martin parrokian aurten ez da inor ezkondu,Otzaurten aldiz Hugo Urabayen eta Yolanda Ochoa-Aizpurua ezkondu dira. Baina badira ezkondu diren zegamarrak: Ignacio Goiburu eta Nekane Ugalde Zerainen, Luis Mª Otaegi eta Loreto Bengotxea Donostian, Arantza Azurmendi eta Luis Sudupe, Iker Arizkorreta eta Arantza Begiristain Zumarragan. ZORIONAK eta jarraitu dezazuela maitasun bide horretatik!!

EZTEI URTEURRENAK

Aurtengo urtean zehar Eztei urteurren ezberdinak ospatu ditugu bai San Martin Parrokian eta baita Otzaurteko Ermitan ere. Lehenak ospatzen Patxi Gorostidi eta Isabel Azurmendi izan ziren. Otzaurteko Ermitan Zilarrezko Ezteiak ospatu zituzten. Andres Larreak eta Mª Jesus Mendizabalek aldiz Diamantezko ezteiak ospatu zituzten San Martin Parrokian eta Jose Arrondo eta Juana Mujikak eta Victoriano Mujika eta Pilar Arrondok Urrezko ezteiak toki berean; Potenteneko Martin Gorospe eta Milagros Telleriak ere Urrezko ezteiak San Martin Parrokian ospatu zituzten. Azkenik famili berean guraso eta alabak Urrezko eta Zilarrezko ezteiak ospatu zituzten, Miguel Arizkorretak eta Pepita Arrietak eta Andres Aranak eta Arantxa Arizkorretak hurrenez hurren.

HERIOTZAK

Hamar herritar izan dira aurtengo urtean gure ondotik joan direnak: Irene Gutierrez, Angel Lozano, Elias Beratategi, Luis Otaegi, Esteban Atxa, Roman Guridi, Juan Otaegi, Mª Jesus Etxepare, Jose Asumendi eta Manuela Larrea.

Itxaropenak eta fedeak eraginda geroarte esanez ospatu genuen gure senideen agurra. Jainkoak digun maitasunaren zerrendan seguru daudela sinesten dugu. Agur eta bakean goza dezatela.

Eta honela bukatzen dira parroki inguruan izan ditugun ekintza eta ospakizunak. Barkatu norbait zerrendan jarri gabe eta zerbait gaizki idatzi baldin badut.

BAKE ETA ON GUZTIOI!!!

Bittorio fraidea aurten Jaurnartzea egin duten haurrekin

Zegamako Zentro Meteorologikoa

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saila. Meteorologi eta Klimatologi Zuzendaritza.

Jarraian aurtengo hilabetetako datu metereologikoen bataz-bestekoak azalduko ditugu.

Norbaitek datu zehatzagoren bat nahi izango balu udaletxean baditugu eguneroko datuak. Etorri eta atsegin handiz adieraziko dizkiogu.

	Prez. (l/m2)	t.max. (°c)	t.min. (°c)	Racha max. (km/h)	Hezetasun erlatiboa (%)
Azaroa (2004)	127,4	16,6	1,6	74,2	99
Abendua (2004)	227,1	13,1	0,8	77,8	100
Urtarrila	118	13,6	-5,2	78,1	100
Otsaila	119,2	12,1	-7,1	83,2	100
Martxoa	85,9	22,9	-7,9	78,1	98
Apirila	185	27,3	0	87,5	100
Maiatza	79,3	29,2	6,4	83,9	100
Ekaina	28,8	33,4	9,1	91,8	100
Uztaila	5,3	35,8	9,6	56,9	100
Abuztua	98,9	32,2	10	64,8	99
Iraila	60	32,5	7,9	58,3	100

Argibideak:

- Prez. L/m2 = Euria, m2 bakoitzean zenbat litro.
- T.max (°c) = Tenperatura edota hozberorik altuena.
- T.min (°c) = Temperatura edota hozberorik txikiena.
- Racha max. (km/h) = Haizearen indarrik handiena, orduko zenbat kilometro.
- Hezetasun erlatiboa (%) = Hezetasun haundieneko eguna.

Ondoan dituzue urtean zehar izan diren lau egun esanguratsuenak alor bakoitzean:

• Prez. L/m2	=	42,4	apirilak	16
• T.max (ºC)	=	35,8	uztailak	14
• T.min (ºC)	=	-7,9	martxoak	1
• Racha max (km/h)	=	91,8	ekainak	23
• Hezetasun erlatiboa (%)	=	100	abenduak	31

- Trabajos de Topografía
- Replanteos
- Proyectos de Ingeniería y Arquitectura

- Topografi lanak
- Erreplanteoak
- Ingenieritza eta arkitektura proiektuak

ERAIN

PASEO ZORROAGA Nº 17 BAJO
20.011-DONOSTIA
Tfno. : 943 470 903
E-mail : erain@grupoerain.com

Zegamarrak Realakin peña

Urtea azkeneko ostikadetan dugun honetan, 2005.ean egindakoaren laburpena egitea eskatu digute aurtengoan ere. Jada hirugarren agerraldia dugu urtekarian eta urte askotan izan nahi genuke bertan.

Aldez aurretik eskerrak, aipatuko diren ekintzetan partaide eta laguntzaile izan zaretenoi. Eskerrak denoi zuen laguntza eta baita kritikengatik ere.

Miguel Fuentes Zegaman

Hasieran aipatu bezala 3 urte bete behar ditu peñak eta hasierako berotasun hura pixka bat itzaldu arren, urte askotan jarraitu nahi genuke Reala indartzen; batik bat une txarretan, horietan behar baitu laguntza geure Realak.

Aurtengoan (2004-2005 liga) kirol mailan urte onargarria izan da, nahiz eta liga erdi parean amaitu (13 postuan). Bertako jokalari gazte askok debutatu dute eta hori seinale ona da. Realak etorkizuna baduen seinale; bejondeiela. Ekonomi aldetik ordea urte txarra izan da, Realak patrikan zulo handia duela jakinarazi digute, baina denon artean eta zuzendaritza berriarekin ziur aurrera aterako garela. Aurrera!! !!Denon artean lortuko dugu, Gipuzkoak eta Realak merezi du eta!!

Aurtengo ekintzak errepasatzen hasiz, peñakideon helburu garrantzitsuenetakoa herritarroi Anoetako giroa gerturatzea den heinean, urte osoan zehar, peñakideon artean Anoetako neurketetarako sarrera bat zozketatu dugu. Ohitura onak mantentzearen aldeko garenez, aurtengo liga txapelketan ere, zozketek aurrera dihardute. Adi beraz, peñako bazkideok!



Gijona eramandako kartela

Maiatzaren 13.an burutu genuen aurtengo egunik esanguratsuenetako bat, udaberriko ostiral iluntze hartan Euskal Herri eta Espainia aldeko errealzale ugari bildu ginen Udaletxeko portikopetan. Segura eta Idiazabalgo peñen laguntzekin "Realaren Peñen arteko kongresua" burutu genuen eta Zegamatik oso urruti bizi diren errealzaleei Zegama erakusteko aukera izan genuen. Aipatzekoa da oso irudi ona eraman zutela Zegama eta Zegamako inguruei buruz. Egun hartan, Zegamako seme zen Aitor Zabaletari omenaldi bat egin genion bere aitari hainbat oroigarri emanez eta ondoren afari-merienda eder bat egiteko aukera izan genuen Udaletxeko portikopetan. Giro ederra izan zen bertan, besteak beste geurekin izan ziren Xabier Azurmendi dantzaria, Iker Zubeldia bertsolaria eta Urretxu aldeko bi trikitilari paregabe. Iluntze-gau paregabea izan zen eta herritar bat baino gehiagok eskatu ziguten ostiralero egin beharko genuela holako ekintzaren bat. Berriro ere oso zaila izango da Peñen kongresua Zegamara inguratzea, baina horrelako saioak burutzen saiatuko gara. Ahaztu baino lehen, bihotzez eskertu nahi genieke, aurretik aipaturiko Xabi eta Ikerri eta nola ez, buru belarri Kasinon sukaldari eta ondoren zerbitzari gisan ibili ziren denei.

Hurrengo egun seinalatuta liga amaitzean etorri zen (ekainak 4), bertan herritarroi tokatu zitzaigun balantze ekonomikoa egitea: MKL irratia eta "Zegamarrak Realakin" Peñako porra. Aurtengoan 116 lagun elkartu ginen herriko Ostatuan eta Realeko hainbat zuzendari, zuzendari izango zirenak eta jokalari-ohi gonbidatu genituen afarira. Zegamarron berri lehendik ere bazuten arren, harrituta geratu ziren bertako giro paregabearekin. Aurtengoan ere etortzekoak omen dira!

Aurtengo liga hasi eta urriko azken asteburuan Bartzelonara bidaia antolatzeko ahalegina egin genuen, baina ehiza-garaia zenez eta zubi-luze bat tokatu zenez ezin izan zen bidai hau antolatu. Dena den Zegamaren errepresentazio gisa, Joseba Albizu eta Asier Elizegi bidali genituen Bartzelona aldera Idiazabalgo peñarekin.

Gabonak inguratzen ari direnez, aurtengo honetan zorteari keinu bat egitea pentsatu dugu, hori dela eta gabonetako loteriaren partizipazioak atera ditugu (Zb.16181). Ea zortea dugun!!!

Hauek izan dira, gogoratzen ditugun aurtengoak. Onak gogoan hartzeko eskatzen dizuegu eta bestelakoak barkatzeko. Ea hurrengo urtean gehiago garen eta ekintza gehiago burutzen ditugun denon laguntzarekin.

AUPA REAL!

doilan TEGIA S.Coop.

DOITASUNEZKO MEKANIZATUAK

Pol Intxausti, Pab. 14 I - ZEGAMA

943 801 243

doilan@doilan.com

IV. ZEGAMA AIZKORRI MENDI MARATOIA

Ipar-haizea nagusi!

Rob Jeff britainiarra eta Corinne Favré frantziarra nagusitu ziren maiatzaren 29ko IV. Zegama-Aizkorri Mendi-Maratoian

IV. ZEGAMA-AIZKORRI MENDI-MARATOIA

Berezia izan da aurtengo maratoia ere, modu askotara. **2005ko Buff-SkyRunner World Series** txapelketako lehenbiziko proba izateak maiatzaren 29ra aurrera arazi zuen lasterketa eguna. Aldi berean Euskal Herriko Mendi Lasterketen koparako ere puntuagarria izan zen. Horrek guztiak eraginda, partaidetza ere inoiz baino haundiagoa izan genuen, nahiz bertako nahiz kanpoko korrikalariei dagokionez: 350 partaide guztira. Kirol maila bera ere, txalogarria emaitzen arabera: **Rob Jeff** britainiarrak gizonekoetan eta **Corinne Favré** frantziarrak emakumezkoetan, bai batak eta bai besteak, orain arteko markak birrindu egin zituzten. Euskaldunen artean, **Jabi Olabarria** [4:15:29], 9. gizonezkoen sailkapenean eta **Nerea Amilibia** [5:19:40], 7. emakumezkoen kategorian.

Zegama-Aizkorri egindako zegamarrak

Alde askotatik kirol egun haundia izan zen maiatzaren 29koa Zegaman. Antolakuntzari dagokionean, lortua dugun ospeari eutsi zitzaion goi mailan oraingoan ere, herriak daukan laguntzaile-talde zabal eta arduratsuari esker behin berritan. Bezperako aurkezpen ekitalditik hasi eta maratoia bukatu arte, orohar, antolakuntza zerbitzu ona eskaini genien korrikalariei, komunikabideei, babesleei eta ikusleei. Korrikalariek oraingoan ere gogoz eskertu duten kontua da antolatzaileen lana. Ibilbide guztian zehar animoak ematera hainbeste jende bildu izana eskertu duten bezala. Gainera, eguzki berorik gabe eta ateri, eguraldia bera ere portatu egin zen lasterketak iraun zuen bitartean, korrikarako giro egokia eskainiz.

2005ko Buff-SkyRunner World Series munduko kopako lehenbiziko lasterketa izateak Euskal Herriko korrikalarien irrika areagotu egin zuen. Izena emateko epea zabaldu orduko goizean-goiz Zegamara bildu zen jendetza ikusi besterik ez zegoen horretaz ohartzeko. Horregatik, partehartzaileen kopurua 350era zabaldu izan arren, ez zuten parte hartzerik izan nahi zuten guztiek. Izan ere, atzerritarren prensentzia bera ere aurreko urteetakoa baino zabalagoa izan genuen, probaren kategoriari zegokion bezala. Antolatzaileek beti izan beharko dute kezka puntu berezi bat partaidetzaren kontu honetan. Probaren izen onak, zaletasuna hainbeste zabaldu izanak eta korrikalarien prestakuntza mailak eskarien kopurua zabaldu baino ez dute egin urtetik urtera. Baina, lasterketa bakoitzak dauzka bere mugak, eta Zegamako Mendi Maratoi honek ere bai bereak; nekez antolatu ahal izango genituzke gauza guztiak oraingo fundamentuarekin korrikalarien partaidetza mugarik gabe zabalduz.

Parte hartzaileen kopuruak bezala, irabazleen denborak ere nabarmen egin zuten hobera maiatzaren 29ko mendi maratoian. **Rob Jeff** britainiarrak hiru ordu, berrogeitahamalau minutu eta hamazortzi segundotan [3:54:18] amaitu zuen lasterketa, Mario Poletti italiarrak 2004ean lortutako denbora hamabi [12'] minututan hobetuz. **Corinne Favré-k** bere aldetik ia bost [5'] minutuz hobetu zuen emakumezkoen denbora, 2003an Esther Hernandezek ezarritako markarekiko, maratoia bost ordu, hiru minutu eta berrogeitamazazpi segundutan [5:03:57] bukatuz. Harrigarriak dira urtetik urterako aldeak ondoko laukian ikus daitekeenez:

ZEGAMA-AIZKORRI MENDI-MARATOIA

Gizonezkoak		
2002	JUAN MARTIN TOLOSA	4:14:23
2003	FERNANDO GARCIA	4:08:44
2004	MARIO POLETTI	4:06:46
2005	**ROB JEFF**	**3:54:18**
Emakumezkoak		
2002	ROSA LASAGABASTER	6:05:27
2003	ESTHER FERNANDEZ	5:08:52
2004	ANNA SERRA	5:27:51
2005	**CORINNE FAVRÉ**	**5:03:57**

Kronika honen atal-buruan diogun bezala, 2005eko maiatzaren 29ko IV. Zegama-Aizkorri Mendi-Maratoian ipar-aldeko haizeak nagusitu ziren indartsu eta, nekeak neke, baita gustora ere, irabazle biek aitortu ziguten bezala:

Rob Jebb: (Britainia Handia).

"Lasterketa benetan gogorra izan da baina aldi berean oso polita. Ibilbide guztian nagusitu den giroa liluragarria izan da eta horregatik esan dezaket maratoi hau zinez ikusgarria dela. Desnibelak oso gogorra dira baina ni ondo moldatzen naiz hor. Igoeretan primeran sentitu naiz eta jaitsieretan aldeak mantentzen saiatu naiz."

Corinne Favre: (Frantzia).

"Lasterketa oso gogorra izan arren oso pozik nago. Oso ondo egokitzen da lasterketa hau nire ezaugarrietara eta oso gustura egin dut korrika."

Rob Jeff helmugan sartzen

Rob Jeff eta Mario Poletti

Corinne Favré eta Rob Jeff irabazleak

2006ko maratoiari begira jarriak gaude honenbestez. 2006ko maiatzaren 28an izango da. 2006ko Buff-SkyRunner World Series munduko txapelketako bigarren proba aurten. Iaz pozik joan zirenak hemen izango ditugu berriro leku eske. Iaz parte hartzerik izan ez zutenei lekua egiten ere saiatuko gara izena emateko moduak berrituz eta egokiago antolatuz. Okerrik ez dela, 400 korrikalari izango ditugu irteerako lekuan datorren urteko maratoian. Lanari ekin eta jarrai, horixe da beti eginkizuna, herriaren izenak, Zegamak, eta maratoiaren ospeak, oihartzun zabala izan dezaten. Urte Zaharrai agur esan eta berrian sartzearekin batera, opa diezaiogun elkarri 2006ko maiatzaren 28an egun gogoragarria igaro eta lasterketa amaitutakoan, aurten bezala, denok pozik egoteko aukera. Eta, nolanahi ere, URTE-BERRI ON denoi!

JULIAN BELOKI GUERRA

Zegama-Aizkorri maratoiaren aurkezpena gimnasioan

V. AIZKORRIKO LAGUNEN EGUNA
2005eko uztailaren 3an

Egun bakoitzak bere neke eta pozak!

Lagun arte eta giro ederrekoa bihurtu zaigu, uztaileko lehenbiziko igandearekin bat eginez, aurten bosgarren aldiz ospatu dugun Aizkorriko Lagunen Eguna.

Goizeko seiretan, egunsentiak argitzera egitearekin, suziriak Zegaman. Zer izango eta uztaileko lehenbiziko igandea, hilaren hirugarren eguna. Loaren orratzak kentzeko ordua da, nagiak astindu eta Aizkorriko tontorrerako bideari ekiteko unean.

Ordu pare bat beranduago besterik ez, eta suziriak eztanda berriro ere Zegamako plaza inguruan. Apeaderoraino autobusez igo eta garai bateko mandabideari segiz, Aizkorpeko magaletik, zeharka-zeharka, Sancti Spirituraino oinez joan nahi dutenentzako deia da oraingoan.

Uztaileko lehenbiziko igandea, bai, eta, horra nola, duela bost urte hasitako antolakuntza, urteko iganderik alai eta ederrenetakoa bihur zaigun: Aizkorriko Lagunen Eguna.

Gezurra dirudi, bai, baina badira bost urte honenbestez ospakizun honekin hasi ginela. Ibiltarienak Zegamako plazatik Aizkorriko tontorreraino, goizeko 6etan irtenda, han gosari txikia egin eta meza ordurako Sancti Spirituraino jeisteko. Berantiarrago, autobusa hartu, apeaderorako bihurgunean obligaziozko jeitsialdia egin eta inon topa litekeen mendi ibilaldi atseginenetako bat eginez, meza ordurako, Sancti Spirituraino igotzeko.

Iñaki Arantzadi urteroko meza emaile, poeta eta kantari. Urtero kontu eta kantu berriak, parajearen edertasun eta gozotasunaren pare. Meza ondoren hamaiketakoa, herriko okindegian prestatuta eramandako txorizozko ogitartekoa, ardoa eta ura. Trikiti doinuak eta lagun arteko berriketaldiak. Mendizalerik gehienak zegamarrak, baina, urtetik urtera ugaltzen doaz egunaren ospakizunera biltzen diren inguruko herrietako Aizkorri zaleak ere.

Bisitarien artean, han izan genuen aurten ere Pako Iriondo, Euskal Herriko Mendi Federazioko Ohorezko Lehendakaria eta euskal mendizaletasunaren aitaponteko eta auspo eragilea. Bezperako afaria sabelean kateatu eta ondoez txiki bat izan zuen Sancti Spiritun meza entzuten ari ginela. Denok kezkatu gintuen zertxobait. Medikutara joan arazi genuen, baina laister zen berriro ere gurekin, han bildu ginen mendizaleak Zegamako kalera erromerian jeitsi eta pilotalekuan lagun arteko bakariari ekin genionerako, alegia. Bejondeizula Pako! Berak badaki zenbat poztu ginen orduan gure artean onik ikusterarekin eta zenbat poztuko garen datorren urtean, senar-emazteak, Pako eta Piedad, biak elkarrekin, berriro ere Aizkorriko Lagunen Eguna gurekin ospatzera etortzen badira.

Aizkorrira igotako mendizaleak

Pako Iriondo eta Piedad Madariaga kiroldegian

Jaso bezate datorren urterako gonbitea Pakok eta Piedadek, eta zuk ere bai, irakurle, zegamarra izan ala ez. Munduan ez dago eginkizun errazago eta atseginagorik, Aizkorraldeko paraje hauen edertasunaren zale egitea hainakorik. Are eta errazago eta atseginago horrelako egun eta giroan, uztaileko lehenbiziko igandean ospatzen dugun Aizkorriko Lagunen Egunean, alegia. 2006koa seigarrena izango da gainera, uztailaren 2a, Santa Ixabel eguna. Mendi ibilaldiaren nekearen ordainetan, gosari txikia, meza eta hamaiketakoa indarberritzeko, trikiti eta txistu doinuak, erromeria eta lagun arteko bazkari luzea, eguna osatzen joateko. Ongietorri, oraintxetik!

JULIAN BELOKI GUERRA

Zegama eta Euskal Herriko deiturak

Zegamako deituren nondik norakoak aztertzeko Euskal Herriko deiturez mintzatu behar dugu ingurukoa ez baita salbuespena ohiko jokaera baizik. Gure herrian, erdaldundutako inguruak alde batera utzita, bi era nagusi izan ditugu deiturak sortzeko, batetik itsas aldekoa edo iparraldekoa dei genezakeena, Arabako iparra, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde osoa eta Nafarroako iparraldea hartzen duena eta Arabako lautada eta Nafarroa. Honetaz gain patronimiko (aitaren izenaz osatutakoak) eta beste solte batzuk ere badira, Gartzia, Otsoa, Maiora,...

Bigarren kasuan deiturek patronimikoa + herri izen egitura daukate Lopez/Lopitz Eulateko, Diaz Zerioko, Otxoa Eribeko... gehien bat erdara dela medio López de Eulate, Díaz de Cerio edo Ochoa de Eribe eratan gurera etorri direnak. Inoiz deitura hauek euskararen kaletan sinpletu dira eta Díaz, López etab. bihurtu zaizkigu.

Lehengo kasuan deitura etxe izenetatik hartu zen eta euskal deiturarik ezagunenak izaten dira: Agirre, Etxeberria, Eguzkitza,....

Gaur egun ezagutzen ditugun deiturak XVI. Mendean finkatu ziren eta hasieran Euskal Herri osoan ohikoa zen patronimiko + toponimo egitura, baina begi bistakoa denez Zegaman aski da pertsona bat beruntzakoa dela esatea nor den jakiteko, aitaren izena aipatu gabe. Hori dela eta itsasaldeko Euskal Herrian desagertu zen ea erabat patronimikoa.

Jendea baserriaren izena erabiliz deitzeko joera oso gurea da eta denok ezagutzen dugu kasu bat baino gehiago deituraren ordez baserri izenaz deitzen duguna. Baserria oinarrizkoa izan da gure kulturan eta bere osotasunean mantentzeko ahaleginak egiten ziren. Nafarroako kasuan foruan aipatzen da jabearen egin beharretako bat izena zaintzea dela eta Bizkaian baserria osotasunean eman behar zitzaion seme-alabetako bati, ez jendeak kontrako uste badu ere seme nagusiari. Deigarri da azken kasuan legezkoa izatea seme-alabek amaren deitura hartzea ama etxandera hots "etxeko jabea" zenean.

Aurreko guztiaren ondorioz Euskal Herrian bataz beste Alemanian baino deitura gehiago dugu eta deigarriena dena ez dugu lanbide deiturarik. Azken hau oso deigarria da munduko bigarren deitura Schimdt "arotza" baita.

Zoritxarrez deiturak finkatu zirenean euskara ez zen administrazioen hizkuntza eta elizak (errolda zibila XIX. mendean sortu zen) erdaraz idatzi zituen gure deiturak. Kasu batzuetan ez zuen aldaketarik eragin: Aizpuru edo Olaran, beste kasuetan aldaketa bakarra idazteko sisteman datza: Ollaquindia / Ollakindia. Edo Murguindo / Murgiondo. Baina euskal izenetan erdaraz ez dagoen soinu bat agertzen zenean deiturak gehiago aldatu zituen Muxika > Mujica edo Eguzkitza > Eguzquiza bihurtuta.

Legea aldatu zenean Euskaltzaindiak sakonki aztertu zuen gaia eta argi ikusi zuen ez dela onargarria hizkuntza arrotz batek eragindako aldaketarik eta euskal izenak bere osotasunean idatzi behar direla. Hori dela eta tokian tokiko ahoskerak aztertu eta idazkera egokiak proposatu zituen. Zoritxarrez askotan jatorrizko baserria ezezagun izaten da eta jendeari gogor egiten zaio euskal izen egokia berreskuratzea. Deituraren sorlekua ezaguna denean, berriz ez da horrelako oztoporik izaten: Plentzia edo Abaltzisketa oztoporik gabe erabiltzen dira eta ez Plenzia edo Abalzisketa. Kasu batzuetan bitasu (bi aukera) utzi zuen Akademiak deiturek jasandako aldaketak ez direlako beste hizkuntza batek eragindakoak euskarak berak edo historiak baizik.

Zegaman jatorria duten deiturak, besteak beste honakoak dira:

Aizkorre, Aizpuru, Altzibar, Altziturri, Amiano, Anduetza, Antias, Arakama, Arantza, Arrieta, Azurmendi, Barrensoro, Beruntza, Zegama, Dirintia, Etxeberria, Gorospe, Gosategi, Ibarreta, Idiagez, Igartua, Iruetxeta, Iturburu, Jarleku, Latsaena, Mazkiaran, Olaran, Ondarra, Ormakio, Otzaurte, Untzurruntzaga, Zatizabal, Zuloaga, eta Zupieta

Deiturak jatorriz etxe izenak izan zirenez askotan esanahia ere uler dezakegu, ez beti eta hau izan daiteke deitura batzuen esangura:

BERASATEGI: Seguru asko osagaiak Beraxa pertsona izena eta tegi atzizkia kasu honetan "etxe" esanahia duena: "Beraxaren etxea"

AZURMENDI/ASURMENDI: Deitura honek bi idazkera izan ditu baina bat bera da. Badirudi aldaera zaharrena Azurmendi dela eta geroago z/s nahasketa egon zela Asurmendi sortuz, baina hau zehatz mehatz jakiteko datu zaharrak beharko genituzke. Izen zaharrena Azurmendi balitz osagaiak azur "hezur" eta mendi lirateke. Izen jatorra Asurmendi izanez gero asuri "bildotsa" eta mendi izango genuke. Ikusten denez soinu aldaketa txikiak esanahia zeharo aldatzen du.

ARAKAMA: esanahi iluneko izena. Bertan dugu Zegama izenean ageri zaigun –ama atzizki bera eta agian Araka herri izena, azken honen iturria pertsona izena izan daitekeena.

ORMAZABAL: Ezbairik gabe esanahi argiena duena osagaiak bizi bizirik baitaude Zegaman orma eta zabal. Horrelako izenak askotan XVI. Mendekoak direla pentsa genezake baserriak harriz eraikitzen hasi ziren garaikoak, aurrekoak egurrezkoak baitziren oso-osorik.

Mikel Gorrotxategi Nieto

EUSKALTZAINDIAKO ONOMASTIKA BATZORDEKO IDAZKARIA

Iker Zubeldia

Iker Zubeldia herritarrak aurten parte hartu du lehen aldiz Bertso Txapelketa Nagusian. Baina ez da hau bere lehen lehiaketa izan, zeren 2001ean Gabirian antolatzen den Osinalde saria berak irabazi baitzuen. Adituek bertsolari fresko eta umore bizikotzat hartzen dute eta eskola zaharrekoa dela diote.

Ikerrek urriaren 15ean Idiazabalgo Igarondo pilotalekuan ospatu zen Txapelketa Nagusiko azken-laurdenean parte hartu zuen. Bertan 672 puntu lortu zituen bere maila ona erakutsiz. Sailkapen orokorrean 30 partaideen artean 13. postua lortu zuen arren finalerdietara 12 partaide pasatu zirenez berak ez zuen lortu bertan sartzea, 1.5 puntutara geratu zen. Honek zera esan nahi du, oraingo honetan finalerdian sartzea lortu ez duen arren hurrengo batean Txapelketan parte hartzen badu beste bertsolariek kontuan hartu beharko dutela uste dugu. Bestalde, gogoratu behar da Kasino Elkarteak, Zegamako Udaleko Kultur batzordearen laguntzarekin, apirilaren 2an antolatutako Bertso Jaialdian parte hartu zuela Zegaman.

Zegamako Artzainak

Aurreko urteetan, basozain, kaminero, eta kamioneroen txokoa izan bada ere honako hau, aurten Zegamako artzainei egokitu zaie txoko honetan agertzea. Elkarrizketak, Isabel eta Lierni Elorza Puyadenak, "Urbia, Aizkorri eta Zegamako artzaintzaren ikerketa beka" garatu dutenak, eginak dira eta Zegamako Udala honen jakitun izanik, elkarrizketa hauen laburpena Urtekarian argitaratuak izan zitezen eskabidea luzatu zien urtearen hasieran. Lerro hauen bidez gure eskerrona eman nahi diegu Isabel eta Lierniri beraiek egindako lanaren zati bat Udalari uzteagatik. Udalak, urtekariaren ildoa jarraituz euskara batura egokitu ditu elkarrizketak eta, eraldaketa horretan akatsik balego, geure errua dela aurrez aitortu nahi genuke. Aurtengoan, Zegamako artzain ohiak eta egun artzain direnak bildu ditugu baina esan datorren urtean Ameriketan artzain egondako zegamarrak bildu nahi ditugula eta ondorioz, hauen berririk bazenu guri jakineraztea eskatuko genizuke.

Halaber, artzairen bat ahazturik utzi badugu, aurrez barkamena eskatu eta jakinaren gainean jar gaitzazun eskatzen dizugu.

Ardiak mendirako bidean artzaina gidari dutela

San Martinetan, Zegaman elkartu ziren artzainak

CA2L
LIGHTING CONSULTANTS
Projectes d'il.luminació
Proyectos de iluminación
Passeig de Sant Joan, 10 • 08010 Barcelona
Tel.: 93 244 43 43 Fax.: 93 265 59 63
e-mail: info@ca2l.com
www.ca2l.com

Dominika Arrizabalaga eta senarra Lorentzo Etxeberria, seme Miel (zaharrena) eta Ixidro

Dominika Arrizabalaga

(1915-08-04)

ASEMENDI MUÑOA BASERRIKOA

"Orain artzain bakarrak dauzka Urbian lehen ziren ardi guztiak"

Zegamako Asemendi Muñoa baserrian jaioa, 1915eko abuztuaren 4an.

Gaur egun Legazpin bizi da.

Hemen Zegaman ezagutu bazineten ere senarra ez zenuen jaiotzez Zegamarra?

Ez, senar zena, Lorentxo Etxeberria, Larraizkoa zen jaiotzez, eta gerra garaian etorri zen Lorentxoren familia Zegamara bizi izatera.

Zuk beti ezagutu dituzu ardiak etxean?

Bai, neure jaiotetxean ere ezagutu nituen ardiak. Nire gizonak, berriz, mendiz aldatzeko bere ardiak saldu eta Zegaman erosi zituen. Ezkondu eta gero Zalduondon egon ginen, "vecindadea" han hartu genuen. Ardiak Araba aldean erabiltzeko han hartu behar zen. Han errentan hartu genuen etxea. Hilabete edo bi, udazkenean, han egoten ginen. Santa Luziak ingururarte. Gero Bergaran eta Abadiñon ere egon ginen, Artxandan ere bai, Iurretan ere bai...

Gaztetan alargundu zinen ezta?

Berrogei eta hamabost urterekin, senarra Oltzen bertan hil zen. Juan XXIII lurperatu zuten egun berean enterratu zuten 1963ko ekainaren 1ean. Egun hartan bi aldiz joan nintzen Araiara medikuarengana, baina hala joan zen. Kontu tristeak dira horiek.

Garai hartako artzain gehienei bezala, zuei ere batetik bestera ibiltzea tokatu zaizue?

Pentsatu ezazu, sei seme-alaba ditut 3 probintzi diferentetan jaioak. Bi Arabarrak, bi gipuzkoarrak eta bi bizkaitarrak. Joxe zaharrena Oltzeko txabolan jaio zen. Bigarrena Maria Oiartzunen, Pili, Araian jaio zen, Artxandan Migel, Abadiñon Josefina eta Isidro gazteena Zalduondon. Denak herri ezberdinetan.

Artzainak ondo bizi zirela esan al daiteke?

Modu askotara bizi ziren orduan ere artzainak, ondo bizi zirenak eta gaizki bizi zirenak zeuden, gaur bezalaxe. Orduan ere bazeuden terrenoak, lur sailak, belarrak zeuzkan baserritarrak; hauek, etxera eramaten zituzten denboraldi baterako ardi zaharrak eta gizentzen zirenean saldu egiten zituzten. Gizendu-tako ardi zaharrak, gehixeago pagatzen ziren, argalak gutxixeago.

"Artzainak hartzen zituzten etxeak zeuden lotarako, normalean ez zuten kobratzen"

Etxeberria - Arrizabalaga sendia Oltzeko txabola aurrean

Atzean Maria, Ixidro eta Dominika. Aurrean Joxe, Migel, Josefina, Kontxi (Bixiola baserrikoa), Pili

Garai hartan pentsurik ematen al zitzaien ardiei?

Pentsurik, bat edo bestek bai, ahal zuenak emango zien, baina normalean ez.

Zenbateko artaldea izaten zenuten?

150-200 bat burukoa. Orain artzain bakarrak dauzka Urbian lehen zeuden ardi guztiak. Lehen denek baino orain batek gehiago dauzka.

Batetik besterako joan-etorriak nola egiten zenituzten?

Familia Oltzen

Oinez, "estazioak" (atsedenaldiak) eginez. Etxe jakinetan geratzen ginen. Arantzazun, Kanpanzar, Abadiño... artzainak hartzen zituzten etxeak zeuden lotarako. Brinkolan ere egoten ginen, Bixiolan (Legazpin) ere bai. Normalean ez zuten kobratzen baina beti zer edo zer uzten zenuen. Etortzerakoan gazta edo esnea baldin bazen esnearen truke. Orduan ere kosta egiten zen afaria, lo egitea eta "kaballeria"ri belarra ere ematen zieten. Beti leku jakinetan geratzen ginen.

Mikeleteak eta ezagutu dituzu zuk?

Mikeleteak kobratzera pasatzen ziren, ardoa ere pagatu egiten zen, gero hori kendu zen. Arabatik Gipuzkoara pasatzen zenuenean jeneroa pagatu egiten zen. Mikelete bat, altu bat zen, eta bestea okertutako bat. Zenbat ardo gastatu genuen galdetzen zuten eta litroko horrenbeste eskatzen zuten. Denak ere ezin esan. Eta beste aldera zeuden artzainek ere berdin-berdin zuten ordaindu beharra, Arabatik sartzen baziren berdin. Mikeleteak beheran zeudenean artzainek ardoa koban gordetzen zuten eta gero gauez ekartzen zuten; nire anaia zenak-eta hori egiten zuten. Zer edo zer egin behar. Gero esaten zuten Zegamatik eraman zutela. Zegamatik eramanez gero ez zeneukan pagatu beharrik.

Garai hartan baratza ere pagatu egiten genuen. Ardiko ere bai. Egurra ere bai eta txabolagatik ere bai. Egurra ere goardak markatu behar izaten zuen hau eta hau txabola egiteko, eta leku jakinean, erretzeko ere goardak markatzen zuen.

Oltzen urte asko pasatu dituzu?

Bai, ardiak eta behorra saldu nituenean ia ez geneukan eskubiderik (deretxorik). Orain hogeita sei urte edo horrela. Azken uda ardiekin orain 15 bat urte. 40ren bat ardi aukeran saldu eta errauts gelditu zitzaizkidanekin. Beti txabola berean egon naiz.

Pili, ardiari ilea mozten

Bitoriano Mujika Arrieta

(1918-03-23)

Gabino Mujika Arrieta

(1926-02-04)

UGARTE BASERRIKOAK

"Gure amonak esaten zuen Ugarten ardiak eta erleak bisabueloa (bir-aitona) baino lehenagotik daudela"

Bitoriano Mujika

Gabino Mujika

Nola egin zineten artzain?

B. Jaiokeratik artzain bihurtu ginen eta anaia, berriz, gu soldadutza joan ginelako.

G. Horiek soldadutzara, 1939an bata eta bestea 1941 inguruan eraman zituzten, eta ni 12 urterekin artzain hasi nintzen. Ardiak beti etxean, ezagutu ditugu.

Non ibiltzen ziren zuen ardiak?

G. Itzubian, gure saroia (artalde bakoitzari egokitutako tokia, parajea) han izaten zen. Oraindik han dago txabola txiki bat, hark auskalo 200 urte, edo 300 edukiko ditu. Gaztainarekin trabesak egin, eta gero gainetik zotala zeukan jarrita, eta lurrean losak ere bai.

B. Bai ondo egindako txabola zen hori.

G. Trabesak, Aizkorrin aizkoraz egindakoak dira. Askotan joaten naiz ni hara. Bertaraino Land Roverrean joan liteke. Antonio Berasategi ere han egon zen "Atxatxekoa". Ni mutikoa, 12-13-14 urte, eta hura ia edadekoa; familia handia izan zuen, zazpi seme-alaba edo. Eta artzain ibiltzen zen nirekin batera; ni mutikoa, eta han ibiltzen ginen biok. Bizkarrean esnea ekartzen genuen biok.

B. Han ardiak jetzi (esnea bildu) eta halako ordutarako hona.

G. Ilunpean, goizean jaikitzen ginen. Antonio hark esaten zuen, "hau dek martxea hau" eta azkenean Antonio bera hasi zen lehenengo gazta bertan egiten. Eta primeran, orduan Aizkorrira joaten ziren ardiak handik gora. Goizeko eta iluntzeko esneak ekartzeko ez zirenean gauza, nik astoan ekartzen nituen asta-saskietan aldamenetik jarrita. Beheraxeago terreno handia daukagu guk, ia saroia adinekoa, aita zenak, pago zahar baten azpian egurra jarri eta astoa kargatu ondoren, etxerako egurra eta esnea ekartzen nuen.

> "Nik ezagutu nian kilo xerra 8 txakur haundian, 0,80 pezetan edota gaurko, 0,0048 €tan"

Zuen aita Miel Antonio Ordiziako feriara ia astero joaten omen zen.

B. Hura ez zegoen hari kentzerik. 14 urtez kontzejal (zinegotzi) egondakoa zen aita. Hark ere eskola handirik ez zeukan baina erdaraz (gazteleraz) ere nolanahi egiten zuen askotan.

G. Bai, lehen astoan joaten omen ziren feriara, astoan arkumeak hartuta. Orain dela 80 urteko kontuak dira horiek eta gero diarioan (autobusean).

B. Bai. Kristobal Txiki izena zuen batek zaldiarekin bere konturako karroa (gurdia) jarri omen zuen, baina bidaiko 2 pezeta. Garesti kobratzen zuen. Eta ez pagatzeagatik oinez joaten omen ziren hemendik "Villafrancara" (Ordiziara).

G. Gero autobusa zegoen hemen, goizeko 6etan hona etortzen zen. Ormazabalgo lehengusua, artzaina zen-eta, arkumeak gure atarian uzten zituen, atari honetan eduki eta hemendik joaten ziren feriara. Gero han saldu egin behar zuen eta ño! Arkume on samarrak eraman behar-eta, gure aitak ez zuen sekula ekarri atzera arkumerik, beti saldu. Azkenean, gero jarri zen Montero (gaur egun arkumeak erosten dituen harakina) hark denak biltzen zituen. Hemen, Zegaman, astelehenetan egiten zen feria, hilean behin.

Orduan etekin nagusiena nondik izaten zen?

G. Arkumetatik eta gaztetatik, orain bezalaxe. Gaztak onduta "Villafrancara" (Ordiziara) eraman behar ziren. Laster lehortzen ziren, 15 edo 20 egun edo. Garai hartan gure aita zenak 5 txerri gizentzen zituen; bat parrokoarentzat izaten zuen, bi Don Eugenio Aseginolaza, fabrikako gerentearentzat zen, eta, laugarrena Konfiteriko Klaudiorentzat, hau Don Eugenioren anaia zen.

Bestea zeinentzako izaten zen ba?

Eta bosgarrena geuretako. Txerriak kalera eramanda pisatzen genituen.

Non zegoen herriko baskula?

G. Hortxe, Aiuntamientoaren (Udaletxearen) ondoan. "Sakristau zaharra" esaten zitzaion han beheraxeagoko etxe hartan, eta hari abisatu behar izaten zitzaion, eta haren alabak pisatzen zituen baskulan. "Aizu, txerria pisauko al deu" eta "bai, bai, belaxe jungo naiz". Ardoaren barrikak egoten zirenekoa ere bazegoen.

B. Alhondegia

G. Han pisatzen zituzten txerriak.

Txabolan zeundetenean, nola moldatzen zenituzten otorduak?

B. Bertan, norberak berea jarri behar

G. Bazkaria, indabak jarri eta gero arrautzaren bat edo, urdai pusketaren bat edo txorizo mutur bat sartuta edo, eta ardo pixka bat ere bai. Gure gaueko arrantxoa ardi-esnea izaten zen. Esnea berotzeko pertxori (beheko suan jartzen zen eltze txikian egosi esnea) txikia egiten genuen. Eta orduan makilan ipintzen genuen elatzetik. Orduan, badakizu, zer izaten zen, goizean jeiki lehenengo orduan ilunpean eta lehenengo lapikoa jarri. Sua egin txabolan eta, bi lapiko txiki jarri suaren aldamenean eta handik ardi-jeztera. Ardiak jetzi ondoren bertan gazta egiten genuen.

B. Eta indaba beltza izaten zen, indaba on hori, garai hartan indaba asko izaten zen. Guk zezina jaten genuen indabekin, azarekin, gu karnizerira (harategira) oso gutxi joaten ginen. Arrebak karnizeritik libra bat (kilo erdia) xerra ekartzen zuen, hura izaten zen gure karnizeriko haragia, zapatuan edo jaian hura denon artean jan eta akabo!

B. Nik ezagutu nian ba kilo xerra 8 txakur haundian (0,80 pzta zentimo, 0,0048 €tan).

G. 5 zentimoan xuxarra, txokolatea izaten zen, xuxarra, sartu ogian ta biguin-biguina.

Artzaintza gustuko eginkizuna izan al duzue?

B. Nik zer esango dizut, artzain? Ibili beharra zegoelako, gerran baino nahiago nuen nik ibili artzain. Niretzako beste soluziorik ez da izan, bat edo bat behar zuen, maiorazkoaren lana, bertan behera ez uzteagatik.

G. Ni artzaintzara beti disgustora joaten nintzen, baina beti joan egin behar. Eta hauen soldadutzarik izan ez balitz, ni artzaintzan gutxi ibiliko nintzen. Gure amonak esaten zuen "Ugarten ardiak eta erleak bisabuelo (bir-aitona) baino lehenagotik daudela". Baina gure aitak esaten zuen "joan beharra zegok" eta joan egin behar. Bera hemen ibiltzen zen purua errez. Harek errespetoa!

Kandido eta Karmen kalean duten etxeko balkoian

Kandido Aizpeolea Muñoa

(1920–10-03)

Karmen Oiarbide

(1924-04-04)

ZERAINGO BARBARI MUÑOKOA ZEGAMAKO ARIZTI BERRIKOA

"Orain ardiak ibiltzen dituk ondo, artzainak lehengo moduan"

Artzainak artzainarengana jotzen duela esan al daiteke?

Karmen. Hau (senarrarengatik dio) artzain zebilen eta ni ere bai. Gu ardiekin, Aldasoreneko Errotan, Barbari bidean dagoenean ibiltzen ginen, eta gero Arregietxera aldatu ginen eta hau ere hor ibiltzen zen-eta.

Ni laugarren generazioa (belaunaldia) naiz nik dakidanez, orain nire aitaren amona izango zen artzain lehengo generaziotik datorrena. Semea 5.a eta semearen semea 6a. Txikiak sekulako afizioa dauka, eskolarako baino gehiago, aitarekin-eta joaten da hura.

Ezkondu artekoa egin zenuen orduan Urbian eta gero elkarrekin Urbasan?

Kandido. Ni, ezkondu aurretik, 28 urte arte, Urbian egoten nintzen. Gero Urbasan ibili ginen eta Urbasara joateari 1968an utzi genion, gero Beunde inguruan ibili genituen ardiak urte batzuetan.

Oiarbidetarrak guraso eta ahizpak

Urbiko oroitzapen asko gordetzen dituzu, eta, esate baterako, larreak eta txabolak bedeinkatzeko zeremoniari buruzko oroimenik ba al duzu?

Kandido. Urbiara fraidea egun jakinean etortzen zen. Jendeari galdetzen zion noiz etorriko zen eta txabola denei egiten zien bere bedeinkazio papel hori, horretarako ura botatzen-eta aritzen zen. Eta gero artzain denak, guk ematen genuen behintzat eta gutxi izango ziren ematen ez ziotenak, gazta bana ematen genion. Beste kontu bat da, Arantzazuko fraideak meza ematen zuela eta fraideari, gehienok arkume bana ematen genion udaberrian, "Meza ere ematen dute eta esaten genuen elkarren artean eta! " Hala joaten ginen, arkumea bizkarrean hartuta udaberrian jairen batean Arantzazura eta arkumeak fraideei eman eta fraideek salda ematen ziguten eta gero eguerdian bazkaria, eta atzera Urbiara behetik gora kantuan eginez muturra bero-bero eginda joaten ginen.

Neguan nola moldatzen zineten?

Kandido. Itsasondo, Legorreta eta Ezkio inguru horretan ibiltzen ginen, eta baita etxe inguruan ere.

Karmen. Ezkondu baino lehen Ezkion egoten ginen, gero Itsasora kanbiatu ginen. Negua pasatzeko baserri huts bat errentan hartzen genuen. Lehenago hemen Arregietxen 23-24 urte nituela egoten ginen.

Eta azkeneko urtean, hemen, Arizti Berrin?

Kandido. Horrela, kanpoko etxean-eta ibiltzen aspertu egin ginen, gaizki ez gintuzten tratatzen baina, norbera bere etxean edo bestearenean ibiltzea oso diferentea da. Gero familia ere handitu egin zen eta artegi berria egin genuen etxe ondoan, gaur egun semea berritzen ari da behintzat.

Zuen garaitik hona aldaketa asko ezagutu ditu artzaintzak. Nola ikusten duzue?

Kandido. Askok esaten dute orain artzainak ondo bizi direla eta nik esaten diet "orain ardiak ibiltzen dituk ondo, artzainak lehengo moduan". Orain ardiei, lehen egiten ez zena, etxean pentsua ematen zaie asko, lehenago berak bildutakoarekin ibili behar izaten zuten. Ardiak hor izan du diferentzia. Gaur ere, lehengo aldean, probetxu handia kentzen zaio ardiari. Gu ere, etxean gelditu ginenean, postura horretan ibiltzen ginen, denbora txarra baldin bazegoen larrera batere atera ez eta onarekin pixkat atera eta barruan jana emanez.

Probetxu handiko ardia zer da zuretzat?

Kandido. "Ardi on bat? Litroa ematen duen ardia ondo!. Orain egongo dira gehiago ematen dutenak. Guk semea kapritxoso samarra daukagu, ardiak eta ganadua badauzka, eta froga egiteko kanpotik ekarritako ahari beltz horiekin egin zuen mezkla bat. Nik ezagutu dut etxean, eta guk izan genituen bi litrotik pasatzen ziren ardiak ere. Mezkla horietan, ardiak itsusiak ziren eta inork ez zituen ikusi nahi. Gero berriz, kontu honetan dabiltzan hauek, aurreko jende horrek, agintean daudenek, bertakoa latxa nahi dute, baina probetxua kentzeko kontuan mezklatuta hobexeagoak daude. Niri beti gustatu izan zait zerbait berria ikustea, eta nire semeak ekarri zituen ahariak-eta ondo irten zuten".

"Gaur, lehengo aldean, probetxu handia kentzen zaio ardiari"

Noiz utzi zenuten artzaintza?

Kandido. 1990 arte segitu genuen, bertatik bizitzeko egiteko kontua hor utzi genuen.

Karmen Oiarbideren arbasoek

Andres Asurmendi Arrizabalaga "Sakona"

(1932-07-16)

PAGOETA BASERRIA

"Goiko libertatea ikaragarria izaten zen"

Andres baserri inguruan

Artzain izan zara bizi guztian?

Bai, betitik, mutikoa nintzela ardien ondoan egoten nintzen ni. Aitona "ferrobiario" (trenbideko langile) izan behar zuen behintzat. Aitaamak artzainak izan ziren, Pedro eta Florentina Arrizabalaga, ama zen Pagoetakoa beraz, aita etorri zen kanpotik. Anaiek gogorik ez zuten izango artzaintzarako eta gurasoek niri utzi zidaten horrelako " prenda".

Zenbateko artaldea izan duzu?

Hasieran 106 ardi nituen nik, ordurako ia soldadutzatik etorri eta 27-28 bat urte izango nituen, geroago 150etik 160ra izatera iritsi nintzen.

Egun erretiroa hartuta zaude, baina hala ere ardirik gabe ezin etsi?

92 inguruan edo erretiratu nintzen baina gaur egun ere ardi bakar batzuk baditut etxe inguruan.

Noiz eramaten zenituzten goiko larreetara?egun jakinik bai?

Larri egoten ginen gu gora joateko. Gogoratzen naiz apirilean 27an joandako urtea ere! Orain handik hilabetera edo gehiagora joaten da gora! Urte sasoi horretan hemen janik ez da egoten. San Josetan antzuak (umerik hartu ez duten ardiak) mendira eramaten ziren. Hasieran S. Josetan antzuak bakarrik eramaten ziren gora. Elektra Aizkorri ingurura igotzen genuen. Hortik maiatzera pasatu zen ardiak gora eramateko data eta laster maiatzetik ekainera. Gogoz joaten ginen gora? Bueno! Goiko libertadea ikaragarria izaten zen.

Udan Juan Aldasoro eta biok batera egondakoak zarete goiko txabolan Axarizulotan.

Bai, gero hark Santu Espiritura alde egin zuen. Axarizulotan, batera irtetzen genuen.

"Ehizerako ere afizio pixka bat bagenuen eta ordurako lanetatik libratzea nahi izaten genuen"

Izan ere, artzain bakarrik ez, beste afizio batzuetarako ere aprobetxatzen zenuten goiko egonaldia.

Ehizerako ere afizio pixka bat bagenuen eta ordurako lanetatik libratzea nahi izaten genuen. Ehizean botatzen genituenak gero bertan preparatzen genituen, eta koadrila antzean-edo. Ibiltzen ginenok, (lauren bat lagun edo) elkarrekin jaten genituen.

Arkumeak eta esnea saltzeko nola moldatzen zineten?

Esnea Zegamara etortzen zen esnezaleari saltzen genion eta arkumeak, jeneralean, Beasainen, eta Aristraingo ekonomatora ere saltzen genituen.

Ez zara zu konpuestoa ematearen oso zalea izan?

Proba egin nuen. Ikaragarri ona omen zen arkume gazteei emateko konpuestoa, nire artean pentsatu nuen, nik ere egin behar diat bada proba (Nik ere egin nian, Joanek), besteentzat ona bada niretako ere ez duk txarra izango-eta. Hala ekarri nuen konpuesto hori eta ipini nien arkumeei askan. Denbora pasa eta aska beti era beretsuan ikusten nuen, arkumeak, kentzeko momentua ailegatu zen garaian, mekauen! Amaren esnearekin bakarrik hazi ziren, arkumeek ez baitzuten batere jan. Esan behar da, konpuestoa jaten dutenetik izorratu zirela hemengo gatzagiak (arkumeak esnea gordetzen duen tokia, ondoren, beste inon ez zegoen bilatzerik gatzagi naturalik; zerorrek ez bazenuen, kitto.

Zuen udako bizileku ziren txaboletatik oraingoetara badago alderik, ezta?

Txabolak ez dira haiek, txaletak. Itxura txarra hartzen diot ba nik horri.

¡Gabonak ondo pasa eta Urte Berri On!

INVERSIONES BIDELAN, S.L.

TOLOSA
943 697 416

Pablo Berasategi Asurmendi

(1932-05-15)

Mª Pilar Mujika Imaz

(1936-09-15)

BEUNSAGASTI BASERRIKOAK

Mª Luisa eta Pablo Beunsagasti baserrian

Pablo "Beunsasti", Migel Berasategiren eta Anttoni Asurmendiren semea, 1932an San Isidro egunean Araiako "Los Molinos" etxean jaio zen. Zortzi senide ziren. Zegamara etorri ziren bizi izatera haurrak zirela. Hauetatik lauk, Jose Marik, Pablok, Ixidrok eta Erramunek, artzaintzarekin lotura estua izan dute.

Zegamako Beunsagasti baserriko Maria Pilar Mujika Imazekin ezkondua, lau alaba dituzte. Emaztearen baserriaren izenez ezagutzen da Pablo.

Pablok orain ere artzain segitzen du 180 bat buru ditu bere esku eta Maria Pilar Mujikaren izenean du artaldea.

Artzain noiztik, Pablo?

P. Betitik artzaintza ezagutu eta ogibide izan dut. Gure aita ikazkina omen zen ezkondu zen arte; ezkondu zenean ia ikatza egiteari utzi eta fabrikan hasi omen zen. Baina fabrikako lanak ez zion onik egin, izan ere etxean bazkalduta lanera joan eta ordubete baino lehen atzera dena bota egin behar izaten omen zuen. Bere buruari esan omen zion era horretara ezin zuela jarraitu eta ardiak erosi omen zituen. Horrela, guk beti ezagutu ditugu ardiak etxean, ni jaiotzerako ardiak omen zeuden etxean. Lehenengo beraz, gurasoen ardiekin ibili nintzen artzaintzan eta gero neure artaldearekin.

Uda non pasatzen duzu?

P. Beti Allarteko txabolan, nire ardiak Araiako lurretan dagoen Allarteko txabola inguruko larreetan ibiltzen dira. Hiru anaiak batera ere egon ginen txabola honetan. Aitak, ardiak anaia zaharrenari utzi zizkion, Joxe Mariri, gero ardi banaka batzuk erosiz elkartu ginen beste bi anaiak, denok artaldean parte hartuz.

> "San Ferminetan joan, eta hilabete inguru egiten dut behera etorri gabe"

Neguan non?

P. Neguan, orain, etxe inguruan izaten ditut ardiak baina orain arte, joan den negu arte (2003) negu guztiak Bizkaian pasatu ditut. 13 urterekin hasi nintzen joaten aita zenarekin, eta gero, ezkonduta jarri ginenean ere, martxa berean segitu dugu iazko negurarte. Bizkaian leku asko kanbiatu dugu, Morgan egonda nago, Gorostikan ere bai, Laidan ere bai, eta ia azkenaldeko urte hauetan (ia 20 bat urte edo 25 bat urte) Gamizen ibili gara. Nik azkeneko bi neguak bakarrik egin ditut Zegaman, izan ere, ia ez daukagu edaderik joateko".

Eta Bizkaian bizkaitar bezalaxe?

M. Bai, bai, berdin denean, hitz egiten ere hangoa egiten dugu, hangoekin elkartzen naizenean hango erara hitz egiten dut. Askok esaten didate "zuk hemen gertukoa behar duzu izan"; bizkaitarra naizela pentsatzen dute. Ikusten denez, txiki-txikitatik joanez gero ikasi egiten da.

Nola egiten zenituen joan-etorriak Bizkaira?

P. Azken 20 urteetan ardiak kamioian eraman ditut, ordura arte beti oinez egiten zen bidea. Ni mutikotan ardiekin Bizkaira joaten hasi nintzenean, bide horretan denean, gaur Zegaman dauden kotxeen erdirik ez genuen ikusten joan-etorrian.

Ardia kamioira moldatzen al da?

P. Bai, ardia kamioira ohitu egiten da.

Eta joan-etorriak Allartera?

P. Zegamatik gora, Allartera, berriz oinez egiten dugu. Egun pasa politak egiten ditugu bazkaria eta guzti hartuta ardien aitzakian. Santu Espiritutik gora pistaz joaten gara. Gure ardiak bakarrik ere etorriko lirateke, Apeaderoko kaminotik etortzen gara, Iturbietatik Moanora, Moanotik Mandabidera, lehenagoko Mandabidetik aurrera Santu Espiritura. Santu Espiritun barrera sartu eta Leotaran inguruan pista hartuta etortzen gara hona (Beunsastira).

> "Artzain elektrikoa eta ardiak jezteko kaiola dira artzaintzan sortu diren aurrerapen eta gauza onenak"

Hiru ordu eta erdian edo egiten dugu bidea. Normalean, Allartetik hamarrak edo hamaikak inguruan irtetzen gara eta geuk San Adriango aterpean bazkaltzen dugu eta guk lasai bazkaldu ahal izateko ardiei jaregiten diegu pistan aurrera eta eurak etortzen dira etxeraino. Guk, bazkaldu ondoren, lasai-lasai kotxez segitzen diegu atzetik".

Eta goian egoten al zara?

P. Hilabete inguru egoten naiz goian. San Ferminen bueltan antzutzen ditugu ardiak eta hortxe egiten dut hilabete inguru behera etorri gabe. Gero etxean lana baldin badago, bi egunetik behin edo hirutik behin etortzen naiz behera. Zortzi bat egunean belarretan lana dagoelako edo, gora joan gabe banago ezin etsita jartzen naiz denari utzi eta gora joan behar izaten dut goizen batean buelta bat ematera. Lehen uda guztia egiten genuen guk hemendik mugitu gabe. Garai batean alabak ere egon zirenean hiru ohe edukita gaude, haiek ezkondu zirenetik niretzako lain daukat bakarrik. Ezin utzi gainera, uzteko garaia da ia baina ezin, nire etxean kuidadotan beti badaude menditzar horretara etorrita irristadaren baten mina hartuko ote dudan, baina nik honaxe etorri behar, ezin etsi eta hemendik buelta bat egin eta etxean lana ere gusturago egiten dut. Eta hor baldin banago ere, beti goian daukat burua.

Berrikuntzak eta probatu al dituzu artzaintzan?

P. Intseminazio artifiziala egin nuen bi-hiru urtean Bizkaian geundenean eta oraindik alabekin nenbilela, baina bikoak eta hirukoak jaiotzen hasi ziren eta gehiegitxo zen eta berriro lehengora, era naturalera, bueltatu nintzen.

Artzaintzan beste aurrerapen garrantzitsua "artzain elektrikoa" (Pastor elektrikoa) da, aurrerapen handia da. Tresna hau morroi bat baino gehiago da. Bizkaian ere makina bat urtean erabili dut. Egun osoa artzain egon ordez, goizean joan artaldea dagoen tokira, "mugak" kanbiatu eta iluntze arte libre, orduan umeak egiteko zeudenei begiratu, arkumerik edo jaio zen ikustera joan eta tresna honekin ez zen behar gehiago. Txakurrik onena hau da. Denok erabiltzen dugu ia. Txakurrekin doble belar zapaltzen da zelaiaren bueltan. Aipatu beharreko beste aurrerapena ardiak jezteko kaiola da, niretzat hauek biak dira artzaintzan sartu diren gauza onenak.

Marka egiten al diezu ardiei?

P. "Eskuineko belarrian, atzetik, bi akats (marka). Hori egiten diet arkumeei ia aurrerako uzten direnean, marka hau normalena mozten ditudanean, ilea kentzen diegunean egiten diegu apirilaren erdi inguruan."

Etekinak nondik ateratzen dituzu?

P. Esnea eta arkumeak (urrian hasita) saltzen ditut. Etxerako mamiak eta gaztak ere egiten ditut. Artilea ere erabiltzen dut, Artilearekin galtzak egiten ditut. Orain ere ilobari egin beharrean nago, hor Tolosan izaten diren karnabaletako abarka-galtzak jantzi behar zituela eta zortzi urteko ilobatxoarentzat egin beharrean nago, orain etxean egiten ari naiz. Neuk kardatu, neuk haria egin eta neuk galtzetak egiten ditut.

Bere ogibidea gustuko lekuan atera duela zalantzarik behintzat ez du Pablok.

Niretzako kaleak ez du balio, ni mendian jaio eta mendian hazitakoa naiz, ni mendikoa naiz. Nik kalean ordubete baino nahiago 10 ordu mendian, eta kalean ordubete luzeagoa egiten zait mendian 10 baino!

Juan Aldasoro Zabaleta

(Zegama 1933-05-21)

BUENAVISTA BASERRIA

"Fabrikan nazkatu egin nintzen, kea eta zikina!"

Juan Aldasoro artzain

Nola egin zinen artzain?

Aita Idiazabaldik hona ezkondu zen, baina Idiazabalen ere artzain ibiltzen zen. Hirugarren gizaldia naiz ni nire etxean artzain. Pedro Aldasoro eta Bitori Zabaleta aita-amak artzainak izan ziren eta Manuel Zabaleta eta bere andrea Maria Agirre, nire aiton-amonak ere artzainak izan ziren. Gurasoen ardiekin nik segitu nuen, 140 bat ardirekin.

Fabrikan lanean ere ibilitakoa zara?

Bai, soldadutzatik etorri eta fabrikara eraman ninduten, besteak bezalaxe. Eta fabrikan nazkatu egin nintzen, kea eta zikina. Ez zen dirua, Patrizionean 41 pezeta eguneko ordaintzen zuten eta astoek bezala lan eginda. Gero joan-etorria eta bazkaria ere handik eta nire jornala kitto. Apeaderotik joateko koadrila juntatzen ginen gu garai hartan.

Txabola bat baino gehiagotan egondakoa zara?

Lau txabolatan: Lehendabizi Leotaranen, mutikotan, anaia eta biok aita mina hartuta geneukanean. Gero Axarixulotan, Andres Asurmendi Pagoetakoa eta biok han egon ginen, gero Santu Espiritun, lehendabizi txabola batean eta gero bestean.

Zer eramaten zenuten goiko txabolara?

Ogia, ogia behintzat. Ardoa, urdaiazpikoa, txorizoa -guk egindakoa-, patata. Nahikoa zen hori.

Arkumeak saltzera Ordiziako ferira joateko ohiturarik ba al zenuten ?

Saltzeko ez zait gustatzen niri. Batere saltzen ez baduzu, bueltan ekarri behar dituzu, eta gero denbora askoan egon behar duzu; arkumea gainera, han harriaren gainean hankak lotuta ez da ondo egoten.

Sariren bat ere irabazi izan duzu gaztarekin?

Bai, 37ren artean, niri eman zidaten saria, 1997an, Lizarran, izan zen hori.

Axerizuloeta

D.V. Lunes, 1-Diciembre-1997

PAIS VASCO 7

Juan Aldasoro ganó el concurso de Euskal Herria de queso Idiazabal

Juan Aldasorok utzitako egunkari zatia

Zeuk egiten al zenituen gaztak?

Bai, eta aurretik ama zenak ere bai.

Zerk ematen du diru gehien ?

Arkumea, orain dela 20 urteko prezioan dago, gaztarekin hor nonbait!

Gatzagi naturala erabiliko zenuten?

Nik gatzagi naturala erabiltzen nuen, azken urteetan erosi izan nuen farmazian Santandertik ekartzen zen gatzagi bat, hura ere gatzagi ona zen baina nik ez nuen asmatu harekin, nahiago nuen nik naturala.

Inguru honetan ardiak ibili izan dituzuenok beti trenbidearekin kezkatan ez?

Bai, hemendik aparte izan balitz hobe. Beti kuidadoan, hazienda eta demonio ditugunok ! Zeuk ondo itxita eduki behar. Ondo itxita ustez edukiagatik, badakizu, horiek denbora-pasa egoten dira, eta txulo txiki bat nahikoa izaten dute handik pasatzeko.

"Ordiziko Feria arkumeak saltzeko ez zait gustatzen. Askotan bueltan ekarri behar dituzu"

Badaukazue Andres "Sakona" eta beste batzuek koadrilan elkarrekin bazkaltzeko eta juntatzeko ohiturarik?

Bai, San Adriana jaietan, askotan joan izan gara eta urtean behin, baba txiki beltxa jatera, eta gero gainean mondejua. Iaz, Pilarika eguna uste dut zela, elkartuta baba txikia jan genuena.

Sabino eta Joxepa senar-emazteak.

Sabino Asurmendi

(1939-01-03)

Joxepa Gorostizu-Orkaiztegi

(1937-08-30)

"1964an nik ardiak erosi nituen, Iurreko Aristrainen lan egiten nuen nik ordura arte. Orduan lanik gabe asko gelditu ginen"

Zuk, beste lanbide batzuetan aritua bazara ere, beti ezagutu dituzu ardiak etxean?

S. Anaia zenak (Juliok) 16 urte zeuzkanean gogoratzen naiz bazeuzkala ardiak eta ni ere haren ondoren han ibiltzen nintzen, hotzak akabatzen haietxei begira gustura, hola mukiak dariola. Orduan bezalako gogoa edukiz gero...!

Eta noiztik zure artaldearekin artzain?

S. 1964an nik ardiak erosi nituen, Iurreko Aristrainen lan egiten nuen nik ordura arte. Orduan lanik gabe asko gelditu ginen, eta handik hots egingo zigutela esan zuten baina handik hots egiteko zain ez zegoen egoterik eta inbidi pixka bat ere banuen artzaintzan hasteko. Garai hartan aitonaren izenean zeuden ardiekin Julio zena zegoen eta Oñatiko Araotzen beste 120 ardi erosi genituen eta erdibana egin genituen guztiak. Lehendabiziko urtean ez negu-lekurik eta ez ezer ibili ginen, gero bata bestearen animoan-edo hurrengo udazkenean Urtsuarango Luxiona baserria hartu nuen nik.

Garagartzan dago semea orain etxeko tradizioari segituz, zuek ere inguru hartan egoten zineten?

S. Lehendabiziko uda anaiaren txabolan, Garagartzan, pasatu nuen; gero Sagastitako txabola udazkenean hartu eta udaberrian hara joan nintzen.

Aita-semeek ondo ezagutzen dituzuela hango bazterrak?

S. Bai, leku askotan ibiltzen ziren gure ardiak, errekaz beste aldera pasatuz gero. Udaberrian, Txurrotik hasi eta gauerako Unamuno aldera joaten ziren, jaisteko garaian, Urgorri esaten zaio, Ultzama aldera eta arratsaldean Añarri, Urdalur hor pantano aldean, ibiltzen ziren ardiak. Abuztuan, lehortzen zuenean, erreka zulotan sartzen hasten ziren, hasi Iramendin, gero Atxukoaldain eta hurrengoa Agiñako errekan. Orduan bai ibili eragiten zigutela! Ziordiko mugatik hasi eta Odioko erreka bitarte, Arabako mugan. Normalean gauerako atzera gora etortzen da ardia.

Eta aita eta osabaren artaldeekin, beste ardi batzuk gehituz, semeak segitzen du?

S. Orain semeak duen artaldean gehienak mutur-beltzak eta adardunak dira, Nafarroatik ekarritakoak. Politagoak. Kalitatean ez dago diferentziarik, ona dena ona da adarrak eduki edo ez eduki. Adarretatik ez dute esnerik ematen.

Beharrezko trasteez gain, zer eramaten zenuten orduan goiko txabolara?

J. Oiloak eta txerriak, eta loreak ere bai, 13 koloretako "klabeliñak" eduki genituen; pena ere eman zidaten, txabola konpontzerakoan desagertu ziren.

Zuek egiten zenuten artzaintzatik orain semeak egiten duenera alde handia nabaritzen al duzue?

S. Egiteko era behintzat asko aldatu da. Eginkizunak denak egin beharko dira orain ere, baina orduan bezala ez dira egiten. Orduan ere, gure etxean ardiak jetzi behar ziren garaian jaiki eta jetzi egiten ziren; gaztak ere egin behar izaten ziren orduan eskuz, orain makinan egiten dira. Orduan ez zen esneak hoztekorik izaten, eta gainera, ahal zen agudoena egiten zen gazta, jaisten zenean beroa egoten baitzen esnea, eta hoztuz gero sua piztu eta berotu egin behar izaten zen. Eta berotuko bazen joan eta egur sorta bat ekarri-eta, egurra bizkarrean ekartzen genuelako arrasto galantak izaten genituen bizkarrean. Espabilatzeko izugarri maisu ona zen hori, ez du barkatzen batere. Orduan, iragazkia asunez egiten zen eta asuna fina behar du esnea ongi garbitzeko, ez zakarra. Esnea garbitzeko, aldiko asun berriak ekarri behar izaten ziren. Hori ugari izaten zen gainera!

"Esnea, asunez egindako iragazkiaz garbitzen zen"

Arkumeak saltzeko nola moldatzen zineten?

S. Orduan herriko harakinek denak eramaten zituzten, bertan baitzeuden "mataderoak" (hiltegiak) eta orain berriz zailtasun gehiago daude. Gure kasuan, semea daukat karnizero (harakina) eta berak eramaten ditu gure etxeko arkume eta gazta gehienak.

Gaztandegi berria egina duzue, zertan nabaritu duzu aldaketarik handiena?

S. Nire ustez, gaur egungo aurrerapenetan, batez ere. Lehengoaren aldean, txukuntasuna ekarri du eta lanak ere erraztu egin ditu.

Gaztagintzan zein izan da aldaketa?

J. Gazta egiten baino aldaketa handiagoa bere kontserbazioan eman dela esango nuke. Lehen, gazta, ahal zen tokian edukitzen zen, saiatzen ginen ahal zen leku freskoenean edukitzen baina ahala ere gazta lehortu egiten zen. Gaur egun kamarak daude eta nire ustez, aldaketa gaztaren zainketan gertatu da, gaur egun ondo zainduta daude.

Arkumeak lehen ere Gabonak aurretik izaten al ziren?

S. Gure garaian, arkumeen bolada, San Josetan izaten zen. Baina, poliki-poliki arkumeak jaiotzeko garaia aurreratzen joan da.

Artzain bakarrik ez, galtzak egiten ere makina bat ordu pasatakoa zara?

S. Bai, Kriston galtzagilea nago ni orain ere, artilearekin ez, dendan erositako hariarekin aritzen naiz. Sekula guztian artilearekin egin izan nituen. Haria egiten ere ikasi nuen baina lan asko egin behar izaten zenuen. Maratilari buelta eman-eta, lan txarra da hori. Gainera hanka bakoitzekoari bere forma ematen diet, eta, semeak esaten duen bezala, alde handia dago mendian ibiltzeko.

Serafina Larrea Aldasoro

(1945-09-03)

Jose Mari Oiarbide Olabideren

alarguna 1936-2004

ETXEBERRI GARAKOA

"350-360 ardi genituen eta eskuz jezten genituen guztiak, gainera pikotxean jarrita"

Serafina Larrea biloba loritzekin eta losurekin.

Senar zena eta biok, ezkondu aurretik eta gero ere, beti izan zarete artzain?

Bai, gu beti izan gara artzainak. Aita-amak ere bai, ardiak, behiak, denetik eduki dugu gure baserrian. Ni gure etxeko ardiekin ibiltzen nintzen ezkon aurretik eta Joxe Mari ere bere ardiekin ibiltzen zen; udazkenean, mendian ibiltzen ginen bakoitza bere artaldearekin. Gure familien artean ere bazegoen harremana, izan ere gure aita ere egonda omen zegoen horren aitarekin morroi, eta ez dakit ba, hortik hasi ginen, nik 17 urte nituela elkarrekin, eta 21ekin ezkondu nintzen.

Artalde kozkorra izaten zenuten, gainera, garai hartarako, ezta?

Guk 350-360 ardi genituen eta eskuz jezten genituen guztiak, gainera pikotxean jarrita, ez orain bezala makinetan. Gero artaldean "Bruzelosis" gaitza izan genuen eta gaixo zeudenak kendu bagenituen ere, beti bakarren batek irteten zuen gaitz horrekin eta badakizu, kezkan-kezkan, kendu egin genituen ardi denak, eta artalde berria erosi genuen.

Zuek ere urte askoan joan izan zarete Bizkaira neguan.

Bai, Zamudion eta Lezaman gehien bat. Gero Gamizera ere pasatzen ginen. Beti baserri baten egoten ginen. Nire gizonak bere denbora guztia pasatu du neguan hara joaten. 5 urterekin uste dut etorri zela lehenengo aldiz handik, alpargatak jantzita, hankak minberatuta. Ni nire denbora guztian kamioian ibili naiz Bizkaitik Otzaurteraino, ezkondu baino lehen ere bai. Otzaurtetik Oltzera oinez.

Udak, berriz, beti Oltzen

Gizonaren aita, Agapito, lehendabizi tunelean lanean aritu omen zen. Eta han aspertu omen zen eta ezkontze orduko ardiak erosi omen zituen. Ezkondu eta ardiekin Oltzera joan omen zen, eta guk ez dugu lekurik aldatu, oraingoek kanbiatzen ez badute behintzat, guk elkarrekin Oltzen 37 urte inguru egin ditugu.

Txabolak, zuen garaian, neguan zabalik utzi behar izaten zenituzten?

Orain itxita uzten dira baina lehen denak irekita uzten ziren; gauzak kobazulotan ezkutatzen genituen, leihotarainoko guztiak ezkutatu behar izaten genituen. Jergoiak ere bai, lehen badakizu, kamainak izaten ziren (oinarria oholezkoa, oinarri edota basearen gainean txilarra jergoiaren ordez eta txilarraren gainean koltxoia), eta sokekin eginak izaten ziren jergoiak. Haiek ere denak ezkutatzen genituen, ontzi denak, bestela, hautsi egiten zizkizuten neguan. Aspaldiko urtetan ez baino lehenengoko urtetan desastrea izan zen. Gaztandegietako oholak, eserlekuak, denak ezkutatu behar izaten genituen, bestela su emanda erre egiten zizkizuten. Garai hartan zaldi gainean eramaten genituen gauzak baita oiloak ere aproposeko kaioletan ipinita zaldiaren erdi-erdian. Umeak ere bai zaldi-saskian.

"24 urtean nik taberna eduki dut, lotokia ere bai"

Agapito Oiarbide artzaina, Joxe Mari Oiarbideren aita.

Oltzen artzaintzaz aparteko makina bat lan ere egindakoa zara

Bai, 24 urtean nik taberna eduki dut. Lo tokia ere bai. Nik uda guztia pasatzen nuen jendarte batean, uztaila eta abuztua. Gero, perretxiku bila ibiltzen nintzen. Beno, jendea edukiz gero, goizean goiz jeiki eta joaten nintzen perretxiku bila. Atzera etortzen nintzen bederatziak alderako txabolara lanak egin eta martxa jartzera, gero iluntzean denbora baldin baneukan berriro joaten nintzen, baina ia iluntzean zaila izaten zen. Normalean onddoak biltzen nituen han gibelurdin asko ez da izaten, onddo-lekuak bai.

Orduan, seme-alabak ere Bizkaian joango ziren eskolara?

Bai, 15 egunengatik ez zuen merezi hemen hasterik eta etxeko lanak jartzen zizkien eta azaroa arte ez ziren hasten. Udaberrian maiatzaren erdialdera arte aritzen ziren eskolan. Guk hemen (Aitamarrenen) denbora gutxi egin izan dugu, Bizkaira joateko, hamabosten bat egun egiten genituen bakarrik etxean. Ijitoen moduan, trasteak ekarri handik hemen garbitu eta ipini Bizkaira eramateko, eta atzera kaxetan jarri eta atzera martxa.

Bizkaian, hemen ez bezala, gazta freskoa saltzen omen zen

Bizkaira joaten ginenean, egunekoa freskoa saltzen genuen; eta bestea sekoa. Gazta egiten genuen bakarrik. Arkumeak hazi kiloak hartu arte eta gero saldu ondoren esnea aprobetxatzen genuen. Guk etxetik ere esne asko saltzen genuen. Alkortatik esne bila, eta, gazta bila asko etortzen zitzaizkigun.

Entzun izan dizugu artzainak norbere ardiak ondo ezagutzen dituela, baina baita ardiek bere nagusia ere

Hori horrela da, hots eginda agudo asko etortzen ziren, txistu txiki bat eginda ere agudo etortzen ziren, baita kotxea ikusita ere gure azkeneko ardiok. Gizonak eta nik ere bai, edozeinek, ardiak etortzen zirenean ogi pixka bat botatzen genien.

Bizkaia edo udako mendiko bizimodua nahiago izaten zenuten?

Udakoa nahiago, librexeagoa zen, baina denean, gustura egoten ginen gu.

Joxe Larrea Etxeberri Garakoa baserrian

Joxe Larrea Aldasoro

(1947-04-01)

ETXEBERRI GARAKOA BASERRIKOA

"Artzainok jakin beharra daukagu zeintzuk diren gure ardiak, banan-bana ezagutzen ditugu ardiak, eta denak diferenteak dira"

Noiztik artzain?

Ni, "jaioz geroztik" artzain naiz. Aitaren segida hartu nuen. Hark erabiltzen zuen txabolan segitzen dut gaur egun ere. Nire akuerdon gure aita zena Andraitzen egoten zen lehen. Nire arreba gazteena jaio zenean pasatu omen zen, orain 52 bat urte, Ama Birjinaren Iturriondoan dagoen txabolara, Oñatiko lurretan dago, hango larreko ardiak hartu zituelako txabola eta guzti.

Uda non pasatzen duzu?

Udak betitik goiko txabolan igaro dut, bi bat hilabete bertan geratuz gaztak eginez eta gero joan-etorrian. Udan lan asko egin behar da beheran, guk sail handiak dauzkagu etxe inguruan eta belarra dena fardotan jarri eta ganbarara sartzen lan handia izaten dugu. Pentsua ere ekartzen dugu, beharko ekarri pentsua!. Baina ardiak gustura egoten dira goiko larretara joateko. Ardiak agudo joaten dira udaberrian mendira. Ardiek badakite noiz joan behar duten gora, kalendario eta erloju beharrik ez dute ardiek. Behin apirila ezkero, ardiak bere kasa joan litezke agudo. Ihes eginda ekarrita nago ardiak handik lehen ere.

Noiz igotzen dituzu ardiak?

Orain San Isidro (maiatzaren 15 aldera) inguruan igotzen ditut. Lehen, beranduenez, maiatzaren lehenean. Atzeratzearen arrazoia? Eguraldiak emandako eskarmentua. San Isidrotan lehen elur galanta eginda atzera behera etorrita gaude gu handik. San Isidrotan gaizki ibilita nago hor ere behorra tripaperaino sartuta elurretan eta bidea eta txabola bilatu ezinik.

Gero, behin igota, ardiak han ibiltzen dira, goian. Eguraldi txarrarekin leku batean eta eguraldi onarekin beste leku baten Urbiko ardiekin Artzanburun denak nahasian. Urbiko ardiek eta gureek denek topo egiten dute. Han Amabirjinaren iturritik gora, goian, zelai bat dago eta handik Urbia eta dena ikusten dira, Jexusen ardiak eta gureak eta Ferminenak eta Emilianorenak eta danak han nahasten dira. Orain Zeraingo Aranbururenak ere bai, eta Pedro eta Ixidro Zelaundietakoenak, Etxezarretarenak eta denak etortzen dira horrutza.

Joxe Larrearen txabola Ama Birjinaren iturriaren inguruan

Eta jaitsi?

Urriaren azkenean generalean; Domini Santuko inguru horretan, zer eguraldi den, lehenago ere bai. Pilarikatan elur galantarekin ekarrita nago gerritaraino elurretan sartuta, gaizki ibilita nago.

Negua non?

Negua Zegaman bertan pasatzen dut. Etxe inguruko larreetan eta erabiltzen ditudan ukuilutan moldatzen naiz. Artzain gehienak bezala, etxeko larreetan batzuetan eta errentan hartuta beste batzuetan ibili behar izaten dut. Larreak hemendik Arantzelai, Apeadero eta Gorospe bitartean ditut hartuta. Kanpoko larreak ere erabiltzen ditut: Mendalde eta Dinti aldera ere sartzen naiz baina gauerako beti etxera etortzen naiz.

Eta esan duzu ardiak goian denak nahastuta ibiltzen direla, gero nola dakizu zein den bakoitzarena? Abila izan behar da hori jakiteko, ezta?

Abilidadea ez da hori, artzainok jakin beharra daukagu zeintzuk diren gure ardiak, banan-bana ezagutzen ditugu ardiak, eta denak diferenteak dira. Zuk, nik ez dakidala, nahi dituzun ardiak nire artaldean sartzen badituzu ere, nahi badituzu, hamar mila eta nahi baduzu hogei mila, nik nire ardiak segituan aterako dizkizut.

"Garai bateko artzainek otsoa ezagutu omen zuten baina gu txakurrekin gabiltza gaizki"

Larreen ordainketak nola egiten dituzu?

Gaztekin generalean, niri behintzat gazta eskatzen didate. Probatuta daukate nonbait eta gustatu egiten zaie eta nahiago dute dirua baino gazta ematea. Nik neuk gosalondoan egunero jaten dut gazta, gosalondoan gazta-pusketa jan arte ez zait iruditzen gosaldu dudanik. Ohitura hori daukat.

Ardi-mozteko lanak nola egiten dituzu?

Ardi-mozte lana gehiena ni bakarrik egiten dut eta eskuz mozten ditut behean. Ni nola garaiz igotzen naizen mendira, beti guraizekin mozten ditut. Nik ekainean mozten ditut. Bai ni eta beste artzainen bat bakarrik egongo gara goian ilea mozten dieguna, beste gainontzekoak beheran moztuta joaten dira.

Abere harrapariren bat ezagutu al duzu inguru horretan?

Garai bateko artzainek otsoa ezagutu omen zuten. Entzun bai, baina ezagutu ez. Aldiz, orain, txakurrekin gabiltza okerrago Txakurrak asko ikusten ditugu. Aurten ere, lehengo baten, ardi bat hozka eginda zegoen, herren zegoen ardia, goian akordatu nintzen arditara joan nintzenean; herren eta herren zebilen ardia eta hanketan begiratzen hasi nintzen eta txakurren baten lana zela ohartu nintzen. Oraindik ez dakit zenbat urte diren, urte batzuk badira baina bost ardi han izorratu zitzaizkidan niri Urbian, Arantzazu aldeko artaldeetan ere bai. Txakurraren jabeak pagatuko zituela esan zuten baina batere kobratu gabe. Lehen azariharrapatzailea pagatu egiten genuen baina orain ez da inor etortzen-eta ...

Xanti Katarain Apaolaza

(1952-10-04)

GOIENA BASERRIKOA

"Orain ez daukagu gazta egiterik. Azpiegitura berezia behar da eta horiek jartzeko sei bat miloi pezeta (36.000 €) behar dira eta nik daukadan edadearekin ez noa diru horietan sartzea"

Xanti Katarain Apaolaza txabola aurrean

Nola hasi zinen artzain?

Lehen karnizero (harakin) ibili nintzen eta emakumeak agoantatzen aspertu egin nintzen eta orduan artzain sartu nintzen. 20-25 urte eramango ditut nik artzaintzan.

Zenbateko artaldea duzu eta non ibiltzen dira zuen ardiak?

230 bat buru. Goienan daukagu artegi berria, han pasatzen dute negua ardiek. Pabiloi inguruan geure lurrak dauzkagu eta beste batzuk errentan. Uda berriz Beunden, Arkaun edo Lixibaleku esaten zaion txabolan pasatzen dugu. Txabola guk egindakoa da. Lurra Partzurgokoa da baino txabola geurea da.

Zein marka dute zuen ardiek?

Soingurutzean gorria eta eskubiko belarrian mirabuztana.

Orain arkumeak eta esnea saltzen omen dituzue, baina lehen gazta ere bai.

Lehen garai baten gazta egiten genuen baino orain ez daukagu gazta egiterik, horretarako zigiluak, kamerak-eta behar dira. Azpiegitura horiek jartzeko sei bat miloi pezeta (36.000 €) behar dira eta nik daukadan edadearekin ez noa diru horietan sartzera. Orduan kalean esnea saltzen dugu.

Arkumeek hazten zenbat denbora behar dute?

Arkumeek 20 egun inguru behar dute, 11-12 kilokoek, hortik aurrera mutur txarra, aurpegi txarra jartzen dizute karnizeroek.

Ez daude errazak saltze kontuak orduan?

Lehen ezer gabe, erraz saltzen ziren eta orain paper gehiegi egin behar. Sekretaria bat behar da orain paperetako.

Santi Katarain 2004ko udan

Arkaungo txoko hau jende askok ezagutzen du.

Bai, kinto bazkaria egiteko hemen juntatzen ziren urtero, 9 lagun edo horrela ziren, orain batzuk hil direla eta ez dute egiten. Olasagasti aizkolariarekin ere amistade handia geneukan eta haren bitartez aizkora apusturen bat ere egiten genuen hemen. Aita hil zenean utzi genion egiteari, 1995-96 inguruan. Hemendik aizkolari onenak pasatuta daude: Mindegia, Arrospide eta Olasagasti pasatuta daude. Egun jakinik gabe jai arratsalde batean egiten genuen beti. Guk egurra ekartzen genuen eta gero beraiek preparatu eta elkarrekin bazkaltzen genuen. Mondeju-zopak jatera ere etortzen ziren segurar batzuk.

Arkaunen Lixibalekuan Santi Katarainen txabola. 2004ko udako argazkia

"Arkumeak lehen erraz saltzen ziren eta orain sekretaria bat behar da paperetarako"

Bakarrik ibiltzen al zara artzaintzan?

Esteban anaiak fabrikan lan egiten du baina hemen ere askotan izaten da. Morroia ere eduki nuen, poltsikorako lain, jantzi eta otordu eta loa emanaz. Hiru bat urte edo pasatu zituen hemen.

Gaitz fuerteren bat tokatu al zaizu zure artzain urteetan?

Ardiekin gaitzik ez dut ezagutu. Baino lehen ni akordatzen naiz Segurako Etxeberrin, nik aita nuen hangoa, udan hara joaten nintzen eta behiak nola eramaten genituen errekara, Zegaman papelera zegoen eta hango ur zikina ona zela eta errekan pasatzera hanketako gaitzen kontra. Nik orduan 15 bat urte, edukiko nituen.

Txabolako atean eguzki lorea jarrita daukazu, sinesmen jakinen batengatik?

Lehenagoko tradizio bat da hori. Osabak ekarri zidan Aizkorri alde horretatik eta neu ere ekarrita nago. Lehenago baserrietako ateetan gurutzeak ere jartzen ziren eta hori tradizio bat da sinesmen berezirik ez daukat.

Mendian edo kalean nahiago?

Gora etortzeko gustura. Eta hemen berriz, aspertzen garenean behera joateko ere gustura egoten gara.

Patxi Katarain
2004ko uztailan

Patxi Katarain Apaolaza

(1953-12-31)

TXARATXIPI BASERRIA

"Zintzarriak beti ezberdinak dira udaberrian ardiak mendira eta udazkenean behera eramateko erabiltzen ditudanak. Ardia ere gusturago etortzen da mendira dunbarekin"

Nola egin zara artzain?

Jaiotzetik ezagutu ditut ardiak etxean. Paraje (Beunde ingurua) hauetako zaharrena naiz, adinez ez baino bai, bertara etortzen urte gehien daramana ni nago San Adriango kobazulotik behera. Lehen Inazio Zabalo, "Inazio rubio" bezala ezagutzen dena zen baina aurten (2004) ez da igo.

Poliki-poliki osatutako artalde kozkorra duzu?

Orain 400 bat buru ditut, lehen gehiago eduki nituen. Besteak beste, Mutiloako Juanito Urteaga artzainari, hil zen, 120 bat ardi erosi nizkion duela 20 bat urte, nire artaldeari eransteko, gainerantzekoak, osabaren batzuk erosita eta horrela osatuta. Erosi bakarren batzuk egingo nituen baina gaur egun dauzkadanak, neuk hazitakoak dira.

Non ibili ohi dira zure ardiak?

Hemen Beundetik Aizkorrira bitarte ibiltzen dira normalean, Santu Espiritu inguru horretan ere ibiltzen dira. Lehengo batean ere handik ekarri nituen. Janaria zegoenean ez ziren haraino joaten, baina orain gosea dago (2004ko uztaila) eta horregatik mugitzen dira.

Neguan, duela urte gutxi arte Idiazabalgo Artamalastegi baserrian egon izan naiz, baina erre egin zen. Ardientzako nituen askak, belarra eta dena erre zen. Gero Seguran, Zerainen eta Mutiloan ere ibili naiz.

Orain ere Beundeko txabolan pasatzen duzu uda, baina hemen hasitakoa zarela esan daiteke?

Bai, erre zeneko txabola horretan, bakarbakarrik makina bat urte pasa ditut. Gogoan dut, behin ardiak jezterakoan hiltzea sartu hankan eta bakarrik errenka-errenka hiltzea atera eta ardi jeztera nola joan nintzen. Gero olio errekin igurtzita sendatu zitzaidan! Ez nintzen akabatu behintzat eta (parrez). Gorra izan, zaildutakoa. Belar motzekoa.

Gaur egun artzain askok gabonetarako arkumeak salduak izaten dituzte, zure ardiak beranduago hasten dira ezta?

Bai aurten urtarrila aldera hasiko dira, aharia berandu bota nien eta. Guretzako hobe da arkumeak beranduago jaiotzea, lekuz hobeto ibiltzen garelako. Umea goiz egiten duen ardiak udaberri aldera ez du esnerik izaten eta nik horrela nahiago dut, arkumeekin diru gutxixeago irabazten duzu baino. Aurten beranduago jaitsiko gara, nahiz eta behean jana badagoen, hemen pago-ezkur pixka bat badago eta egonaldia luzatuko dugu.

Artzaintza bakarrik ez, ardiak ere aldatu direla entzun izan dizugu.

Lehenagoko ardiak gogorragoak ziren, lehen ez zitzaien ezer ematen, ez pentsurik eta ez ezer. Orduan arkumeak ere beranduago egiten zituzten eta esne gutxiago ere izaten zuten. Orain, umeak egiten dituztenean barruan edukitzen ditugu arkumeak kendu arte, pentsua emanaz eta baita alpapa eta belar iharra ere.

Zure txabola ez da berrietakoa baino bertan eroso egoteko moduan al dago?

Ura korrientea jarrita daukat. Argia berriz, garai batean motorra eduki nuen argindarra sortzeko baina orain karburoa daukat. Plaka jarriko zuela esan zuen Partzuergoak, baina oraindik ez dute jarri. Frigorifikoa butanoarekin daukat eta telefonoa mugikorra.

Hala ere lapurretara sartu denik ere izan duzu?

Orain dela 5 urte edo, San Bartolometan 150 gazta eraman zizkidaten, leihotik sartu eta atea puskatuta.

Artzaina ez ezik, apostuzalea ere bazara.

Ahari apustuak egiten ibilita gaude linternak hartuta goizeko hiruretan. Ni ahari apustuak eginda nago, eta aharia txakurra bezala (artzain txakurra ongi zainduta egoten da) zaintzen nuen.

"Ahari apustuak egiten ibilita gaude linternak hartuta goizeko hiruretan"

Gazta pixatzen balantza erromatarra erabiliz

Zure ardien zintzarri hotsak fama badute. Zintzarriekiko duzun afizioa nondik nora datorkizu ?

Hori kapritxoz da. Zintzarriak beti diferenteak dira udaberrian ardiak mendira eta udazkenen behera eramateko erabiltzen ditudanak. Ardia ere gusturago etortzen da mendira dunbarekin. Udaberrian dunbak erazterakoan (mendian ez dira dunbarekin ibiltzen uda osoan) ardiak orroika jarriko zaizkizu, eta udazkenen jaisterakoan ere bai, badakitelako joan egin behar dutela (bai gora bai behera). Haiek badakite nora joan behar duten urte sasoi bakoitzean. Artaldean orain 50en bat zintzarri edo behar nituen izan, baino batzuk galdu eta besteak harrapatu, gutxiago daude orain. Dunbak 4 dabiltza hor, eta txikiagoak beste hiru, zazpi bat edo guztira.

Jose Mari Asurmendi Gorostizu-Orkaiztegi

(1963-01-15)

ARRETXEN JAIOA

"Txabolan eguzki plaka izatea izugarrizko aurrerakada da, hori dela eta izozgailua "konjeladorea" eta frigorifikoa bitan egiten duena daukat"

Nola egin zinen artzain?

Amak "gota" izeneko gaixotsun bat harrapatu zuela eta 14 urterekin eskolatik irten eta artzain hasi nintzen. Harrez gero, artzain nabilela esan daiteke, soldadutzako urtea kenduz gero.

Arantzazuko Artzain eskolan ere ibilitakoa zara, lagungarria al da han ikasitakoa.

Beno, beti ikasten da zerbait baino osabarekin eta nire aitarekin ikasi dudana han ez zegoela ikasterik esan behar da, eta han ikasten dena aitarekin eta osabarekin ere ez da ikasten. Gainera esan niretzat "bakazio" (opor) ederrak izan zirela.

Momentu honetan zenbat ardi?

350 ardi ditut.

Zure ardiak non ibiltzen dira?

Neguan hemen, Zegaman. Negu partean gehiena barruan egiten dute, terreno gutxi daukagu eta kanpoan.

Udan berriz, Garagartza, Txurruko punta, Leteindia eta Ultzama 13ko ibilbide horretan ibiltzen dira.

Neguko lana errazago egiteko, arkume jaiotzak-eta, lehen ez bezala orain programatu egiten dituzue, ezta?

Bai, bestela bakar-bakarrik ardi jezte lan denak egin, gaztak egin eta gaztandegia garbitu, goizeko 6etan hasi eta eguerdiko ordu biak arte nahiko tirada da eta gainera, honekin ez da eguna sartzen, arratsaldean ere segi egin behar da. Orduan 300 ardi edo kolpe batean jetzi, denen gazta egin, eta lehen esandako lan guztiak egitea gehiegi denez programatu egin ditut. Urrian 150 bat ardi jarri ditut umeak egiteko, hauek bi edo hiru hilabetean ematen dute produkzio ona, eta hauen produkzioa pixka bat beheratzen hasten denean gainerakoek egin ditzatela umeak, eta era honetara errazago egin dira lanak. Gero esan, "intseminazioa" dela eta, programa horiek egiteagatik subentzioak daudela; intseminazioko ganadua, oso ondo kontrolatutakoa da bai, ama, aita eta izandako umeak eta helburua ganadua hobetzen joatea da. Batzuek esaten dute "Mucha genética en el papel y poca ubre en la cuadra". Ni hori bati entzunda nago.

"Arantzazun aitarekin eta osabarekin ikasi dudana ez da ikasten"

Goian gau eta egun egoteko ohiturarik baduzu?

Bai, orain ia egunero, egun hauetan, aurten ez naiz egon baina goran giro hobea dago abuztutik aurrera; han, Garagartzan udazken giroa badago, freskura, hemen beheran labean sartuta bezalako giroa egoten da, kristoren diferentzia dago.



Joxe Mari Garagartzan

Txabola berria daukazu?

Bai. Eguzki-plaka eta guzti, telefonoa neurea daukat, mugikorra. Txabolan eguzki plaka izatea izugarrizko aurrerakada da, hori dela eta izozgailua "konjeladorea" eta frigorifikoa bitan egiten duena daukat. Lehen erabiltzen nuen martxarako, argindar gutxitxo zen, udaberrian gazta egiten bi urte pasatu nituen eta orduan, bi egun lainapean segidan egonez gero, hura abisatzen hasten zen, (indarrik gabe geratzen zen) baina orain gabiltzan moduan ondo moldatzen naiz, gazta beheran eginda joaten naiz eta.

Joxe Mari gaztandegian gazta egiten

Zure ardiek zein marka daukate?

Bi belarrien atzetik akatsa.

Zintzarri hotsak ezagutzea beharrezkoa omen du artzainak.

Bai, hori betitik, hori ia aitarengandik ikasi dut. Txintxarrien hotsa ezagutzea erraza da eta ia-ia beharrezkoa da, nire ustez, hori belarriko seinaleak edukitzea adina da. Artalde batean bi txintxarri diferente baldin badoaz, korrikan doanean ere, antzeman egiten duzu.



Joxe Mariren ardiak Garagartzan

Jaiotze erregistro markak eta ardi guztiei egiten al diezue?

Hori udazkenean kanpaina pasatzeko garaian egiten dute baino esnearen kontrola edo egonez gero, lehenago. Orduan jaiotakoari belarrian txapa jartzen zaio eta zenbaki batekin eta arkumearen amarena eta berari ipini dioanarena apuntatzen da, eta arra edo emea den jaio dena, bat edo bi egin dituen, zein egunetan egin duen.... "Denominazioan" egoteko ere berdin, datuak apuntatu behar dira. Gazta saldu ezinean baldin bazabiltza asko laguntzen omen du saltzen "Denominazioan" egoteak. Esnearen kontrolean eta intseminazio programan baldin bazaude artaldearen "hobekuntza" hortik etortzen da, baina lan denak egin eta hori dena apuntatzen beste bi ordu pasatzen dituzu !

Eta merezi al du kontrolean egotea?

Beno, hobeto kontrolatuta dago daukazun ganadua, gainera gero datu guztiak dauzkazu, ardi denenak.

Noiz kentzen diezu arkumea?

Jaio eta 20 bat egunera. Iaz, Gabonetarako.

Biki eta hiruki asko izaten al dituzte zure ardiek?

Ez, hirukiak ez, niri ez zait sekula jaio; bi poliki dago baina hiru ez da ona, niri ez zait sekula jaio baina jaio zaienei denak kexatu egiten dira.

Lehiaketara joateko ohiturarik ba al duzu?

Ez zait gustatzen. Zegamako San Martinetan bakarrik eta Udaletxekoek eskatzen didatelako, bestela batere ez.

Artzainak zer zarete, kalekoak edo mendikoak?

Dena pixka bat, mendian gustura egoten gara libertate gehiago daukagu-eta; beheran negu partean lotua da, jai eta aste lan egin behar duzu.

Joxe Mari Garagartzan bertako gora-beherak kontatzen

Joan Asurmendi

Joxe Migel Asurmendi

Joan Asurmendi Aia

(1961-04-08)

Joxe Migel Asurmendi Aia

(1966-09-25)

UZTARAN BASERRIKOAK

"Azken urteotan gazta egiteko ezarri diren neurriak direla eta gazta guztiek zapore bera ateratzen dute"

Noiztik zarete artzain ?

J. Artzaintzan hasi berriak gara, gure aurrekoak ez ziren artzainak izan. Aitak lau edo bost ardi zahar erosi zituen udazkenean ibiltzeko, eta umeak egiteko tokatu ziren ardi horiek eta haietatik hasitako artzainak gara gu. Beti gustatu izan zaigu artzaintza. Orain 240 inguru izango dira artaldean.

Non larreratzen dituzue neguan?

J. M. Neguan etxeko eta inguruko larretan ibiltzen dira ardiak. Geure terreno eta baserritarren bati erositakoetan eta baita errentan hartutakoetan ere. Barruan ematen diegu jan asko ardiei.

Udan non pasatzen duzue?

J. M. Udan aldiz Iramendin ibiltzen da artaldea. Iramendin txabola berria daukagu.

Noiz joaten zarete gora?

J. Maiatzaren 20-25 inguruan gora joaten gara, ibilbidea oinez egiten dugu eta normalean bi ordu eta erdi, hiru gehienera, behar izaten ditugu. Udaberrian ardiak Iramendira joateko pronto egoten dira eta udazkenen etortzeko ere bai, ardiek, pixka bat goitik behera mugituz gero badakite etxera datoztela, berenkasa etortzen dira.

Iramendin lanik izaten al duzue?

J. M. Guk ardiei ilea goian mozten diegu, eta San Ferminak aldera arte jetzi eta gaztak ere egiten ditugu mendian. Iramendin, lehengo eran egiten ditugu gaztaiak.

Gaztagintzan ere sariak irabazita zaudete?

J. Azken urte hauetako txapelketetan ez dugu parte hartzen, baldintzetan oraindik ere ez dugulako gaztandegia baina hainbat sari irabaziak ditugu: Legazpin, Seu d'Urgellen, Elgoibarren e.a. Azken urteotan gazta egiteko ezarri diren neurriak direla eta gazta guztiak zapore bera ateratzen dute.

Ardiak jezteko kaiolarik erabiltzen al duzue?

J. M. Bai, eta kaiola Iramendin ere badaukagu. Gure txabola Partzoneriak egin zuen lehenengoa bada ere oraindik eskortan zoruan hormigoia bota gabe dago eta zoruan masa botata balego, erratza pasatu eta garbi geratuko litzateke eta era honetara beti lokatza izaten da zoruan. Beti hormigoia botako dutela esaten dute joan deneko hiru urte hauetan baina eguraldia txartu egiten zitzaiela eta abar, makina bat egun on izan da harrezkero baino noiz iritsiko den ez dakigu.

Uraren gaia nola daukazue?

Lau-bost urte baldeekin ura ekarriz ibili gara gaztak egiteko, oso lan nekosoa, eta gero Partzoneriak goian depositoa jarri zuen, eta urarekin ederki moldatzen gara; txabolan ura sartzea zeruan egotea bezalakoa izan da.

Hainbat sariren adierazleak.

Azken urteetako aldaketa guztiak aldiz ez dira artzaintzaren aldekoak izan, itxiturak esate baterako, kalte majoa ekarri ziguten txabolatik beherako parajea hesien bidez itxi zutelako. Lehen dena libre zen eta ardiak ura eratera, goitik behera errekara joaten ziren eta atzera etortzen ziren. Orain pinua sartu da, ardiak ibiltzen ziren pasabide horretan eta itxita dago, guretzat kaltea izan da eta gainera ardiek gaizki pasatu zuten urik gabe, izan ere normalean ordu laurdenean ura edatera joaten baziren lehen, orain ia ordubete behar dute.

"Kalte majoa ekarri ziguten txabolatik beherako parajea hesien bidez itxi zutelako"

Noiz izaten duzue arkume bolada?

J. M. Ez dugu intseminazio artifizialik erabiltzen eta arkumeak normalean urtarriletik aurrera hasten dira jaiotzen. Jaiotakoan, dagokien txapaz gain, gure marka ere egiten diegu.

Kontrolean sartuta egonez gero, derrigorrezkoa da arkumea jaiotzen denean arkumeari txapa jartzea, eta amaren numeroa "libro de partos" (erditzeen liburua) horretan apuntatzea. Aurrerako uzten ditugun arkumeei egiten diegun marka zera da; belarri punta motza eskubiko belarrian eta ipurdi gainean pintura gorria. Aurrerako zein arkume utziko dugun erabakitzeko, itxuraz gain, esku artean dabilzkigun datuei ere erreparatu beharra dago.

Nola aukeratzen da zein arkume utzi behar den aurrerako?

J. M. "Libro de partos" (erditzeen liburua) horretan, ama batzuk, ematen duten esnearen arabera batzuk hiru gurutzekoak izaten dira, besteak bikoak, besteak batekoak eta batere gabekoak ere bai; zenbat eta gurutze gehiago amak zeozer gehiago pagatzen digute subentzioa. Batzuetan gertatu ohi da gurutze bakarreko amak itxuraz bi gurutzeko amak baino arkume politagoa edukitzea baina itxuraz itsusiagoa dena utzi beharra dago bi gurutzeko amarena bada, itsusia utzi beharra zaude zeozer kobratu nahi izanez gero.

Gustura egoten al zarete goian?

Gu han egongo ginateke gehiago baino askotan belarretara etorri beharra izaten da.

Joxe Migel ardik zaintzen Iramendi inguruan

Kontxi Larrea

(1948-12-09)

Angel Irastorza

(1942-09-11)

MURGIALDAI BASERRIKOAK

"Ardiak Andraitza igo aurretik, garai bateko Zegamako artzainen lekuetako batean, Itzubiagako eskortan egiten ditugu ardi-sendatzeak eta egunerokoak"

Kontxi Larrea eta Angel Irastorza

Nola hasi zineten ardiekin?

K. Jaiotetxean beti ezagutu ditugu ardiak, lau senideetatik bik artzaintza dute edo izan dute ogibide (Joxe anaiak eta Serafina ahizpak, Joxe Mari Oiarbideren alargunak) Lehen etxe-ardiak genituen, 50en bat, 30 arkume erosi genituen 95ean, eta hortik hasi ginen. Iaz beste 30 erosi genituen pixka bat aldatzeko. Hobeagoak edo arraza hobegoa ekarriko ote genuen.

A. Ni orain dela bi urtetik hona hasi naiz artzain. Ni betitik kamioizalea izan naiz, 38 urte pasatu ditut kamionero, eta orain dela 2 urte utzi nuen eta orduan ardiekin hasi nintzen. Bueno, lehen ere hau (emaztea) ibiltzen zen, denok ibiltzen ginen zapatu eta jaietan, pixka bat denok laguntzen genuen jana ematen eta etxean geundenean beti laguntzen genuen; bestela beti hau ibiltzen zen. Artzaina hau da (Kontxi).

Neguan eta udan non izaten dituzue ardiak?

K. Neguan etxeko eta inguruko larreetan ibiltzen dira ardiak. Udan, berriz, Andraitz aldean ibiltzen dira. Ardiak Andraitza igo aurretik, garai bateko Zegamako artzainen lekuetako batean, Itzubiagako eskortan, egiten ditugu ardi-sendatzeak eta egunerokoak. Andraitza igo aurretik, Itzubiagan geratzen garenean bat edo bi egun eskortaren inguruan edukitzen ditugu eta, errapeak garbitu ondoren orduan igotzen ditugu Andraitza. Antzututa igotzen ditugu baina errapeak garbitu egin behar harik eta ondo sekatu arte, ondo zaindu behar dira ardiak bestela hoztu edo txartu egiten zaie berriro errapea. Baina denak ez ditugu gora eramaten, ardi zaharrak hemen uzteagatik, beti batzuk hemen uzten ditugu.

Murgaildai inguruko zelaietan dabiltza ardiak

Noiz eramaten dituzue gora?

K. Maiatzaren azkenaldetik urriaren hasiera arte han ibiliko dira ardiak Andraitz inguruan. Astean behin edo horrela, jaitsi behar ditugun garaian, egun biz bat edo egunero joaten gara, gero, behin antzutuz gero, astean behin edo horrela joaten gara. Buelta bat egiten dugu.

"Ordiziako Feriko prezioan batzutan ez dago arkumerik saltzerik"

Zein etekin ateratzen diozue?

K. Hau afizio bat da guretzat. Ez dugu gaztandegirik eta ezta egiteko asmorik ere. Etxerako gazta batzuk, froga batzuk, egiten ditugu eta esnea bere horretan eta arkumeak (Gabonetarako) saltzen ditugu. Baino beti ez da erraza konforme egotea eskaintzen dituzten prezioekin, izan diren tratuekin. Badakizu, karnizeroek gutxi nahi izaten dute eta arkumeak saltzeko arazoak izaten dira. Orain badago hemen elkarte bat (Garsabi) etxetik-edo eramaten dituztenak eta horrelako ba-tean sartu beharko dugu. Hori ondo dago, bestela guk ere Ordiziako feriako prezioan saldu ditugu eta batzuetan ez dago saltzerik arkumerik horrela. Lehengo baten zer eta 3 € (500 pezetara) kiloa ailegatu gabe. Horrela salduta ni dirua galtzen ari naiz.

Jetzi nola egiten duzue?

K. Eskuz jezten ditugu baina makina ere badaukagu, baina agudoago egiten dugu eskuz, makina garbitzen denbora asko behar da. Txabolan ez daukagu ur berorik garbitzeko eta eskuz egiten dugu. Bi kaiola dauzkagu eta kaiolatan jezten ditugu.

Etxe-ardi gutxi batzuk ematen duten baino lan gehixeago badute Kontxik eta Angelek. Paperetan Eduardo semearena den artaldea ederki zaintzen dute uda eta negu.

Kontxesi Goiburu

Juan Etxezarreta

Kontxesi Goiburu

Segurako Korralen jaioa 1934an

Juan Etxezarretaren

alarguna. Zegamako Padrenen jaioa.

"Gure umeak ohituta zeuden batera eta bestera ibiltzen izan ere, urtea lau lekutan pasatzen genuen. Negua Bizkaian, uda Urbian, Udazkena Gordoan eta Gabon-jaiak Zegaman pasatzen genituen"

Zuek bizi guztian artzain eta zuen semeak ere tradizioaren jarraitzaile finak?

Guk ez genuen eskolarik ikasi eta umeei erakusteko gogoa izan nuen nik, baina ez da nahikoa, eurek nahi izan behar dute. Ikasteko gogorik ez zuten batere, horiek horretarako (artzaintzarako) balio dute. Guri berriz, bai senarrari eta bai niri ere artzaintza gure arbasoetatik datorkigu.

Bi alaba eta 3 seme dituzu, gehienak Zegaman jaiotakoak

Gazteena da, Bizkaian jaioa, beste guztiak Beasainen (klinikan) jaioak dira, gu Zegaman ginela bai.

Urbiko bizimodua laster ezagutu al zuten?

Laugarrena, Xanti, ekainaren 9an jaio zen. Xanti jaio zenean, gizona ardiekin goian zegoen eta hogei bat egun edo zituela jaio berriak, jarri gizonak Zegaman neu zaldi gainean eta umea magalean nuela, mendira joan nintzen.

Nola moldatzen ziren seme-alabak halako joan-etorrietara?

"Hobeto bizi da gaur artzaina, baina bestetik, gaur ere nahiko lana dago izan ere gastu handietan sartu behar da gaur aurrera irtengo dena"

Gure umeak ohituta zeuden batera eta bestera ibiltzen izan ere, urtea lau lekutan pasatzen genuen. Negua Bizkaian, gero uda Urbian, gero Udazkenean Gordoara, Arabara, bajatzen ginen. Gabon-jaiak Zegaman pasatzen genituen eta umeak ilusioarekin egoten ziren Zegamara joateko eta Bizkaira joateko ere bai. Umeak horrela ohituta zeuden eta gustura egoten ziren batetik bestera joateko. Ene! Zegamara joan behar genuenean-eta ez zegoen agoanta ere egiterik, txikizio baten jartzen ziren.

Kontxesi Goiburu eta Juanito Etxezarreta Urbiako txabolan gazta egiten

Urbian denbora asko egiten al zenuten?

Urbia denbora gutxiko mendia da eta orduan eguraldi txarrak jotakoan, Arabako mendietara sartzen ziren ardiak, ardiek Araba aldera jotzen zuten asko eta Arabako mendietan sartzeko han "vecindadea" hartu zuen nire gizon zenak Urbiatik Zegamara etortzeko ez zen orain bezalako erreztasunik.

Noiz hasi zineten Bizkaia aldera joaten?

38ko neguan Bizkaira joan ginen, Barrikako, Gane baserrian, egoten ginen eta 63ko negua Gatikan pasatu genuen.

Oraingo artzainek bizimodu errazagoa dutela uste al duzu?

Alde batetik, hobeto bizi da gaur artzaina, baina bestetik, gaur ere nahiko lana dago izan ere gastu handietan sartu behar da gaur aurrera irtengo dena. Horiei buelta ematea burukomin handia da.

Laskaolatzan adierazgarriak diren txabolatako batzuek

Mikel Etxezarreta Goiburu

(1963 -09-11)

Eli Arrillaga

"Lehengo artzainak zeukaten lasaitasuna guk ez daukagu. Guk makinak, eta aurrerapen guztiak dauzkagu eta estresatuta bizi gara erabat"

Elisabete, Mikel eta alaba Amaia, Urbian

Toki askotan bizitzea tokatu zaizue, nongotzat jotzen duzu zeure burua?

M. Ni, jaiotzez, Zegamakoa naiz. Gero, transhumanteak izan gara beti eta Gordoan egoten ginenean eskolara Aguraina joaten ginen, eta Bizkaian ere eskolan ibilita gaude, Barrikan.

Gurasoek eta haien aurrekoek egiten zuten artzaintza eta zuek egiten duzuenaren artean alde handia?

M. Bizimodu denak agintzen duten bezala beti egokituz eta behartuz, behartuta. gure lanbidea ahal den etekinik onena ateratzeko modu bat bezala ikusita. Eta, beno, aurreak erakusten digun bezala, ia erabat behartuta sartzen dira berrikuntzak. Bai mendiko hobekuntzetan, bai hemengo instalazioetan, maneju eta prozesu guztietan. Adibidez, ba gaztekin ikusten genuen ez genuela beste aukerarik gaztandegia egin eta etiketaren bidez komertzializatzea baino. Gaur artzainak burokrazi handia dauka bete beharra, papeleo-asuntoa, bilerak...

Berrikuntzetan sartuta al zaudete?

M. Gaur egungo berrikuntzetan sartuta gaude, intseminazio artifiziala delakoan ere sartuta gaude. Beharko sartu, gai honetan ere oso behartuta sartu gara. Ez genuen gehiegi sinesten eta urte batzuetan kanpon egon gara kanpaina horietatik baina sartu egin gara berriro. Azken batean, dirulaguntzengatik presio bat dagoelako sartu gara, edozer dirulaguntza mota jasotzeko horrelako programatan sartuta egon behar duzu. Artzain profesionala, intseminazioan sartuta dagoena bakarrik kontsideratzen dute, eta gu zertaz bizi gara bada? Zeinek esaten du gu ez garela profesionalak? Ikuilu bat egiteko ere, dirulaguntzei dagokionean, intseminatu edo ez intseminatu laguntza desberdinak dituzu. Hori ez da normala.

Mikel, arkumearen jaiotza atenditzen

"Berrikuntzetan sartuta gaude, intseminazio artifiziala delakoan ere sartuta gaude"

Lehengo artalde eta bizimodua eta oraingoaren artean ba al dago diferentziarik?

M. Alimentazio edo ardien janaria eta ardiaren jenetika ere hobe-tzen saiatu gara beti. Ardiak ia ez dira gure lankideak bakarrik, ardiez gain asko zaitu beharra daukagu ematen duten produzioa. Lehen ez zen hori horrela, lehen ez zitzaien ematen ardiei ezer eta dena hartu egiten zen. Generoarekin askoz hobeto baliatzen ziren. Eta lasaitasuna, haiek zeukaten lasaitasuna guz ez daukagu. Guk makinak, eta aurrerapen guztiak dauzkagu eta estresatuta bizi gara erabat. Beraz erosotasun handiak ditugu eta gu mendian ohitutako artzainok behintzat mendiagatik ez balitz!!! Nik ez dakit etsiko ote nioken behetik (mendira igo gabe) manejatzen den artalde batekin.

Urbiako egonaldia beraz ez duzue uztekotan.

M. Hori betidanik ezagutu dugu eta hori obligazio bat bezala da, fetxak ailegatzen direnean, bai ardiak bai denok joateko desiatzen egoten gara. Dena eraman behar da eta han eskuz jatsi behar dira ardiak, hasieran kriston palizea baina gero ia ondo.

Zenbatean etortzen zarete behera udan?

E. Ahal den gutxiena etortzen gara, normalean astean bidai batekin moldatzen gara, batzutan bi izaten dira. Umeengatik edo batzutan aste erdian bajatzen gara.

Artzaintzan nola moldatzen da emakumea?

E. Nik borroka bat daukat gai horrekin. 25 urterekin alargun geratu nintzenean, artzaintzatik bizi nahi nuen eta garai hartan hori nobedade bat zen. Elkarrizketak ere egin zizkidaten aldizkarietan Dunia... Hasieran ez horrenbeste baina gero nahiko onartua izan nintzela uste dut. Alde horretatik gustora nago, inon ez dut defenditu beharrik izan artzaina nintzala eta artaldea nuela. Baina ia ezkondu nintzenean desagertu egiten naiz. Titulartasuna eta kotitulartasun kontu hori. Nik ez dut esaten nire izena jarri behar denik bakarrik baino biona bai, denok egiten dugu lan hemen, hau famili esplotazio bat da.

Mikel eta Eli gaztagintzan Olaberriko gaztandegian

Ttonttorrean "Ttonttor" Mikelen eta Eliren Txabola. Beheran Kontxesi amarena izandakoa

Mikel eta Eli artaldearekin

Etxezarreta Lasa sendia Urbiako txabolan

Santi Etxezarreta Goiburu

(1962-06-09)

Idoia Lasa

"Betitik izan naiz artzain eta beti garbi neukan artzain izaten jarraituko nuela"

Noiztik zara artzain?

S. Betitik izan naiz artzain eta beti garbi neukan artzain izaten jarraituko nuela. Amak ez zuen nahi inor artzain etxean, aitak bai ordea eta erroa bera da. Horregatik irten ginen denok artzain.

Orain bi anaiak zaudete Urbian baino Felix ere artzaina da.

S. Lehen 3 anaiak Urbian egon ginen. Orain 19 urte arte hirurok elkarrekin aritzen ginen. Felix ezkondu arte, gero ardiak banatu genituen, baina guk, Mikel eta biok, elkarrekin segitzen genuen gurasoekin. Partea eginda baina elkarrekin Mikel ezkondu arte. Gero beste urte batzuetan, gurasoak nirekin ibili ziren eta orain bakoitzak berea.

Artegia zein azpiegiturekin duzu ?

S. Ardiak jeztea erabat automatizatuta daukat, horretaz gain, gaztandegia ahalik eta erreztasun handienekin egokituta daukat lanean aritzeko. Hala ere, egunean eguneko lanak egin ahal izateko aurrerapen guztiak behar dira. 500 bat ardi gobernatzea lagun bakarrak egin badezake ere, hortik aparte, gazta egin behar da, gaztak saldu, bileretara joan etab.

Ardiei txipa jarri al diezu?

S. Bai, belarrietan jartzen zaizkien trokalak, ardi askok galdu egiten dituzte. Txipa berriz, identifikatzeko beste modu bat da, izan ere ardiei tripa barruan sartzen zaie eta gero esne kontrolak egiten dituztenean, bakoitzari belarrian begira ibili gabe (zenbakia irakurtzeko) lektorearekin txipa irakurriz identifikatzen dute ardia. Oraindik artzain bakoitzak ez dugu "lektorea" baina proiektuan dago.

Identifikazio lana erreztea bakarrik al du helburu txipak?

S. Gaur egun, esne kontrolak egiten dituztenei erreztu die lana. Helburua, ardiei jana eman behar diezun garaian, artzainak ardiak jezteko makinan sartu aurretik baldin badaki animalia bakoitzak zenbat kantitate jan behar duen ematen duen esnearen arabera, pentsua banatzeko makinak ardi bakoitzari dagokion errazioa ematea da. Formula hau behietan dagoeneko jarrita dago baino ardietan ez dago ondo aztertuta.

Santi ardiak mendira eramanez

"Egunean eguneko lanak egin ahal izateko aurrerapen guztiak behar dira"

Arkumea errentagarria al da?

S. Etekin gehien uzten duena momentu honetan gazta da, baina gaztak lan asko du, produkzioa, erosleak bilatu... eta gainera inbertsio handiak eskatzen ditu. Lan honetan eskulana ez duzu kontatzen.

Arkumea berriz, momentu honetan produkzioari begiratuta ez da errentagarria, ez amaren esnearekin eta ezta esne artifizialarekin ere, oso garesti irtetzen da arkumea haztea. Arkumeak edaten duen esnearekin gazta egiten baduzu, errentagarriagoa da, arkumeak duen prezio bajuagatik gertatzen da hau. Produktu hau bezala, promozionatu egin beharko luketela iruditzen zait, Tolosako babarrunekin edo Ibarrako piparrakin egin den bezala, errezetak eta kontsumoa gehiago potentziatu behar da.

Zer deritzozu Ordiziako feriari buruz?

S. Arkumeak Ordiziara eramatea saltzera, egin litekeen kalterik handiena da. Ordizian 200 bat arkume salduko dira astean eta gehienak artzainak ez direnenak dira. Horiek goizeko 6:00etan joaten dira, 8etan lanean sartzen direlako eta ahal duten prezioan saltzen dute, arkumeekin etxera ez bueltatzeagatik. Ordiziako feria izaten zen arkumeen prezioa markatzen zuena eta hori oso tristea zen.

Nola saltzen dituzue bada gaur egun arkumeak?

I. Etxetik saltzen ditugu, enkantearen bidez negoziatutako salmenta sistema baten bidez.

Artzaintzatik bizitzeko artzain ona eta artalde ona izatea nahiko al da?

Saltzaile ona izatea ere beharrezkoa da.

Urbian, gurasoen txabola aurrean

Felix Etxezarreta Goiburu

(1959-03-05)

"Esnearen kontrola eta estabulazioaren aldetik ere asmatu dute baina gauza guzti hauek, pikutara joan daitezke produktu onak benetan balio duen prezioa ez baldin badu lortzen"

Felix bere artaldearekin

Noiztik artzain?

Betidanik. Gure etxean txikitatik egon dira ardiak eta aiton-amonak ere artzainak izan ziren.

Gustokoa al da ofizio hau?

Gustatu bai, baina, esklaboa eta sufritua da, nahiz eta jende askok hori ez baloratu.

Zenbateko artaldea behar da gaur egun egoki xamar bizitzeko?

Laurehun ardi behar dira gaur egun gutxi gorabehera, egoki xamar bizitzeko.

"Laurehun ardi behar dira gaur egun gutxi gorabehera, egoki xamar bizitzeko"

Non jarri behar du laguntza administrazioak artzaintza bultzatzeko? Zertan asmatu du eta zertan ez?

Gaur egun, artzain munduan sartu nahi duten gazteei, erraztasun gehiago eskaini behar zaie eta hainbeste traba jarriko ez baliete hobeto. Asmatu dituzten laguntzak: ardiei esnea ateratzeko sistema mekaniko hobeagoak jarri dituzte. Sistema mekaniko horiei esker, esnea garbiagoa ateratzen da. Gehienbat esnearen kontrola eta estabulazioaren aldetik ere asmatu dute baina gauza guzti hauek, pikutara joan daitezke produktu onak benetan balio duen prezioa ez baldin badu lortzen.

Artzainen izakera eta pentsaera asko aldatu al da zure gurasoengandik zuregana? Zertan batez ere?

Bai. Lehen dena eskas egiten zen, beste animali batzuk erabili behar zituzten beste lan batzuk errazteko. Lehen ez zeuden orain dauden aurrerapenak. Makinaria askoz hobeagoa dago orain, errepideak guztiz aldatuta daude...

Lehen ez zeukatenez neguan lekurik ardiak edukitzeko, herri batetik bestera eramaten zituzten. Jana gehiago eta elur gutxi egiten zuen herrietara eramanez. Gaur egun berriz, ukuilu handiak daude eta arazorik gabe pasa dezakete negua bertan.

Felix ardiei pentsua ematen

Non erabiltzen duzu artaldea urtean zehar, udan eta neguan?

Udan, Entzia mendian egoten dira eta neguan berriz, Gordoa izeneko Arabako herri batean.

Zein da gazta on bat egiteko sekretua?

Ez dago sekreturik, baina, gehien kontuan hartzen diren gauzak; esne ona eta gatzagi naturalaren bidez egitea.

Klimak eta ardiak jaten duenak ba al du eragin zuzenik gaztarengan?

Bai, mendian jaten duten janariarekin eta ukuiluan ematen diegun janariarekin esne ezberdina ateratzen da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Oso beltza. Gaur egun exijentzia asko daudelako; bai sanitate aldetik eta baita ingurugiroaren aldetik.

Begoña ardiekin artzain

Begoña Etxezarreta Oiarbide

(1944-11-21)

Jesus Telleria

(1937-06-04)

"Garai hartako artzainen alabek mutilen pare aritu behar izaten genuen"

Non jaio zinen?

B. Segurako Madalena baserrian jaio nintzen, lehen Artzaienea eta Txangoenea bezala ere ezagutzen zen baserri hau.

Noztik ezagutu dituzu ardiak?

B. Nik ardiak etxean betitik ezagutu ditut. Nire gurasoak eta aiton-amonak artzainak ziren bi aldetatik.

Zenbateko artaldeak ziren zure gurasoen garaian?

B. Garai hartan 100 ardiko artaldea, artalde handitzat jotzen zen, gaur egun 400 bateko artaldea izatea bezala.

Negua pasatzeko eta gaur hainbesteko prestaketak egiten al ziren garai hartan?

B. Ez, orduan mixeri handia zegoen, ezin handia. Azpiak egiteko ez zen lastorik izaten eta garoa ekartzen zen menditik. Belarrik ere ez zen ia izaten, eta belarretak ere gutxi egiten ziren, pentsua zer esanik ez. Ezagutu ditut elurte bat baino gehiago ardiei ezer ematekorik gabe.

Baserria eta terrenoak zeuzkanak akaso zeozer izango zuen, baino gu bezala kale-etxean bizi eta artzainak ginenok ezer gutxi, terreno guztiak errentan baikenituen.

Non saltzen zenituzten arkumeak?

B. Gure aita zenak bi edo hiru karnizero fijo zituen eta haiei saltzen zien. Oraindik gogoan dut, tratoa errealetan egiten zela. Arkumeak, Segurako alhondigan hiltzen ziren.

Bizkaiara joaten al zineten neguan?

B. Bai, Bizkaiarako bidaiak oso gogorrak izaten ziren hiruzpalau egunekoak. Neguko bidaia motelagoa izaten zen ardiak ernai egoten zirelako eta ondorioz polikiago eramaten genituen umerik bota ez zezaten. Udaberrian berriz, umerik hartu gabe egoten ziren eta bidaia arinago egiten genuen.

Bizkaiarako bidean, otorduak eta loak nola moldatzen zenituzten?

B. Beti leku fijoetan geratzen ginen otorduak eta lo egiteko. Lo egiten genuen baserrietan, ardiak jetzi eta gazta egiten genuen eta bertan uzten genituen ordainsari modura.

Emakumea eta mutilen artean lanen bereizketarik izaten al zen?

B. Garai hartako artzainen alabek mutilen pare aritu behar izaten genuen. Ardiak jetzi, gazta egin, jaiotzak atenditu e.a.

Ile mozketa?

B. Neskek, ardiei hankak lotu eta tripapeak mozten genizkien eta mutilek gainerako guztia mozten zien.

"Nire gurasoen garaian, 100 ardiko artaldea, artalde handitzat jotzen zen"

Begoña Etxezarreta Arbelar inguruan

Ardiak ala "kabaileria", zein duzu gustukoena?

B. Biak gustatzen zaizkit baina bereziki "kabaileria". Ogia eman ohi nion "kabaileriari" nahiz eta ez jakin zeinenak ziren.

Aldaketa handia nabarmendu al duzu artzaintzan?

B. Bizimodu guztiak aldatu dira, baina uste dut artzainen bizi egoera izan dela aldaketa handienetakoa jasan duena.

Gure gurasoek ez zuten "kabaileriarik" erabili, astoak baizik, eta gaur egun "kabaileritik" pasa eta mendiko kotxeak dituzte artzainek. Artzain txabolak argindarra eta ura dute eta gure garaian, marmita hartuta joan behar izaten genuen ur bila. Marmita, makila batean sartuta eramaten zen bizkarrean eta urak balantzarik egin ez zezan hosto-adarrak sartzen zitzaizkion.

Erropak garbitzera nora joaten zineten?

B. Arbelarren geundenean gure ama Belarriturri izeneko iturrira joaten zen, han putzua egoten zen eta goizean goiz joaten ginen "kabaileria" iritsi aurretik putzua zaintzera. "Kabaileriak", muki eta hankekin ura zikintzen bazuten ezin izaten zen erroparik garbitu eta ordu pare bat edo egiten genituen ama etorri arte putzua garbi zaintzen.

Baratzerik izaten al zenuten?

B. Bai, patata pixka bat, porruak, azak...

Ogirik izaten al zenuten mendian?

B. Ogia amak egiten zuen. Laberik ez genien ogia erretzeko eta hormigoizko zoru batean sua egiten zuen. Brasa egindakoan, marmita zahar bat sartzen zuen brasa artean eta marmitaren barnean ogia sartzen zuen, gainetik tapa zahar bat jarri eta taparen gainean ere brasa jartzen zuen, era horretara ogia bi aldetatik erre zedin.

Oltzetik eskola joaten al zineten?

B. Bai, dozena erdi bat edo joaten ginen Arantzazura. Aita Lasak ematen zigun eskola. Hasieran otarteko edo bokadiloa eramaten genuen bazkaltzeko bana ez zitzaigun ondo asentatzen eta azkenean aitak Sindikara indoabak eramaten zituen guri bazkaria emateko. Sindikakoak artzainen seme-alabekin oso ondo portatu ziren, nik ez dut esaten gainerakoak gaizki portatzen zirenik, baina Sindikakoekin oroimen ona daukat. Egunero indoabak jan ez genitzan, porru-patatak, arroza etabar. ematen ziguten, janaria aldatzen ziguten. Beranduago, Gobernuak edo esnea eta gazta txikiak ematen hasi zen haurrei eta hau Milikuan ematen ziguten.

Ardiak gaur egun ere badituzu.

B. Bai, gustatzen zaidalako alde batetik eta bestetik jubilatzeko urte batzuk kotizatu beharrean nengoela eta "Agraria" ordaintzea erabaki nuen, Ormazabalgo baserria, zenbait terreno mutur eta ardi hauei esker, aukera hori daukat.

Jose Luis Uribetxeberria Zabaleta

(1948-05-03)

GABIRIAKO IRAZOLA BASERRIA, egun Zegaman dago erroldatua

"Urbiara 1975ean hasi nintzen joaten eta urtero joaten naiz, aurten beraz 30 urte egin ditut gora joaten"

Jose Luis Uribetxeberria

Noiztik artzain?

Ardiak beti ezagutu ditut etxean. Soldadutzara joan artean artzain ibili nintzen "attajaunarekin" (aitonarekin) hau Degurixan egoten zen artzain. 23 urterekin erosi nuen nire artaldea.

Nolatan zaude Zegaman erroldatuta?

Partzoneriko artzainekin amistadea neukalako.

Beti eraman al dituzu ardiak udan Urbiara?

Urbiara joan aurretik Kataberan lau urte egin nituen Tomas Etxeberriaren txabolan. Urbiara 1975ean hasi nintzen joaten eta urtero joaten naiz, aurten beraz 30 urte egin ditut gora joaten.

Zein txabolatan egoten zara?

Nik "Otatza txabola" esaten diot, Otatzakoak egindakoa delako eta bertan 40 bat urte egin zituen txabola honetan. Beste batzuk "Inazio txabola" ere esaten diote, nik hartu aurretik Zeraingo Inazio Zabalo egon zelako hemen.

Jose Luisen Urbiako txabola

Noiz eramaten dituzu ardiak gora?

Nik ardiak antzututakoan eramaten ditut gora, aurten San Juanetan eraman ditut eta behera azaroaren 11 inguruan joaten naiz. Eguraldiaren arabera, urteren batean azaroaren 25 aldera ere jetxita nago.

Negua non pasatzen duzu?

Negua jaiotetxean pasatzen dut, Gabiriko Irazola baserrian. Eta ardiak, Gabiria, Zumarraga eta Legazpi artean erabiltzen ditut. Hasieran, Mutrikun pasatzen nituen neguak sei-zortzi bat negu, Mutrikun ikuilua eta terrenoak (lursailak) errentan hartuta, baino orain ez naiz joaten. Baserrian badago ikuilua eta Legazpin ere Goiti baserriko artegia erabiliz moldatzen naiz.

Non saltzen dituzu arkumeak?

Hilbeltzean hasten dira gure arkumeak jaiotzen eta Ordiziko feriaz gain "karnizeroiei" (harakinei) saltzen diet, eta esnea berriz, Araiara saltzen dut.

Gorka Legorburu Zabaleta

(1977-07-16)

EGUZKITZE BASERRIKOA

"Epe laburrean artzaintzari heltzeko asmoa dut"

Gorka Legorburu

Zegamako Eguzkitze baserrikoa, 1977ko Uztailaren 16an jaio zen.

Gaur egun ama eta lau senideak Idiazabalgo Zelandietan bizi dira.

Noiztik zara zu artzain?

Aita eta osaba ibiltzen ziren lehen eta biak hil ziren. Orain 8 urte hartu nituen nik ardiak.

Orduan 450 bat ardi zeuden. Gutxitzen joan naiz, eta momentuan, 200 bat buru daude.

Gorkaren txabola

Fabrikan ere urte mordoxka aritu zara?

Bai, orain dela bi urte arte fabrikan lanean aritu eta orain fabrika utzi eta gero eta gehiago ardiekin aurrera egiteko asmoa daukat.

Urbira udan joateko ohitura baduzu?

Udan, Urbiako Erdiko saroia erabiltzen dut, aitarekin eta osabarekin ere han egoten ginen, umetan. Orain arte ez naiz han asko egon baina datorren udan bertan gelditzeko asmoa daukat. Ardiak hango larreetara eginak daude.

Neguan nola moldatzen zara?

Neguan Zelandietan edukitzen ditut ardiak. Artegi berria egina dut. Eta larreak, berriz,

Idiazabalgo herriko lurretan, eta Ataun eta Zaldibin ere ibiltzen dira ardiak.

Aurrera begira zein asmo duzu?

Orain arte arkumeak eta esnea saldu ditut. Epe laburrean, gaztak egiteko behar diren tramiteak egin eta lanbide berriari heltzeko asmoa dut.

Fermin Arrieta Otaegi

(1933-09-03)

Lorentxa Etxezarreta Oiarbide

(1943-09-12)

Domingo Arrieta Etxezarreta

"Artzaintza bokazioa da guretzat, guk txiki-txikitatik izan dugu bokazioa ardietarako"

Lorentxa eta Fermin Lanbitan

Zuek biok betitik artzain izan al zarete?

F. Aita artzaina izan zen eta aitona ere bai. Joxepa ama ez zen artzaina. 15. alaba zen eta denera 17 ziren. Batzuk Ameriketara joan ziren eta kartaz hasieran komunikatzen ziren baino gero galdu egin zen. Gure etxean aspalditik dator artzaintza, ardi hauek gure aitonak erositakoak omen ziren orain 130 urte gutxi gora behera. Aitonaren aurreko konturik ez dakigu.

L. Gure amak, Anttonik, aita zuen artzaina, baina ez jaiotzetik, gero hasitakoa gure aitona zena izango zen. Segurako Azpaotza baserrikoa zen gure aitona zena. Gu denok, hemen, Oltzen eta Urbian hazitakoak gara.

Zer da artzaintza zuentzat?

F. Artzaintza bokazioa da guretzat, bakoitzak bere bokazioa izaten dugu, eta nik txiki-txikitatik izan dut bokazioa arditarako. Ardiak oso maite ditut eta honek ere berdin (Ferminek) eta semeak zer esanik ez. Jainkoari eskerrak, arditarako begi ona izan dugu, gainera eurei (ardiei) antza emateko gaitasuna izan dugu, Jainkoak ematen du nonbait-edo... balio izatea da dena. Belarri edo entzumen ona, ardien txintxarriak ezagutzeko, ardia herren baldin badago, sendatu etab. Ba, artzain-artzaina denak, kanpokoak ez, norberak akordatu behar du, artaldean zein gaitz, zein arazo dauden, sarna (hazteria) edo ezer daukan; nik esaten dut, ardiekin dabilenak norberak antzeman behar duela.

"Ama, 15garren alaba zen eta guztira 17 seniden ziren"

Zuek ardienganako maitasuna transmititzen ere asmatu duzue.

L. Guk bi seme dauzkagu eta gure batek, Angelek, lagundu bai baina, "kariño" hura ardientzako sekula ez du izan. Ardirik saltzerik eta kentzerik ez zuen nahi izaten. Domingok ordea, orain guk artzain daukagun semeak, hark berak behar duena baino gehiago, berak jango duena baino gehiago ardiei emango lieke, oso ganadu-maitea da. Baina hori berez datorren gauza bat da.

Artalde kozkorra duzue

L. 600 buru inguru.

Eta bere izen eta guzti denak ondo ezagutu, gainera?

F. Izenak denak. Nik ez -dio Ferminek- baina hauek, amasemeek, izenak denei dauzkate jarrita

L. Bai, gu, ni eta semea dena entenditzen gara. Izen denak diferenteak dira, bestela ez dago jakiterik. Arkume bikiak egiten dituztenean, geuk jartzen dizkiegu txapak eta numeroa eta "mataderikoak" ere bai; orain txaparekin doaz denak, koadernoan apuntatzen ditugu bikiak zeinek egiten dituen eta haren ama zein den. Zuk numeroa jarriagatik, ama ez badakizu zein den, ezin dezakezu arkume denak pasatzen aritu zer numero daukan jakiteko. Bikiak eta hirukiak beren amarengana juntatzen ditugu.

Hirukiak ere izaten dituzue, orduan?

F. L. Hirukiak 12 joan zen urtean, baina ez da ona. Ardiak asko hondatzen dira eta gero arkumeak txikiagoak jaiotzen dira eta arkume bikiak ere ez dira "zeak onak " izaten. Hasieran gainera sokarekin lotu egiten zaizkio, ardiari joan ez dakizkion; izan ere arkume bat hemen baldin badago eta bestea han amak ez ditu ezagutzen eta azkenean galdu egiten zaizkio, eta esnea emateari utzi egiten die, gaitzetsi (ardi amak maite ez dituen arkumeak) bihurtuz. Sokarekin lotuta baldin badauzkazu, normalean egun batez edukitzen dira lotuta, arkumeek bere amaren hotsa aditu egiten dute ama zein den ikasi egiten dute, eta eurak hurbiltzen zaizkio amari. Bikiak egindako ardia, arkumeak lotu gabe uzten baduzu, momentuan miaztuko ditu, baina arkumeek "tarra-tarra" korritu egiten dute eta ama arkume bakarrarekin gelditzen da, bestea ahaztu egiten zaio. Hiru arkumekin lagundu egin behar. Oso txarra da hiru. Ardiek nagusia ezagutzen dute, nagusia noiz ikuilura doan, eta noiz jana eman behar dien-eta, dena jakiten dute ardiek.

Hemen, Zegaman, etxea badaukazue, baina betitik Bizkaira joan izan zarete neguan, eta gaur egun ere bai.

F. "Ni hiru hilabeterekin eraman ninduten Bizkaira. Aitona Ferminek Galdakaon erositako ardiak dira hauek. Han segitzen dugu leku berean. Zegamatik hiru joan omen ziren Galdakaora lanera. Negua egitera joanda, han jakin zuten txabola honetako ardiak saltzeko zeudela. Geroztik beti hara ardiak eraman eta han segitzen dugu".

L. Bai, ni 11 urterekin joan nintzen Bizkaira aitona zena eta aita zenarekin, eta ama zegoen hemen (Segurako Madalena baserrian) geldituta. Bizkaian inguruko baserrietakoei hasieran ez nien ulertzen.

Bizkaieraz ere ederki arituko zarete orduan?

L. Beharko. Guk hemengoa egiten dugu, baina hangoa ere berdin-berdin, hangoak bagina bezala.

F. Orain, gu han etxean gaudenean, geure artean guk geure herrikoa egiten dugu beti.

Udako Lanbitako (Urbian duten saroiaren izena da) bizimoduak Bizkaiko neguko kontuekin zer ikusi handirik ba al du?

L. Hemengo bizimodua askoz lasaiagoa da. Nahiz eta hemen ere lan asko tokatzen den. Bai, hemen librexeago egoten da eta han ez dago horrela egoterik. Orain "isterika" bizi zara.

Bizkaian ere gustura egoten gara, baina han lan asko egin behar da, hemen gustura, gero joateko pena. Handik etortzeko ere pena bezala hartzen duzu, ia leku bati hartzen diozu kariñoa eta gero alde egiteak pena ematen dizu.

Mª Paz Oiarbide Larrea

(1968-07-11)

Jose Etxeberria

(1953-03-19)

Mª Paz eta Jose

AITAMARREN ETXEA

"Gaztak etxetik saltzen ditugu eta horretarako Idiazabal Jatorrizko izendapenaren eta Artzain Gazta elkarteko kide gara"

Zuek noiztik artzain?

M. P. Artzaintza beti ezagutu dugu etxean, baina gure kontura ia erabat artzain orain dela 6 urte inguru. Hasieran aita zenari eta amari laguntzen ibiltzen nintzen baina artzaina-artzaina ez.

J. Ni gaztetan ibilitakoa naiz, etxean beti ardi aleren bat edo beste izaten genuen baina gauza askorik ez. Gero txiki-txikitatik ni, etxetik atera, eta hamaika-hamabi urte egiterako, artzain morroi joan nintzen Nafarroara.

Uda non pasatzen duzue?

M. P. Udak beti Oltzen igaro ditugu, gurasoekin lehendabizi eta orain geuk hartu dugu etxeko segida eta udan egoten gara. Oltzen dauden bi txabola berrietatik Aizkorri magaletik gertuen dagoena da gurea. Berria da, berria egin genuen. Datorren urtean bost urte uste dut direla .

Eta negua?

M. P. Negurako orain Idiazabalen dugu artegia eta inguruko larretan ibiltzen dira ardiak. Baina lehen gurasoak Bizkaian izaten ziren neguan. Baina Bizkaira joan gabe geratu zirela orain 14-15 urte izango dira eta geroztik beti hemen (Idiazabalen). Gaztandegia, Zegaman daukagu, hor etxepean.

Gaztak egiten biok ibiltzen al zarete?

J. Bai, gehienetan elkarrekin Bi lagun izanez gero hobea da. Batak moldea sartu eta besteak trapua erantsi eta gero beti garbiago eta azkarrago ere egiten dira gaztak. Ardiak jezten ere elkarrekin ibiltzen gara.

Jetzi ere bai biok orduan?

M. P. Bai. Eskuz jezten ditugulako ardiak. Gure artaldea ez da handia, 150 buru ingurukoa da eta horregatik ez dugu jezteko makinaren halako beharrik sentitzen. Makinaz jezteko aurretik errapea pixka bat garbituta behar dute. Eta eskuarekin ikusbidea edo behintzat horixe ikusten diogu. Eskuz jetziz gero, akats handiena ikusi egiten duzu errapea gogorra dagoen ala ez, odola badagoen edo ez dagoen, garbitasun hori, eskukoa, sentitu egiten duzu eskuarekin. Makinarekin ere bai baina jetzi eta gero ikusiko duzu. Eskuz jezten ari zarenean, konturatu egiten zara esnea noiz bukatu zaion baino motorrari erantsita, esnea eduki edo ez eduki, hura beti tira eta tira aritzen da.

"Ardiak eskuz jetziz gero, arazoren bat badago nabarmendu egiten duzu"

Mª Paz bere gaztarekin

Arkumeak noiz izaten dituzue?

M. P. Ardi batzuek bi umaldi izaten dituzte. Guk batere ez diegu aharirik kentzen, eta horregatik, udan edo udaberrian, ekaina, uztaila aldera garai horretan bigarren umaldia egiten dute batzuk behintzat; lehengo urtean 28ren bat baziren bi umaldi egin zituztenak. Gabonetan arkumea kendu, eta atzera berriz, ekainaren azkenean, berriz arkumea egin zuten.

Mendian lan erantsia suposatu al dezake horrek?

M. P. Lana-lana ez da, atentzio pixka bat ibili behar gehixeago. Mendian arrisku gehiago dauka azari edo horrelakoren batek eraman baitezake.

Zein dira orduan etekin iturri nagusienak?

M. P. Arkumeak eta gazta. Arkumerik ez dugu hazten, urtero ardiak erosten ditugu. Geuk arkumek aurrerako utziko bagenitu orduan bai orduan derrigor izango lirateke 300 bat buru.

Gaztak etxetik saltzen ditugu eta horretarako Idiazabal Jatorrizko izendapenaren eta Artzain Gazta elkarteko kide gara. Horregatik gaztandegi errebisatzera etortzen dira, hauek frigorifikoaak eta nola egon behar diren arauak jartzen dituzte betetzeko, eta ondorioz beti dena ondo eduki behar da gazta ona izateko behintzat

Larrek pagatzeko nola egiten duzue?

M. P. Errenta asuntokoa dirutan gehienetan. Orain badaude larreak gaztak emanaz ere pagatzen direnak.

Segida ikusten al duzue?

Ioritz semea, gaztea da oraindik baina afizioa badauka eta gainera begi ona dauka ardiak ezagutzeko; ikusi egin behar.

Montajes Eléctricos Hernani S.L.

BEYSA

MONTAJES E INSTALACIONES
ELECTRICAS
AUTOMATIZACIÓN Y CONTROL

Donostia Ibilbidea, 66 – nº12
20115 ASTIGARRAGA
(Guipúzcoa)
943 33 13 35 • 943 33 35 32
e-mail: beysa@euskalnet.net

Hasier Agirre Aranburu

Hasier Agirre tolosarra aritu da Zegamako Udaletxean uztailetik azaroa bitartean, Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa (2006-2009) idazten eta baita 2006ko Kudeaketa Plana egiten ere. Bera, Euskal Filologian Lizentziatua da eta Eusko Jaurlaritzak duen Hizkuntz Normalizaziorako Teknikarien lan-poltsatik hartu zen Zegaman lan hau egin zezan.

Hasier Agirre

Erraza izan al da Zegamarako Plan Estrategikoa egitea?

Zegamak oinarri oso sendoa du EBPN burutu ahal izateko: hamar lagunetik bederatzi euskaldunak dira herrian, euskararen maila ona da oso, herriko ikastetxea D eredukoa da, euskara modu naturalean trasmititzen da familietan belaunez belaun, euskalkia indarrean dago eta herritarren eguneroko hizkuntza euskera da hein handi batean. Horrek guztiak asko errazten du egin beharreko lana.

> "Zegamak oinarri oso sendoa du EBPN burutu ahal izateko: hamar lagunetik bederatzi euskaldunak dira herrian"

Zegamako euskera inadarrean dago, beraz?

Bai, baina horrek ez du esan nahi lo hartzeko moduan gaudenik, aski da Gipuzkoako herri batzuetara begiratzea hori ulertzeko: orain 40 bat urte guztiz euskaldunak ziren herriak dezente erdaldunduta daude egun. Oinarri sendoa edukitzea, beraz, ez da nahikoa euskararen osasuna bermatzeko. Ez behintzat kontu egiten ez bazaio.

Zer onura ekarriko du EBPNk?

EBPNk ekintza berriak dakartza herrian euskararen ahozko eta idatzizko erabilera gehiago sendotzeko: euskara ikasteko edo euskaraz alfabetatzeko aukera; merkataritza eta ostalaritza guztiz euskalduntzea; kirol arloan federazioarekiko harremanak euskeraz izan daitezen lortzea; hitzaldi, tailer, jaialdi eta abarrak euskeraz antolatzea; herriko elkarteek euskera hutsean funtzionatzea; administrazioan hizkuntza-irizpideak ezartzea; Zegamako euskalkia bultzatzea eta ikertzea; komunikabideetako euskera indartzea; publizitatea ere euskeraz egitea; edo euskal kulturari laguntzea.

Hobetu beharrekoak ere izango dira oraindik, ezta?

Bai, jakina. Plan estrategikoa hasiera besterik ez da eta gauza asko daude oraindik hobetzeko. Hutsunerik aipagarriena, bat esatekotan, lan munduan nabarmendu dugu. Euskara lan hizkuntza izan dadin lortzea da datozen urteetarako erronkarik handienetakoa. Gaurko gazte ia denek euskeraz egiten dituzte ikasketak EAEn, eta horrek eragina izan behar du derrigor lan munduan. Ez dago aitzakiarik: erabiltzen ez badugu nahi ez dugulako izango da eta ulertzen ez digutelako.

Euskara Biziberritzeko plana

1. Zegamako 2006-2009 Euskararen Plan Estrategikoa: osatua, onartua eta garapen bidean.

Honezkero herritar askok jakingo duzuen bezala, Zegamako Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) burutzeko konpromisoa hartu zuen bere garaian, eta, harrezkero, lanean aritu da helburu hori aurrera eraman ahal izateko.

Zegamako Udalak taxutua eta onartua dauka, jada, datozen lau urteetan udalerrian garatuko den Euskararen Plan Estrategikoa, 2006-2009 epealdirako plan estrategikoa hain zuzen ere. Plan estrategikoaz gain, Udalak burutua dauka, era berean, 2006. urterako Kudeaketa Plana. Aipatutako bi plan horiek Udaleko Gobernu Batzordeak onartu zituen joan den azaroaren 14an, eta, beraz, Zegamako herria EBPN garatzen hasteko prest dago jada.

2. Zegamako Udala elkarlanean, HSPrekin eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzarekin: aholkularitza eta dirulaguntzak

Aipatzekoa da baita ere Zegamako Udala beste erakunde batzuekin elkarlanean aritu dela zeregin horretan. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS) batetik, eta, Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza bestetik, lankide izan ditu Udalak EBPN egiteko garaian. Eta esan beharra dago, gainera, aurrerantzean ere erakunde horiekin elkarlanean garatu beharko duela Udalak, urtez urte, plan estrategikoa. HPSk eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak aholkularitza-lana ere egin dute eta Zegamako Udalari Plan Estrategikoa eta datorren urterako Kudeaketa Plana (2006koa) osatzen laguntzu diote. Horrezaz gain, urteroko kudeaketa planak bere kostua izaten du. Udalak finantzazio-proposamena egiten die Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari, eta kudeaketa planean bertan aitatzen da ekintza bakoitzari aurreikusten zaion aurrekontua. HPSk, berriz, proposamena egokitzat joz gero, dirulaguntzak ematen dizkio Udalari. Dirulaguntza horien ordainetan, HPSk irizpide batzuk edo banaka batzuk betetzea eskatzen dio Udalari, hala nola: Udalaren euskara-aurrekontuak gora egitea, Zegamarako diagnostikoan (Jaurlaritzak egin zuena) nabarmendu ziren hutsuneei aurre egitea edo Udaleko Euskara Zerbitzua sendotzea. Ildo horretatik, esan, honako laguntza hauek emango dizkiotela Zegamako Udalari 2006ko Kudeaketa Plana aurrera eramateko: Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Zuzendaritza Nagusiak 5.000 euro, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 3.000 euro.

3- Euskararen Aholku Batzordea: osaketa, eginkizunak eta egindako bilerak.

Horrezaz gain, Udalak herriko gizarte-eragileei egin zien dei plan estrategikoa osatu ahal izateko. Modu horretan, Udaleko kideek eta hainbat gizarte eragilek Euskararen Aholku Batzordea osatu zuten. Euskararen Aholku Batzordeari esker, gizarte-eragileek euren ekarpenak egin dituzte eta horrek asko lagundu du herrira egokitutako plana osatzeko bidean. Euskara Batzordeak, halaber, badu beste egiteko garrantzitsu bat: ondutako planari urterik urteko jarraipena egitea, hau da, urteko kudeaketa plana betetzen ari den edo ez zaintzea. Hona hemen, Euskararen Aholku Batzordeak egindako bilerak eta gaien zerrenda:

- Euskara Batzordea osatu zen eta Plan Estrategikoaren proposamena aurkeztu zitzaion berorri, 2005eko irailaren 29an.
- Euskara Batzordeko eragileek ekarpenak egin zituzten proposamenaren gainean eta Plan Estrategikoa onartu zen behin-behinean, 2005eko urriaren 13an.
- Euskara Batzordeak behin betiko onarpena eman zion 2006-2009 Plan Estrategikoari eta baita 2006rako Kudeaketa Planari ere, 2005eko urriaren 27an.

Ba al zenekien?

Zegamako ikuspegi orokorra1960-70 ingurukoa

1785eko data duen, Zegamako Udal artxibategiko agiri batean garai hartan Zegamak bi posada (ostatu) zituela diola?

... eta hiru sarrera zituen plaza bat zuela?

... eta agiriak dionez, sarrera bakoitzak landutako harrizko bi piramide zituela eta guztira sei arku zituela?

.... eta plaza, hiru oineko altuera zuen hormaz inguratuta zegoela ?

... Eta garai hartan, Goialde, Barrenaldea, Etxeberria, Olaran eta Dirintia auzoak zeudela?

... eta sei ermita zeudela? Santa Ageda, Santa Barbara, San Bartolome, Santa Kruz, San Pedro eta Elurretako Amarena?

.... eta Elurretako Amaren Ermita San Millango Markesaren jabetzako zela, eta ondoan zuen etxea, peregrinoen albergea izan zela?

.... eta Santa Barbara Ermita ere, San Millango Markesarena zela?

.... eta Santa Ageda, San Bartolome, Santa Kruz eta San Pedroren arduraduna Zegamako herria zela eta beraz, berak konpontzen zituela?

.... eta herriaren erdian Seguraraino zihoan harri-losazko bidea zegoela eta ez kale eta ez portalik ez zuela gure herriak?

.... eta Olaberria, Alzibar, Aitamarrren eta Aurtenolea izeneko lau ola eta hamaika errota zituela?

.... eta garai hartan Zegaman arto ugari zegoela, eta baita, intxaur, gaztaina eta gereziak ere?

.... eta behi eta ardi asko bazegoen ere, zaldi-behorrak gutxi zeudela?

Hona hemen testuaren zati batzuk:

“ ...tiene casco formal y decente de/ ayuntamiento, dos posadas, plaza/ capaz y que eccede a otras del contorno, rodeada/ de pared de tres pies de altura con losas de piedra/ con tres entradas magnificas y en cada una dos especies de pirami/de de piedra labrada con labores, y es un frontis seis arcos elevados de piedra sillar que obstentan majestuosidad... Tiene paseo en el centro de/ pueblo o villa hacia dicha villa de Segura en dis/tancia e un quarto de legua con un piso agrada/ble por hallarse losa de piedra. No tienen por/tales ni calles. Tiene quatro ferrerias llamadas/ Alcívar, Aytamarren, Olaverria y Aurtenolea/ y once molinos./...

...abunda bastante maiz, no asi trigo. Tienen mu//(24 a.)cho ganado bacuno, bayal, lanar. Nada de caballar./ De manzana muy poca Castañas y nuez y cereza con bastante abundancia./.... “

2006 URTE ZORIONTSUA OPA DIZUEGU
URTE BERRI ON !!!
ORMAZPEI, S.L.
APAIZ ETXEAREN
ORUBEAN ETA OLABERRI
AUZOAN ETXEBIZITZA BERRIAK ETA
GARAJEAK SALGAI
SAN JUAN AUZOA 20-LEHENA AXIRI ERAIKUNTZA
AZKOITIA • 943 85 73 54

Antonio Guridi

Elkarrizketa

"Eskolan 90 mutiko ibili ginen eta maisu bakarra genuen guztientzat, baina nahikoa zen gu guztiok zuzen-zuzen ibiltzeko; ez zen orain bezala irakasleari nahi zaion moduan erantzuten"

Noiz eta non jaio zinen?

Arakama baserrian jaio nintzen 1921. urteko urtarrilaren 6ko goizaldean. Beraz, 84 urte beteak ditut jada.

Noiz abiatu zinen eskolara?

Ez naiz oso ongi gogoratzen noiz bidali ninduten lehenengoz eskolara, seiren bat urte izango nituela uste dut, baserritik etorri eta baserrira joan behar nuen eta orduan ez zegoen orain bezalako oinetakorik eta horrelakorik, eta hankak beti bustiak ibiltzen nituen eguraldi txarra zegoenean. Garai hartan urrutiko baserriko umeentzat beka bat zegoen eskolan bazkaldu ahal izateko, eta babarrunak urdaiarekin eta ogi pusketa bat ematen ziren beka horri esker. Baina hori egunean 12-13 mutikoentzat izaten zen eta bertan geratzeko zortea maisuari "pelota" (loxintxa) ondoen egiten zionak izaten zuen, beste gainontzekoak etxera joan behar izaten genuen bazkaltzera.

"Nik ezagutu nuen aita egunean 12 ordu lan egin eta eguneko 6 pezeta kobratzen zituela"

Eskolara etorri egiten ginen, asko ikasi ote genuen ez dakidan arren. Eskolan 90 mutiko ibili ginen eta maisu bakarra genuen guztientzat, baina nahikoa zen gu guztiok zuzen-zuzen ibiltzeko, ez zen orain bezala irakasleari nahi zaion moduan erantzuten.

Orduan pixka bat deskuidatzen zenak izugarrizko pasara izaten zuen. Maisuak zumezko makila bat zuen, makila bigun-bigun bat zen hau, eta horrekin harrapatzen zintuen tokian beldurrik gabe jotzen zuen.

90 umeri ezin zien gizon bakar batek ongi kasu egin, egiten zuena ongi egiten zuen, baina deneri egitea ezinezkoa zen. Aurrean egoten ziren 12ren bat mutiko, denon artean bururik azkarrenak zituztenak, eta hauei bai egiten ziela ongi kasu. Gela oso handia zen eta atzeko muturrean egoten zirenei ez zien ia kasurik ere egiten. Besteoi zerbait irakasten zigutenak aurrean zeudenak izaten ziren, eta gainerakoak, oraindik mutikoak eta jolasean eta gaiztakerian ibiltzen ziren. Nahiz eta maisuak, Don Julian Aseginolazak, hotsa edo zarata ateratzen zuenari egurra ematen zion, errespetua sartzeko-edo. Hark, maisuak, maldizio moduan"caracoles" esaten zuen eta gogoan daukat baita ere nola esaten zuen: "Caracoles, ni maisu izaten ez naizen egunean bi maisuk ere ez ditu hainbeste ume batera dominatuko!". Eta hark baita asmatu ere, orain irakasle gehiago izan arren ez dute lehen bezalako errespeturik jartzen, hura antza emanda zegoen.

Goizean eskolara etorri eta gero etxera joaten zinetenean lan egin behar izaten al zenuten etxean?

Bai, eskolatik etxera joan eta baserriko lanak egin behar izaten genituen. Txerriak zaindu, eta txerririk zaindu beharrik ez baldin bazegoen, gaztainak apartatzen izaten genuen lana, gure etxean gaztaina asko izaten baitzen orduan. Jaten ez genituenak txerriei ematen genizkien. Txerriak zaintzea gure lana izaten zen, gurasoek beste lan batzuk izaten baitzituzten. Nire aitonak eta aitak, berriz, fabrikan egiten zuten lan. Nik ezagutu nuen aita egunean 12 ordu lan egin eta eguneko 6 pezeta kobratzen zituela. Gainera, orduan ez zegoen gizarte segurantzarik eta horrelakorik eta batek min hartzen baldin bazuen, ba min hartuta eta norbait akabatzen baldin bazen, ba akabatuta. Noizean behin izaten zen hildako eta besoak moztutakorik ere, eta han ez zen ezer kobratzen eta ezta ematen ere, Estatuak ordaintzen ez zuelako eta lantegiko nagusiek ere ordaintzen ez zutelako. Azkenerako, errepublika garaian, 1936. urte inguruan eta Gerra Zibila baino lehen nire aita hilean 50 zentimo botatzen joan zen, gizarte segurantza jarri aurretik, zerbaitegatik lanerako gauza ez baldin baziren, elkarte edo sozietateren batek zerbait emango zien esperantzarekin.

Zure aita eta aitona, fabrikan ibili zirela esan duzu. Zuk ez al zenuen izan fabrikan lan egiteko asmorik?

Nik neuk egun bakarra egin nuen Papeleran lanean. Hots egin zidaten egun batean joan nintzen, artean mutil kozkorra nintzenean, behiak zaintzen nenbilen gainera oraindik. Horrela, joan nintzen eta galdegin zidaten ea tubo (hodi) batean sartuko nintzen, aberiatu egin zela eta. Tuboa nahiko handia zen baina gizonak ez ziren kabitzen, eta orduan nire aitak esan zuen ni kabituko nintzela bertan eta han ibili nintzen tubo hori garbitzen. Dena lokatzez betea zegoen eta ez nuen egun ederra igaro. Arropa batzuk labearen gainean lehortu, nik jantzita neramatzanak bustitzen nituenean berriro aldatu eta horrela ibili nintzen egun guztian. Lana amaitu nuenean lantegiko gerenteak zilarrezko 2 duro eman zizkidan eta 13 urte betetakoan lantegian lanpostu bat zain izango nuela esan zidan, bertan apuntatuta utziko ninduela. Eta hamahiru urteak bete nituenean, bere hitza betez gerente hark lanera joateko deitu zidan. Aita zenarekin etorri zen abisua Papelerara lanera joan nahi banuen. Baina orduan oraindik aitona bizi zen, eta hark esan zuen gu baserriko lanak egiteko behar gintuela baserrian, eta aitak, gero ere zerbait izango zela esanez, baserrian bertako lanak eginez jarraitzeko esan zidan. Horrelaxe geratu nintzen baserrian.

"Garai hartan urrutiko baserriko umeentzat beka bat zegoen eskolan bazkaldu ahal izateko. Babarrunak urdaiarekin eta ogi pusketa bat ematen ziren beka horri esker. Egunean 12-13 mutikoentzat izaten zen"

13 urterekin joaten al zinen eskolara?

13 urterekin komunio handia egiten zen eta orduan eskola garaia bukatzen zen.

Handik aurrera zerbait gehiago ikasi nahi zuenak gau eskoletara joan behar izaten zuen. Nik ere banuen bertan zerbait ikasteko asmoa, baina gerra etorri zen eta ezin izan nuen ez ikasi eta ez ezer egin.

Beraz, ikasten jarraitzeko asmoa bazeneukan.

Bai, baneukan zerbait ikasten jarraitzeko gogoa, zeren eskola normalean ez genuen ia ezer ere ikasten. Han 4 erregelak ere gaizki ikasi genituen guk. Handik aurrera ezer gutxi. Geure firma botatzen eta gaizki idazten gehienera ere. Geroztik paperei, idatziei eta horrela begiratuta, azentuak eta bere tokian jartzen ikasi dugu, baina ez eskolan irakatsi zigutelako.

Gero, gerra etorri zen. Ni sei egunengatik salbatu nintzen eta ez nuen soldadu joan beharrik izan. Sei egun lehenago jaio izan banintz, gerrara joan beharko nuen, nire aurreko kinta izan baitzen gerrara eraman zuten azkena. Gerran Bartzelona hartu aurretik gure kintako jende asko hil zen Aragoi aldean. Beste aldekoak konturatu omen ziren atakea (erasoa) egiteko prest zeudela eta urtegi bat lehertu eta erreka ondoan hurrengo egunean atakea (erasoa) egiteko prest zeuden soldadu asko hil omen ziren, hala esaten zuten behintzat. Gu bitarte horretan beldurrak airean egon ginen gerrara soldadu moduan joateko dei egingo zigutela-eta. Gerratik noiznahi etortzen ziren ezagunak hil zirenaren berriak. Gerora kendu egin zuten, baina elizan gerra-garaian hil ziren herritarren izenekin kartel bat egon zen, hemengo lagun asko hil ziren gerra hartan, Gerra Zibilean.

Ni eskolan hasi nintzenean, oraingo Erregearen aitona zegoen errege. Gizon honek orain dagoen bandera berbera zeukan, gorria eta horia dena. Gero errepublika etorri zen, "Republica Popular" zena, eta hark oraingo bandera kendu egin zuen eta arrasto more bat zuen errepublikarren bandera ezarri zuen. Errepublika honek erlijioaren kontra izugarri egiten zuen eta Jesuitak Espainiatik bidali, elizetan gorputzak sartzea debekatu eta bere legeak ezarri zituen, besteak beste.

Errepublikak oso gutxi iraun zuen. Gero lehen aipaturiko gerra etorri zen. Gerra honetan Nafarrak goitik behera etorri ziren. Guk geure baserria utzi eta hemen behean, herrian eduki gintuzten frentea Arrano-Haitzetik Elor-Txikira kokatuta zegoelako. Handik Oazurtzaraino berriz beste aldekoak egon ziren, hau da Gobernuaren aldeko jendea, Arrano-Haitz inguruan zeudenak Gobernuaren kontra altxatutakoak ziren, hau da, Falangistak esaten zitzaienak.

Hemengo jendeak ba al zeukan non borrokatu nahi zuen aukeratzerik?

Ez, ez zegoen aukeratzerik. Behin alde batean geldituz gero, ez zegoen bestera pasatzerik, hau da, kokalekuaren arabera aritzen ziren borrokan, ez pentsaeraren arabera.

Bazen beste bandora pasatzen zen jenderik ere, eta joandakoan ere hala nola ibiltzen zirenak. Ez zen hain erraza muga moduan zegoen frentea pasatzea, alde batetik bestera pasatzen harrapatzen zutena akabatu egiten zuten kontrako bandokoek.

Antonio, bere ilobekin



"Gerora kendu egin zuten, baina elizan gerra garaian hil ziren herritarren izenekin kartel bat egon zen, hemengo lagun asko hil ziren gerra hartan, Gerra Zibilean"

"Gerra zibilean zein alderdietan borrokatu ez zegoen aukeratzerik. Kokapenaren arabera aritzen ziren borrokan, eta ez pentsaeraren arabera"

Zenbat denbora iraun zuen gerra honek?

Hiru urte iraun zuen, 36ean hasi eta 39an amaitu zen.

Gerraren ondoren nola geratu zineten lan aldetik eta?

Nik 16 urte nituen gerra amaitu zenean eta lan aldetik oso gaizki geratu ginen. Hemendik, gerratik lizentziatuta itzuli zen izugarrizko mutil pila joan zen Donostiara eta Pasaiara lanera. Ondoren gu deitu gintuzten soldadutza egitera. Soldadutza egiten 800bat lagun Lizarran egon ginen, etxetik eramandako arropa zaharrak bakarrik genituela, berririk ematen ez zutelako. Bertan, 4 urte egin genituen soldadu gisa.

Eta zer egiten zenuten bertan?

Orduan gerra-beldurra zen handia, zeren gerra-garaian Frantziara alde egin zutenak asaltoa (erasoaldia) egiteko prest zeudenaren hots handiak baitzeuden eta horrek izugarrizko beldurra eragiten zuen. Gu han ibili ginen muga hori dena indartzen Elizondotik hasi eta Errazuraino bitartean, 4 urtez. Mundu Gerra garaian, Alemanak ere gerran zebiltzan oraindik eta Alemanek han aurkitu gintuzten mugan.4 urteak pasa zirenean, berriro etxera itzuli ginen, eta bertan ez geneukan ezer ere, eta lana gogotik egin behar izan genuen. Txerriak zaintzeko ere jada handitxoak ginen, eta horregatik behiak zaindu behar izaten genituen. Segan ere gogotik egin behar izan genuen edota jaulki.

Baserriko lana oso latza zen.

Eta agindu zizuten Papelerako lana?

Ordurako ez zegoen niretzako lanik.

Gerra etorri aurretik eskolan eta baserrian lanean aritzen zinen. Zer zenuten baserrian, zer egiten zenuten?

Behiak eta txerriak genituen. Umeak egiten zituzten, eta hantxe ibiltzen ginen lanean: belarrak sartu, behiei belarra eman, txahalak hazi, haragia egin, haragia harakinari saldu, txerrikumeak hazi, hauek saldu…

Gero jarri nuen makina bat (orduan garia egiten zen hemen mantenua bilatzeko) garia jotzeko eta harekin herri guztian ibiltzen nintzen. Batere balio ez zuen motor batekin ibiltzen nintzen herri guztian zehar gerra ostean onik geratu ez zelako.

Zer egiten zuen makina hark?

Makina horrek ogia egiteko garia jaulki egiten zuen. Hau da, gari alea lastotik apartatzen zuen. Eta bestela

"Emaztegaia Zerainen egin nuen. Gu igandetan bakarrik egoten ginen elkarrekin, eta hori baserriko lanak bukatzen bagenituen bakarrik. Bestela, hurrengo astera arte itxaron behar izaten genuen elkar ikusteko"

Antonio eta emaztea baratzan

baserrietan garia harri baten kontra jo, orain nola ikusten dira beltzak eta ziri batekin egiten, bada horren antzera, baina ziriarekin ez genuen egiten hemen errotak zeudelako, baina aletu harri baten gainean joka egiten genuen.

Gero ezkontzea ere pentsatu nuen. Emaztegaia Zerainen egin nuen eta oinez joan behar izaten nuen bisitan, orduan ez baitzegoen ez kotxerik, ez biderik, eta lauren bat urtean horrela ibili nintzen. Gainera, ez ziren orain bezala bikoteak iluntzetan elkartzen. Gu igandetan bakarrik egoten ginen elkarrekin, eta hori baserriko lanak bukatzen bagenituen bakarrik. Bestela, hurrengo astera arte itxaron behar izaten genuen elkar ikusteko.

1956. urtean ezkondu egin nintzen eta nire baserrian jarri ginen bizitzen. Honen arrazoi nagusia zen ni nengoela baserriaren kargu, aitak Papeleran egiten zuelako lan eta aitona dagoeneko hilda zegoelako. Hantxe baserrian, latz egiten genuen lan: segan egin, belarra sartu, behiak uztarrian lotu eta behiekin gurdiak kargatzen genituen besteak beste. Geroago, zaletasun handia nuenez, saskiak egiten ere ikasi nuen eta negu parte-an asti gehiago izaten zenez, saski batzuk egiten nituen, baina hauek ez nituen inoiz saldu, etxerako eta familiarako egiten nituen. Oraindik iazko urtean Ramon Arrizabalaga Mazkiarangoari eta Joxe Mari Azurmendi Pagoetakoari aritu nintzen saskiak nola egiten ziren erakusten. Lezio batzuk eman ondoren eta ia bukatutzat eman ondoren, berriro joan behar izan nuen erakustera asmatu ezin zutela esan zidatelako. Horrela izan da nire orain arteko bizimodua. Seme-alabarik ez genuen izan eta orain hilobei egin behar izaten diegu ondo.

Zenbat anai-arreba izan zineten edo zarete?

Lau anai-arreba ginen, 2 neska eta 2 mutil.

Aurten hil den Roman eta ni gizonezkoak. Emakumezkoak berriz, Ormazabalera ezkondu zen Gregori eta Frantzian bizi den beste arreba Eugeni.

Eskola edo dotrina zen garrantzizkoagoa?

Orduan dotrina ikasi behar izaten zen. Norbaitek eskolara joan nahi ez baldin bazuen ez zuen joan beharrik, baina dotrinara joatea derrigorrezkoa zen. Dotrina ikasiz gero balio izaten zuen, eta hor egoten ginen mutiko pila bat elizaren goiko aldean dagoen arkupe azpian ilaran jarrita dotrinak eta kantatuz apaiz zahar batzuekin. Gero, errepublika etorri zenean, eskolan dotrina ematea debekatu zuten, baina guk kanpoan ematen genuenean ez zigun inork kasurik egiten.

Orduan ez zegoen dirurik eta behar ere ez zen asko behar.

Baina dendaren bat izango zen herrian.

Bai, baziren dendak. Gainera igandeetan ere zabalik egoten ziren. Garai hartan jendea baserrietatik (batzuek astoekin eta besteak saskitxoekin) jaisten ziren. Mezetara etorri beharra izaten zen eta baserritarrek egun hau aprobetxatzen zuten erosketak egiteko.

Orain Afrikako beltzak bizi diren moduan bizi izandakoak gara gu. Orduan ez zen euliak akabatzeko botikarik, Europako Gerra garaian atera baitzuten, eta udaran ganadu tartean batez ere agoanta ezineko euli pila biltzen zen.

Gure aitona zena nahiko mikoa zen jan kontuetan, eta udan, bazkaltzeko garairako bakoitzarentzat hosto bana ekartzeko esaten zigun eta bazkaltzeko garai guztia hosto haiekin euliak bidali ezinda ibiltzen ginen.

Baserritik kanpora egin al duzu inon lanik zure bizitzan?

Ez dut baserritik kanpora inon lanik egin. Beno, Papeleran lehen aipaturiko egun bakar batean aritu nintzen, eta gainontzeko lan guztia baserrian egin dut.

Orduan ez zen kanpotik orain bezala janik ekartzen eta bertan sortu behar izaten zen jana, artoa eta garia. Artoarekin taloa egiten zen eta gariarekin ogia eta behartsuak ziren baserriak larri ibiltzen ziren, familiak oso handiak izaten zirelako normalean. Milagroak (mirariak) orduan gertatzen ziren, 5-6 lagunetatik beherako familiarik ez zen izaten, 7-8 lagunetik gorakoak gehienak eta haiek guztiak aitzurrean eginda aurrera ateratzen zituzten gurasoek, haiek bai egiten zituztela milagroak (mirariak). Nik ezagutu nuen baso bat ardo, ez basoerdia, orduan basoerdia ez zuen inork eskatu ere egiten, 10 zentimo kostatzen zela.

Nik aita Seguratik etorritakoa nuen, Seguran 18 urte arte bizitakoa. Aitona berriz zegamarra zen. Hau 16 urterekin Donostiara joan zen eta pintxe Santa Katalina zubia egiten aritutakoa zen. Gero han hargin ikasi eta Iruñean San Kristobal zubia egiten aritu zen. Hark esaten zuen Iruñean oso jende txarra topatu zuela lanean. Han metroa nonbait utzi eta beste alde batetara begiratzen bazenuen, berriz lehengo tokira begiratzerako ez zela han egoten. Jende nahastu asko ibili zirela. Oroigarri bat ere utzi zuen. Idatzitako harri bat utzi zuen. Idatziak honela esaten du: "Iturri hau 1934an egin zen. Antonio Guridi Arrizabalaga." Aitona Arrizalgoa zen. Guridi abizena Legazpitik dator eta Gudari esanahia omen dauka. Amerika deskubritu zen garaian, joan omen ziren gudari Legazpiatik bi anaia, eta berriro bueltatu zirenean, bat Oñatira ezkondu omen zen eta bestea Legazpin bertan geratu omen zen. Gudari ibilitako bigarren honen semea, nire aitonaren aita omen zen eta Zupierra etorri omen zen, bertako emaztea hartu zuelako eta bere arreba Intxaustira ezkondu omen zen.

Hemen orduan, jendea oso pobre bizi zen. Ez zegoen modarik, arropa bat izaten baldin bazenuen hura puskatu arte ibiltzen zen eta oinetakoa, berriz, alpargata zen ibiltzen zen oinetakoa. Hura euria eginez gero segituan bustitzen ziren. Abarkak berriz, "kuratu" gabeko behi larruarekin

> "Orduan dotrina ikasi behar izaten zen. Norbaitek eskolara joan nahi ez baldin bazuen ez zuen joan beharrik, baina dotrinara joatea derrigorrezkoa zen"

> "Papelerak izugarri alaitzen zuen Zegama. Madril txiki izengoitia jarri zioten gainera herri honi"

Antonio baserriko lanetan

egiten ziren eta eguraldi txarra zenean, jendea oinetako gogor hauekin ibiltzen zen.

Zer gogoratzen duzu lehenagoko Zegamaz?

Niretzako herri honek zuen berezitasun nagusia oso itsusia izatea zen, baina, aldi berean, oso herri alaia izatea. Papelerak izugarri alaitzen zuen Zegama. Madril txiki izengoitia jarri zioten gainera herri honi. Gerra aurretik musika talde bat ere bazen hemen, eta musikarako zaletasun handia zegoen gainera. Frontoirik ez zen, frontoia nire mutiko garaian egin zuten, baina gero bota egin zuten berria egiteko. Orain frontoia dagoen tokian behiak goldatzeko soroa ezagututa nago ni. Herri hau oso itsusia zen.

Jauregiko horretan errota bat zegoen. Bertara ura oso zikin etortzen zen Papeleratik zetorrelako eta kalean oso usain txarra egoten zen. Oraingo kaleak ez du lehengo kalearen batere itxurarik. Oso desberdina zen, ordutik diferentzi handia egin du herri honek.

Hobea iruditzen al zaizu?

Ez daukat dudarik hobea dela, garbiagoa… Ohituretan ez dakit hobea den. Orain jendea munduak erakusten duen bezala doa, eta orduan hemendik ez ginen inora ere mugitzen. Bizikleta beste garraiorik ez zen eta kaminoak brea bota gabe zeuden. Lehengo kaminoak harrizkoak ziren are pixka bat gainetik botata.

Oporretara edo erosketetara mugitzen al zineten Zegamatik?

Orduan ez zen oporrik, ez zen inor oporretara joaten. Ez zegoen dirurik, jateko ere justu-justu zegoen orduan. 6 pezetekin oso gauza gutxi egin zitezkeen orduan ere. Akordatzen naiz behin gure aitak nola erosi behar zion ardi bat Aierdiko artzainari, zeren nahiz eta urruti egon bizilagunak ginen Aierdikoak eta gu, Aierdi oso aparte zegoen etxe bat zen, eta Aierdira joan zen eta ardi txiki bat ekarri zuen. Ardi hau 5 duro ordaindu zuen eta 6 pezetako soldata batetik 5 duro ordaindutako ardi hark ez zeukan orain izaten diren ardiki txar eta horrelako komeriarik.

Garai hartan 90 zentimoko zerga ordaintzen zen pertsonako eta familiako buruak 20 pezeta ordaintzen zituen.

Gainera herri honetan jende asko bizi zen, baserri asko zeuden eta famili handiak ziren.

Herri bezala ez zen oso handia izango ezta?

Herri bezala ez zen ia ezer. Hau hutsa zen. Hemen lehengo etxe zaharrak orain botatzen ari diren, eta Txurreritik aurreraxeago bide pixka bat zegoen, bertan txerriak eta egoten ziren, horiek etxe zahar-zahar batzuk ziren eta orain Kutxa dagoen etxe horretan baratza handi bat zegoen, eta baita bidea pasa eta Txanton dagoen taberna inguru horretan ere.

Alkaterik eta izaten al zen?

Bai izaten zen, baina ez zen orain bezala herri guztiak aukeratzeko aukerarik izaten. Kategori pixka bat zuen jendea joaten zen herriko alkatea aukeratzera, ez ziren herriko denak joaten, nolabait esateko, izena zutenak bakarrik joaten ziren. Gainera, garai hartan apaizek agintzen zuten asko. Gogoratzen ditudan garai hartako alkateetako batzuk Beuntzeko Anizeto, bat eta Eugenio Aseginolaza ziren. Gero errepublika etorri zenean Maria Arrietaren gizona zen Martin Berasategi izan zen alkate.Gerra etorri zenerako berriz, beste botazio batzuk izan ziren hemen eta Leontzio Garmendia, egin zuten alkate.

Errepublikako garaian uste dut jada denak zeukatela boto eskubidea.

Orduan bizimodu tristea zen hemen, beno, jendea argi bizi zen. Erlijioak zeukan indar handia, bederatziurrenak ere izaten ziren eta gazte-jende asko etortzen ginen, oraingoak ez bezala.

> "Akordatzen naiz, elektrizitatea jarri zen lehenengo eguna nire etxean. Gogoan daukat gainera nola joan nintzen lehenengo bonbila pizten ikustera"

Jai arratsaldetan oso alaia zen herri hau. Plazan bandak musika jotzen zuen eta bizikleta zuen Segurako eta Mutiloako jende asko etortzen zen ona.

Herri bezala oso pobrea zen, baina oso alaia aldi berean.

Eta kaminoak eta nola zeuden?

Kaminorik ez zegoen, errepide nagusia bakarrik. Gainontzeko guztiak gurdibide modukoak ziren eta guztiak lokaztuta egoten ziren. Kalera jaisten ginenean. Kamino nagusiaren ondoraino abarka zaharren batzuk jantzita etortzen ginen eta gero kamino bazterrean zapatak janzten genituen. Nik izan nuen lehendabiziko bizikleta oso zaharra zen eta katea beti aterata ibiltzen nuen. Harekin Seguraraino eta horrela joaten nintzen, baina gero bueltan beti ailegatu ezinik ibiltzen nintzen. Beste batzuetan Legorretara eta inguru horretara ere ailegatzen ginen kamino nagusitik, orduan kamino nagusia oraingo moduan zegoen, baina autobiarik gabe, brea bota gabe...

> "Zegama herri bezala oso pobrea zen, baina oso alaia aldi berean"

Gogoratzen al duzu argia noiz iritsi zen Zegamara?

Ni akordatzen naiz, elektrizitatea jarri zen lehenengo eguna nire etxean. Arakama- azpian ni mutikoa nintzela errota bat egin zuten eta bertan alternadore bat jarri zuten eta honi esker auzo guztiak argia eduki ahal izan genuen. Gogoan daukat gainera nola joan nintzen lehenengo bonbila pizten ikustera. Honen aurretik iluntzetan izaten zen argi bakarra su-argia izaten zen eta behin ohera sartuz gero, ez zegoen orain bezala irakurtzen eta horrelakoetan aritzerik.

Goizetan ere goiz jaiki beharko zineten ezta?

Ez dut uste oso goiz jaiki beharko genuenik, zeren orduan ez zegoen ezer egin beharrik. Pentsatzen dut aita lantegian aritzen zelako goiz jaiki beharko zuela, baina baserrian geratzen ginenak eguna zabaldu arte lanik egiterik ez genuenez argitu arte ez ginela jaikiko pentsatzen dut. Gero bai, eguna argitu orduko hasten ginen ukuiluko lanak egi-

> "Orduan feria animaliekin hileko lehen astelehenean egiten zen plazan. Astelehen horretan jendeak txerriak, behiak, zaldiak eta saltzeko zeukan guztia ekartzen zuen plazara saltzeko asmoz"

Antonioren erlauntzak

ten, garbiketak egiten, animaliei (abereei) jana ematen… eta horrelakoetan pasatzen genuen egun gehiena.

Noiz jaitsi zineten kalera bizitzera?

Orain bizi garen etxea zahartzen ginenean kalera bizitzera jaisteko erosi genuen, zeren, behin zahartuta, baserri zahar horietan bizitzeko izugarrizko hotza egiten baitu. Gainera erosi genuenetik urte asko pasa ziren bertan bizitzen jarri ginen arte.

Asteroko feriarik egiten al zen Zegaman.

Orduan feria animaliekin (abereekin) hileko lehen astelehenean egiten zen plazan. Astelehen horretan jendeak txerriak, behiak, zaldiak eta saltzeko zeukan guztia ekartzen zituen plazara saltzeko asmoz.

Salmenta baino gehiago trukeak izaten ziren gainera, batez ere dirurik ez zegoelako.

Ihauteriak nola ospatzen ziren?

Ihauteriak hemen oso politak izaten ziren. Gazteak taldeetan irteten ziren eskera, eta gero parranda bat egiten zen Ihauterietako Astearte (Martes de Carnaval) egunean normalean. Festa moduko honetan eskean bildutako txorizo, arrautza eta horrelako gauzak juntatu eta prestatzen zituzten eta merienda bat egiten zuten. Eskean guztiak ongi jantzirik, lepoan zapia zutela eta akordeoiaz lagundurik egiten zen, batzuek emandako produktuak biltzeko saskitxo batzuk zeramatzaten bitartean.

Festarako berriz mozorrotu egiten ziren gazteak, aurpegia estalita eta horrelakoak egiten ziren.

Neskarik mozorrotzen al zen?

Gizonak neskaz jantzita ibiltzen ziren egun horretan, baina emakumeek ez zeukaten mozorrotzerik. Orduan hemen kongregazio bat zegoen elizan eta hara zintzo joaten ginen gehienak elizara, baina handik kanpo festaren bat zegoen garaian kongregazioan zegoen neskaren batek dantza "agarratuan" egiten bazuen kongregaziotik botatzen zuten. Aldi berean, mutilei ez zitzaien batere kasurik egiten.

Kongregazioan hilean behin elkartzen ginen gazteen elizako elkarte moduko bat zen. Bertan konfesatu (aitortu), komunioa hartu eta horrelako gauzak egiten ziren.

Gabonak nola izaten ziren?

Gabonetan mutilak oraintxe bezala eskean ibiltzen ziren, baina orain bezainbat jende plazan bilduta eta horrela ez. Jende asko, beno, mutil asko Santa Ageda egunean eskean egiteko biltzen zen makila eta guzti. Kantuak ere oraingoen berdintsuak zirelakoan nago, bai gabonetakoak eta baita Santa Ageda eskekoak ere.

Aste Santuak nola ospatzen ziren?

Aste Santuak hemen oso garrantzitsuak ziren, batzuetan Aste Santu aurretik misiolariak etortzen ziren eta izugarrizko sermoiak egiten zituzten.

Aste Santuetan, berriz, Ostegun Santu egunean Zegaman egiten zen prozesioa eta Ostiral Santu egunean Seguran. Beno, Zegaman ere egiten zen baina bertako gazte-jendea behintzat Segurara joaten zen prozesioa ikustera.

Ostegunean Zegaman Santuak bizkarrean hartu eta prozesioan ibiltzen ziren, Elizatik atera eta Gurutze-Santurako bidea egin eta han buelta hartzen zen normalean. Handik behera etorri eta herriko kaleetan zehar ibiltzen ziren eguraldi ona baldin bazegoen; txarra egiten baldin bazuen berriz eliza barruan egiten zen guztia.

Garai hartan Aste Santuak oso serio hartzen zituen jendeak eta oso jarraipen handia izaten zuten jendearen aldetik. Jendea oso dotore janzten zen eta baserritarrek ere ez zuten lanik egiten, ganadua ez zuten pazkoak arte lotzen.

Orain ez dagoen ohiturarik ba al zen egun hauetan?

Ostiralean ezin zen haragirik jan, beno hori orain ere ala da nahiz eta jarraipen handirik izaten ez duen. Guk orduan, ostiralean hemen geratzen ginen. Koadrilek merienda egiten genuen Abarkeroenea esaten genion etxean. Etxe hau Txurreri ondoan zegoen eta ostatu modukoa zen. Egun honetan gehienean karakolak jaten genituen beste zerbaitekin.

Garai hartan eta gainontzean ere askotan jaten ziren karakolak, nahiz eta orduan ere txuletak gehiago gustatu, baina dirurik ez zegoenez karakolak jaten ziren.

Zegaman ospatzen al zen San Nikolas eguna?

Bai, garai hartan orain bezalaxe umeak ibiltzen ziren kantuan beraien obispo eta guzti.

Santa Ageda eta Gabonetan eskean gazteak ibiltzen ziren bezala, San Nikolas egunean umeak ateratzen ziren kantura.

Gogoratzen al duzu gaur egun ospatzen ez den eta lehen izaten zenuten jai edo festarik?

Adibidez San Pedro eguna, Korpus eguna eta horrelako batzuk izugarri errespetatzen ziren.

San Pedrotan, Goialden dagoen San Pedro baselizan meza egiten zen eta gero festa izaten zen. Festa hau Urtzelaieta baserrian egiten zen, akordeoia jotzen zuten eta gazte jendeak dantza egiten zuen bertan elkarturik. Urtzelaietan lehen taberna zen.

Herrian musika banda ere bazegoen eta jaietan musika jotzen zuten. Hau oso herri alaia zen.

> "Nik izan nuen lehen erlea16 urte nituela oparitu zidaten gurasoek. Erle hau gari aleekin ordaindu zuten zeren diruarekin lortutako erleak ez zuela emaitza onik ematen esaten baizen"

Nola ikusten duzu egungo Zegama?

Nik ikusi, ikusi bezala oso polita ikusten dut. Ordutik diferentzia izugarria egin duena, eta nik gaur ere Zegama oso alaia ikusten dut. Lehen ere Segura eta hauekin konparatzeko Zegama oso zen alaia eta orain ere ala izaten jarraitzen du.

Lehen jaietan jende gehiago ibiltzen zen kalean eta dendak ere irekita egoten ziren.

Zegaman edifizio (eraikin) zaharren bat botatzeak eman al dizu penarik?

Niri nahita botatzen didaten etxe eta edifizioek (eraikinek) ez didate penarik ematen. Niri pena handia behin erortzen ikusi nuen etxe batek eman zidan.

Etxe hau eliza ondoan eginda zegoen etxe bat zen. Gainera, bertan bizi zen jendea barruan zegoela erori zen eta etxearen alde bat bakarrik erori eta beste aldetik atera ahal izan zirelako atera ziren bizirik.

Pena hark ematen du, eta ez nahita botatzen direnek. Gainera, zerbait botatzen denean normalean zerbait berria egiteko izaten da eta gauza berria niri pertsonalki asko gustatzen zait ni zaharra izan arren. Baita ere esan udaletxean izan diren korporazio guztiek pentsamendu eta ideia

desberdin asko izan dituztela herriari dagokionean eta beti zerbait berria egin dutela, baina hoberako izan denez ez daukat batere kexurik.

Erlezain ere bazara.

Bai. Nik izan nuen lehen erlea 16 urte nituela oparitu zidaten gurasoek. Erle hau gari-aleekin ordaindu zuten zeren diruarekin lortutako erleak ez zuela emaitza onik ematen esaten baitzen. Zenbat gari emango zuten ez dakit, edo imi 1 zen edo imi erdi bat. . . (hau pisua neurtzeko erabiltzen zen neurrietako bat zen eta honez gain anega eta lakaria zeuden) hori ia ez dakit. Beno, lehen erle hau ekarri zidatenean erleei buruzko liburu bat lortu nuen eta erleentzako kaxak egin nituen. Handik pixka batera gurasoek oparitu zidaten erle hura galdu egin zen eta handik urtebete ingurura beste erle bat etorri zen nituen kaxa haietara, hark izugarrizko poza eman zidan. Ordutik aurrera beti izan ditut erleak, gehixeago edo gutxixeago, baina beti izan ditut erleak. Gainera udan Partzonerian dagoen Ubiergo Haitzera eramaten nituen.

Zein zainketa mota behar du erleak?

Erleari kasu asko egin behar zaio. Udazkenean eztia ateratzen zaion garaian, berak negua pasatzeko lain ezti utzi behar zaio kaxan, harekin bizi izateko. Erlakumeak izaten dituzten garaian hauek bildu egin behar dira. Kaxetako koadroak (abaraskak) "zera estanpadarekin" (itsatsitako argizariarekin) jarri behar zaizkie, zeren jartzen ez baldin bazaizkie ez dute ongi egiten lana.

Roman, laguntzaile fina izan zuen Antoniok

Niri erlea asko gustatu izan zait beti eta beti esan izan nuen nik baserrian azkena kenduko nituen animaliak erleak izango zirela. Gainera ni hiltzen naizenerako edo ezinean geratzen naizenerako nire hiloba Romantxori dauzkat utzita, nahiz eta hitzez bakarrik utzi dizkiodan. Gainera, dagoeneko laguntzen dit Romantxok eta nik ere laguntzen diot ahal dudan neurrian.

Beste afiziorik izan al duzu?

Ez, beste gainontzean ez dut zaletasun handirik izan. Kirolerako ez dut sekula horrelako zaletasun berezirik izan, ehizarako ere ez. Izan dudan beste zaletasun bakarretako bat saski edo otarrak egitearena izan da baina jada hau ez dut asko egiten bistak laguntzen ez didalako.

Eta orain nire denbora baserrian dudan baratze eta erleen artean pasatzen dut gehienbat.

Jaione Gorrotxategi

BEROLAN NAZABAL, S.L.
BEROKUNTZA SISTEMAK
ITURGINTZA
GASA
Ibabe industrialdea, 26
LAZKAO
Telefonoa/Faxa: 943 888 193
E-mail: berolansl@terra.es

MIKAITZ
ATEAK, TARIMAK ETA ARMARIOAK NEURRIRA
Gudari, 2 - 20400 TOLOSA
Tel.: 943 69 83 48
Fax.: 943 65 35 44
Móvil: 620 91 21 87
e-mail: mikaitzsl@terra.es

TOLDOS Jauregi

INSTALATZAILE OFIZIALA / INSTALADOR OFICIAL
Llaza
CENTRO LLAZAPLUS-ZENTROA
Antzizar auzoa z/g - T 943 880 243 - Beasain

Atzoko Zegama

1. ARGAZKIA

1960 inguruko argazkia da, bertan eliza atzean Olaran erreka garai batean agerian zegoela ikus daiteke. Migel Goiburuk egun San Martin kalean harategia duen etxearen alboan, Labekoa etxea eta Txanbolinpe eta Txokoloneren etxaurreak ikus daitezke argazkian. Horrezaz gain, garai batean Inazio Mari Atxukarrok zuen txabola ikus daiteke (1940. hamarkada aurretik, artzainak egoten omen ziren), ondoren Txantonene atzealdean zegoen horma zaharra ikus daiteke. Argazkiaren erdian, Olaran errekaren mugan zegoen harrizko horma.

2. ARGAZKIA

Orain dela 50 urteko argazkia da. Olaran auzoan zegoen Eskola Zaharraren aurrean aterata dago.

1. Jose Irastorza
2. Jose Manuel Mendizabal
3. Don Julian Aseginolaza irakaslea
4. Sebastian Mendiaraz
5. Jose Tellería
6. Luis Arizkorreta
7. Jose Apaolaza
8. Juan Luis Zabaleta
9. Jose Zubizarreta
10. Joakin Calvo
11. Jose Luis Gorrotxategi
12. Jabier de Prado,
13. Miguel Angel Zabaleta
14. Jose Luis Arakama
15. Jose Ramon Larrea
16. Ramon Otaegi
17. Lorenzo Otaegi
18. Jose Mari Otaegi
19. Jose Antonio Agirre
20. Jose Arrieta
21. Jose Luis Arizkorreta Lazkano
22. Inazio Arakama
23. Juan Berasategi
24. Jose Maria Etxeberria
25. Isidro Lizarazu
26. Jose Maria Goia
27. Benito Gorospe
28. Tomas Larrea

3. ARGAZKIA

Argazki hau 1980 ingurukoa da. Aurrez aurre Jauregi etxea daukagu. Eta egungo egoeraren arabera aldaketak izan direla bere aurrean ikus daiteke. Alde batetik errepidea konpondu gabe dago, hau da lehengo bide zaharra ikus dezakegu, etxearen aurrean zeuden lorategiak ere oraindik bertan diraute Jauregi etxearen atzealdean dagoen etxea ere eraberritu gabe dago, etxe hori 1990. hamarkada bukaeran berritu zen. Argazkiaren eskuin aldean, garai bateko "botika"ren kartela ikus daiteke eta Udaletxearen aurpegia aldatu ez bada ere, Kultur Etxeko parkea bereizten zuen berja oraindik ere ikus daiteke.

4. ARGAZKIA

1980 inguruko argazkia da. Argazkiaren eskuin aldean agertzen den pilotalekuaren zatiak erakusten digu frontoi berria eginda dagoela baina ez ordea Aitxuri Herri Eskola. Frontoiaren ondoren ikusten den etxean Ibarburu sendia bizi izan zen bera bota aurretik, eta etxe honen ertzean, San Bartolome auzora zihoan bidearen ondoan Loren Garmendiak izan zuen bere lehen tailerra. Aurrerago eremu horretan Kaio Atxak eduki zuen zerra ikus daiteke eta zerbait aurrerago, Papelerako teilatua ere somatu daiteke. Argazkiaren ezkerraldean, Andraitzeko etxeak oraindik eraikitzeko daudela ikusten da eta Konfiteria eta ondorengo etxea, gaur egungo egoera berean ikus litezke.

5. ARGAZKIA

Gaur egun Juan Telleria Kalea bezala ezagutzen badugu ere, argazkian bertan ikus daitekeenez, kale horrek lehen Etxeraia zuen izena. Argazkiaren eskuin aldean gaur egun ezagutzen ez dugun txabola edota borda bat zegoen; borda honen jarraian ia plazaraino iristen zen petrilaren hasiera ikus daiteke. Konfiteriko horma ere, lehen nolakoa zen ikus daiteke eta Konfiteri ondoan dauden gizonezkoen ondoan dagoen argindarraren posteak, argazki honek 70 urte izango dituela erakusten du. Aizkorriren aurpegia mendeetan zehar ez dela aldatzen ikus dezakegu.

Konturatuko zarete argazkian dagoeneko izugarria den "sekuoia gigante" zuhaitza falta dela.

6. ARGAZKIA

Zegamar talde bat Manolo Tabernan ikus ditzakegu kafea eta kopatxo bana hartzen. Hona hemen beraien izenak:

1.- Pili Arizkorreta
2.- Inazio Urbizu
3.- Juan Otaegi
4.- Jose Mª Alkaraz
5.- Jose Ramon Alzaga
6.- Pantxo Alzaga
7.- Dorotea Ariztimuño
8.- Jesus Alzaga
9.- Ramon Azurmendi
10.- Inazio Alzaga
11.- Jose Kerejeta
12.- Andres Laskibar
13.- Antonio Alkaraz
14.- Kontxi Arizkorreta
15.- Luis Otaegi
16.- Xanti Azurmendi
17.- Antonio Azurmendi
18.- Manuel Urbizu
19.- Leoncio Otaegi
20.- Jose Arizkorreta

7. ARGAZKIA

Argazki zoragarria da, herriaren eraldaketa ikusi eta ulertzeko. Argazki hau 1970eko hamarkadakoa izan daiteke.

Argazkiaren eskuin aldean, agertzen den miradoredun etxeak gaur egun ere zutik dirau, nahiz eta miradore hau ez duen. Etxe hori eta Konfiterira iristeko zubitxo bat dagoela ikus daiteke Oria ibaiaren gainetik. Aurrerago jarraituz, Andraitzeko etxeak eginda dauden zelai edo soroa ikus dezakegu eta argazkiaren erdian, hain entzuna den Zirkuloa eta Monjen Eskola. Monjen eskola ondoan, lehengo zubi zaharra ikus daiteke, Kooperatiba dagoen etxearen ondoan. Argazkiaren ezkerraldean, frontoi zaharraren hormak ikus ditzakegu, eta garai batean ikastola egon zen etxearen horma. Bestalde, Kaio Atxak izan zuen zerrategia bere zabaltasunean ikus dezakegu.

8. ARGAZKIA

Argazki hau joan den mendearen hasierakoa izan daiteke. Bertan San Adriango koba Nafarroa eta Arabatik asta-saskitan produktuak ekartzeko pasabide bezala erabiltzen zela ikus dezakegu.

Baita ere ermitako atearen ondoan dagoen gizona aduana edo horrelako zerbait kobratzen zuena izan daitekeela pentsa dezakegu jantzita duen arropari erreparatzen badiogu.

9. ARGAZKIA

Argazki hau Jose Maiora Plazan aterata dago 1923an. Argazkiaren eskuinetara gaur egun ezagutzen ez dugun pareta bat dago, honi eta atzealdean ikus daitekeen bailatuari esker plaza itxita geratzen zen eta honen atzean Olaran auzora joateko bidea zegoen. Paretak banku moduko bat zeukan itsatsita eta musika bandak jotzen zuenean eta horrelakoetan jendea bertan eserita egoten zen. Argazkiaren atzealdean berriz gaur egun Kultur etxea den Viana etxea ikus daiteke. Viana etxeak ere aldaketa ugari izan ditu. Bertan ikus daitezkeen leihoak, gaurkoak baino handiagoak dira eta pertsiana zuriak ditu. Bestalde gaur egun magnolio handi bat badago ere, garai hartan palmera bat zegoela ikus dezakegu.

Bestalde argazkian agertzen direnak Azurmendi Aseginolaza (Sakristauenekoak) anai-arrebak dira eta hauek dira beraein izenak ezkerretik hasita: Luzia, Asunción, Florita eta Joxe.

10. ARGAZKIA

1947ko argazkia gutxi gora-behera "Comunión Solemne" izenarekin ezagutzen zen ekitaldia da, hau da, neska-mutikoek 11 urte ingururekin egiten zuten Jaunartze mota bat. Aurretik mutikoak doazela ikus dezakegu eta ondoren neskak txuriz jantzita. Mutiko, nahiz neskek eskapularioa zeramaten paparrean zintzilik eta farmaziaren ondoan dauden emakumezko helduek "mantila" zeramaten soinean. Argazkiaren erdialdean, apaiz bat ikusten da, bera Don Jose Andres Parrokoa da eta horrelako egunetan janzten zuten kapa jantzita darama. Argazkiaren atzean ikusten den ikurriña, elizako ikurriña da. Kultur-etxearen aurrean gaur egungo magnolioa ere ikus daiteke baina Olarango bidea finkatzen zuen petrila, gaur egungo plazan bertan ez da hain ezaguna zegamar guztiontzat. Beraz, ikus daiteke Zegamako plazak lehen petril bat zuela eta Olarango bidearekin muga egiten zuela. Aurreko farmazia zuen etxeak itxura bera izaten jarraitzen du. Etxearen zokalo gisa egun dauden eskailerak ez daude argazkian. Hona hemen argazkian ezagutu ahal izan ditugunen izenak:

1.- Teodoro Arrieta
2.- Jesus Arizkorreta
3.- Juan Jose Arakama
4.- Vicente Larrea
5.- Jose Goia
6.- Antonio Alkaraz
7.- Jose Mari Arizkorreta
8.- Juan Garitano
9.- Maria Agirre
10.- Petronila Arrondo
11.- Pakita Ondargoengoa
12.- Juanita Azurmendi
13.- Jesusa Goenaga

Oharra: Norbaitek argazkian gehiago ezagutuko balitu Udaletxean jakinarazi mesedez.

GABON ETA URTE BERRI GOZO

MEJILIOI ETA ILAR KREMA ONDDO ETA GANBA SALTEATUEKIN

4 LAGUNENTZAT

MENTXU IZAGIRRE

ZEGAMAKO OSTATUA



OSAGAIAK

- 3 tipula
- 2 baratzuri ale
- 200 gr. ilar
- 220 gr. mejilioi
- 1 Cayena piperra
- 100 gr. onddo
- 100 gr. ganba
- oliba olioa
- nata
- gatza

PRESTAKETA

Lehenik, tipula bat eta baratzuri ale bat txikitu, eta zartagi batean su baxuan jarri. Egina dagoenean, ilarrak nahastu eta ondo olioztatu (rehogar). Jarraian ura bota eta egosi gatza norberaren gustura botaz. 10 min. egosten eduki eta birrindu (triturar) eta ondoren nata edo esne-gaina nahastu zure gustura.

Bestetik, tipula bat, baratzuri ale bat eta cayena piperra xehetu, ondoren su baxuan jarri egiten joan dadin. Honi, gehitu mejilioiak erdibituta eta 5 minutuz nahastu. Ondoren nata eta cognac-a bota eta norberaren gustura gatza botaz birrindu.

Amaitzeko guarnizioa prestatuko dugu. Hartu tipula eta zati txikietan egin. Tipula zartagi batean su bizian jarri, eta potxatu ondoren onddoak eta ganbak gehitu. Salteatzen diren bitartean gatza bota. Azkeneko hau guarnizio moduan erabiltzen da.

ON EGIN. ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!!

BAKAILAO ZATIAK

4 LAGUNENTZAT

ADELITA AIZPEOLEA

MADRILGO ZERAIN JATETXEA

OSAGAIAK

- Esnea, 1/4 litro
- Garagardoa, 125 cl
- Soda, 125 cl
- Bi arrautza
- Gatz pixka bat
- Aporeox irina, 1/2 kg
- Gezatutako bakailao-muturrak, 400/500 gr.

PRESTAKETA

Zotz batekin nahastu behar dira esnea, arrautzak, garagardoa eta soda. Ondoren, berriz, irina bota behar zaio pixkanaka nahasketa trinkotu edo loditu arte. Egonean utzi ordu erdiko edo ordubeteko denboran. Bakailaoa zatitu eta 30 bat gr-ko zatiak egin gutxi gorabehera. Arrautza-irinetan pasatu eta zartagian frijitu olio bero askorekin.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

ARROZESNE ETA TXOKOLATE BEROAREKIN BETETAKO KREPAK

4 LAGUNENTZAT

IKER MARKINEZ

ORMAIZTEGIKO KUKO JATETXEA

KREPAK:

- Esnea, litro laurdena.
- Azukrea, 50 gr.
- Azukre hautsa, 50 gr.
- Gurina, 35 gr.
- Irina, 100 gr.
- Hiru arrautza

ARROZESNEA:

- Esnea, litro erdia
- Nata likidoa, basokada bat
- Arroza, 35 gr.
- Azukrea, 75 gr.
- Kanela-zotza, erdi bat
- Limoi-azala, zati bat

Txokolatea, 100 gr.

Gozoki hau egiteko mahai gainean jarriko ditugu osagarri guztiak eta bi taldetan sailkatuko ditugu. Lehenik eta behin arrozesnearekin hasiko gara, hau da, betegaiarekin.

Lehenengo urratsa: Eltzekada ur jarri sutan eta irakiten hasten denean arroza bota, pixka batean nahastu eta egosten utzi 2 minutuko denboran. Modu horretan lortuko dugu almidoi gehientsuena kentzea. Ura kendu eta gorde.

Bigarren urratsa: Esnea, nata, limoi-azala eta kanela sutan jarriko ditugu eltze batean, harik eta irakiten hasten den arte.

Hirugarren urratsa: arroza bota eta egosten utziko dugu, su alperrean eta 20 minutuko denboran. Behin 20 minutuak pasata azukrea nahastuko diogu eta beste 10 minutuan egosten utziko dugu; bitarte horretan, zurezko koilara batekin eragingo diogu. Bol batera isuri eta egonean utziko dugu 12 bat orduan.

KREPAK EGITEKO:

Lehenengo urratsa: Bol batean ipiniko ditugu irina, arrautzak eta azukrea eta gogor astinduko ditugu minutu bateko denboran.

Bigarren urratsa: Esnea erantsiko diogu pixkanaka astintzeari utzi gabe, eta, bukatzeko, gurina berotuko dugu zartagi batean. Desegindakoan, bolera botako dugu eta eragin egingo diogu.

Hirugarren urratsa: Itsasten ez den zartagi bat jarri sutan. Berotzen denean bolean prestatutako orea bota zartagira burruntzali batekin. Masa zartagi guztian zabaldu behar da zirkulu eran. 10 segundo pasata gero buelta eman behar zaio espatula txiki batekin, ondoren beste pixka batean utzi eta platera batean jarri. Horrela egingo dugu behin eta berriz ore guztia bukatu arte.

Postre edo bazkalondoko gozo hau bukatzeko arrozesne koilarakada batekin beteko ditugu krepe guztiak, eta erditik tolestuko ditugu ilargi-erdi tankera emateko. Azkenik, aurrez desegindako txokolatea botako diegu gainetik.

URTE BERRI ON!!!

Sailkatze, artxibaketa eta biltegiratze sistemak
Sistemas de clasificación, archivo y almacenaje
diseinua, aldakortasuna eta bermea / diseño, versatilidad y garantia

Gure fabrikazio-sistemak arabat egokitutako produktua eskaintzea ahalbidetzen du.
Nuestro sistema de fabricación nos permite ofrecerle un producto altamente personalizado.



eun grupo

Estanterías EUN, S.A.

EUN MADRID, S.A.

http://www.eun.es

IRUNBIDE S.L.

• GOMAZKO ZORUAK • HIRI MOBILIARIOAK (MOBILIARIO URBANO) •
• HAUR JOLASTOKI EDO PARKEETAN SEGURTASUNEZKO ZORUAK •
• BELAR ARTIFIZIALEZKO FUTBOL ZELAIAK •

C/ Aldapeta 2 -1º B IRUN - 943 635 277 • irunbide@irunbide.euskalnet.net

ZORIONAK !!!

ZEGAMA OKINDEGIA

OGI NATURALA ETA ERREPOSTERIA

Intxausti eremua 14 G-H pabilioak • ZEGAMA
943 801 066

Zorionak eta Urte Berri On!

2006 urte zoriontsua opa dizuegu

sestra
INGENIERÍA Y ARQUITECTURA

¡Gabonak ondo eta Urte Berri On!

Zuatzu Kalea, 2 - Igeldo Edifizioa 1go Oina - 10. Lokala •20018 DONOSTIA
Tfnoa.: 943 316 655 Faxa: 943 316 273 e-maila: sestra@sestra.es

Goilaser S.A.

LASER BIDEZKO EBAKETA

CORTE POR LASER

¡Gabonak ondo pasa
eta
Urte Berri On!

INTXAUSTI
INDUSTRIALDEA 14
K-L PABILOIAK
20215 ZEGAMA
943 16 25 02

JARDINERIA Y VIVEROS
IKERLORA S.L.

Hidroereinketak
Kirol guneen mantentzeak
Ingurumen arloko hobekuntzak
Jardineritzako landaketa eta lur mugimenduak
Lorategien mantentzeak orokorrean

¡Zorionak!

Lapatx Erreka 20216
ORMAIZTEGI
Telefonoa: 943 160 424

ZEGAMAKO UDALA

LAGUNTZAILEAK:

GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA

kutxa
gizarte ekint -

Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua

Atsegin handiz Euskadi PAIS VASCO Con mucho gusto

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA

ORMAZPEL S.L.
San Juan auzoa 20, lehena
Aiziri Eraikuntza
AZKOITIA • 943 857 354

MANIPULADOS CEGAMA SCOOP
ZEGAMA - 943 80 12 91
e-maila: mzegama@hotmail.com

ZEGAMA OKINDEGIA
Intxausti eremua 14,
G-H-pabilioiak
943 801 066

sestra
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA
Zuatzu Kalea, 2 - Igeldo Edifizioa
943 316 655 • DONOSTIA
e-maila: sestra@sestra.es

BEROGINTZA
ITURGINTZA
GASA
BEROLAN NAZABAL, S. L.
Ibabe industrialdea
LAZKAO - 943 888 193

Mikel Urbiztondo Larrea
IGELTSERITZA LANAK
ZEGAMA - 943 800 424
600 024 508

ATP
LORATEGI ETA URBANIZAZIOTARAKO ARGITERI PUBLIKOA
Ctra. Irun. Km 6. 31194 ARRE
IRUÑA- 948 330 712

GOIERRI AUKERA, S.A.L.
HERRERIGINTZA ETA FORJA ARTISTIKOA ALUMINIOZKO ETA METALEZKO AROZGINTZA
Pol. Industrialdea, 10-11
ORDIZIA- 943 881 407

GAILUR
ERAIKIN BERRIAK
Aseginolaza Anaiak kalean
Informazioa eta erreserbak
699 461 325

ITAISGAMA
AROZTEGI ETA ZERRATEGIETAKO ASPIRAZIOAK
ZEGAMA - 943 802 044
650 420 109

MIKAITZ
ZURGINTZA
TOLOSA - 943 698 348
ZEGAMA - 686 964 725

ERAIKUNTZAK
Construcciones
PEDRO IPARRAGUIRRE, S.L
Kale Nagusia, 48 Bajo - **IDIAZABAL**
943 188 008 - 670 588 472

jolas
HAURRENTZAT PARKEAK ETA HIRIGUNEKO MOBILIARIOA
Maria Etxe Txiki Kalea 19
Apdo 44 • 20800
ZARAUTZ- 943 833 400
www.jolas.net

URBIZU OLOTEGIA
B. GOSATEGI, 33 - **ZEGAMA**
943 801 999 - 629 420 198

TOLDOS Jauregi
Antzizar auzoa z/g
BEASAIN
943 880 243

CAOL
ARGIZTAPEN PROIEKTUAK
Passeig de Sant Joan, 10
08010 **BARCELONA**
93 244 43 43

www.rotulastudio.com
Rotula Studio
Tel. 943 801 244
rotulastudio@rotulastudio.com

LEUNDA
GARRAIOAK-TRANSPORTES
C/ Nagusia, 48 - ORDIZIA
943 881 782 / 608 770 612

ORMAIZTEGI
943 160 424

Goilaser S.A.
LASER BIDEZKO EBAKETA
Pol. Mallutz nº 6-C
ORDIZIA - 943 162 502

GOISYSTEM
APLICACIONES INFORMATICAS, S.L.
Joan Iturralde, 1 Entreplanta
BEASAIN - 943 887 914
943 160 401

FOTOETXE
ARGAZKILARIA
Nafarroa, 23 - **BEASAIN**
943 884 605
www.fotoetxe.com

eun grupo
ESTANTERIAS EUN
Bº Salbatore 17 - Apdo. 82
20200 • BEASAIN
943 882 440

BEYSA
Montajes Electricos Hernani, S.L.
• ***MONTAJES E INSTALACIONES ELECTRICAS***
• ***AUTOMATIZACIÓN Y CONTROL***
Donostia Ibilbidea 66-nº12 • 20115
ASTIGARRAGA - 943 331 335

INAKI GARAJEA
MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA
Guardigain poligonoa - IDIAZABAL
943 187 483

OYARBIDE
ALTZARIAK
AZPEITIA • BEASAIN
OLABERRIA
Bº REKALDE • DONOSTIA

HIRULAN, S.L.
KALDERERIA
Zegamako Industrialdea, z.g.
ZEGAMA
943 800 187

Gorelan GRUAS PUENTE
Pol. Industrial Guardi, nº 26
20213 **IDIAZABAL**
943 801 281

Electricidad INAKI SORALUCE Elektrizitatea
LAZKAO - 943 888 196

doilan ITEGIA S.Coop.
DOITASUNEZKO MEKANIZATUAK
Pol Intxausti, Pab. 14 I - ZEGAMA
943 801 243
doilan@doilan.com

IRUNBIDE S.L.
HIRI MOBILIARIOAK
Calle Aldapeta 2 -1º B
IRUN · 943 635 277
irunbide@irunbide.euskalnet.net

SUMINISTROS ARRANO, S.L.
BOBINADO - AISLAMIENTO
Pol. Intxausti, 14 E y F
ZEGAMA · 943 800 058

INVERSIONES BIDELAN, S.L.
TOLOSA - 943 697 416

Zegamako **Ostatua**
TABERNA, JATETXEA TA LOGELAK
San Martin 3- ZEGAMA
943 801 051

GORITZ GARAJEA
IBILGAILUEN KONPONKETA MEKANIKA
Barrenalde Auzoa 2/6 - **ZEGAMA**
943 801 311 • 653 709 648

OTZAURTEKO BENTA
ZEGAMA - 943 801 293

Carrefour
GOIERRI - OIARTZUN

ERAIN
• **TOPOGRAFI LANAK**
• **ERREPLANTEOAK**
• **INGENIERITZA ETA ARKITEKTURA PROIEKTUAK**
Zorroaga Paseabidea 17 bajo - 20011
DONOSTIA- 943 470 903